

## ***SEDUZITZAILEAREN EGUNKARIA***

**Kierkegaard**

### **Hitzaurrea**

Beharbada hitzaurretutako obraren lehen irakurraldi baten ondoren bakarrik irakurri beharko lirateke hitzaurreak, hartara bigarren irakurraldi bat ahalbidetuz, ikuspegi berri batetik egina, informatuagoa izango dena, nahiz lehena bezain bizia ez izan. Oraingo kasuan hitzaurreak bideratutako irakurketa eta garai hartako lehen irakurleek egindakoa derrigor errotik desberdinak izango dira, eta aurretiazko informaziorik gabe liburuaren hartzaren duen egungo irakurleak egindakoa ere nahiko desberdina izango da.

Izan ere, lehenik eta behin, *Seduzitzailearen egunkaria* ez baitzegoen bakarrik eta modu bakanez argitaratzeko pentsatuta. Ez, “txinar kutxa” edo “errusiar panpina” sorta konplexu baten zatia izan behar zuen, eta da, *Enten-Eller –Hau ala bestea--* izeneko liburu barruan, honen bi liburukietako lehenengoaren azken pieza moduan. Bertan esaten da *Egunkaria* norbaitek aurkitutako eskuizkribu bat dela, bereak diren zenbait piezaren ondoren aurkeztua. Apunteen egileak Johannes du izena, modu oso egokiz, Don Juan-en, edo are hobeto, Kierkegaarden kuttuna zen Mozarten *Don Giovanni*-ren erreferentzia gardena baita. Lehen liburuki hori guztia “A” soil batez izendaturiko eta itxuraz jite estetikoaren duen gazte bati egozten zaio; bigarren liburukia, berriz, “B” delako batek, William izeneko epaile oso zorrotz batek idatzia litzateke; horrek gutun izugarri luzeak idazten omen zizkion “A”-ri errieta eginez, ondorio gisako testuren bat gaineratuz. Obra bikoitz eskerga hori Kopenhagen argitaratu zen 1843an, autore-izenik gabe, eta ustez Victor Eremita –“Garaile Ermita”-- delako batek argitaratua. Horrek kontatzen du hitzaurrean nola aurkitu zituen izkribu horiek guztiak, identifikatzerik izan ez zuen pertsona bati erosi berria zion altzariaren ezkutaleku batean.

Multzo honi jarritako izenburu harrigarriak grazia galtzen du hizkuntza erromanikoetara itzultzen denean. *Enten-Eller* jatorrizkoan, *Entweder-Oder* alemaneraz, *Either-Or* ingelesez, *O-O* behar luke izan espainieraz (latinez argiago geratzen da hautapena *Aut-Aut* bidez). Euskaraz *Hau ala bestea* izan liteke; kontua da argi geratzea badagoela hori dilema bat, alternatiba bat. Unamunok, Kierkegaardek Espainian izan zuen lehen irakurlea, eta onena, *O esto o aquello* aukeratu zuen, bere testu batzuen izenbururako –*Contra esto y aquello*-- aldaketatxo bat eginez. Ez genuke ahaztu behar Unamunok Ibsenen *Brandt* irakurtzeko ikasi zuela daniarra (izan ere, bertako protagonistak badu nolabaiteko antza Unamunorekin), baina ustekabearen topatu zuen “nire anaia Kierkegaard” deitutako zuena. Salamancako bere liburutegian kontserbatzen dira, berak ertzean eginiko oharra eta guzti, daniar handiaren *Samlede Voerker* obra osoaren liburukiak. Unamunok oso ondo ulertu behar izan zuen erotikako dilemaren zentzu hori, Kierkegaardek Hegelen dialektikari kontrajartzen ziona, azken horretan antitesiak maila garaigoko sintesietan askatzen baitziren.

Baina itzul gaitezen oraingo *Seduzitzailearen Egunkaria* hau zati bat baino ez den liburu konplexura; gaur egun harrigarria egiten zaigu nahaspila bikoitz (edo hirukoitz, edo lauukoitz) hori modu anonimoz argitaratu izana, eta bere herriko eta bere hiriko publiko urriaren artean autorea nor zen inork jakin ez izana, bere beste liburu batzuk agertu ziren arte –haietako batzuk ezizen berriekin, beste batzuk bere izenaz sinatuak--; eta hori nahiz eta liburuaren azalean inprimatzailearen eta Unibertsitateko liburu-saltzailearen izena aipatu. IFZ eta BEZa nagusi diren gure garai honetan hori sinestezina

litzateke; une eta leku hartan, inprimategiarekin bitartekaritza lanetan jardun zuenak, sekretua zekien Kierkegaarden adiskide bakarrak, asmatu egin zuen enigmak liburuaren interesa areago zezan utziz. Gauzak gehiago korapilatzeke, autorearen beste zenbait liburutan iradokitzen da *Hau ala bestea*-n agertzen diren piezen sortzeak ez zuela liburuan agertzen den orden bera segitu: honen arabera, bigarren zatia gutxi gora behera, William epaileari, edo “B”-ri egotzitakoa, aurretik idatzita zegoen, nahiz jadanik zuzenduta egon gero “A” izena eramango zuenari. Azken horri dagokion zatian, litekeena da *Seduzitzailearen egunkaria* beste zenbait piezaren aurretik idatzi izana – *Diapsalmata* aforismoak, lehen begiratuan, beste edozein baino lehenago idatziak iruditzen arren--.

Nor zen eta zer zen konplexutasun honen guztiaren antolatzaile? *Seduzitzailearen egunkaria*-ren bitartez ez genuke inoiz irudikatuko nolakoa zen Søren Aabye Kierkegaard autorearen nortasuna; testu honek hain zuzen eraten du bere obra barruan, ez “osagarria”, Machadok ematen zion zentzuan, bere autorearen giza errealitatearen “alderantzizkoa” baizik. Areago, Johannes protagonista kontrako polotzat har genezake; hortik abiatuz, zenbait “ezizenpeko” autorek, obra honetan bertan eta ondoko besteetan ere, gero eta gardenago bihurtuz doaz gizon honen maskara literarioak. Izan ere, autoreak –eta esamoldea berea da-- “ezkerraz” eskaintzen zituen halako liburuak, “eskuinaz”, eta benetako izen-abizena erabiliz, “diskurtso eredugarriak” idazten zituen bitartean, asko izan arren kontuan gutxi hartzen zirenak. “Gizakiak salbatzearen”, idatzi zuen behin Kierkegaardek, “seduzitu egin behar dituzu”, eta horixe egin nahi izan zuen bere “seduzitzailearen” bidez eta, modu are anbiguoagoaz, “ezizenpeko” beste testuez. Horregatik, *Seduzitzailearen egunkaria* Kierkegaard kristau handiaren pertsonarengana hurbiltzeko bidetzat hartzea interpretazio guztiz makurra izango litzateke.

Kasu honetan, beraz, autorearen bizitza errealari buruz informatzea oso egokia eta oso arriskutsua da aldi berean: batetik egokia, berak beste inork baino gehiago azpimarratu zuelako hizkuntzak “birbikoizketa” pertsonala den neurrian bakarrik balio duela, alegia, erabiltzen duenaren bizitza euskarritzat duen neurrian –termino gramatikaletan, subjuntibo edo baldintzan geratu gabe (“izan, edo egin nahi nuke”), indikatiboa bereganatuz baizik (“naiz, egiten dut”). Bestetik arriskutsua, bere biografiak –batez ere aita izugarriari eta emaztegai iragankorrari dagokienez-- kristautasunaren lekukotasun hutsa izan nahi zuena arazo pribatutzat har lezaketen interpretazio psikologiko eta psikoanalitikoetarako aukera gehiegi ematen dituelako.

Søren Aabye Kierkegaard (“Søren” “Zorrotz” da; “Kierkegaard” berriz “Kanposantua”) 1813an jaio zen Kopenhagen. Aitak garrantzi handia izan zuen beragan; ama, berriz, ez zuen inoiz ere aipatu, ondoren ezagutuko ditugun arrazoiengatik. Bere aita, txikitan, artzain behartsua izan zen Jutlandiako lautada idorretan, harik eta –gero aipatuko dugun pasadizo baten ondoren-- senitarteko batek deitu zion arte galtzerdi-negozio batean parte hartzera. Gerora negozioa bertako zein kanpoko mota guztietako gaietara zabaldu zen, halako arrakastaz non 1796an, berrogei urte zituela, negozioa utzi eta errenta galantetatik bizi ahal izan zuen. Lehenengo emaztea berrogeita bi urte zituela hil zitzaion, haurrik eman gabe. Hartatik urtea bete gabe, alarguna osteria ezkondu zen, etxean zegoen neskame ahaide-edo batekin; handik lau hilabetera alaba bat eman zion, eta ondoren zenbait seme, txikitan edo hogeita hamalau urte bete baino lehen hil zirenak, bi salbuespenekin: Peter, Danimarkako prelatu goren gisa zahartu zena, eta gazteena, Søren, amak berrogeita bost urte eta aitak berrogeita hamasei zituztela jaioa,

berrogeita bi urteetara iritsiko zena. Horrek guztiak pasadizo hutsa irudi lezake, baina gehixeago ere bihurtuko da. Sørenek esan zuen behin baliorik gabeko billete asko jaulki ziren urte berean jaioa zela; izan ere, Napoleonen aurkako gerlan inflazio handia izan zen, ezer errespetatu ez zuena, haren aitaren koroa-tituluak izan ezik. Haren haurtzarotik aipatzekoa da zuhaitz batetik erori zela, bizkar-hezurra okertuta geratu zitzaionlarik; horren ondorioz, sarri izan zituen eragozpenak bizitza osoan barrena, eta zango-mekanismoan ere halako desegokitzapenen bat geratu zitzaion, janztean zuen dotoreziarekin kontraesana sortuko ziona. “Kortsarioa” astekari satirikoak Kierkegaarden prakak karikaturizatu zituen, jendearen iseken biktima bihurtuz; burla haiek, zinez bere jeinu pertsonalaren aurkakoak, xelebretzat jotzen baitzuten, heriotzara eramanean zuten, berak aurrean zuen bezala “antzarek zapalduta”.

Sørenen aitak erlijiozkotasun sakon eta ilunezko giroa ezarri zuen etxean; bertan askotan mintzatzen zen garai hartako Mynster apezpikuarekin, harekin –eta beste batzuekin ere-- eztabaida teologiko sakonetan sartuz. Søren txikiak mirespenez jarraitzen zituen eztabaidok, aldi berean “ezagutu dudak gizon malenkoniatsuentzat” zuen aita eta maisuaren aldarte ilunaz kutsatuz. Halako hezkuntza baten arriskua, gero bere paperetan, bere aita aipatu gabe, idatziko zuen bezala, zen “haurrak ia-ia derrigor ondorioztatu behar zuela Jainkoa, azken batean, ez dela maitasun amaigabea”. Ez da, beraz, harritzekoa unibertsitate garaia iritsi zitzaionean Søren Teologian matrikulatzea, baina ez da harritzekoa ere kurtso humanistikoetan interes handiagoa izatea, eta ikasle aberats moduan jardun zuen hamar urteetan nabarmentzea, nola bere dotorezia eta puru onengatik, hala solasean lortzen zuen distira eztenkariagatik.

1833tik aurrera Søren bere apunteak biltzen hasi zen, bere *Egunkaria* –edo hobeto, *Paperak*, data gutxi baitaramatzate-- osatuko zuten testu-kopuru eskerga –zazpi mila testu-- osatu arte. Hau da inondik ere obra nagusia, bera hil ondoko hamarkadatan argitaratu gabe egon zena. Lehen urteetako apunteak gutxi dira, batez ere 1835-37 epean, bere “hondamenezko garaian”.

1834an ama hiltzen zaio Søren. Garai hartan urruntzen hasten da aitarengandik eta apezpiku bihurtuko zen Peter bere anaia zaharrarengandik. Famili tentsioa krisi erlijioso batekin nahasten zen; ziur aski urte hartako udazkenaren eta hurrengo udaberriaren artean hurbiltzen hasi baitzen bere aitarekiko harremanean jasango zituen “lurrikara” bietatik lehenera: alegia, jakin zuela lehen emazteaz alargundu eta berehala, aitak bortxatu egin zuela neskame ahaidea, laster berarekin ezkonduko zena eta semeen artean gazteena Søren emango ziona. Orain uler daiteke zergatik ez zuen bere idazkietan behin ere aipatu. Gainera, aitak “nire emaztea” esaten zuenean lehen emaztea esan nahi izaten zuen. Dreyerren film baten aurrean gaudela dirudi, eta ulergarria da bekatu hark aitaren erlijiozkotasun iluna finkatzen lagundu izana; Sørenek begi urrunduez ikusten zuen erlijiozkotasun hura, oraindik ere bere fedearekin hautsi gabe. 1835eko ekainaren 1ean idazten du beretzat garrantzitsua dena hauxe dela, “Jainkoak nik zer egitea nahi duen sumatu; niretzako egia izango den egia aurkitu”. Baina urte hartako urrian kristautasunetik oso urrunduta dabil, filosofia-ikasle gisara eta ikuspuntu humanista eta nietzschearen *avant-la-lettre* bat erabiliz; bere ondorengo obra izango denaren justu kontrakoa, horretan filosofia handiari, Hegelenari, bere malgutasun dialektikoaz dena barne hartu nahi duelako, baita kristautasuna ere, honi bere funts errotikakoena kenduz garapen abstraktu unibertsal baten elementu bihurtzeko. Hala ere, Kierkegaardek gero aitortuko zuen garai hartan fede kristauari aurre egitera bultzatzen zuenak, azken finean, ez zuela filosofiarekin zerikusirik; ez zen ukapen intelektual bat,

koldarkeria baizik, “errotikako sendabide” hura, etengabe ematera deitua sentitzen zen “herio-jauzi” hura, ahalik eta luzeen atzeratu nahia. “Bekatu oro hasten da beldurretik”, esango zuen gero (1843ko maiatzaren 17an), beldur hori obeditzeari eginiko erresistentzia delarik, edo *Gaixotasun hilgarria*-n esango zuen bezala, “etsi-etsian norbera izan nahi izatea”. 1836an iristen da Kierkegaard “hondamendizko” une nabarmenenera: intelektualki esteta da, bizitza-gozatzailea, axolagabetasun poetikoan murgildua, *Hau ala bestea*-ko “A”-ren modura. Baliteke P.S. Möller eta Jörgen Jørgensen bere adiskideek –lehena, *Egunkaria*-ko “seduzitzailearentzako” eredu-- nolabaiteko sexu-hondamendira herrestatzea. Bere paperetan zeharka aipatuko zuen hori gizon bat deskribatzen zuenean, behin batean prostituta batekin egon ondoren, bizitza osoa kaleko umeei adi begira eman zuena, haietakoren bat bere semea izan zitekeelakoan.

Baina estetikotasuna etsipen modura agertzen hasten zaio, eta pixkanaka eboluzionatzen hasten da, ez fede zaharrera –eta bere aitarengana, nahi bada-- itzultze hutsaren norabidean, baizik eta fede kristaua benetan izango litzatekeenaren onespen atzeratuaren aldera, haren itsaso ilunean murgiltzeko. Pascalek bezala –gaur egun bere aitzindari nagusitzat hartzen duguna--, Kierkegaardek, 1838ko maiatzaren 19an, “zorion deskribaezinezko” esperientzia du –errebelazio mistiko berezirik gabea baina--, bere paperetan idazten duena, eta guztiz eraldatuta uzten duena. Urte horretako uztaillean berriro jaunartzen du; abuztuan aita hiltzen zaio, baina hil aurretik errebelazio bat egiten dio semeari, honen bigarren “lurrikara handia” eraginez, lehena baino larriagoa, baina aitak eta semeak bat eginda askatzen dutena. Umetan, lehen esan dugun bezala artzain behartsu izan zenean Jutlandiako lautada idorretan, egun batean muino txiki batera igo eta ozen biraoka hasi omen zen halako bizitza gogorrera abandonatuta zeukan Jainkoaren aurka. Handik gutxira –orobat esan dugun bezala-- senitarteko merkatari batek bere negozioan lan egitera deitu zion, eta hartan lortu zuen hain modu harrigarriro azkarrean erretiratzea ahalbidetu zion ondasuna. Bere aberastasuna haurtzaroko blasfemiaz mendekatzeko jainkozko modu sotila zela susmatu zuelako erretiratu ote zen? Segurutzat jo daiteke semeari egindako aitorpen *in extremis* hark azken besarkada batean batu zituela; Kierkegaardek askoz beranduago arte ez zuen aipatu bere paperetan. Beste dokumentu batean badago aipamen bat, Lear errege shakespearearra hil baino lehenago Cordelia alabarekin berradiskidetzen deneko bertsoen bidezkoa. Aitaren heriotzatik egun batzuetara Kierkegaardek ondokoa idatzi zuen: “Niganako sentitzen zuen maitasunak eragindako azken sakrifiziotzat hartzen dut haren heriotza”.

Gero Kierkegaardek, hogeita bost urte zituenetz legez nagusi, aitaren etxe eta ondasun oparoen oinorde, bere idazle-lana ondasun haietaz ordaintzea erabakitzen du: itxuraz bizimodu berean jarraitzen du, solaskide elegantea kafetegietan, munduaren begietan pasealaria izanik ikasteari emandako pertsona baino gehiago; baina bere konpromiso erlijioso handiaz gain, ezkutuko penitentea izan ez ezik, dagoeneko ez du aitzakiarik aitak beregandik nahi zuena xede onera ez eramateko, hots, teologian lizentziazteko, nahiz horrek Danimarkako eliza luteranoan erretore lanbidea aukeratzea eramango ote zuen oraindik erabaki gabe izan. 1838ko irailean estreinatu egiten da autore bezala: panfleto bat da, bere borondatearen aurka argitaratua, Andersen nobela bati buruzkoa, *Oraindik bizirik dagoen baten paper hil ondokoak* izenburua daramana. Kierkegaardi ez zaio iruditzen bere zaletasunak eta bizimodua alde batera utzi behar dituenik: “erlijiozkotasunak ez du estetikotasuna indargabetzen, tronugabetzen baizik”.

1838ko udazken horretatik 1840ko uztailean teologian graduatzen den arteko bolada ikasketa sakonezkoan, Kierkegaardek ariman sartzen uzten dio gizatiarra izan arren bere fede-bizitzarekin guztiz bateragarria den zerbaiti: maitemindu egiten da Regine Olsen hamalau urteko neskatoaz; errespetuak bultzatuta, ez du horren erlijiozkotasun maila aztertu nahi, baina oso aproposa iruditzen zaio, are pastore luterano baten emaztea izateko ere. Edonola ere, bere ikasketa-prestaketetan buru-belarri murgilduta, ez du inolako presarik erabaki e zein konpromisorik hartzeko. Bitartean dudatan dabil bere patuaz, orain bere apunteetan “Regina” –“erregina”-- deitzen dionari buruz idazten duenean: “Hemen, lurrean, aurkituko ote dut bilatzen ari naizena? Nire bizitzako premisa bitxien amaiera ezagutuko dut, nire besoetan estutuko zaitut, ala... AGINDUAK “AURRERA” DIO?”.

Graduatu berria, Kierkegaardek bere aitaren haurtzaroko lekuak ikusten ditu; irailean itzultzen denean Regineren aitari, Olsen kontseilariari, igortzen dio bere maitasun-aitorpen handia, eta honek ez du eragozpenik jartzen. Baina idazlea berehala konturatzen da hutsegitea izan dela eta konpromisoa bertan behera utzi beharko duela. Zerbait arrazoi aipatzen ditu, guztiak elkarrekin bateragarriak: esaterako, bere emaztegaiari aitaren bi sekretu handiak desestali nahi eza; areago, bere “malenkonia” saihestezina, bere barnekotasuna beti transzendentziara zuzendua –agian horri deitu ohi dio “haragian sartutako eztena”, termino pauliarra erabiliz--. Aurrerago, argitasun osoz esango du bere apunteetan arrazoi nagusia: famili zoriona bi mila urte lehenago gizon bat gurutze batetik zintzilikatu izanaren gainean oinarritzeak ez duela inongo zentzurik. Bokazio erlijioso osoa, batez ere apaiz izanik, bere kasu pertsonalean bateraezina iruditzen zaio ezkontza eta aitatasunarekin. (Apaizen zelibatoaren apologia hori alderdi bat besterik ez da, beste askoren artean, protestante ugarik Kierkegaardi katoliko izatea aurpegiratzeko; Karl Barth kalbinista handia, batez ere, adjektibo hori ezarriz urruntzen da Kierkegaardengandik, nahiz eta zentzu askotan Barth XX mendeko kierkegaardar teologo nagusitzat har daitekeen). Baina berak ezin zizkion kontzientzi arazo horiek bere emaztegaiari aurkeztu eta, zenbait alternatiba eta duda-mudaren ondoren, urte bete beranduago Kierkegaardek Reginari eraztuna bihurtzen dionean, honek eta bere familiak ez dute haustura onartzen. Berriro ere, ikasketek errealitatea berandutzeko balio diote, eta egoera horretan jarraitzea erabakitzen du harik eta 1841eko irailean bere *magister* tesia aurkezten duen arte, *Ironiaren kontzeptua*, *Sokratesen aipamen bereziarekin*, segituan liburu mardul batean argitaratuko zena. Orduan Kierkegaardek formalizatu egiten du haustura, nahiz eta Reginek, belaunikatuta eta Kristoren izenean, ez uzteko erregutu. Azken elkarriketan, Kierkegaard hasten da alferrik probatuko duen koartada aplikatzen, alegia, Regineri sinetsarazten gizon lizuna dela, eta halako txoriburuarekin hautsiz ez duela ezer galduko. Reginek galdetzen dionean “Ez al duzu inoiz ezkondu behar?”, berak erantzuten dio “Tira, hamar urte barru, bizitza ondo gozatutakoan, gaztetuko nauen neskato politen bat bilatu beharko dut”. Esan izan da Kierkegaard emakume bati ordaintzera iritsi zela, bere amorantea zelako itxurak egin zitza; nolanahi ere, ez zuen Regine engainatu. Baina azken batean Kierkegaardek aurreikusita zeukan zer gertatuko zen: neska, garrasi ugariren ondoren, kontsolatu egingo zen azkenean; bera, berriz, uko egitearen min ezabaezinarekin geratuko zen. Behin baino gehiagotan aipatu zuen *Eneida*-ren bertso bat, “Regine”esan ordeztu “regina” esanez, neskaz pentsatuz: *Infandum iubes me, regina, renovare dolorem*, “min esanezin bat berritzea eskatzen didazu, erregina”. (Eta bai, Regine beste batekin ezkondu zen; Kierkegaardek ez zion inoiz utzi bera maitatzeari, baina ezin izan zion argitu urruntzearen benetako arrazoa, horrek Regineren ezkon-zorionean eragin txarra izan zezakeelako).

Egoera hartan, bere hiriko klase garaiko mundutxoaren aurrean, Kierkegaardek egin zezakeen onena desagertzea zen, eta horixe egin zuen, Berlinera abiatu, Schelling zaharraren ikastaroan parte hartzeko ilusioarekin; garai hartan hori, agintearen txalo eta animoarekin, erauzi nahian zebilen behialako prusiar filosofo ofizialaren “herensuge-hazia”, orain hain aldatuta zebilen Schellingengatik ikaskide izandako Hegel zenarena, alegia. Izan ere, Kierkegaarden etsai nagusia hegeliar Sistema Handia zen, guztia arrazoiaren garapenean biltzen zuen etxe-erraldoi idealista handi hura; Schellingek, berriz, belarrietara iristen zitzaionaren arabera, “errealitatea” defendatzen zuen. Hala ere, Kierkegaard luze gabe desengainatu zen idealismoaren ustezko desertore berantiar hartaz, eta 1842an itzuli zen Kopenhagera nobelatxo psikologiko baten *–Errepikapena–* lehen zirriborroarekin, eta *Hau ala bestea* bezala argitaratuko ziren paperak liburu formapean osatu eta antolatzeko asmoz; hau da modu idealez Regineri dedikatutako obren artean lehena –denak dedikatuko zizkion, nola edo hala–, eta orain aurkezten ari garen *Seduzitzailearen egunkaria* honetarako testuingurua. Abagune horretan, ulertu egiten da liburu osoaren irudizko prestatzaile eta editoreari egozten zaion ezizenaren esangura: “Victor”, “garaile”, Kierkegaardek Regineri uko eginez bere burua garaitzen zuen heinean; “Eremita”, “ermitaua”, bakardadean geratzen zen heinean.

Orain apur bat gehiago zehatz dezakegu *Hau ala bestea*ri buruz hasieran esandakoa: zenbait zeharkako datuk paradoxa handi bat iradokitzen dute, alegia, Kierkegaardek idatzitako lehen pieza, Diapsalmata aforismoak alde batera utzita, William epailearen *Ezkontzaren balio estetiko*a-ri buruzko gutuna (bigarren liburukian agertzen dena) izan zela, eta bere ezkontza-proiektuaren deuseztapena gauzatzen ari zen garaian bertan idatzi zuela. Hau da, ezkontzeari uko egiten zionarekin batera, azpimarratzen ari zen ezkontzaren balioa, ez etikari dagokionez bakarrik –izenburuak dioten bezala–, baita etikari dagokionez ere, bizitza osorako konpromiso erabatekoa denez, eta are erlijioari dagokionez ere, jatorrizko zentzu kristau batean, nahiz eta fede kristauan dagoen berezien eta errotikakoena, “paradoxa” eta “erabateko ukoa”, azpimarratu gabe utzi, Batek duen irudipena da William epailearen bi gutunen eta azken otoitz sutsuaren ondoren, “ultimatun”-ean, bigarren liburuki horretan, Kierkegaardek argi ikusi zuela gutun hauen xedeari, “A” delakoari, gorputza emateko komenientzia, eta horretarako haren testuak eskaini zituela; ez ziren, ordea, obra honen dialektika kontrajarriak eskatu beharko lituzkeenak bezain testu estetizante eta friboloak. Oro har esan daiteke testu hauek, itxuraz “A” ez zen beste norbaitek idatzitako *Seduzitzailearen egunkaria* ere barne hartuz, aje bat dutela, hots, eren berritsukeria korapilatsuak azkenean aspertu egiten zaituela. Puntu honetara iritsita, ondo legoke irakurleari gaztigatzea Kierkegaarden maitale handien ustetan *Hau ala bestea* ez dagoela bere bizpahiru obra onenen artean; *Seduzitzailearen egunkaria*-k bere kabuz halako ospea hartu badu, editoreen benetako kuttun bihurtuz, hori gertatzen da lortu egiten duelako bere testuingurua baino erakargarriagoa den irudimen-esparru batean kokatzea.

Izan ere, orain argi geratzen da Kierkegaardek testu probokatzailerik eta engainari moduan idatzi zuela *Egunkaria* hau, iradoki nahian bezala –batez ere Regineri, baina haren bidez baita bere hirikideei ere, hasiera batean liburua modu anonimoz agertu bazen ere– beregan zenbat leku zegoen gaiztakeriarako, nahiz eta “A” estetari idazten utzi ondoren, hitza William epaile eredugarriari eman. Denboraren joanaz, egia begi-bistan geratuko zen, alegia, Kierkegaard erlijiozale errotikoa zela; orduan *Hau ala...* osoak eta, batez ere, *Seduzitzailearen egunkaria*-k galdu egingo zuen abagune-balio hori, berak ere *Neure obrari buruz dudak ikuspuntua* hil ondoko testuan esan zuen bezala: “Eta

orain....jadanik ez naiz interesgarria. Zein aspergarria den kristau bilakatzeko arazoa nire idazle-jarduera osoaren funtsezko gogoeta izatea benetan! Eta *Seduzitzailearen egunkaria* hori, horren obra zorrotza! Orain dirudienez hori ere planaren barruan zegoen!” Esaldi horrek orri peko oharra darama; bertan, Kierkegaardek adierazten du P.L. Möllerrek –lehen esan bezala, “A”ren, eta batez ere “seduzitzailearen” eredutzat hartu zuena-- behin batean *Seduzitzailearen egunkaria* bere obraren “muina” zela baieztatu ziola, eta berak Lichtenbergen aforismo batez erantzun: “Obra hauek ispiluak dira: tximu batek begiratzen dienean, ez da bertan ikusten so dagoen ezein Apostolurik”.

Hau da, irakurlea “seduzitzaile” bat bazen, nekez ikusi ahal izango zuen idazten ari zena kristau zela: baina egia esan, *Egunkaria* hau bere testuingurutik bereiziz gero, oso ongi irakur liteke kristautasuna inondik ere agertzen ez den moduan. Hala ere, oso irakurketa traketsa egingo luke testu honetan benetako seduzitu nahi baten adierazpen zuzen posible bezala besterik ikusiko ez lukeen irakurleak; are gehiago arau moral ororen gaindi kokatutako espiritu erromantiko orokorraren adierazpentzat hartuko balu, konkistatzen gero arbuiatzeko bakarrik atsegina hartzen duen seduzitzaile tipikoaren irudian sinbolizatu zena; *Don Juan*-en tipoa ez ezik, Lérmontov-en *Gure garaiko heroia*-eko *Mary Printzesa*-ren protagonistarenean ere, eta biziki gomendatzen dugu testu horren irakurketa honako honekin kontrastatzeko. Halako tonu-anbiguitate bat badago, zeinari esker ia-ia uler bailiteke Kierkegaardek, azken finean, seduzitzaile *donjuanesco*-aren irudiaren karikatura besterik ez zuela egin nahi izan. Baina halako interpretazio batek balio erdi-betea besterik ez luke izango: izan ere, Kierkegaard zehar-meharka hasten denean, narratibotasuna aitzakia huts bezala utziz, ez zaio inongo irizpide zein plan tinkori lotzen, eta horretantxe datza orrialde hauen erakargarri nagusia, ia-ia enigmatiko bihurtzen dituen.

Anbiguitasuna, izan ere, eta baita kontraesana ere, ekintzaren garapenera berera ere iristen dira, eta ez bakarrik azken batean une erabakigarrian zer gertatzen den jakin gabe geratzen garen neurrian; baita suposamendu narratiboei dagokienez ere. “A” esteta gazteak esaten du Johannes izena besterik ezagutzen ez dion “gizon usteldu” baten paperak aurkitu dituela; ezagutzen du, ordea, Cordelia seduzitua, honek eman baitzizkion ihes egindako seduzitzaileari bidalitako azken gutunak, honek irakurri gabe bihurtutakoak. Gero badaude Johannesen gutunak ere, “A”-k haren egunkarian tartekatzen dituenak, batzuetan leku egokiena zein ote den zalantzatuz. Baina esan bezala, balio-bikoiztasuna eta ikuspegi-aldaketak ekintzan bertan burutzen dira: Johannes “ustelduak” aitorpen formala egiten dio Cordeliari, aurretiko senargai bat bazterraraziz, azkenean Cordeliak berak konpromisoa hauts dezan asmoarekin. Hala gertutako da, sofistikazio psikologiko sotilezko zenbait pasarteren ondoren, baina ez da argi geratzen ezta Johannesen planak aurrikusten zuen haustura Cordeliak berak itxuratu ote duen ere. Orduan neskak atzera egiten du, antza denez lagun batzuekin egoteko, baina Johannesek prest uzten du landetxe bat; ez dakigu seguru Cordeliak plana onetsi ote duen, edo etxera iritsitakoan bakarrik onartzen ote duen, ezta bikoteak elkartzea benetan kontsumatu egiten ote duen ere. Gero gizona joan egiten da: “ez dut inoiz gehiago ikusi nahi”, idazten du Johannesek. Neskak, berriz, baztertuak izango diren gutunak idazten dizkio: “iritsiko da zure Cordeliaren besoetara itzuliko zaren eguna”. Geure buruari galdetzen diogu ea anbiguitasun narratiboa zuzenean Kierkegaardi egotzi behar ote zaion (puntu erabakigarrian, agian lotsagatik) ala berak “A”-rengan ipintzen duen “estetikotasunaren” zati gisa ikusi behar ote dugun. Estetikotasun horretan ezin sartuko litzateke ezein konpromisorik, ezta Johannesek, hitzarmentxo faustiko gisa, egin

omen duen “estetikarekiko hitzarmenean” ere, halako formulazioa termino-kontraesana baita.

Kierkegaarden paperen artean *Seduzitzailearen egunkaria*-rako ideia eta jarraipen posibleak aurkitzen ditugu. Horrela hasten da 1844ko ohar bat (IV A 181): “*Seduzitzailearen egunkaria/ 2 Zkai. / Deabruzkotasunari buruzko saiakera /Johannes Mephistophelese/ idatzia*. N.B. Hauxe nahi du garai honek, higuingarria denaz mozkortu eta ondoren besteen gainean dagoela irudikatu. Ez dute nigandik lortuk./Hitzaurrea/ Zorretan nago Victor Eremitarekin, eta deitoratu baino ezin dut egin autore horrek zeukan ideia bikainei jarraipenik eman ez izana, horren orde idazle eredugarri bihurtuz...”. Gero badago beste argumentu baten zirriborroa; bertan Cordeliak, lehen senargaiarekin ezkondua, neska bat dauka etxean, argitaratu zena baino pasadizo are korapilatsuago baten protagonista dena. Paperetako beste pasarte batean badago gaiaren beste aipamenen bat: adibidez, sugeak Eba seduzitu duela eta: “*Seduzitzailearen sekretua erraza da, badaki emakumea larridura dela*”(edo “*ikara*”, *Angst*).

Ondoren, Kierkegaardek aurrera segitu zuen “ezizenpeko” autoreei egotzitako obren bidetik, nahiz eta sekretua lehena argitaratu eta berehala desagertu zen, eta berak ere luze gabe aitortu zuen jendaurrean autoretza. Liburu hauek bere laurogeitik gora *Diskurtso eredugarriak*-ekin txandakatuta agertzen ziren, baina azken horiek ez zuten – orain ere ez dute-- haiek adina arreta erakarri. Errepasa dezagun labur-labur urte gutxitako jardura bizi hura: *Seduzitzailearen egunkaria* hau barne hartzen duen *Hau ala bestea* argitaratu zen urte berean, 1843an, kaleratu zen *Errepikapena* nobelatxo, Constantino Constantius-i egotzia da, Johannes de Silentio izenpean, *Beldurra eta dardara*, Isaaken sakrifizioari buruzko hausnarketa, agian Regineri uko eginez egiten zuen sakrifizioaren erreferentzia gisa. Hurrengo urtean, 1844an, beste bi liburu argitaratzen dira: *Filosofi apurrak* edo *Filosofia apur batean*, Johannes Climacus-ek sinatua (hau da, Johannes eskailerakoa, *Eskailera santua*-ren autore zaharraren izena), eta *Larridura kontzeptua* (edo *Ikararen kontzeptua*), ustez Vigilius Hafniensis-ena (“kai-begiralea” edo antzeko zerbait). 1845ean, *Bizitza-bidearen estadioak* delakoan, Hilario Azaleztatzailea ustezko batek hiru testu biltzen ditu: *In vino veritas*, William Afham-i egotzia (*af ham*, danieraz, “berak egina” da); *Ezkontzari buruzko oharra*, “*Ezkondu batek*” egindako eragozpenei erantzunez, eta *Erruduna? Errugabea? Esperimentu psikologiko bat*, Frater Taciturnus-ena, azken testu horrek autore ezezagunaren *Quidam-en egunkaria* barne hartzen duelarik. 1846an osteria erabiltzen du Johannes Climacus ezizena, ezizenpeko obren artean handientzat hartzen den *‘Filosofi apurrak’-i egindako hitzoste ez-zientifikoa*. Lau urteko etenaldi baten ondoren, 1850ean Anticlimacus ezizena agertzen da, Climacus gaindituz bezala, *Gaixotasun hilgarria*-n; 1851n, ezizen beraz, argitaratzen da sorta horretako azken liburua, *Kristautasun-ariketa*. Ibilbide honetan, ezizenak gero eta gardenago bihurtuz doaz, nahiz prozesua guztiz zuzena ez den: dagoeneko jakintzat ematen da Climacus autoreak ongi dakiela kristau izateak zer esan nahi duen, baina ez dela kristau bihurtzera ausartzen. Anticlimacusek, urrats bat harantzago eginez, erabakia hartzen du. Kierkegaardek esan zuen bera pertsonalki Climacusengandik pixka bat gorago zegoela, eta Anticlimacusengandik pixka bat beherago. Ziru aski txantxetan ari zen, bere estilo orokorrari zegokion bezala, azken liburu hau inprimategian zegoelarik esan zuenean uste zuela ezizena ezabatu eta aurpegia erakustea izango zela onena; baina ordurako inprimatua zegoen. Oro har, erdizka besterik ez da egia *Hitzostea*-n esan zuena: “Ni, pertsonal nahiz inpersonalki, hirugarren pertsonako apuntadorea naiz, modu poetikoz zenbait autore sortu dituen,



autoreok hitzaurreen eta baita beren izenen autoreak direlarik”. Eta gero: “Ezizenpeko obretan ez dago nirea den hitz bakar bat”.

Izan ere, horrek guztiak kristaua izateko bere borondatearen barruko gogoeta batekin du zerikusia: fedearen edukiaz hitz egiteko, “zeharkako komunikazio” batez hasi behar da –iradokitzailea, ironikoa nahi bada--, “komunikazio zuzenera” iritsi aurretik, azken hori goiztiar eta gogorregia izan bailiteke aurre-prestakuntzarik gabe. Komunikazio zuzena ziren bere *Diskurtso eredugarriak*, eta horregatik irakurri dira hain gutxi. Zeharkako komunikazioak “seduzitu” egin litzake irakurleak, ondoren fede kristauaren eskakizunaren “sastakada bizkarrean” emateko.

“Ezizenpekoen” ondoren, Kierkegaardek ez zuen liburu gehiagorik argitaratu, eta bere aitaren laguna izandako Mynster apezpikua hildakoan libre sentitu zen eliza ofiziala kritikatzeko, kristautasuna defendatuz “kristautzaren” aurrean. Horretarako berak osorik idazten zuen *Mementoa* aldizkariak baliatzen zen. Aldi berean, “Kortsarioa” aldizkari satirikoak bera barregarri uzteari ekin zion, lehen esan dugun bezala, bere janzkeraren alderdi eztabaidagarri batzuek aprobetxatuz, era zehaztugabe batez sumatzen zutelako ordena ezarriarentzat pertsonaia arriskutsua zela. Kierkegaardek kalkulatu zuen hogeita hamalau urte zituela hilko zela, eta huts egin zuen; horrek eta nazio-ekonomian gertaturiko zenbait gorabeherak agortu egin zuten liburuak argitaratzeko –eta modu itxurosoz bizitzeko, bere bakardade eta lan gogorraren ordainez-- erabiltzen ari zen kapitala. Porrot eginda eta eliz instituzioaren aurka emandako borrokaz nekatuta, nerbio-perlesia jota hil zen 1855ean –berak aurreikusitakoa eta hamabi urte pasa ondoren--. Mende amaiera arte ez zen ezagun egingo bere herrian eta kanpoan. Eta ez da zori hutsa bere obra Danimarkatik kanpo, hasiera batez Alemanian, ezagutarazten hasi zena halaber Nietzscheren lehen ezagutarazlea izatea: Georg Brandes daniar atea.

José María VALVERDE

## **Bibliografia**

### **Obra guztien bildumak**

*Samlede Vaeker*, 20 lbki, Kopenhage, 1962-64.

*Papirer*, 22 lbki. eta Aurkibideen 3 lbki, Kopenhage, 1968-1978.

*S. Kierkegaard's Journals and Papers*, 4 lbki., Indiana UP, 1967-1975

*Oevres Complètes*, 20 lbki., Paris, 1966 ss.

### **Bizitza eta obra**

Brandt, E., *S. Kierkegaard. His Life, His Works*, Kopenhage, 1963

Geismar, E., *S. Kierkegaard. Seine Lebensentwicklung und seine Wirksamkeit als Schriftsteller*, Göttingen, 1939.

Hohlenberg, J.S. *Kierkegaard, Kopenhage*, 1940 [itzulpen frantsesa: S. Kierkegaard, l'homme et l'oeuvre, 2 lbki., Paris, 1955-1960].

Jolivet, R., *Aux sources de l'existentialisme chrétien: Kierkegaard*, Paris, 1958

Lowrie, W., *A Short Life of Kierkegaard*, Princeton, 1942

Viallaneix, N., *Ecoute Kierkegaard*, Paris, 1979.

### **Azterketak eta azalpenak**

Adorno, Th. W., *Kierkegaard, Konstruktion des Ästhetischen*, Frankfurt, 1974

Agacinski, S., *Aparté, conceptions et morts de S. Kierkegaard*, Paris, 1977.

Anz, W., *S. Kierkegaard und der deutsche Idealismus*, Tübingen, 1956.

Colette, J.A. *Historie eta absolu. Essai sur Kierkegaard*, Paris 1972.

Collado, J.A., *Kierkegaard y Unamuno. La existencia religiosa*, Madrid 1962

Clair, *Pseudonyme et paradoxe*, Paris 1976.

Diem, H., *Die Existenzdialektik Von S. Kierkegaard*, Zürich, 1950.

Elrod, J.W., *Being and Existence in Kierkegaard's Pseudonymous Work*, Princeton 1975.

Fahrenbach, H., *Die gegenwärtige Kierkegaards Auslegung*, Tübingen, 1962

Fahrenbach, H., *Kierkegaards existenzdialektische Ethik*, Frankfurt, 1968.

Hopland, K., *Virkelighet og Bevisshet*, Bergen 1981.

Jarauta, F., *Kierkegaard: los límites de la dialéctica del individuo*, Cali, 1975.

Lukacs, G., *Die Zerstörung der Vernunft*, Berlin 1955.

Prestige, G, *The Narrow Pass, A Study of Kierkegaard's Concept of Man*, London, 1963.

Rivero Astengo, A. S. *Kierkegaard, el buscador de Dios*, Buenos Aires 1949.

Scheppenhäuer, H., *Kierkegaards Angriff auf Spekulation. Eine Verteidigung*, Frankfurt, 1967.

Taylor, M.C., *Kierkegaard's Pseudonymous Authorship*, Princeton, 1975.

Taylor, M.C., *Journeys to Selfhood: Hegel and Kierkegaard*, Berkeley-London 1980.

Theunissen, M., *Der Begriff Ernst bei S. Kierkegaard*, Freiburg, 1958.

Thulstrup, N., *Kierkegaard's Relation to Hegel*, Princeton, 1980.

Vergote, H.B., *Sens et répétition. Essai sur l'ironie kierkegaardienne*, Paris 1982

Wahl, J., *Etudes kierkegaardienes*, Paris 1949.

V.V., *Kierkegaard vivant* [UNESCOren Kongresu: Sartre, Marcel, Jaspers, Heidegger, etab.], Paris, 1964.

### **Bibliografia orokorrak**

Himmelstrup, J-Birket-Smith, K., *S. Kierkegaards International Bibliography*, Kopenhage, 1962.

Lapointe, F., *S. Kierkegaard and His Critics: An International Bibliography of Criticism*,

## SEDUZITZAILEAREN EGUNKARIA<sup>1</sup>

Sua passion´ predominante  
e la giovin principiante.

Don Giovanni, 4. Aria.<sup>2</sup>

Azaleko transkribapen hura, bere garaian presa izugarritz eta egonezin handiz lortu ahal izan nuena, neure interesa medio xehetasun osoz txukunera pasatzea deliberatu dudan honetan, ezin diot neure buruari ezkutatu eta nekez kontrola dezaket nitaz jabetzen ari den antsia. Garai hartan bezain kezagarria eta orduan bezain deitoragarria agertzen zait egoera. Bere ohituren aurka, giltzatu gabe zeuzkan mahaiko kaxoiak, hartara bertako edukiak nire esku menean utziz; alferrikakoa litzaidake, noski, orduko portaera apaintzen saiatzea neure buruari gogoraraziz ez nuela nik kaxoirik atera. Kaxoi bat aterata zegoen. Bertan aurkitzen zen paper solte pilo bat, eta haien gainean koarto handi tamainako liburu bat, tajuz azaleztatua. Gaietako azalean paper zurizko laukitxo bat zegoen itsatsita, eta bertan bere eskuz idatzita: *Commentarius Perpetuus 4 Zkia*. Ez naiz, haatik, alferrik saiatuko neure buruari sinestarazten liburuaren azal hura agerian egon ez balitz eta izenburu harrigarri hark tentatu ez banindu ez nintzatekeela tentazioan eroriko, edo bederen aurka egingo niokeela. Izenburua bera xeblebre samarra zen: baina ez hainbeste berez, inguratzen zuten gauzengatik baizik. Paper solteei begirada bizkor bat botatakoan jakin nuen haien edukia: egoera erotikoei buruzko iritziak, harreman baten eta besteren aipamen solteak, izaera bereziko gutunen zirriborroak, gerora artez landutako zabarkeria kalkulatu harengatik ezagunak egingo zitzaizkidanak. Orain, gizaki makur haren bihotz azpikaria desestali ondoren, egoera gogora dakardanean; orain, nolabait esatearren, maltzurkeriaz zabaldutako begiez kaxoira hurbiltzen naizenean, polizi agentea faltsutzaile baten gelan sartu, honen armairua ireki eta kaxoi batean hainbat paper solte eta idazkera frogatu aurkitzen dituen bezala sentitzen naiz: batean marrazki apaingarri bat ageri da, beste batean monograma, hirugarrenean atzekoz aurre idatzitako lerro bat. Honek guztiak erakusten dio bide onetik doala, eta honek eragindako poza nahasi egiten da aurrean duen ahalegin eta arreta ukaezineko lanak sortzen dion halako mirespen batekin. Nire erreakzioa ez zen erabat halakoa izango ez bainago krimenetan usnatzera hain ohituta, ezta polizi xafiaz hornituta egotera ere. Legez kanpoko bideetan nenbilerako egia zama bikoitza sentituko nukeen. Hartan bai ideien bai hitzen faltan aurkitu nintzen, normalean gertatzen den bezala. Zirrara batek kolpatzen gaitu harik eta hausnarmena berriro askatzen den arte, mugimendu konplexu eta azkarrez arrotz ezezaguna komentzitur eta hari moldatuz. Hausnarmena zenbat eta garatuagoa izan, orduan eta bizkorrago daki bere onera itzultzen, kanpoko bidaiariekin diharduten muga-poliziak bezala: izan ere, han aurpegi xeblebreak ikustera hain ohituta dago non ezerk ez baitu harritzen. Baina nahiz eta nire hausnarmena oso garatua izan, hasieran nahiko harrituta geratu nintzen; ederki gogoratzen naiz zurbildu nintzela, konortea galtzeko zorian egon nintzela, eta horrek nola larritu ninduen. Demagun etxera itzultzen zela, eta konortea galdurik topatzen ninduela, kaxoia eskuan. Baina kontzientzia txarrak interesgarria egin dezake bizitza.

Liburuaren izenburuak ez ninduen berez asaldatu; pentsatu nuen hainbat pasarte aukeraturen bilduma zela, eta nahiko normala iruditu zitzaidan, ongi bainekien nolako arduraz ekin zien bere ikasketei. Edukia ordea oso bestelako zerbait zen. Egunkari bat zen, ez gehiago ez gutxiago, arreta handiz idatzirik egunkaria. Eta behiala ezagutu izanagatik bere bizitzak iruzkin premia berezirik ez zuela pentsatu izan arren, ezin dut ukatu, ikusitakoaren argitan, izenburua gustu eta zentzu handiz aukeratuta zegoela, benetako maisutasun estetiko objektiboz bere buruarekiko zein egoerarekiko. Izenburua erabateko harmonian dago eduki guztiarekin. Bere bizitza modu poetikoz bizitzeko helburua lortzeko saiakera izan

---

<sup>1</sup> Jatorrizkoaren izenburua ez da “Seduzitzaile baten Egunkaria”, “Seduzitzailearen Egunkaria” baizik. Honekin iradokitzen da funtsezkoena ez direla Johannes edo Cordelia pertsonaiak, *metodoa* edo *estrategia* baizik.

<sup>2</sup> “Bere grina nagusia da neska gazte hasberria... Baina gaztaroak apainduriko neskatoak alaitzen dio bihotza”.

da. Bizitzaren interesgarritasuna aurkitzeko zentzumen izugarri garatu bat duenez, asmatu egin du aurkitzen, eta aurkitu ondoren esperientzia horiek modu erdi poetikoz islatzen. Hortaz, bere egunkaria ez da historikoki zehatza edo narratiboa zentzu hertsian; ez da indikatiboa, subjuntiboa baizik. Nahiz eta esperientziak, normala denez, gertatu ondoren idatziak izan, hainbat aldiz agian gertatu eta askoz beranduago, hala ere une berean gertatzen ariutako balira bezala deskribatzen dira maiz, eta halako era bizi eta dramatikoan non batzuetan zeure begien aurrean gertatzen ari direla baitirudi. Ziur aski ez zuen hala egiten egunkari honekin beste helbururen bat zeukalako; begi bistakoa da zentzu hertsian esanahi pertsonala besterik ez zuela beretzat; eta aurrean dudana poesi lana dela suposatzea, are argitaratzeko pentsatua ere, nola osotasunak hala zatiek gezurtatzen dute. Hura argitaratuz ez zuen pertsonalki inongo beldurrik izan behar; izan ere, izen-abizen gehienak hain xebleak direnez ezin baitira historikotzat jo. Susmo bakarra dut, alegia izenak ez ote diren benetakoak, berak pertsona erreala beti identifikatu ahal izateko, eta edozein arrotz abizenen bidez nahasarazteko. Hori da, bederen, egunkariaren interesa zentratzen den neskaren kasua; ezaguna nuen, eta egia da Cordelia zuela izena, baina ez Wahl abizena.

Nola azal daiteke, orduan, egunkariak hala eta guztiz ere halako kutsu poetiko bat izatea? Honen erantzuna ez da zaila; arrazoia bere izaera poetikoan datza, ez baita nahiko aberatsa, edo nahiago bada nahiko pobrea, poesia eta errealtatearen artean bereizteko. Poetikotasuna zen bere baitan zeraman gehigarria. Gehigarri hura errealtateko egoera poetikoetan gozatzen zuen poetikotasuna zen; hura hausnarketa poetikoaren bidez berreskuratzen zuen. Hura zen bere bigarren gozamina, eta gozamina zen bere bizitza osoaren xedea. Lehen kasuan pertsonalki gozatzen zuen estetikotasuna, eta bigarrenean bere nortasuna modu estetikoan gozatzen zuen. Lehen kasuaren gakoa zen modu pertsonal egoista batez gozatzea, batetik errealtateak ematen ziona, bestetik berak errealtatea ernaltzeko emandakoa; bigarren kasuan nortasuna lurrundu egiten zitzaion, eta orduan gozatzen zituen bai egoera bai bere burua egoera hartan. Lehen kasua etengabe behar zuen errealtatea abagune bezala, memento bezala; bigarren kasuan errealtatea poetikotasunean murgilduta zegoen. Hartara, lehen estadioaren fruitua, egunkaria bigarren estadioaren fruitua bezala sortzeak ekarritako aldartea zen, “fruitu” hitzaren esanahia bigarren kasuan eta lehenbizikoan desberdin samarrak izanik. Modu horretan, etengabe eduki du poetikotasuna, bere bizitzan nagusi izan duen anbiguotasunaren bidez.

Bizi garen mundu honen atzean, hor atzean urruti, beste mundu bat dago, eta bien arteko erlazioa benetako eszenategiaren eta antzokietan honen atzean batzuetan ikusten den beste eszenategiaren arteko erlazioaren oso antzekoa da. Gasa mehe baten beste aldean gasazko beste mundu bat bezala ikusten da, arinagoa, etereoagoa, eta mundu erreala ez den kalitate batekoa. Fisikoki benetako munduan bizi den jende asko ez da gustura sentitzen mundu honetan, eta bai beste horretan. Baina pertsona bat horrela moteltzea, errealtateetik ia desagertu arte, osasunari edo gaixotasunen bati zor dakioke. Bigarren hau gertatu zitzaion behinola, ezagutu gabe, ezagutu nuen gizon hari. Ez zen errealtatearen munduan bizi, baina zerikusi handia zuen errealtatearekin. Honen gainetik labaintzen zen etengabe, baina errealtatean buru-belarri sartuta zegoenean ere haren aurretik egoten zen. Ez zen ordea ontasuna mundu honetatik urrunarazten zuena; gaiztotasuna ere ez, ez nuke horrelakorik esango, ezta orain ere. *Excerptatio cerebri* mota bat pairatzen zuen, zeinaren bidez errealtateak ez baitzuen beretzat nahiko estimulurik, edo gehienara jota ere tarteka bakarrik. Errealtatearen aurrean ez zen gehiegi ahalegintzen. Ez hura jasateko ahulegia zelako; aitzitik, indartsuegia zen, baina bere indar hura gaixotasuna zen. Errealtateak beretzat estimulu gisa zuen esanahia galdu bezain laster desarmatuta geratzen zen, eta horretan zetzan bere gaiztotasuna. Estimuluaren unean bertan izaten zuen honen kontzientzia, eta kontzientzia hartantxe zegoen gaiztotasuna.

Egunkariaren eduki nagusia osatzen duen historiako neska ezaguna nuen. Neska gehiago seduzitu ote dituen, ez dakit, baina bere paperetatik badirudi hala izan zela. Badirudi ere prozedura berezi bat praktikatzen zuela, eta hau erabat tipikoa da beregan; izan ere, intelektualegia zen seduzitzailerik arrunta izateko. Halaber ikusten da egunkarian bere irrikaren xedea batzuetan erabat arbitrarioa izaten zela, diosal bat adibidez, eta ez zuela inola ere gehiago hartu nahi izaten, hori baitzen beste pertsonarengan gehien preziatzen zuena. Bere adimen-dohainei esker bazekien neska bat nola tentatu, eta nola erakarri, gero neska edukitzeaz, zentzu hertsian, inongo ardurarik hartu gabe. Irudikatzen dut bazekiela neska bat zalantzarik gabe dena sakrifikatuko zion puntu batera eramaten. Afera haraino iristen zenean, hautsi egiten zuen, bere aldetik inongo hurbilketarik gauzatu gabe, maitasunezko hitz bakar bat esan gabe, are gutxiago aitorten edo promesaren bat. Eta haatik gertatua zen, eta neska zorigabeak izaten zuen kontzientzia mingotsa bikoitza izaten zen, ez baitzuen izaten zeri heldu, etengabe aldarte desberdinen datza izugarri baten zorabiopean zegoelako; dantza hartan bere buruari errieta egin, gizonari barkatu, eta jarraian honi egiten baitzion errieta; gainera, harremana irudizko zentzuan bakarrik erreala zenez, behin eta berriro borrokatu behar izaten zuen, dena bere irudikeria izan ote zen zalantzarekin. Ezin zion inori

fidatu, errealitatean ez baitzuen zer fidatzerik. Amets egiten denean besteei konta dakieke ametsa, baina berak kontatzeko zeukana ez zen inongo ametsa, errealitatea zen; eta hala ere, norbaiti kontatu nahi zion bakoitzean, bere arima atsekabetua arintzearen, xumekeria bilakatzen zitzaion. Bera ere ongi jabetzen zen hartaz. Beste inork ez zuen ulertzen, eta berak ere ozta-ozta, baina hala ere kezkarri bat bezala sentitzen zuen.

Horregatik, biktima haiek oso izaera berezikoak ziren. Ez ziren pariak bezala, edo beren ustetan gizarteak paria bihurtuak izanik gogotik eta oihuka kexatzen ziren neska zorigabeak; noizean behin, bihotza gainezka zeukatenean, gorrotoari edo barkamenari bide emanez husten zirenak. Ez zitzaien inongo aldaketarik sumatzen; modu guztiz normalean bizi ziren, beti bezala errespetatuak, baina bai, aldatuta zeuden, ia modu argiezinean berentzat, modu ulertezinean besteentzat. Haien bizitzak ez zeuden, beste batzuenak bezala, hautsita edo puskatuta, beren baitara tolestuta baizik; besteentzat galduta, alferrik saiatzzen ziren beren burua aurkitzen. Gizon haren pasabidea bizitzatik sumaezina izan zela esan zitekeen era berean (zeren eta bere oinak halako moldez zeuden eginda non ez baitzuten oinatzik uzten; modu ezin hobe horretan irudikatzen dut bere baitarako zuen hausnarmen mugagabe hura), zentzu berean esan daiteke ez zuela biktimarik uzten. Modu intelektualegi batez bizi baitzen zentzu arruntean seduzitzaile izateko. Noizean behin, alabaina, gorputz paraestatiko<sup>3</sup> baten itxura hartzen zuen, eta orduan sentsualitate hutsa besterik ez zen izaten. Cordeliarekin izan zuen afera ere hain korapilatsua zenez, bera seduzitua bezala ager zitekeen; neska gajoa ere tarteka txundituta gera daiteke horren gainean, gizonaren oinatzu hain sumaezina izanik inongo frogarik ez delako agertzen. Gizon honentzat gizabanakoak estimuluak besterik ez dira izan, eta zuhaitzak beren hostoetatik libratzen diren bezala libratzen zen haiengandik; bera gaztetu egiten zen, eta orbela ihartu.

Baina nola ote daude gauzak bere buruan? Beste batzuk bide okerretik eraman dituen era berean, nik uste berak ere bidegabetuta amaituko duela. Ez ditu besteak bide okerretik eraman kanporako zentzuan, barrurakoan baizik, beren buruekiko. Gaitzesgarria da, bai, pertsona batek bidegalduta dabilen ibiltaria bide okerrera eraman eta bertatik bakarrik segitzen uztea; baina zer da hau pertsona bat bere baitan bidegabetzen uztearen aldean? Galduta dabilen ibiltaria kontsola daiteke ingurunea etengabe aldatzen ari zaiolako, eta aldaketa bakoitzaz bide zuzena aurkitzeko itxaropena sortzen zaiolako. Bere baitan galduta dabilenak ez du hainbeste lurralde bertan mugitzeko; laster jabetzen da irten ezinezko zirkuitoan dabilela. Horrela uste dut sentitu behar duela berak ere, baina eskala are izugarriago batean. Gogo azpikari batek haria galdu eta zorroztasun guztia bere aurka zuzentzen duenean, kontzientzia esnatu eta mhasmen horretatik irtetea arazo nagusi bilakatu zaiolako, ezin irudika dezaket hori baino tormentu handiagorik. Beste azeri-zuloan irteera asko izatea alferrikakoa suertatze zaio, bere arima larrituak egun-argia iragazten ikusten duela uzte duenean sarrera berria topatzen du, eta horrela, etsiak bultzatua, ehizaki izutu baten modura bilatzen du etengabe irtenbide bat, eta etengabe sarrera bat aurkitu, hartatik bere baitara itzuliz. Horrelako pertsona bat ez da beti kriminala esaten zaiona; berak ere sarri askotan dezepzioa sentitzen du bera azpikeriengatik, eta hala ere, kriminalak baino zigor gogorragoa jasotzen du; izan ere, zer dira damuaren oinazeak eromen kontziente honen aldean? Bere zigorra izaera estetiko hutsekoa da, zerengatik kontzientzia agertzen zaio maila altuago bateko jakintza bezala, egonezina gisa adierazten dena, egonezin honek zentzu sakonean akusatu baino areago esna mantentzen duelarik, bera artetegatasun antzuan atsedenik eman gabe. Ezin burutik dagoela esan ere, bere gogoeta mugatuaren ugaritasuna ez baita eromenaren mugagabetasunean fosildu.

Cordelia gajoari ere kostako zaio bakea aurkitzea. Gizona barkatzen du bihotz-bihotzez, baina ez du atsedenik lortzen, zalantza esnatzen zaiolako: berak hautsi zuen konpromezua, bera izan zen zorigaitzaen arrazoia, bera harrotasunak irrikatzen zuen ohigabea. Ondoren damutu egiten da, baina ezin atsedena aurkitu, orduan pentsamendu akusatzaileek errugabetzat jotzen dutelako; gizona izan zen, bere maltzurkeriaz plan hau ariman sartu ziona. Orduan gorrotoari ematen dio, bihotza arindu egiten zaio madarikazioen poderioz, baina ezin atsedena aurkitu. Errieta egiten dio berriz bere buruari, errieta egiten dio gorrotatu egin duelako, nork eta berak, bekadari batek; errieta egiten dio bere buruari bera agertzen delako beti errudun, gizona zein azeria izan den alde bat utzita. Gizonak engainatu izana latza gertatzen bazaio, are latzagoa zaio, batek esateko tentazioa sentitzen du, beregan eleanitzeko hausnarmena esnarazi duela, neska halako moduan garatu duela estetikoki non ez baitu, apal, ahots bakar bat aditzen, ahots asko batera baizik. Orduan gogoramena esnatzen zaio ariman, bekatura eta errua ahazten ditu: une atseginak gogoratzen ditu, berezkoa ez den asaldura batek zorabiatuta dago. Horrelako uneetan ez du gizona

---

<sup>3</sup> Gorputz paraestatikoa itxurazko gorputza da, ikuspuntu heretiko batetik Jesukristok asumitu zuena, giza gorputza ez zena.

besterik gabe gogoratzen, halako *clairvoyance* batez sumatzen du, horretxek erakusten duelarik nolako garapenera iritsi den. Orduan ez du gizonarengan kriminala ikusten, baina ezta pertsona prestua ere; estetikoki bakarrik sentitzen du. Behin batean gutun bat idatzi zidan, gizonari buruzko iritzia emanez. “Batuetan izugarri intelektualak zen eta emakumea bezala deuseztatuta sentitzen nintzen; beste batuetan hain basati eta grinatsua zen, hain desiragarria, non ia-ia dardarka hasten bainintzen bere aurrean. Batuetan arrotza bezalakoa nintzen beretzat, beste batuetan erabat entregatzen zen; halakoetan besarkatzen nuenean, kolpetik dena aldatzen zen eta hodei bat besarkatzen nuen<sup>4</sup>. Esaera hau gizona ezagutu aurretik ere banekien, baina berak irakatsi zidan ulertzen; erabiltzen dudanean beti dut bera gogoan, egiten dudana gogoeta oro bere bidez bakarrik egiten dudana bezala. Beti maite izan dut musika, eta bera musikatresna paregabea zen, beti gozatua; beste musikatresnek ez duten errejistroa zuen. Sentimendu eta aldarre guztien gauzatzea zen; beretzat ez zegoen gogoeta sublimeegirik, edo etsiegirik. Udazkeneko ekaitz batek bezala orro egin zezakeen, edo modu entzungabea xuxurlatu. Nire hitz bakar bat ere ez zen eraginik gabe geratzen, eta hala ere ezin dut esan nire hitzek eragin behar horretan huts egiten ez zutenik, eragina zein izan ote zitekeen ezin bainuen jakin. Larritasun deskribaezin baina misterioitsu, bedeinkatu eta izendaezin batez entzuten nuen neronek eragindako, baina hala ere ez eragindako musika hura; beti zegoen harmonia, berak beti nindukan likuratuta”.

Neskarentzat izugarria bada, gizonarentzat are izugarriagoa izango da; neronek ere arazoak pentsatzen dudana bakoitzean nagusitzen zaidan larridura ozta-ozta kontrolatu ahal izateak hori ondorioztatzera narama. Ni ere eramana sentitzen naiz laino-erresuma horretara, une oro zeure itzalaz beldur egoten zaren ametsezko mundu horretara. Sarritan alferrik ahalegintzen naiz hartatik askatzen, bidea segitzen dut irudi mehatxugarri batek bezala, akusatzaile mutu gisa. Zein harrigarria! Gizon honek sekretu-geriza sakon bat sakonago bat, alegia ni ere konplizea naizela, eta modu ez zilegi batez bihurtu naizela konplize. Guztia ahaztea ezinezkoa da. Hainbat aldiz pentsatu dut berarekin honetaz hitz egitea. Zertarako, ordea? Bitatik bat; dena ukatuko luke, egunkaria saiaketa poetikoa zela esanez, edo isiltzeko aginduko lidake, eta ezingo nioke ezetz esan, konplize izatera nolako moduan iritsi naizen kontuan hartuz. Bere baitan sekretu batek adina limurtze eta madarikazio daraman ezer ez dago.

Cordeliarengandik gutun bilduma bat hartu dut. Bertan denak ote dauden ez dakit; baina errezeloa neukan ez ote zidan behin esan batzuk konfiskatu zituela. Kopiatuta dauzkat, eta tartekatuta egingo ditut garbira pasatzean. Data falta zaie, baina data eramanda ere laguntza makala izango zitzaidakeen, egunkariak aurrera egin ahala gero eta soilago bilakatzen baita, harik eta amaieran, salbuespen bakar batekin, datak idazteari ere uzten dion arte; historiaren bilakaera berez hain kualitatiboki esanguratsua bihurtzen da, nahiz eta errealtate historikoa izan; halako neurrian hurbiltzen da ideia izatera, non horrexegatik denborazertzeladek garrantzi guztia galtzen baitute. Lagundu dit, ordea, hasieran ulertzen ez nituen hitz batzuk egunkarian han eta hemen agertzeak. Gutunekin erlazionatuz konturatu naiz bertan biltzen zirela haietarako gaiak. Horregatik erraza suertatuko zait leku egokian tartekatzea, gutun bakoitza berari dagokion gaia aipatzen den lekuan sartuko dudanez. Orientabide hauek aurkitu izan ez banitu, errakuntza bat egingo nukeen; izan ere, ez bainintzen jabetuko –egunkariak orain adierazten bide duen bezala– zenbait aldiz gutunak hain segidan idazten zituela non Cordeliak egun berean bat baino gehiago hartu izana baitirudi. Neure gogoari jarraitu izan banio, ziur aski era orekatuago batean tartekatuko nituzkeen, eta ez nintzatekeen konturatuko gure gizonak, hau eta gainerako bitartekoak erabiltzean ezarritako energia grinatsua, nolako eragina lortzen zuen Cordelia grinaren gailurrean mantentzeko.

Cordeliarekiko harremanari buruzko erabateko informazioa ez ezik, hainbat deskribapen labur ere agertzen ziren egunkarian, han eta hemen tartekatuta. Horrelakoren bat agertzen zen bakoitzean *Nota Bene* bat zegoen marjinean. Ohartxo horiek ez dute inongo zerikusirik Cordeliaren istorioarekin, baina ideia bizi bat eman didate berak maiz erabiltzen zuen eta nik hasieran modu okerrean ulertzen nuen esaera baten esanguraz; arrantzara beti eraman behar da ordezkaria. Egunkari honen aurreko bolumen bat nire eskuetan erori izan balitz honelako gehiago aurkituko nituzkeen inolaz ere, berak marjinean *actiones in distans* deitzen dienetakoak, berak ere aitortu egiten baitzuen Cordeliak gehiegi absorbitzen zuela, inguratzen zuenari begiratzeko astirik gabe utziz.

---

<sup>4</sup> Erreferentzia mitologikoa. Zeusek Olinpoan babesa emandako Ixion Thessaliako Erregeak Hera (Juno erromarra) besarkatu nahi izan zuenean, Zeusek haren ordezkaria itxura zuenean, Zeusek haren ordezkaria bera zuen hodeia jarri zuen. Zentauro mustroa jaio zen elkartze hartatik, eta ekintza haren zigor gisa Ixion suzko gorpil bati kateatuta geratu zen Hadesen.

Cordelia utzi eta denbora gutxira, gure gizonak gutun pare bat hartu zuen harengandik, eta ireki gabe bihurtu. Hauek Cordeliak pasa zizkidan gutunen artean zeuden. Cordeliak berak hautsi zien lakrezko zigilua, eta nik kopiatzeko libereatea hartu dut. Neskak ez dit inoiz haien edukiaz hitz egin, baina Johannesekin zuen harremana aipatzen zuen bakoitzean bertsotxo bat errexitatu ohi zuen, nik dakidanez Goetherena<sup>5</sup>; bazirudien bertsoak esanahi desberdinak izaten zituela beretzat, bere aldarte desberdinen eta hauen kariatz sortutako ahoskeraren arabera:

Gehe,  
Verschmähe  
Die Treue,  
Die Reue  
Kommt nach<sup>6</sup>

Gutunek honela zioten:

Johannes,

Ez dizut “nire Johannes” deituko, argi ikusten baitut ez zarela inoiz nirea izan, eta nahiko zigor latza daramat gogoeta horrek behinola bihotza alaitu izanagatik; baina hala ere “nirea” deitzen dizut: nire seduzitzailea, nire engainatzailea, nire etsaia, nire hiltzailea, nire atsekabeen jatorria, nire pozaren hilobia, nire zorigaitzaren amildegia. “Nirea” deitzen dizut; eta “zurea” esaten diot neure buruari, eta hitzok garai batean, ni gurtzeko makurtzen zinenean, belarria lausengatzen zizuten bezalaxe, orain madarikazioa bezala iritsi behar zaizkizu, eternitate osorako madarikazioa bezala. Ez ezazu espero ni zure atzetik ibiltzea, edo sastagai batez armatzea zure irriak probokatzeko! Zeren eta noranahi zoazela ere, zurea izaten jarraituko baitu; zoaz munduko azken mugara, zurea izaten jarraituko dut. Beste ehun bat maita itzazu, zurea izaten jarraituko dut; heriotzaren orduan ere, zurea izaten jarraituko dut; heriotzaren orduan ere, zurea izango naiz. Zure aurka erabiltzen dudak hizkerak berak probatu behar ditu zurea naizela. Ausartu zara pertsona bat engainatzen halako moduan non niretzat guztia bilakatu zara, zure esklabua izanez bakarrik gozatzen dut. Zurea naiz, zurea, zurea, zure madarikazioa.

Zure Cordelia

Johannes,

Bazen behin gizon aberats bat, abere nagusi nahiz txiki asko eta asko zeukana; eta bazen neskata behartsu bat, arkume bakarra zeukana, honek haren eskutik jan eta haren katilutik edaten zuenarik. Zu zinen gizon aberatsa, munduko loria guztietan aberatsa, eta ni behartsua, nire jabego bakarra maitasuna. Zuk hartu egin zenidan, poztu egin zinen harengatik. Gero desirak keinua egin zizun, eta neukan gutxia sakrifikatu zenuen, ezin izan zenuen zeurea zen ezer sakrifikatu. Bazen behin gizon aberats bat, abere nagusi nahiz txiki asko eta asko zeukana; eta bazen neskata behartsu bat, bakarrik maitasuna zeukana.

Zure Cordelia

Johannes,

---

<sup>5</sup> “Jery und Bätely”, Werke XI (1828) 10. orr.

<sup>6</sup> Aurrera,  
Mezpreza ezazu  
Leialtasuna,  
Damua etorriko zaizu  
Jarraian.

(Testu osoan zehar hainbat hitz eta esaldi agertzen dira alemanieraz. Garai hartako zirkulu kultoetan hizkuntza hau asko erabiltzen zenez, Kierkegaardek bere testuan txertatzen dituen alemanierazako esaldiek ez daramate inolako markarik, ez kurtsibarik ez oharrik. Nik itzuli egin ditut testuan, aldi berean jatorrizko hitza ohar gisa eskainiz).



Orduan ez al dago inongo itxaropenik? Zure maitasunak ez al du berriz piztu behar? Zeren eta badakit, jakin, maite izan nauzula, horren gaineko segurtasuna nondik datorkidan ez jakin arren. Itxaron egingo dut, luze egiten bazait ere; itxaron egingo dut, beste batzuk maitatzeaz aspertzen zaren arte itxaron. Orduan nireganako maitasuna berriz altxatuko da bere hilobitik; orduan beti bezala maiteko zaitut, beti bezala eskertuko, lehen bezala, oi Johannes, lehen bezala! Johannes! Nireganako hoztasun bihozgabea, hori al duzu benetako izaera? Zure maitasuna, zure bihotz aberatsa, gezurra eta faltsukeria zen eta orain zeu al zara berrir? Izan pazientzia nire maitasunarekin, barkatu zu maitatzen jarraitzea. Badakit nire maitasuna zama dela zuretzat, baina etorriko da hala ere garaia, zure Cordeliarengana itzuliko zarena. Zure Cordelia! Entzun erreguzko hitz hauek! Zure Cordelia, zure Cordelia.

---

*Zure Cordelia*

Cordelia bere Johannesen errejistro zoragarriaren jabe ez bazen ere, argi ikusten da ez zitzaiola modulaziorik falta. Bere aldartea argiro inprimaturik doa bere gutun bakoitzean, gauzak azaltzean nolabaiteko argitasuna falta izan arren. Hau da kasua batez ere bigarren gutunean, zeinean batek ulertu baino gehiago igerri egiten baitu zer esan nahi duen, baina gabezia horrek oso hunkigarri bihurtzen du nire begietan.

---

*Apirilak 4*

Kontuz gero, ene ezezagun panpoxa! Kontuz gero. Zalgurdi batetik jaistea ez da horren gauza erraza: batzuetan urrats erabakigarria da. Mailegatuko nizuke Tieckek idatzitako nobela bat<sup>7</sup>; bertan ikusiko zenuke dama bat zalditik jaistean halako moduan nahasi zela egoera korapilatsu batean, non urrats hura erabateko bilakatu baitzen bere bizitzan. Gainera zalgurdi-mailak normalean izugarri baldreski ezarrita egoten direnez, grazia guztia alde batera utzi eta jauzi etsi bat arriskatu behar izaten duzu gurdizain edo mirabearen besoetara. Bai, hori zortea duten gurdizain eta mirabeek! Uste dut mirabe postua bilakatuko dudala neska gazteak bizi diren etxeren batean; mirabe bat halako damatxo baten sekretuak partekatzea iristen baita. Baina Jainkoarren, ez ezazu salto egin, arren eskatzen dizut. Oso ilun dago; ez zaitut eragotziko, kale-lanpa honen azpian geratuko naiz besterik gabe. Horrela ezingo nauzu ikusi, eta pertsona bat ikusten duten neurrian bakarrik lotsatzen da normalean, baina pertsona horrek ikusten duen neurrian bakarrik ikusten dute normalean. Tira bada, mirabearengatik, agian ezingo baitio horrelako jauziari eutsi, sedazko soinekorengatik, farfailezko zerrendagatik eta baita nirengatik ere, utzi ointxo zoragarri horri, bere txikitasunean dagoeneko miretsita naukana, utziozu munduan saio bat egiten, ausar zaitez bere gainean bermatzen; aurkituko du, bai, zeri heldu, eta une batez dardar egiten baduzu oina non bermatu alferrik bilatzen ari dela iruditzen zaizulako, eta oraindik dardarka segitzen baduzu euskarria aurkitu ondoren ere, orduan jaitsi agudo beste oina bere ondora. Izan ere, nor izan liteke hain ankerra zu jarrera horretan zintzilik uzteko, nor liteke hain zatar, hain geldo edertasunaren agerpenari erantzuten? Edo arrotzen batek ikusteak oraindik beldur ematen al dizu? Ez bederen mirabeak ikusteak, ezta nik ikusteak ere, ointxoa ikusi baitizut, eta natur ikerlea naizenez Cuvier<sup>8</sup> datu horretatik ziurtasunez ondorioak ateratzen irakatsi dit. Bizkor, beraz! Nola areagotzen duen zure edertasuna larridura honek. Baina larridura ez da berez ederra; eder bilakatzen da bera gainditzeko behar den energia aldi berean ikusten denean bakarrik. Hori da! Zein tinko helduta dagoen orain ointxoa. Konturatu naiz oin txikiak dituzten neskek eskuarki askoz tinkoago heltzen diotela zoruari oin handiko arruntagoek baino. Nork pentsa zezakeen halakorik? Esperientzia ororen aurka doa: soinekoa trabatzeko arriskua askoz txikiagoa da astiro jaistean salto egitean baino. Neska gazteentzat, ordea, beti da kezkarria zalgurdiz ibiltzea; azkenean ez baitira kanpora ateratzen. Farfailak eta xingolak ahazten dira, eta kitto.

Inork ez du ezer ikusi. Agertzen da, bai, irudi ilun bat, kapak begietaraino estalita. Ezinezkoa da nondik datorren ikustea, argiak zuzenean begian jotzen zaituelako. Aldamenetik pasatzen zaizu atarira sartzera zoazenean. Une erabakigarri horretan bertan zeharka begiratzen dio bere objektuari. Gorritu egiten zara; bularra beteegia duzu arnasa bakar batez husteko. Haserrea daramazu begietan, erdeinu harro bat; erregu

---

<sup>7</sup> Johann Ludwing Tieck-en “Die wilde Engländerin” (“Das Zauberschloss, Ludwing Tiecks gesammelte Novellen”, Berlin, 1853).

<sup>8</sup> G. Cuvier naturalista frantziarrak bere “Recherches sur les ossements fossiles des quadrupèdes” lanean (Paris, 1821, I, III orr.) esaten du hezur bakar batetik abiatuz espezie osoak berreraiki daitezkeela erakustea duela helburua.

bat dago zure begietan, malko bat. Nola bada hala bestea dira ederrak, eskubide berdinez onartzen ditut biak, bataren zein bestearen, xede izan naitekeelako. Gaiztoa naiz gero. Baina zer zenbaki darama etxeak? Hara, zer da hori? Fantasiatzko artikuluez betetako denda-leihoak. Ene eder ezezaguna, asaldagarria izan liteke nire aldetik, baina bide argiari jarraitzen diot....

Erabat ahaztu du gertatu berria; izan ere, hamazazpi urte dituzunean, adin miragarri horretan erosketak egitera ateratzen zarenean, eskuan hartutako edozein objektu, txikia nahiz handia izan, bozkario deskribaezin baten iturburua denean, orduan aise ahazten duzu. Oraindik ez nau ikusi; salmahaiaren beste muturrean nago, urruti eta bakarrik. Aurreko horman ispilu bat dago zintzilik. Neskak ez du kontuan hartzen, baina ispiluak bai neska kontuan hartu. Nolako fideltasunaz biltzen duen honen irudia, bere debozioa adierazteko fideltasunaz biltzen den esklabu apala bailitzen; ispiluarentzat neskak garrantzi handia du, baina hark neskarentzat ez; neska islatzen ausartzen da, baina ez barne hartzen. Ispilu zorigabea, neskaren irudia, baina ez neska, harrapa dezakeena; ispilu zorigabea, bere baitan irudia gorde eta mundu osoari ezkutatu ezinik besteei desestali besterik egin ezin diena, orain niri bezala. Nolako tortura litzateke gizakiarentzat, zu bezala eratuta balego. Eta badira, haatik, horrelako pertsona asko, besteei erakusteko unea arte ezereen jabeak ez direnak, azalari heldu eta mamia ahazten dutenak, mamia agertzeraz doanean dena galtzen dutenak, ispilu honek irudi hori galduko lukeen bezala neskak arnasa bakar batez bere bihotza desestali nahi izango balio. Eta baldin eta norbait presentziaren une berean gogoramenezko irudi bat gordetzeko gauza ez balitz, edertasunarengandik urrun egotea desiratu beharko luke, hurbil edukita ezin izango bailuke bere begi lurtarrez ikusi zein ederra den besoetan duena, kanpoko begiek galdu dutena, eta berak kanpoko ikusmenerako berreskura dezakeena beregandik urrundu, baina orduan ere bere arimaren begien aurrean eduki dezakeena; objektua hurbilegi duelako ikusten ez duenean, ezpaineekin bat egiten...

Zein polita den! Ispilu gaixoa, tormentu bat izan behar du zuretzat; eskerrak jelsia ezagutzen ez duzun, Burua erabat obalatua du, eta apur bat aurrerantz makurtzen du, kopeta nabarmenduz, garbi eta harro altxatzen, bere adimenaren zeinurik eskaini gabe. Adats ilunak samur eta leun markatzen zaizkio kopetan. Fruta bat bezalakoa du aurpegia, angelu oro mamiz biribilduak; larruazala gardena du, belusa bezalakoa ukितuan, begiez ikus dezaket hori. Bere begiak....ez, ez ditut oraindik ikusi; ezkutaturik dauzka seda-izpiez armatutako eta kakoak bezala makurtutako betazalen atzean, bere begiradarekin topo egiten duenarentzat arriskutsuak direnak. Burua Madonna batena du, garbitasun eta errugabetasunez markatua; Madonna bat bezala dago makurtuta, baina ez Bakarraren ikuskizunean galduta; honengatik aldatzen zaio aurpegiera. Aniztasunari dago begira, distira eta loria lurtarrak islatzen direneko aniztasunari begira. Eskularrua erantzten du ispiluari eta niri eskuina erakusteko, zuria eta ongi formatua antigoaleko estatua bat bezala, inongo apainik gabe, ezta hatz nagian hitzartuen urrezko eraztun laurik ere, bapo! Begiak jasotzen ditu, - nola aldatzen den guztia eta, haatik, berdinean segitzen-, kopeta ez hain goia, aurpegia ez hain erregulariki obalatua baina biziagoa. Dendako enpleguarekin hizketan ari da; alai dago, pozik, berriketa gogoekin. Aukeratu ditu dagoeneko gauza bat, bi, hiru; laugarren bat hartzen du. Eskuan dauka, begirada jaisten du berriro, zenbat balio duen galdetuz. Alde batera uzten du, eskularruaren azpian; sekretu bat da inolaz ere....Norentzat, ordea? Bere maitearentzat? Ez dago hitzemandako ordea. Baina hitzeman gabeko makina batek du maitea, eta hitzemandako makina batek ez du maitea....Uko egin beharko ote nioke? Bakean utzi bere atsegina gozatzen? Ordaintzera doa, baina poltsa galdu du. Bere helbidea ematen ari da, antza denez. Ez dut entzun nahi; ez diot neure buruari ezustea ukatu nahi. Ezbairik gabe topatuko dut berriro noizbait; ezbairik gabe antzeman egingo diot, eta berak ere agian antzemango dit, nire zeharka ko begirada ez baita horren erraz ahazten. Orduan, espero ez nuen egoera batean topatuz ezustea hartzen dudanean, orduan izango da bere txanda. Ezagutzen ez banau, bere begiradak horretaz bat batean komentitzen ez banau, orduan beti izango dut zeharkako begirada zuzentzeko aukera. Egoera gogora etorriko zaiola agintzen dut. Urduritasunik ez, gutziarik ez, dena zurrut geldoetz gozatuko da; neska aukeratuta dago, eta zalantzarik gabe harrapatuko dut.

*Bosta*

Hau atsegin dut; arratsean Østergade-n barrena, bakarrik. Bai, ikusten dut mirabea atzean daramazula; ez uste bakar-bakarrik ibiliko zinela uste nuenik, ez dut zutaz hain iritzi gaiztoa; ez uste egoera aztertzean haren irudi serioan ez erreparatzeko bezain esperientzia gabea naizenik ere. Zergatik, baina, duzu presa hori? Artega samar zaude inondik ere, taupada bereziak sumatzen dituzu bihotzean, ez etxera joateko halako ezinegonezko irrika batengatik, artegasun gozo batez gorputza zeharkatzen dizun ezinegonezko beldur batengatik baizik, eta horri zor zaio oinen erritmo azkarra. Baina zein zoragarria den, zein paregabea bakarrik ibiltzea, atzean mirabea daramazuela....

Hamasei urte dituzu, eta irakurria zara, alegia nobelak irakurria; anaien gelatik pasatzean ustegabeen harrapatu izan duzu haien eta beren adiskideen arteko elkarriketetan hitzen bat, Østergaderi buruzko hitzen bat. Geroztik hainbat aldiz pasa zara leku beretik ahal zen neurrian informazio gehiago jasotzearen. Alferrik. Hala ere, neska hazi bati dagokion legez, pixka bat jakin beharko zenuke munduaz. Kalera besterik gabe irten ahal izango bazina, mirabea atzean eramanez...Bai, noski, baina gurasoek aurpegi txarra jarriko lukete, eta zer aitzakia eman behar zenien? Festa batera zoazenean ez dago horretarako aukerarik; goizegi da, Augusti bederatzai-hamarrek inguruan zela entzun bainion oharkabean; etxerakoan, berri, beranduegi da, eta gehienetan galai baten laguntza aspergarria izaten duzu. Ostegun arratsean antzokitik irteten garenean aukera zinez bikaina izan liteke, baina horietan beti ibili behar duzu zalgurdiz eta Thomsen andrea eta bere lehengusina xarmangarriez lagunduta. Bakarrik bazeunde leihoa jaitsi eta kanpora begira zenezake. Baina maiz gertatzen da gutxienik espero duzuna<sup>9</sup>. Gaur amak esan dit: martxa horretan ez duzu josten ari zaren hori bukatuko zure aitaren urtemugarako. Inork traba egin ez diezazun izeba Jette-renera joan zaitezke eta bertan geratu te-ordua arte; gero Jens joango zaizu bila. Ez zen oso berri atsegina, izeba Jetteren etxea nahiko aspergarria baita; baina horrela bakarrik itzuliko naiz etxera bederatzietan mirabearekin. Jens datorrenean hamarrek laurden gutxi arte itxaron beharko du, eta orduan abiatuko gara. Eragozpen bakarra da nire anaia edo August topa nitzakeela... Eta hori ez litzateke hain desiragarria izango, orduan etxera lagunduko bailidakete. Mila esker, baina nahiago dugu libre izatea, libertatea. Baina ikusi ahal izango banitu haiek ni ikusi gabe...

Beno, ene andereñotxo, zer ikusten duzu, eta zer uste duzu ikusten dudala nik? Hasteko, buruan daramazun kapelatxo ongi egokitzen zaizu eta erabat moldatzen zaio zure portaera osoan sumatzen den presari. Ez da sonbreilua, ezta txanoa ere, kapusai tankera du. Baina ezinezkoa da goizean atera zarenean jantzita eramana izana. Mirabeak eraman dizu, ala izeba Jettek maileguan eman ote dizu? Agian *incognito* antzean zabiltza. Baina beloa ez da horren jaitzita eraman behar gauzak ikusi nahi direnean. Edo agian ez da beloa, farfail zabala baizik? Ilunbean ezinezkoa da zehaztea. Baina bata zein bestea izan, gauza da aurpegiaren goiko aldea estaltzen duela. Kokotsa nahiko polita da, apur bat zorrotzegia. Ahoa, txikia, zabalik daramazu, bizkorregi zabiltzalako. Hortzak, elurra bezain zuriak. Horrela behar dute izan. Hortzek berebiziko garrantzia dute, ezpain seduzitzaileen leuntasunaren atzean ezkutatzen den bizkarzaina baitira. Matrailei distira osasuntsua darie. Aurpegira alde batera pixka bat makurtuko bazenu, belo horren edo farfail zati horren azpitik begiratzea ez litzateke zaila izango. Kontuz baina; horrelako begirada, azpitikoa, zuzena<sup>10</sup> baino arriskutsuagoa da. Esgriman bezala da; eta zein arma da begia bezain zorrotza, hain sarkorra, hain distiratsua mugimenduan, eta horrexegatik hain engainaria? Laurden garai bat keinatzen duzu, esgrimariak esaten duten bezala, eta gero kolpetik eraso; keinada erasotik zenbat eta jarraiagoan izan, orduan eta hobeto. Keinadaren unea deskribaezina da. Aterioak kolpea sumatzen du, ukitu egin dute, bai, baina ez berak uste zuen lekuan...

Nekaezin, aurrera jotzen du, beldurrik gabe, akatsik gabe. Erne gero, gizon bat hurbiltzen zaizu; jaitsi beloa, bere begirada profanoak ez zaitzala lohitu. Gutxi dakizu gauza horietaz, eta agian denbora luzez ezinezkoa izango litzazuke nagusitu zaizun larrimin nardagarria ahaztea. Ez zara konturatzen, ni bai ordea, egoera bere osotasunean ulertzen duela. Mirabea aukeratu du hurrengo xedetzat. Hara, horra hor mirabearekin bakarrik ibiltzearen ondorioa. Mirabea erori egin da. Irrigarria da benetan, baina zer egin behar duzu? Itzuli eta osteraz zutitzen laguntzea pentsaezina da; mirabe lohitu batekin ibiltzea atsegaitza da; bakarrik ibiltzea, gaizki ikusia. Erne gero, mustroa hurbiltzen ari zaizu...

Ez didazu erantzuten; begiraidazu, tankera beldurgarria al dut? Ez dut zugar inongo zirrarik eragiten; beste mundu batetik datorren gizon atsegin bat ematen dut. Ez dago nire hitzetan ezer asaldagarririk, egoera gogora dakarkizun ezer ez, gehiegi hurbiltzeko mugimendu xumeenik ere ez. Oraindik larrituta zaude, ez duzu ahaztu oraindik pertsona kezkarri<sup>11</sup> hori nola hurbildu zaizun. Halako begikotasun bat sentitzen duzu nirekiko; nire herabetasunak, zuri begiratzea debekatzen didanak, abantaila ematen dizu. Atsegin dut, eta segurtasuna ematen dizu; ia-ia adarra pixka bat jotzeko tentazioa ere senti zenezake. Apustu egingo nuke une honetan niri besotik heltzeko adina adore bil zenezakeela hala otuko balitzaizu....

Hara, beraz Stormgaden<sup>12</sup> bizi zara. Diosal egiten didazu hotz eta azaletik. Hori merezi al dut, nahigabe honetatik atera zaitudan honek? Damutzen zara, nigana itzuli, eskerrak ematen dizkidazu nire

<sup>9</sup> Jatorrizkoan *unverhofft kommt oft*.

<sup>10</sup> Jatorrizkoan *gerade aus*.

<sup>11</sup> Jatorrizkoan *unheimlich*.

<sup>12</sup> Hitzek hitz, "ekaitz kalea".

adeitasunagatik, eskua luzatzen didazu....zergatik zurbiltzen zara, baina? Ahotsa ez zait batere aldatu, begiak beti bezain bare eta lasai dauzkat. Bostekoa emateagatik? Bosteko emateak esanahi berezirik izan al dezake? Ba handia, esanahi handia izan dezake, andereñotxo. Bi aste barru dena azalduko dizut: ordurarte kontraesanean murgildurik segituko duzu: gizon atsegina nauzu, zaldun antzean neska gazte baten laguntzera etorria, eta ezin dizut adeitsua ez den moduan eskua estutu.

Apirilak 7

“Orduan, astelehenean ordu batean erakusketan”. Oso ongi, ordu bata laurden gutxitan azaltzeko ohorea izango dut. Amodio-zitatxo bat. Larunbatean, auzia behingoz itxi nahian, asko bidaiatutako Adolph Bruun nire lagunari aspaldiko partez bisita egitea deliberatu nuen. Helburu horrekin abiatzen naiz arratseko zazpietan Vestergade aldera, norbaitek bertan bizi zela esan baitzidan. Baina ezin izan nuen aurkitu, ezta arnaska iritsi nintzen hirugarren bizitzan ere. Eskailerak jaistera noanean belarrietara iristen zait emakumezko ahots melodiatsua, ahopean esaten: “Orduan, astelehenean ordu batean erakusketan: ordu horretan denak kanpoan izango dira, baina badakizu ez naizela zu etxean ikusten ausartzen”. Gonbidapena ez zen niretzat, gazte batentzat baizik, eta hau –bat, bi, hiru- hain bizkor atera zen kalera non nire begiek, eta zangoek zer esanik ez, ezin izan baitzuten atzeman. Zergatik ez dute gas-lanparik eskaileretan? Orduan ikusi ahal izango nukeen ea merezi ote zuen puntu-puntu iristeak. Argia egon balitz, ordea, agian ez nukeen ezer adituko. Baina dagoena da arrazoizkoa<sup>13</sup>, eta ni optimista naiz eta izango naiz beti...

Baina nor ote da? Erakusketan, Donna Annaren hitzak<sup>14</sup> erabiliz, neskak gainezka daude. Ordu bata laurden gutxi da zehazki. Ene ezezagun panpoxa! Zure senargaia zentzu guztietan ni bezain puntuala izango ahal da; ala nahiago al zenuke menturaz ordu laurden bat lehenago ez agertzea? Nahi duzun bezala, alde edo moldez zure zerbitzura naukazu...

“Azti liluragarria, hada edo sorgina, osten bedi zure lainoa”, zeure burua erakutsi. Litekeena da honezkero hemen egotea, baina ez zaitut ikusten; ager zaitez, bestela ez bainaiz errebelazio bat edukitzera ausartzen. Neska gehiago ote dabil hemen jardun berean? Litekeena da. Gizakien bideak igerrezinak dira, baita erakusketa batera doazenean ere.

Neska gazte bat sartzen da lehen aretoan, arrapaladan, kontzientzia txarra bekatiaren atzetik baino lasterrago. Txartela entregatzea ahazten zaio, eta gorriz jantzitako gizonak geldiarazi egiten du. Ene bada, nolako presa daraman! Bera izan behar du. Zertarako halako garaiz kanpoko oldarra? Oraindik ez da ordu bata. Ez ahaztu gero maitearekin elkartu behar duzula. Horrelako aldietan ez du axola batek zer tankera duen, ala horrelakoetan hain zuzen erakutsi behar da norberaren onena? Honelako neskato errugabe batek, zita batera doanean, su eta gar ekiten dio. Erabat nahasita dago. Ni, berriz, hemen nago patxada ederrean nire aulkian eserita, landetako ikuspegi zoragarri bati begira...

Hau neskatila demonioa! Areto guztietan sartzen da ziztu bizian. Antsia apur bat ezkututzen ikasi behar duzu: ez ahaztu Lisbeth andereñoari<sup>15</sup> esan ziotena: egokitzen ote zaio andereño bati horren gogotsu agertzea amodio-zita batera? Baina topaketa hau erabat inozentea da, noski...

Normalean amodio-zita bat unerik ederrena izaten da maiteminduentzat. Neronek ere gogoan dut oraindik, atzo gertatu balitz bezala, elkartzeko lekura arrapaladan abiatu nintzen lehen aldia, bihotza itxaroten zidan pozaz beteta bezain ohitu gabea. Eskuaz hiru kolpe jo nituen lehen aldia; leiho bat ireki zen lehen aldia; neskaxa baten esku ikustezinak ate bat zabaldu zidan lehen aldia, ireki ahala neska ate atzean ezkutatu; udako gau argitsu batean neska bat kapa azpian izan nuen lehen aldia. Iritzi honetan, ordea, irudikeria ugari dago nahasita. Ikusle neutral bati ez zaio iruditzen maiteminduak une honetan ederren agertzen direnik. Ikusi ditut amodio-zitak zeinetan, nahiz eta neska polita eta gizona lerdana izan, irudipen orokorra ia nardagarria baitzen, eta elkarketa bera inola ere ez atsegina, maiteminduei hala iruditu arren. Esperientzia gehiago duzunean zerbait irabazten duzu: izan ere, egonezinezko irrikaren artetatasun gozoa galtzen duzu, baina unea zinez ederra egiteko lasaitasuna irabaziz. Haserre jartzen naiz halakoetan gizona ikusten dudanean hain nahasita non amodio egoera hutsak *delirium tremens* atakea

<sup>13</sup> Esaldia Hegelena da, eta hemen parodi tonuan erabiltzen da.

<sup>14</sup> “Noranahi doala, neskak gainezka ditu” Mozarten “Don Giovanni”, 1.ek., 16. eskena Laurids Kruse-k Kopenhagen 1807an egindako moldaketan.

<sup>15</sup> “Molière daniarra” esaten zaion Ludvig Holberg-en “Erasmus Montanus” antzerkiaren pertsonaia da Lisbeth andereñoa. Aipamena 5. ekitaldiko 5.eszenakoa da.

eragiten baitio. Izan ere, zer ote daki nekazariak jaki goxoez? Neskaren asaldura gozatzeko, honen eraginez bere edertasun distiratsua areagotua ikusten jakiteko zuhurtasuna izan beharrean, nahasdura atsegaitz bat besterik ez du lortzen, eta hala ere pozik etxeratzen da, zoragarria izan dela irudikatuz.

Baina non arraio sartu da gizona? Ia ordu biak dira dagoeneko. Jendilaje ederra maitemindu hauek. Alproja galanta, neskato bat itxaronarazten! Ni, ordea, horrelakoetan askoz fidagarriagoa naiz! Onena izango da neskari hitz egitea bosgarren aldiz ondotik pasatzen zaidanean. “Barkaidazu ausardia, andereño xarmagarria; badirudi familiaren bila ari zarela. Hainbat aldiz pasa zara korrika nire aldamenetik, eta begiez jarraitzen nizuenean konturatu naiz beti gelditzen zarela azkenaurreko aretoan. Agian ez dakizu handik haratago beste areto bat ere badagoela. Ziur aski bertan aurkituko dituzu bilatzen dituzunak”. Buruaz agurtzen nau; are politagoa da horrela. Egoera aldezkua dut. Pozten naiz gizona ez datorrelako; hobeto arrantzatzen da beti ur arretan. Neska bat asaldatuta dagoenean gauza gehiago arriska daitezke, bestela huts egingo luketenak. Ahal bezain modu adeitsu eta formalenean makurtu diot burua; berriro nago aulkian eserita nire paisaiari begira eta neskari begirik kendu gabe. Berehala segitzea arriskutsuegia izango zen; lotsagabe bat nintzela eman zezakeen, eta neska berriro erne jarriko litzateke. Honela, berriz, uste du errukiak bultzatuta hitz egin diodala, eta begi onez ikusten nau.

Barruko aretoan ez dago inor, ondotxo dakit. Bakardadea onuragarria suertatuko zaio; inguruan jende asko ikusten duenean artaga jartzen da, eta bakarrik egoteak lasaitasuna emango dio. Halaxe da, barruan geratu da. Gutxi barru *en passant* sartuko naiz; berriz hitza zuzentzeko eskubidea dut, oraindik diosal bat zor baitit.

Eseri egin da. Neska gajoa, zein malenkoniatsu dirudien; uste dut negarrez aritu dela, edo behintzat malkoak izan dituela begietan. Izugarrikeria da horrelako neska negar egitera bultzatzea. Baina egon lasai, mendekatua izango zara, nik mendekatuko zaitut, eta orduan ikasiko du alprojak itxarotea zer den. Zein polita dagoen orain, haize zirimolak naretu ondoren gogo-egoera barean atsedean hartzen. Bere izatea tristura eta minaren nahasketa harmoniatsua da. Benetan erakargarria da. Bidaijantzia darama soinean, baina ez zuen bidaiatu behar, pozaren atzetik abiatzeko jantzi du; orain, berriz, bere oinazearen sinboloa da, poza urrundu egiten zaiola ematen balitu. Bere maitearengandik betirako urrundu denaren tankera du. Joan dadila alproja! Egoera nire alde dut, uneak keinuak egiten dizkit. Orain zera egin behar dut, halako moduan hitz egin non bere familia edo ezagunen baten bila ari zelakoan nengoela pentsatuko baitu, baina aldi berean halako berotasunez non hitz bakoitza esanguratsua baitzaie bere sentipenei, eta modu horretan bere gogoetetan epaixka sartuko naiz.

Alproja halakoa! Horra non sartu den ziztu bizian aretoan gizon bat; bera da, zalantzarik gabe. A zer nolako memeloa, hain justu egoera nik nahi nuen bezala jartzen ari zenean. Baina lasai, honetatik ere aterako dut abantailarik. Beren harremana ustegabeen ukitu behar dut, neure burua egoeran txertatzen moldatu. Neskak ikusten nauenean, irribarre egingo dit nahi gabe, familiaren bila ari zela uste nuelako, erabat bestelako zerbaiten bila ari zenean. Irribarre horrek bere konplize bilakatzen nau; ez da gutxi. Mila esker, txiki; irribarre horrek uste duzuna baino askoz balio handiagoa du niretzat; hasiera da, eta hasiera beti izaten da nekezena. Orain elkar ezagutzen dugu, eta gure erlazioa egoera pikante batean oinarritzen da; oraingoz aski zait. Ordu bete eskas geratuko zara hemen, eta bi ordu barru nor zaren jakingo dut. Zertarako uste duzu, bada, gordetzen dituela Poliziak jendearen errolda zerrendak?

### Bederatzia

Itsu bihurtu al naiz? Arimaren barne-begiak bere ahalmenak galdu al ditu? Ikusi egin dut, baina agerpen zerutarra ikusi banu bezala izan da, ostera erabat desagertu baitzait bere irudia. Alferrik saiatzen naiz nire arimaren indar guztiak biltzen irudi hori agerrarazteko. Inoiz berriro ikusten badut, baita ehunka pertsonaren artean ere, segituan antzeman ahal izango diot. Orain urrundu egin zait, eta nire arimaren begia alferrik saiatzen da bere oroimenez berreskuratzen.

Langelinie<sup>16</sup> barrena nindoan, itxuraz axolagabeki eta inguruneari erreparatu gabe, nahiz eta nire begirada aztertzaileari ezer itzuri ez. Orduantxe ikusi dut. Nire begiak, beren nagusiari jaramonik egin gabe, beregan tinkotu dira. Ezinezkoa zitzaidan begirada aldentzea eta ikusi nahi nuen objektua ez ikustea. Ez zen begirada arrunta, tinko begira nengoen. Esgrima ria erasoan geldi-geldirik geratzen den bezala, halaxe geratu ziren nire begiak tinko, hasierako norabidean finkatuta. Ezinezkoa ikustea, gehiegitxo ikusten nuelako hain zuzen. Gogoan geratu zaidan gauza bakarra da soinean kapa berdea zeramala, besterik ez;

<sup>16</sup> Kopenhageko zentrotik iparrera doan itsas paseobide luzea.

Juno besarkatu beharrean hodeia besarkatzea<sup>17</sup> esan lekiok horri. Ihes egin dit, Josek Putifarren emazteari bezala, atzean kapa soila utziz. Andre adindu batekin zihoan, bere ama zirudiena. Hura burutik behatzetaraino deskriba nezake, nahiz eta benetan begiratu ez, *en passant* begiztatu baizik Horrela izaten da. Neskak eragin dit zirrara, eta ahaztu egin dut; besteak zirrarak eragin ez, eta nik hau gogoratu.

#### Hamaika.

Nire arimak kontraesan berean trabatuta dirau. Badakit ikusi dudala, baina berriro ahaztu dudala ere badakit; halako moduan ordea non geratzen zaidan oroipen hondarrak ez bainau kontsolatzen. Artegatasunez eta oldarrez, ongizatea jokoan banu bezala, nire arimak irudi hura erreklamatzeko du, baina irudia ez da itzultzen; begiak erauziko nituzke beren ahanztura zigortzearen. Gero, egonezinez amoratu ostean baretasuna itzultzen zaidanean, gertatzen zait susmoak eta oroipenak irudia, bere kontestuan geldit mantentzea lortu ezin dudalako; ehun fin bateko marrazkia bezala da: marrazkia atzeko bakoari argiagotzen da, ezin da berez ikusi, hain zuzen horren argia delako. Horrela aurkitzen naiz egoera arraro batean, atsegingarria izan arren, bai berez, baita oraindik gaztea naizela adierazten didalako ere. Beste hausnarketa batek gauza bera erakusten dit, alegia, harrapakina neska gazteen artean bilatzen dudala etengabe, ez emazte gazteen artean. Emazte batek ez du hainbeste naturaltasunik, koketagoa da; emazte batekiko harremana ez da ederra, ezta interesgarria ere, pikantea baizik, eta pikantea azkenekoa da beti. Ez nuen espero maitemintzearen lehen fruituak berriro ere dastatzeko aukera izatea. Amoratzean murgildu naiz, igerilariak pulunpa esaten diotena egin dut, eta ez da harritzekoa zorabiatu samar ibiltzea. Askoz hobeto, askoz gehiago agintzen baitiot neure buruari harreman honetatik.

#### Hamalaua

Ozta-ozta antzematen diot neure buruari. Pasioaren oldarpean marrumaka dabilkit gogoia, itsaso zurrumbilatsua haultzen. Norbaitek egoera honetan arima ikusiko balit, irudituko litzaioke itsasoan brankaz behera hondoratzen den txalupa zela, ziztu izugarrian leizezuloaren sakonera abiatu beharrekoa. Ez du ikusten marinela bat dagoela mastaren goian gabizain. Marru egizue, indar basatiok; orro egin bezate indar grinatsuek; zuen olatuek bisutsa hodeitaraino bultzatzen badute ere, ezingo nauzue metatzearren metatzeaz gainditu. Labarreko erregea bezain lasai nago.

Nire oinek ia ezin diote lurrari heldu; itsas hegaztiak bezala, alferrik ahalegintzen naiz nire gogoaren itsaso zurrumbilatsuan pausatzen. Eta hala ere zurrumbiloak dira nire elementua. Beren gainean eraikitzen dut, *Alcedo ispida*-k<sup>18</sup> itsaso gainean habia egiten duen bezalaxe.

Indioilarrek lumak harrotzen dituzte kolore gorria ikusten dutenean. Gauza bera gertatzen zait niri berdea ikusten dudanean, lapa berde bat ikusten dudana bakoitzean; eta begiek sarri askotan ziria sartzen didatenez, batzuetan itxaropen guztiak zapuztu egiten dizkit Frederiks Ospitaleko<sup>19</sup> morroi batek.

#### Hogeia

Nork bere burua mugatu behar du; hori da gozamen guztietarako baldintza nagusia. Badirudi ez dudala aurki lortuko nire arima eta gogoeta guztiak, are oroimina areagotu arte, betetzen dituen neskari buruzko informazioa. Orain nahiko lasai geratuko naiz egoerak, emozio ilun eta zehazgabe baina hala ere indartsu honek, bere gozotasuna ere baderalako. Betidanik atsegin izan dut gau ilargitsu batez hiriko laku zoragarrietako batean txalupa etzanda egotea. Horrelakoetan belak hartu, arraunak bildu, lema bere kasa utzi, luze-luze etzan eta zerugangari begira geratzen naiz. Olatuek txalupa beren magalean kulunkatzen dutenean, haizeak bultzatutako hodeiak abian gaintetik pasatzen zaizkidanean, ilargia une batez ezkutatu ondoren berriz erakusteko, orduan aurkitzen dut baretasuna ategatasun honetan. Olatuen mugimenduak lotarazi egiten nau; ontziaren aurka egiten duten hotsa sehaska kanta monotonoa bezalakoa da niretzat; hodeien hegada lasterrak eta argi eta itzal arteko aldagetak halako molde horditzen naute non esan amesten baitut. Orain era halaxe nago etzanda, belak hartuta eta lema libre. Oroiminak eta itxaropena ategak beren besoetan astintzen naute, oroimina eta itxaropena gero eta lasaiagoak dira, gero eta dohatsuagoak; haurra banintz bezala zaintzen naute. Itxaropenaren zerua gainean uztaitzen zait; neskaren irudia ilargiarena bezala pasatzen zait gaintetik, zehazgabea, noiz bere argiak noiz bere itzalak itsutzen naularik. Nolako gozamena ur mugikorrean honela kulunkatzea; nolako gozamena nor bere baitan mugitzea.

<sup>17</sup> Ik. (14) oharra.

<sup>18</sup> Martin arrantzale mota bat, garai batean habia ur gainean egiten zuela egozten zitzaiona.

<sup>19</sup> Ospitale horretako morroiek mantal berde motzak eramaten zituzten soinean.

Egunak joan egunak etorri ez dut aurrerapenik egiten. Neskaxa gazteak inoiz baino gehiago gustatzen zaizkit, eta hala ere ez dut gozatzeko desirarik. Nonahi bilatzen dut. Honek sarritan bidegabe bihurtzen nau, begirada lausotu eta gozamina asaldatzen dit. Laster helduko da urtesasoi eder hori, zeinean kale zabal zein meharretan negu garaiko gizarte-bizitzan oso garesti suertatzen diren eskakizun xumeak eskura baitaitezke; izan ere, neskaxa gazte batek gauza asko ahaztuko ditu, baina inoiz ez egoera bat. Egia da, bai, gizarte-bizitzak harremanetan jartzen zaituela sexu ederrarekin, baina ez du aferra bat hasteko balio. Gizarte-bizitzan neskaxa guztiak armatuta egoten dira, egoera pobrea izaten da, behin eta berriz errepikatzen dena, eta ez dute astinaldi sentsualik izaten. Kanean itsaso irekian bezala daude, eta horregatik gehiago hunkitzen dituzte gauza guztiek, gauza guztiak misterioitsuagoak ematen duten bezala. 100 rixdal<sup>20</sup> ematen ditut neskaxa irribarre batengatik kale-egoera batean, eta 10 ere ez bostekoak emateagatik bilera sozial batean; moneta mota erabat desberdinak dira. Aferra hasi ondoren bileretan bila dezakezu neska. Harekin komunikazio ezkutu eta tentagarria duzu, nik ezagutzen dudak kinadarrak eragingarriena. Bera ez da aipatzen ausartzen, baina franko pentsatzen du horretaz: ez du jakiten ahaztu duzun ala ez; batean bide oker batetik eramaten duzu, hurrengoan beste batetik. Aurten ez dut uztu handirik jasoko; neska honek gehiegi okupatzen nau. Irabaziak urriagoak izango dira, nolabait, baina sari nagusia irabazteko aukerak dauzkatz.

Zorte madarikatua! Ez zaitut inoiz madarikatu agertu izanagatik; inoiz agertu ez izanagatik madarikatzen zaitut. Edo zure asmaketa berri bat ote da? Izaki ulertezin horren, guztiaren ama antzuaren, beharrak askatasuna sortu eta askatasuna engainuez berriro umontzira itzuli zen garai hartatik geratzen den gauza soil horren asmaketa? Zorte madarikatua! Nire konplize bakar hori, nire aliatu eta nire etsai izateko aintzat hartzen dudak izaki bakarra, beti berdina desberdintasunean, beti ulertezina, beti enigma! Nire arimaren sinpatia osoaz maite zaitudan hori, nire eredu modatzeko zure irudia beharrezkoa zaidan hori, zergatik ez zatzaizkit agertzen? Ez nabil eskean, ez dizut apalki erregutzen honelako edo halako moduan agertzea; halako gurraketa idolatria litzateke, atsegaitza gertatuko litzazuke. Borrokatzera desafiitzen zaitut; zergatik ez zara agertzen? Ala mundu-egituraren funtsa den zurrumbiltoa gelditu, zure enigma askatu eta zeu ere eternitatearen itsasora amildu al zara? Gogoeta izugarria: orduan mundua asperdura hutsaren poderioz gelditu da! Zorte madarikatua, eta ni zure zain. Ez zaitut printzipioez edo jende mozoloak nortasuna esaten dion horretaz gauditu nahi. Ez, poesiaz sortu nahi zaitut! Ez dut besteentzako poeta izan nahi; ager zaitez, eta zure poeta izango naiz. Neure poema jango dut, hori izango dut janaria. Edo desegokitzat hartzen al nauzu menturaz? Tenpluko dantzaria Jainkoaren omenez dantzatzen den bezalaxe, zure zerbitzura konsagratu naiz; bizkorra, arin jantzia, malgua, desarmatua, guztiari uko egiten diot. Ez naiz ezeren jabe, ez dut ezeren jabe izan nahi. Ez dut ezer maite, ez dut ezer galtzekorik; baina horren kariaz ez al dut zure aurrean, jendeari maite duena kentzez, haien hasperen eta otoitz koldarrez aspalditik aspertuta egon behar duzun horren aurrean, egokixeago agertzea lortu? Emaidazu ezustea, prest naukazu. Apusturik ez, ohoreagatik lehia gaitzen. Erakutsidazu neska, erakutsidazu imposiblea dirudien posibilitatea, erakutsidazu neska azpimunduko ilunbeetan, eta handik erreskatatuko dut<sup>21</sup>. Gorroto diezadala, destaina egin diezadala, ez diezadala jaramonik egin, beste bat maite dezala....ez dit beldur ematen. Baina urari eragin, apur ezazu isiltasuna. Zeure burua ni baino indartsuagoztat jotzen duzun horrentzat ankerkeria da ni honela gosez hilaraztea.

Udaberria iritsi da. Dena loratzen da, neska gazteak ere bai. Kapak alde batera uzten dira, eta nire kuttun berdea ere ziur aski zintzilik dago. Hau gertatzen da neska baten ezagutza kanean egiten duzunean, ez gizarte-bizitzan; honetan segituan esaten digute bere izena, zein senditakoa den, non bizi den, ea hitzemanda dagoen. Azken informazio hau izugarri funtsezkoa da gorteiari zuhur eta lehiati guztientzat, ez bailitzaieke burutik pasako ere hitzemandako neska batez maitemintzea. Horrelako alfer batek gorriak ikusiko litzuke nire lekuan balego: guztiz lur jota geratuko litzateke informazioa lortzearen egindako ahaleginak arrakastaz koroatu ondoren, sari gisa neska hitzemanda balego. Baina horrek ez nau gehiegi kezkatzen. Hitzemanda egotea oztopo komiko bat besterik ez da. Oztopo komiko nahiz tragikoek ez naute

---

<sup>20</sup> Koroa ezarri aurretik Danimarkan erabilitako moneta.

<sup>21</sup> Erreferentzia mitologikoa. Orfeok Euridize bere maitea azpimundutik erreskatatu zuen.



ikaratzen; ikaratzen nauten bakarrak aspergarriak<sup>22</sup> dira. Egundaino ez dut informazio bakar bat ere eskuratu, nahiz eta saiatu gabe ezer utzi ez dudana, eta askotan sentitu dut poetaren hitzen egia:

*nox et hiems longaeque viae, saevique dolores  
mollibus his castris, et labor omnis inest*<sup>23</sup>

Agian ez da hemen bizi, agian landetakoa da, agian, agian.....Sutan jartzen naute agian horiek guztiek, eta zenbat eta sutanago jarri, gero eta agian horiek guztiek, eta zenbat eta sutanago jarri, gero eta agian gehiago topatzen ditut. Beti edukitzen dut dirua eskumenean bidaiaren bati ekiteko. Alferrik bilatzen dut antzokian, kontzertuetan, dantzaldietan, paseabideetan. Poztu egiten naiz neurri batean; horrelako atsegin-lekuetan asko diharduten neskak ez du normalean konkistatzea merezi izaten; gehienetan falta ohi zaio niretzat *conditio sine qua non* den eta dirauen originaltasuna. Preciosa<sup>24</sup> bat ijitu artean aurkitzea ez da neskak salgai eskaintzen diren –inozentzia guztiz. Jainkoarren, nork dio besterik?- feria-dantzaldietan aurkitzea baino bitxiagoa.

Hamabia

Baina, ene txikia, zergatik ez zara atarian geratu lasaitasun osoz? Euria ari duenean neskato batek atarte batean aterbea bilatzea ez da inola ere kritikagarria. Nik ere horixe egiten dut aterkirik ez daramadanean, eta batzuetan baita daramadanean ere, orain adibidez. Are gehiago, hori egiteko dudarik egiten ez duen dama agurgarri andana bat aipa nezake. Lasai jardun behar duzu, eta kaleari bizkar eman; honela kaletik dabiltzanek ezin dute jakin egonean zauden ala etxera igotzera zoazen. Baina ez dago ongi ikusita atearen atzean ezkutatzea hau erdi zabalik dagoenean, batez ere ondorioengatik; zenbat eta ezkutatuago egon, orduan eta atsegaitzagoa baita ezustean hartua izatea. Baina ezkutatu baldin bazara, geldi-geldirik geratzen zara, zeure burua zortearen eta aingeru guztien eskuetan jarritz; batez ere, ez duzu kanpora begiratu behar atertu ote duen jakiteko. Horretaz ziur egon nahi baduzu, eman deliberamenduzko urrats bat aurrera eta seriotasunez begiratu zeruari. Aitzitik, burua pixka bat jakinminaz, lotsaz, larriduraz, segurtasunik gabe aurreratu eta gero bizkor atzeratzen baduzu, orduan edozein umek ulertuko du mugimendua; ezkutuka jolastea esaten zaio. Eta nik, jolaserako beti prest nagoen honek, uko egin behar al diot? Ez al dut erantzun behar galdetzen zaidanean?

Ez uste zutaz gogoeta iraingarririk bururatzen zaidanik; ez zeneukan motiborik xumeena ere burua ateratzean, munduko gauzarik inozenteena izan da. Zuk, zure aldetik, ez nauzu zure gogoan iraindu behar; nire izen onak eta erreputazioak ez dute baimenduko. Gainera, zuk hasi duzu dena. Gertakari honetaz inoiz inori ez mintzatzea aholkatzen dizut; ez zaizu komeni. Zer egin nezake, beste edozein gizon prestuk egingo ez zukeenik? Aterkia eskaini, noski.

Non sartu ote da? Primeran, atezainaren atari azpian babestu da. Hori neskaxa maitagarri, alai eta atsegingarria. “Agian informa nazakezu une honetantxe eta dudarik gabe aterki bila atari, honetatik burua atera duen damatxo bati buruz. Bere bila nabil, edo gabiltza, aterkia eta biok”. Barre egiten duzu... Utziko al zenidake bihar goizean mirabea bila bidaltzen, ala nahiago duzu zalgurdi bati deitzea?...Ez horregatik, beharrezko galaitasuna besterik ez da. ...Aspaldiko partez ikusi dudana neskatorik alaienetako bat da. Bere begirada ume batena da, baina hala ere pikaroa; bere portaera miragarri eta garbia, baina hala ere ikusbera. ...Zoaz bakean, txikia, kapa berde batengatik ez balitz, desira nezakeen ezagupen hurbilago bat, .... Han doa, Store KØbmagergade barrena. Zein errugabe eta fidakorra zen, mindulinkeria arrastorik gabe. Begira zien arin dabilen, zein tente daraman burua. Baina kapa berdeak pairamena eskatzen du.

Hamabosta

<sup>22</sup> Jatorrizkoan langweiling.

<sup>23</sup> Eremu atseginotan badaude gaua, ekaitza, bidai luzeak, Oinaze ankerrak eta mota guztietako nekeak. Ovidio, “Ars Amandi”, II, 235.

<sup>24</sup> Wolff-en drama lirikoa, C.M. von Weber-ek musikatua; I ekitaldian Preciosari esaten zaio:

Baina esaidazu, Preciosa, nola haz daitezke

Xarma, grazia eta dezentzia jendetzaren artean?

Ez ote zaitu porbreziak seduzituko?

Non gordeko duzu dezentzia

Huts eta bizioz inguratutik

Etengabe bizi zarenean?



Eskerrik asko, zorte atsegina, mila esker! Tente eta harroa zen, misteriotsua eta gogoetetz bete zen izeia bezala; hau, enbor bat, gogoeta bat, lurraren errailetatik altxatzen da zerurantz, azalpenik gabe, bera ere azaldu ezina, atalik ez duen batasuna. Pagoak adaburua eratzen du, bere hostoek haren azpian gertatutakoaren berri ematen dute; izeiak ez du ez adabururik ez historiarik, enigmatikoa da berez. Horrelakoa zen bera. Bere baitan ezkutatuta zegoen, bere baitatik altxatzen zen, bazegoen beregan harrotasun baketsu bat, izeiak –lurrari iltzatuta egon arren- egiten duen ihesaldi ausartaren parekoa. Malenkoniaz inguratuta zegoen, pagausoa kurrunkez bezala, ezeren minik ez zuen oroimin batez inguratuta. Enigma bat zen bera, enigmatikoki bere baitan askabidea zeraman enigma, sekretu bat; eta zer dira diplomatikoen sekretu guztiak enigma honen aldean, eta ba al da mundu osoan enigma hau askatzen duen hitza baino ederragorik? Zein adierazkorra, zein zehatza den hizkuntza: askatzea, nolako zentzu bikoitza gordetzen duen hitz horrek, nolako edertasunez eta indarrez kutsatzen den hitza agertzen den konbinaketa guztietan! Arimaren ondasuna, mihia askatu arte, eta beraz enigma askatu arte, enigma bat den era berean, neska gaztea ere enigma bat da.

Eskerrik asko, zorte atsegina, mila esker! Negu partean ikusi ahal izan banu, kapa berdeaz estalita joango zatekeen, agian hozminduta, eta naturaren laztasunak edertasuna gutxiagotuko ziokeen. Orain ordea...hau zoramera! Lehenbiziko aldiz ikusi dut urtesasoirik ederrenean, udaberrian, arratsaldeko argitan. Hala ere, neguak ere baditu bere abantailak. Distiratsu argiztaturiko dantza-aretoa ingurune lausengarria izan daiteke dantzarako jantzitako neska batentzat. Baina halakoetan, alde batetik gutxitan erakusten ditu bere xarma guztiak, inguruneak hala eskatzen diolako hain zuzen, eta halako eskariak, nola berak bete hala erabat kontrakoa egin, asaldatu egiten du neska: beste aldetik, inguruan duenak iheskortasuna eta banitatea dakartzio gogora, pozari freskotasuna kentzen dion ezinegon bat eraginez. Hainbat alditan ez nuke dantza-areto bat alde batera utziko, ez nuke bere luxu garestia, bere gaztetasun eta edertasunezko oparotasun neurrigabea, bere indar-joko ugaria alde batera utziko, baina ez dut horretan gozatzen beste aukera batzuek zorutzen nauten bezainbat. Ez zaitu eder berezi batek liluratzen, guztien osotasunak baizik; amets-irudi bat pasatzen zaizu ondotik hegan, bertan emakumezko izaki guztiok elkarren artean nahasten direlarik, mugimendu horiek guztiek zer baiten bila diharduten artean, ikusten ez den irudi batean lasaitasun bila.

NØrreport eta Østerport arteko paseabidean izan da<sup>25</sup>. –Arratsaldeko sei t´erdiak inguru izango ziren. Eguzkiak indarra galdua zuen, haren gogorapena bakarrik gordetzen zen ikuspegitik zabalduz zihoan dirdir leun batean. Naturak askeago arnasten zuen. Lakua bare zegoen, ispilua bezain distiratsu. Blegdam-eko etxe bikainak uretan islatzen ziren, lakuak pixka bat harantzago metalaren kolore iluna hartzen zuelarik. Paseabidea eta beste ertzeko eraikinak egukiaren izpi ahulez argiztatuta zeuden. Zerua argia eta garbia zen; hodei arin bakar bat labaintzen zitzaion oharkabea gainetik, ederki ikusten zena begiak lakuan tinkatzen zirenean, honen bekoki distiratsuan desagertuz. Ez zen hosto bakar bat mugitzen. ....Bera zen. Begiak ez nau engainatu, behinola kapa berdeak bezala. Aspaldiko partez horretarako prest egon arren, ezin menderatu izan dut halako egonezin bat, igotze eta jaiste bat, alboko soroan zegoen kalandriaren kantua igo eta jaitsi egiten zen bezala.

Bakarrik zegoen. Berriro ere ahaztu egin zait nola zihoan jantzita, baina orain badaukat bere irudia. Bakarrik zebilen, eta bazirudien bere buruaz arduratuta baino gehiago, bere gogoetetan murgilduta zegoela. Ez zen pentsatzen ari, baina bere gogoeten jarduera lasaiak oroiminezko irudi bat ehuntzen zion bihozkadak nagusitzen zitzaizkion ariman, neskato baten hasperen ugariak bezain ulertezina zen irudia. Adinik ederrenean zegoen. Neskato bat ez da mutiko baten modu berean kozkortzen; ez da kozkortzen, jaio egiten da. Mutilak segituan ekiten dio kozkortzeari, zeregin horretan denbora ugari emanez; neska batek denbora ugari behar du jaiotzeko eta erabat kozkortuta jaiotzen da. Horretantxe datza bere ondasun amaigabea: jaio ordurako kozkortuta dago, baina jaiotune hori berandu etortzen da. Horregatik jaiotzen da bi aldiz: bigarren ezkontzen denean edo, zehatzago, jaiotzeari uzten dion unea arte ez da jaiotzen. Beraz, ez da Minerva Jupiterren kopetatik erabat garatuta jaiotzen den bakarra, ezta Venus bere edertasun osoz uretatik agertzen den bakarra ere, horrelakoak dira delako hezkuntzak ematasuna hondatu ez dien neska guztiak. Neska bat ez da pixkana-pixkana esnatzen, kolpetik baizik; gainera, askoz luzaroago amesten du, jendeak goizegi deitzeko zentzugabekeria burutzen ez badu bederen. Baina ameste hori ondasun amaigabea da.

---

<sup>25</sup> Paseabidea hiriko harresien atzean zegoen S. Kierkegaard maiz ibiltzen zen handik, eta inoiz Regine bertan topatua zen.

Ez zegoen bere buruaz arduratuta, bere baitan arduratuta baizik, eta ardura hura bake eta lasaitasun amaigabea zen berez. Neskato bat modu honetan da aberatsa; ondasun horretaz jabetzeak berak aberats bihurtzen zaitu. Aberatsa da, ezeren jabea denik ez jakin arren; aberatsa da, benetako altxorra da. Bake lasai bat nagusitzen zitzaion, eta tristura apur bat. Begiez altxatzeko bezain arina zen, iratxoek daramaten Psyche<sup>26</sup> bezain arina; are arinagoa, bere burua baitzeraman. Eztabaida dezatela Elizaren doktoreek Andra Mariaren Igokundeaz; niri ez zait batere harrigarria iruditzen, ordurako ez baitzen mundu honetakoa; baina neskato baten arintasuna ulertezina da eta barre egiten dio grabitatearen legeari.

Neskak ez zuen ezertan erreparatzen, eta horregatik uste zuen ez zuela inork beregan erreparatzen. Nik, bere irudian buru-belarri murgilduta, urrutirik jarraitu diot. Astiro zebilen, bere bakea edo ingurunearen lasaitasuna ez zuen inongo presak eragozten. Lakuan mutil bat arrantzan ari zen; neska gelditu egin da, uraren isladari eta kortxoeko flotagailu txikiari begira. Azkar ibili ez izan arren, freskatzeko premia zeukan; askatu egin du txal azpitik lepoaren inguruan zeraman zapitxo. Lakutik zetorren haizetxoak laztandu egin dio elurra bezain zuria baina epela eta beteak zen bularra. Mutilari ez bide zaio gustatzen bere harrapaketen lekukorik izatea; jiratu eta halako begirada apatiko batez geratu zaio so. Itxura nahiko barregarria zeukan, eta neskak barre egin badio ez da bere errua izan. Bai barre gaztea zuela; mutilarekin bakarrean egon balitz, ez dut uste harekin borrokatzeko beldur izango zukeenik. Begi handi eta distiratsuak zeuzkan; haien barrura begiratzen zenuenean argitasun ilun bat zeukaten, beren sakon hondorik gabearen ideia bat emanez, ezinezkoa baitzen bertan sartzea; garbi eta inozenteak ziren, leun eta lasaiak, bihurrikeriaz beteak irribarre egiten zuenean. Sudurra graziaz makurtua zen; zeharka ikusi diodanean kopetan sartzen zitzaiola iruditut zait, horrela laburrago eta ausartago bihurtuz.

Aurrera segitu du: ni atzetik. Eskerrak paseabidean jende gehiago zebilen; batarekin eta bestearekin hitzen bat trukatzu aurrea hartzen utzi diot, gero osterat atzemateko. Modu hartan saihestu egiten nuen tarte bat atzetik bere ibilera geldoan joan beharra. Østerport aldera jo du. Hurbilagotik ikusi nahi izan dut, ikusia izan gabe. Izkinan etxe bat zegoen, eta bertatik lortu ahal izango nuen. Familia ezaguna nuen eta bisita egitea besterik ez nuen. Ziztu bizian pasa naiz neskaren ondotik, inondik inora ere ikusi ez banu bezala. Dexente aurreratu, etxera sartu, familia eskuin-ekzter agurtu eta bidera ematen zuen leihoaz jaundu naiz. Hantxe zetorren, eta ni begira eta begira, egongelan te hartzen ari zirenen jardunaren haria galdu gabe. Bere ibileratik aise ondorioztatu dut ez dituela dantza eskolak hartu, eta hala ere bazegoen han halako fiertasun bat, berezko noblezia bat, bere buruarenganako arreta eskasa sumatu arren. Beste behin ikustea egokitu zait, espero ez nuenean. Nengoen leihotik ez nuen bideko zati handirik ikusten, baina ikuspegiak neukan laku gaineko zubi bat, eta nire harriidurarako hantxe ikusi dut berriro. Otu zait agian hemen, landetan, bizi zela; agian bere familiak bertan hartuak dauzka gelak udarako.

Nire bisitaz damutzen hasia nintzen, jiratzen bazen bistatik galduko ote nuen beldur; izan ere, bazirudien zubiaren mutur urrunenean agertzea aienatu egingo zitzaidalako seinalea zela. Eta halako batean hurbil agertu zait. Etxe ondotik pasatzen ari zen; ziztu batean eskua luzatzen dut kapela eta makilaren bila, ahal beste aldiz aurreratu eta gero pasatzen uzteko asmoz, non bizi zen aurkitu arte, eta hara non nire presatan tea zerbitzatza zihuan dama baten besoa bultzatzen dudana. Garrasi izugarri bat altxatzen da; kapela eta makila eskuan ditut, nire kezka bakarra handik aldegitia eta egokituko balitz arazoari buelta eman eta aldegitiko arrazoiaren bat bilatzeko, eta doinu dramatiko esaten du: Kainek bezala herbesteratu beharko dut tea botatzen ikusi nauen etxe honetatik. Baina nire aurka konspirazioaren bat bailegoen, etxeako andreak, nik esandakoari jarraituz, ideia zorigaitzekoa bururatzen zaio, eta ozen eta argi esaten du ez didala etxetik irteten utziko harik eta kikara bat te dastatu eta beste damei tea zerbitzatuz orbana garbitzen ez dudana arte. Konturatu naizenean egoera hartan etxeako andreak are kortesiatzat har zezakeela indarkeria erabiltzea, geratu beste erremediorik ez dut izan. Desagertua zen neska.

*Hamaseia*

Zein ederra den maiteminduta egotea; eta zein interesgarria maiteminduta zaudela jakitea. Izan ere, ez da berdina. Sutan jar naiteke bigarren aldiz galdu dudala pentsatuz, baina nolabait ere poztu egiten naiz horregatik. Neskari buruz dudana irudia modu zehazgabe batez mugitzen da bere itxura errearen eta idealaren artean. Orain irudi hori dut aurrean; baina, hain justu errearekitatea delako, edo errearekitatea berez okasio bat delako, badu magia berezi bat. Ez dut inongo ezinegonik, dudarik egiten ez dudalako hirian bizi dela, eta une honetan aski zait. Segurtasun hori bere irudia behar bezala agertzeko baldintza da. Dena zurrut geldoetan dastatua izango da. Ez al nuke bada lasai egon behar, neure burua jainkoen begikotzat jotzen dudanez, berriz maitemintzeko aukera bitxia egokitu zaidanez? Hori ezin du inongo artek, inongo

<sup>26</sup> Villa Farnesina-ko Rafaelloren koadroan kupidoek Psyche zerurantz altxatzen dute.

ikasketak lortu, dohai bat da. Baina maitasun berri bat piztea erdietsi dudanez, ikusi nahi dut ea zenbat denboraz manten daitekeen. Maitasun hau mainatu egingo dut lehenarekin egin ez nuen bezala. Honelako aukera gutxitan azaltzen denez, probetxatzea da zentzuzkoena. Baina etsigarria da, neska bat seduzitzean ez baitago arterik; seduzitua izatea merezi duen neska aurkitzea, hori bai zorionekoa. Maitasunak misterio ugari ditu, eta lehenbiziko maitemintze hau ere misterioa da, misterio ttikia izan arren. Jende gehiena azkar mugitzen da, ezkontzeko hitza eman edo beste burugabekeriaren bat egiten du, eta berehalakoan dena bukatu da, eta ez du jakiten ez zer konkistatu duen ez zer galdu duen. Dagoeneko bi aldiz agertu zait, gero desagertzeko; horrek esan nahi du maizago ikusiko dudala. Josek Faraoiari ametsa argitu zionean esan zion: amets hori bi aldiz izateak aurki gauzatuko dela esan nahi du.

Interesgarria litzateke, ordea, bizitzaren edukia osatzen duten indarrak aldeztu aurretik ikusi ahal izatea. Une honetan patxada osoan ari da bizitzen; ez du zantzurik ere existitzen naizela, are gutxiago nire baitan zer gertatzen den, eta are gutxiago ere bere etorkizunari nolako segurtasunez begiratzen diodan; nire arimak gero eta errealtate gehiago erreklamatzeko baitu, gero eta indartsuago bilakatuz. Neska batek lehen begiratuan ideala esnatzeko moduko zirrara eragiten ez dizunean, orduan eskuarki errealtatea ez da oso desiragarria izaten; baina halako zirrara eragiten badizu, orduan, eta esperientzia handia izan arren, eskuarki zorionez gainezka geratzen zara. Bere eskuaz, bere begiaz eta bere garaipenaz seguru ez dagoenari beti aholkatzen diot lehen fase honetan erasotzea, gainezka egoteagatik indar berebizikoak dituelako, eta gainezkaldi hori begikotasun eta berekoikeriazko nahasketa harrigarria delako. Galdu egingo du, ordea, gozamina, ezin baitu egoera gozatu egoeran bertan bilduta, ezkutatuta dagoenean. Ederrena zer den erabakitzea zaila da, eta interesgarriena zer, erraza. Onena, haatik, marrara ahalik eta gehien hurbiltzea izaten da beti. Horretantxe datza benetako gozamina, eta besteek zertan gozatzen duten ez dakit ziur. Jabetza hutsa oso gutxi da, eta halako maitaleek erabiltzen dituzten bitartekoak nahiko ziztrinak; ez dituzte dirua, boterea, kanpotiko eragina, lo-edabeak etabar arbuiazen. Baina zer gozamen egon daiteke maitasunean alderdi batengan erabateko ukoa gertatzen ez denean? Baina horretarako izpiritua behar izaten da, eta horrelako maitaleek ez dute izpiriturik izaten.

---

#### *Hemeretzia*

Beraz, Cordelia du izena, Cordelia! Izen polita da, eta horrek ere badu garrantzirik, asaldagarria gerta baitaiteke sarri, hainbat izenondo samurren alboan izen itsusiren bat aipatu behar izatea. Oraindik urruti zegoela antzeman diot; beste bi neska zeramatzan bere ezkerrean. Ibileraren mugimenduak laster geldialdi bat egingo zutela adierazten zuen. Kale-kantoiaren gelditu naiz txartelak irakurtzen, nire ezezagunari begirik kentzen ez nion bitartean. Banandu egin dira. Beste biak apur bat desbideratuta zebiltzan inolaz ere, kontrako norabidean abiatu baitira. Nire kantoirantz jo du. Urrats pare bat eman orduko korrika etorri zaio atzetik nesketako bat, nik aditzeko moduan oihukatuz: Cordelia! Cordelia! Gero hirugarrena etorri da; buruak elkartu eta txutxumutxuka hasi dira, baina alferrik zolitu dut belarria, ez baitut sekretu bakar bat ere aditu. Ondoren hirurak barrez hasi eta erritmo azkarxeago batez abiatu dira bi lagunak hartutako bidetik. Ni atzetik joan natzaie. Stranden<sup>27</sup> aldeko etxe batean sartu dira. Luze geratu naiz zain, Cordelia laster bakarrik itzuliko zela zirudielako. Ez da, ordea, horrelakorik gertatu. Cordelia! Izen bikaina da benetan; horrela zuen izena Lear erregearen hirugarren alabak, bihotza ezpainetan jartzen ez zuen neska nabarmenak, bihotza gainezka eduki arren ezpainak mutu zituenak<sup>28</sup>. Nire Cordeliarekin berdintsu. Haren antza du, ez dut inolako zalantzarik. Baina beste zentzu batean darama bihotza ezpainetan, ez hitz forman, bihotzezkoagoa den moduan baizik, musu forman. Bai osasunez beteak haren ezpainak! Ez dut inoiz ezpain politagorik ikusi.

Benetan maiteminduta nagoela ikus dezaket, besteak beste, auzi hau modu izugarri misteriotsuan daramadalako, baita neure buruarekiko ere. Maitasun oro da misteriotsua, baita desleiala ere, bere baitan dagokion osagai estetikoaren daramanean. Ez zait inoiz burutik pasa konplizeren bat nahi izatea, edo nire abenturez harrotzea. Horregatik ia poztan naiz ez dakidalako bere helbidea, maiz joaten den leku batena baizik. Gainera, baliteke modu horretan nire xedera are gehiago hurbildu izana. Behaketa buru dezaket bere arretera piztu gabe, eta puntu irmo honetatik ez zait gehiegi kostako bere familiarekin tratuan hastea.

---

<sup>27</sup> Christiansborg Jauregiaren –gaur egun Parlamentuaren egoitza- ondoko kanalaren beste ertzeko kalea.

<sup>28</sup> “Kingi Lear”, I, 1. Erregeak erresuma hiru alaben artean banatu nahi duenean, Cordeliak ez du bere ahizpek aitarekiko maitasuna adieraztearren erabilitako hitz ederrez baliatu nahi. Besteenak entzundakoan, Cordeliak dio:  
Errukarria orduan, Cordelia!  
Baina ez uste; ziur bainaz maitasuna  
Mihia baino adierazgarriagoa dudala

Baina zirkunstantzia hori arazo bilakatzen bazait...eh bien! , orduan arazoa soinean hartuko dut. Egiten dudan guztia *con amore* egiten dut, eta maitatu ere *con amore* egiten dut.

---

### Hogeia

Gaur informazioa bildu dut neska desagertu zen etxeari buruz. Ama alarguna eta hiru alaba xarmangarri bizi dira bertan. Informazioa barra-barra lor daiteke han, baldin eta informaziorik badute, noski. Arazo bakarra da azalpenak hirugarren potentzian ulertzea, hirurek batera hitz egiten baitute. Cordelia Wahl du izena, eta Gerla Itsas Armadako kapitain baten alaba da. Duela urte batzuk hil zitzaion aita, eta ama ere bai. Gizon oso zorrotz eta hertsia zen. Orain izeba du etxean, aitaren arreba, bere anaiaren oso antzekoa, baina andere oso agurgarria omen dena. Beno, ez dago gaizki, baina horrez gain ez dakite ezer etxe horretaz; ez dira hara ikustera joaten, baina Cordeliak maiz egiten die bisita. Berak eta bi neskek Errege-Jauregiko sukaldaritza eskolak hartzen dituzte. Horregatik bisitatzen ditu arratsaldean goiz, lantzean behin goizean, inoiz ez arratsean. Nahiko bakartuta bizi dira izeba-iloba.

Eta hemen amaitzen da historia: ez dago nonbait Cordeliaren etxera sartzen lagunduko didan zubirik

Dirudienez, neskak badu nolabaiteko ideia bizitzaren sufrikarioez, honen alderdi ilunez. Nork esango zukeen. Hala ere, gogorapen horiek gazteagoa zen garaikoak izan behar dute; zeruertzt honen azpian bizi izan da ia-ia jabetu gabe. Hori oso ongi dago, emakumetasuna gordetzen lagundu dio; ez dago nahasita. Beste aldetik, baliagarria izango zait hezteko orduan, gogorapenok behar bezala bere gogora ekartzen baldin badakit. Horrelakoek harrotasuna pizten dute zuregan, lur jota uzten ez bazaituzte behintzat, eta Cordelia ez dago batere lur jota.

---

### Hogeita bata

Harresien aldean bizi da; ez da lekurik onena, aurrean ez baitago harremanetan hasteko auzokorik, ezta oharkabeen galderak egiteko moduko leku publikorik ere inguruan. Gainera, harresiak ez dira leku egokia, bistan zeudelako. Kanean behera zoazela, ezin zara harresien aldean ibili, hor inor ez dabilenez arreita deituko zenukeelako; eta etxeetatik hurbilegi joanez gero, ez duzu ezer ikusten. Izkina batean dago. Aldamenean beste etxerik ez dagoenez, patrioko leihoak ere ikus daitezke kaletik. Ziur aski hortxe du logela.

---

### Hogeita bi

Gaur lehenbiziko aldiz ikusi dut Jansen andrearenean. Aurkeztu egin didate. Ez zirudien garrantzi handirik ematen zionik, edo jaramon egiten zidanik. Ahalik eta zuhurren jardun dut, Cordelia hobeto aztertu ahal izateko. Unetxo bat baizik ez da geratu, etxeko alaben bila etorria baitzen sukaldaritza eskoletara joateko. Bi Jansen andereñoak janzten ziren bitartean bakarrik geratu gara egongelan, eta patxada hotzez eta kasik jaramonik egin gabe pare bat hitz zuzendu diot, berak merezi ez nuen kortesiaz erantzun didalarik. Joan egin dira. Lagun egiteko proposamena luza niezaiekeen, baina hori nahikoa zatekeen nire baitako galaia desestaltzeko, eta guztiz sinetsita nago ez dela hori neska nireganatzeko bidea. Aitzitik, nahiago izan dut haiek aldegin eta berehala abiatzea ni ere; haiek baino azkarrago eta beste kale batzuetatik joan naiz, baina betiere Errege-sukaldeetarantz, halako moldez non Store Kongensgadetik jiratzen zihoazela arrapaladan pasa natzaie ondok ez agur ez ezer esan gabe, haiek zur eta lur utziz.

---

### Hogeita hirua

Behar-beharrezkoa zait etxerako sarbidea aurkitzea, eta horretarako, mintzaira militarrean esaten den legez, prest nago. Badirudi, akbaina, arazo korapilatsu eta zaila izango dela. Ez dut inoiz ezagutu hauen bezain bakartu bizi den familiarik. Bera eta izeba besterik ez dira. Anaiarik ez, lehengusurik ez, heltzeko izpirik ez, ezta besoa gainetik bota niezaiokeen ahaide txikirik ere. Beso bat prest dudala ibiltzen naiz etengabe. Une honetan ez nintzateke inolaz ere ibiliko inori besotik helduta; nire besoa abordai-kakoa da, beti prest eduki beharrekoa. Nire besoa segurua ez den errentarako prest dago: badaezpada, han urruti ahaide txiki edo lagun urrunen bat azalduko balitz besoa gainetik botatzeko, eta ondo heltzeko. Gainera, ez da bidezkoa familia bat horren bakartuta bizitzea; neska gajoari mundua ezagutzeko parada kentzen ari zaio, gerta daitezkeen ondorio arriskutsuak ez aipatzeagatik. Beti izaten baitira ondorioak. Senargaia aurkitzeko berdin. Halako bakardadean lapurren aurka segurtasun handiagoa duzu, noski. Harrera oneko etxeetan aukerak egiten du lapurra. Baina ezer gutxi axola dio, horrelako neskei ezin baitzaie gauza askorik lapurtu; hamasei urte dituztela beren bihotza benetako izendegia da, eta nik beste asko idatzita

dauden lekuan neure izena idaztea ez dut inoiz gogoko izan. Ez zait inoiz burutik pasa leiho-kristal batean, edo taberna batean, edo Frederiksberg parkeko zuhaitz edo aulkietan neure izena idaztea.

---

### *Hogeita zazpia*

Neska zenbat eta gehiago ikusi, gero eta argiago jabetzen naiz pertsona bakartia dela. Gizasemeak ez luke bakartia izan behar, ezta gazteak ere, bere bilakaera hausnarketan oinarritu behar duenez gero besteekin harremanak behar dituelako izan. Horrexegatik ere neska gazte batek ez du interesgarria izan behar, interesgarritasunak bere baitan daukalako berari buruzko hausnarketa, arrazoi hori medio arte alorrean ere interesgarritasunak bere baitan artistaren inpresioa daukan era berean. Interesgarria izanez atsegin eman nahi duen neskatoak, bere buruari atsegin eman behar dio derrigorrez. Alderdi estetikitik horixe da koketeria mota guztien aurkako eragozpena. Beste gauza bat da modu guztiz okerrean koketeria esaten zaion naturaren berezko mugimendua, emakumeen prestutasuna esaterako, zeina koketeria mota ederrena baita beti. Horrelako neska interesgarri batek atsegin eman dezake; baina berak emakumetasuna alde bat utzi duen bezalaxe, berarekin atsegin hartzen duten gizonak ere gizatasunik gabeak izaten dira usu. Horrelako neska gaztea ez da interesgarri bilakatzen gizonekin harremanetan hasi arte. Emakumea sexu ahulagoa da, eta hala ere, askoz garrantzitsuagoa da beretzat gizonarentzat baino gaztetan bakarrik aritzea; bere kabuz jarduten jakin behar du, baina bere kabuz jarduten laguntzen dion hori irudikeria hutsa da; horixe du naturak; erregaren alabari bezala, hornitutako ezkonsaria. Baina irudikerian bermatze horretxek isolarazten du.

Maiz egin dut gogoeta neska batentzat ez dagoela sarri beste neskekin ibiltzea bezain gauza kaltegarriagorik. Honen arrazoa begibistakoa da, elkartzeko hori ez baita ez gauza bat ez bestea; irudikeria kolokan jartzen du, baina ez du argitzen. Emakumearen funtsezko xedea gizonaren laguntza izatea da<sup>29</sup>, baina bere sexukoez inguratuz aise hasten da horren gainean hausnartzen, laguntza izan beharrean laguntza-dama bilakatuz. Hizkuntza bera oso esanguratsua da honi dagokionez; gizonari “jauna” esaten zaio, baina emakumeari ez zaio zerbitzaria edo horrelako zerbait deitzen, ez, esentziazko definizioa erabiltzen da: laguntza da, ez laguntza-dama. Neska ideala irudikatu beharko banu, munduan bakarrik egon beharko luke beti, eta bere kasa jardun, baina ororen gainetik ez luke neska lagunik izan beharko. Egia da, bai, Graziak hiru zirela, baina ez zaio inori burutik pasatzen elkarrekin hizketan aritzen zirenik; beren hirutasun isilean emakumezko batasun ederra osatzen dute. Auzi honetan ginezeoen<sup>30</sup> berrezarpena aholkatzeko tentazioa sentituko nuke, itxitura horrek kalteak areagotu egingo ez balitu. Desiragarria da beti neska bati bere askatasuna uztea, baina berau gauzatzeak aukera eskaini gabe. Horrela eder bilakatzen da eta interesgarria izatea saihesten du. Beste neska gazteekin asko ibiltzen den neskari birjin-beloa ematea alferrikakoa da; aitzitik, nahiko zentzu estetikoak daukan gizonak neska inozente bat, hitzaren zentzu sakon eta onenean, beloz jantzita ikusiko du beti, ezkon-beloa erabiltzea dagoeneko ohitura ez izan arren.

Zorrotz hezi dute, eta horregatik ohore egiten diet hilobian dituen gurasoei; oso erretiratuta bizi da, eta bere izeba besarkatuko nuke esker onez. Ez ditu munduaren atseginak ezagutu, eta ez dago apetez hain asebeteta. Harroa da, gaitzetsi egiten du beste neskek atsegin dutena, eta hala behar du izan. Bere tenorean jakingo dut uste oker horretaz baliatzen. Apainkeriak eta luxuak ez dute beste hainbat neska bezala erakartzen; polemiko samarra da, baina hori beharrezkoa du bere erromantikotasuna duen neska gazteak. Fantasiatzeko mundu batean bizi da. Esku okerrean eroriko balitz, agian emakumetasunarekin inongo zerikusirik ez duen zerbait aterako liokete, hain zuzen beregan hainbeste emakumetasun dagoelako.

---

### *Hogeita hamarra*

Gure bideak nonahi gurutzatzen dira. Gaur hiru aldiz ikusi dut. Bere irtenaldi xumeenaren berri daukat, badakit noiz eta non aurkituko dudana, baina ez naiz ezagupen horretaz baliatzen berarekin topaketa bat lortzeko; alderantziz, izugarri eskuzabala naiz. Maiz, ordu askotan itxarotea kosta zaidan topaketa alferrik galtzen dut xumekeria bailitzen, eta ez natzaio hurbiltzen, bere existentziaren periferia ozta-ozta ukituz. Jansen andrearenera joango dela baldin badakit, berarekin ez elkartzeko saiatzen naiz, oharren bat edo beste egitea garrantzizkoa zaidanean izan ezik. Nahiago izaten dut Jansen andrearenera lehenxego iritsi, eta ahal badut atean topatu, bera sartzen eta ni irtetzen, edo eskaileretan, bere ondotik axolagabeki pasatuz.

---

<sup>29</sup> Ik. Genesi 2:18-23

<sup>30</sup> Antzina, batez ere Erdi Aroan, familiek zuten ohitura baten arabera, emakume ezkongabeek gela edo eraikin berezi bat zeukaten, bertan bizi eta lan egiteko.

Hauxe da bertan eror dadin ehun behar diodan lehen amarauna. Kalean ez dut geldiarazten; agian diosalen bat trukutzen dut berarekin, baina ez natzaio inoiz hurbiltzen, urrutitik begiratzen diot beti. Gure topaketa etengabeak ez zaizkio oharkabeen pasa, noski; ondo jabetzen da bere ortzean argizagi berri bat agertu dela, eta honen ibilbide harrigarriro asaldagaitza bere ibilbidean sartu dela modu asaldagarri batez. Mugimendu horretan agintzen duen legeaz, ordeaz, ez daki ezertxo ere. Horren ordeaz ezker-eskuin begiratzeko tentazioa du, xedea den puntua ikusi nahian; xedea bera dela ez da jabetzen ez bera ez bere antipoda. Inguratzen nautenei bezala gertatzen zaio: uste dute negozio ugaritan sartuta nabilela, etengabe jardunean ari naizela eta Figarok bezala diodala: bat, bi, hiru, lau intriga batera, horra atsegin dudana<sup>31</sup>. Lehenik, erasoari ekin aurretik, ondo ezagutu behar ditut bai bera bai bere egoera mental osoa.

Gehienek *champagne* kopa bat bezala gozatzen dute neskato bat, une apartsu batean; a, bai, oso polita da, eta neskato askorekin ezin daiteke gehiagora iritsi, baina hemen badago gehiagorik. Pertsona bat argitasun eta gardentasuna jasateko ahulegia denean, tira bada, orduan iluntasuna gozatzen du; baina, dirudienez, neska honek jasan egin dezake. Amodio erotikoa zenbat eta entrega gehiago egon, orduan eta interesgarriagoa da. Une bateko gozatze hau bortxaketa da, ez itxuraz baina bai zentzu izpiritualan, eta bortxaketa batean gozamina irudimenezkoa da; musu lapurtu batek bezala, ez du balio. Ez, neska bat eraman baldin badaiteke puntu batera, zeinean aske izateko ezagutzen duen betebeharrak bere burua entregatzea den, horretan zorion osoa sentitzen duelarik, entrega honen eske aritu eta aldi berean aske sentituz, orduan bakarrik dago gozamina, baina horretarako eragin izpirituala behar da.

Cordelia! Izen zoragarria da benetan. Etxean nago, loro batek bezala hitz egiten saiatzen. Cordelia, Cordelia, esaten dut, ene Cordelia, zu bai nire Cordelia. Ezin dut irribarre bat saihestu pentsatzen dudanean nire planaren arabera, egunen batean, une erabakigarrian, hitz hauek esango ditudala. Beti egin behar dira aurretiko azterketak, gauzak behar bezala antolatu behar dira. Ez da harritzekoa poetak beti deskribatzen aritzea hika hasteko une hau, une miragarri hau, zeinean maitaleek, ez uraz zipriztinduz (nahiz eta asko izan maila horretatik pasatzen ez direnak) maitasunaren itsasoan urperatuz baizik, pertsona zaharra erantzten baitute, bataio horretatik iritertean bata bestea adiskide zaharrak bezala ezagutzen dutelarik, une bateko ezagutza baizik ez izan arren. Neska gazte batentzat hauxe da unerik ederrena, eta ondo gozatzeko beharrezkoa da maila garaixeko batean egotea, ez bakarrik bataiatua bezala, baita apaiza bezala ere. Ironiatxo batez, une honen ondorengoa bilakatzen da interesgarriena, hots, biluzte izpirituala. Nahiko poeta izan behar dugu zeremonia ez eteteko, gure baitan gordetzen den maltzurra beti zelatan izan arren.

## Ekainak 2

Harroa da, hori aspalditik ikusia nintzen. Hiru Jansendarrekin batera dagoenean oso gutxi hitz egiten du. Besteen berriak aspertu egiten du, ezpainetan duen irribarre jakin batek hala adierazten du. Irribarre hori dut oinarri. Beste batzuetan, Jansendarren harridurarako, ia mutilezko basakerian eror daiteke. Ulergarri deritzot, bera haurtzaroaz pentsatzen dudanean. Anaia bakarra zeukan, urtebete zaharragoa. Anaia eta aita besterik ez du ezagutu, ikusi ditu hainbat gertakari larri, berriak gogoak kentzen dituztenetakoak. Bere aita eta ama ez ziren elkarrekin zoriontsu bizi; normalean modu argiagotik edo ilunago batez neska gazte bat erakar dezakeen horrek ez du erakartzen. Gerta liteke neska gaztea izatea zer den seguru ez jakitea. Baliteke noiz edo noiz desiratzea ez neska izatea, gizona baizik.

Baditu fantasia, izpiritua, grina....hitz batez, funtsezko guztia, baina ez era subjektibo batez islatuak. Gaur gertakari batek baieztatu dit hau. Jansendarrei esker badakit ez duela musikatresnarik jotzen, izebaren printzipioen aurka doalako. Beti iruditu zait tamalgarria, musika bide ona baita beti neska gazte batekin komunikatzeko baldin eta, ez hau ahaztu, aditua bezala ez agertzeko arreta hartzen bada. Gaur Jansen andrearenera joan naiz. Atea apur bat ireki dut, jo gabe; sarri askotan probetxagarria izan zait zakarkeria hori, eta premia izan dudanean bitxikeria batez, ate irekia joz alegia, konpondu izan dut. Bakarrik zegoen pianoaren aurrean, antza zenez ezkutuan jotzen. Doinutxo suediar bat zen. Ez zuen ondo jotzen; egonarria galtzen ari zen, baina berriro itzuli dira doinu leunagoak. Atea itxi eta kanpoan geratu naiz, bere umore aldaketak entzuten. Bere interpretazioari aldizka zerion grinak Mettelil dontzeila<sup>32</sup> zekarkidan gogora, urrezko harpa jo eta bularrei esnea zeriena. Bere joaldiak bazeukan halako kutsu malenkoniatsu bat, baina baita ditiranbo antzeko zerbait ere. Orduan sar nintekeen, unea harrapatzeko, baina tentelkeria izango

<sup>31</sup> “Figaroren Ezteiak”, II, 2. esk. N.T. Bruun-ek egindako itzulpenean, oso zehatza ez izan arren horrelako zerbait esaten dio Figarok Susanari (Bi, hiru, lau aldi berean! Ederki lotuak, elkar gurutzatzen dutenak).

<sup>32</sup> Svend Grundvig teologo eta kultur-berritzaile daniarrak bildutako herri kanta bateko pertsonaia.

zatekeen. Gogoramenean gauzak ez dira bere horretan gordetzen bakarrik, areagotu ere egiten dira; gogoramenera iragazten denak eragin bikoitza du. Sarritan aurkitzen da liburuetan, batez ere mezatarako kantaliburuetan, loretxo bat. Une eder baten ondorioz ipini dute hor, baina gogorapena are gozoagoa da. Argi dago bere piano ezaguerak ezkutatzen dituela, edo agian doinutxo suediarra da dakien gauza bakarra. Interes bereziren bat ote du beretzat? Honetaz guztiaz ez dakit ezer, baina horrexegatik garrantzi handikoa zait gertakari hau. Noizbait, barrukotasun gehiagoz hitz egiten diodanean, diskrezio handiz eramango dut gai honetara eta segadan eroriko da.

### Ekainak 3

Neska nola ulertu behar dudan jakin gabe segitzen dut; horregatik nabil honen isil, beti ezkutuan, abangoardian doan soldadua bezala hain justu, lurrian ahuspez etzan eta hurbiltzen ari zaion etsaiaren mugimendurik xumeenak ere entzuten. Errealitatean ez naiz beretzat existitzen, ez gure harremana negatiboa delako, inongo harremanik ez dagoelako baizik. Orain arte ez dut ezer arriskatu. Ikustea eta maitatzea bat izan ziren, nobeletan esaten den bezala; eta egia izango litzateke, maitasunean dialektikarik ez balego, baina zer ikasten du batek maitasunaz nobeletatik? Gezur hutsak, eginbeharra laburtzen laguntzen dutenak.

Pentsatzen dudanean, lortu berri ditudan informazioen argitan, bion arteko lehen topaketak egin zidan eraginaz. Cordeliak dudan irudia aski aldatzen da, bai bere bai neure onerako. Egia da ez dela eguneroko gauza izaten neskato bat horren bakarrik ibiltzea, edo bere baitara horrela biltzea. Aztertu egin nuen nire kritika zorrotzaz: xarmagarria. Baina xarma une izugarri iheskor bat da, iragan ondoren atzoko eguna bezala desagertzen dena. Ez nuen irudikatzen ingurune horretan biziko zenik, eta are gutxiago bizitzaren oldarrekin hain modu hausnargabeen etxekotua zegoenik.

Baina bere sentimenduen berri jakin nahi nuke. Ez dut uste inoiz maiteminduta egon denik: bere izpiritua askeegi hegatzten da horretarako. Are gutxiago da esperientzia teorikoa duten dontzeila horietako bat, garaia baino askoz lehenago bere burua maitale baten besoetan horren erraz<sup>33</sup> irudika dezaketenak. Ezagutu dituen pertsona errealek ezin izan dute nahasi ametsen eta errealtatearen arteko erlazioaz. Bere arimak idealen anbrosia jainkotiarraz elikatzen segitzen du. Baina bere baitan sumatzen duen ideala ez da artzaintsa edo nobela bateko heroisa, ezta maitalea ere, *Jeanne D'Arc* bat edo antzeko zerbait baizik.

Kontua da, oraindik ere, ea bere emakumetasuna nahiko indartsua ote den bere burua islatzeko, edo edertasun eta xarma hutsa bezala gozatu behar ote den; kontua da ea bat arkua gehiago tenkatzen ausartzen den. Gauza handia da bestela ere berezko emakumetasun hutsa aurkitzea, baina hau aldatzen arriskatzera ausartzen bazara, hortxe duzu interesgarritasuna. Kasu horretan, onena senargai arrunt bat aurkitzea izango da. Horrek neska gazte bat kalte lezakeela jendearen sineskeria besterik ez da. Izan ere, landare fin eta guria<sup>34</sup> baldin bada, bizitzako punturik gorena xarma duena, orduan onena da, noski, maitasunaren aipurik inoiz entzun ez izana. Baina hau ez baldin bada kasua, orduan abantaila bat da, eta ez nuke zalantzarik izango senargai bat lortzeko, aurretik ez balego. Senargai honek ez du inongo karikatura izan behar, horrela ez baita ezer irabazten. Gazte agurgarriren bat izan behar du, baita maitagarria ere ahal bada, baina ez neskaren grina asetzeko lain. Honek ez baitio kasurik egiten horrelako pertsonari: aspertu egiten da maitasunaz, eta ia-ia susmoak hartzen ditu bere buruaren errealtasunaz [Realitet], bere patua sumatu ondoren errealtateak [Virkelighed] zer eskaintzen dion ikusten duenean<sup>35</sup>. Maitasuna hau besterik ez bada, esaten du, orduan ez du merezi. Bere maitasunaz harrotzen da: harrotasun horrek interesgarri bihurtzen du, bere izateari kolore biziagoak erantsiz, baina erorketara hurbiltzen du orobat. Honek guztiak, ordea, gero eta interesgarriago bihurtzen du. Bitartean, onena bere lagunak ezagutzen joatea izango da, ea horrelako senargaia aurki daitekeen. Etxean ez du aukerarik, ez baititu ia inork bisitatzen, baina bisitaldiak egitera irteten da, eta beste etxeetan aurki liteke horrelakorik. Hau argitu aurretik beste bat aukeratzea problematikoa da beti. Bi senargaik, bakoitza bere aldetik arrunta, eragin txarra izan lezake, beren erlatibotasunagatik. Orain aurkituko dut ba ote dagoen horrelako maitale ezkuturen bat, etxera sartzeko adorea ez duena, horrelako klaustroan sartzeko aukerarik ikusten ez duen oilo-lapurra.

<sup>33</sup> Jatorrizkoan geläufig.

<sup>34</sup> Jatorrizkoan zart.

<sup>35</sup> Realitet: errealtasuna (subjektiboa) Virkelighed: aktualtasuna (objektiboa) Nolanahi ere, nahiago izan dut testuan “aktualtasun” termino filosofikoaren ordez “errealtate” hitza erabili, ulergarritasunaren mesedetan.



Hortaz, hastapen estrategikoa, kanpaina honetako mugimenduek jarraitu beharreko legea, izango da egoera interesgarrietan beti inguruan egotea. Beraz, interesgarritasunaren eremura eramane behar da borroka, interesgarritasunaren eremura eramane behar da borroka, interesgarritasunaren potentzia agortu behar da. Oso oker ez banabil, bere izaera osoa horretara egokituta dago, halako moduz non eskatzen dudana berak ematen dudana baita hain zuzen; areago, berak eskatzen duena. Kontatzen duena da pertsona batek zer eman dezakeen sumatzea, eta horren ondorioaz Cordeliak zer eskatzen duen ikustea. Nire amodio kontuek, beraz, beti dute errealtasun bat niretzat; nire bizitzako funtsezko une bat osatzen dute, ongi ezagutzen dudan hezkuntzaldi bat, maiz trebeziaren batekin lotua. Maite nuen lehen neskarengatik ikasi nuen dantzan, eta dantzaritxo batengatik frantsesa. Garai hartan, ergel guztiak bezala, azokara joaten nintzenean sarri sartzen zidaten ziria. Orain azoka zabaldu aurretik erosten dut<sup>36</sup>. Beharbada Cordeliari agortu egin zaio interesgarritasuna; bere bizitza hertsia hala adierazten bide du. Kontua da, orduan, beste alderdiren bat aurkitzea, berari lehen begiratuan hala iruditzen ez zaiona, baina eragozpen horrexegatik interesgarri bihurtzen zaiona. Helburu horretarako ez dut poetikotasuna aukeratzen, prosaikotasuna baizik. Beraz, horixe da hasiera. Lehenbizi bere emakumetasuna neutralizatu egin behar da zentzutasun eta txantxa arruntez, ez zuzenean, zeharka baizik, eta aldi berean neutral absolutuaz, izpirituaz alegia. Ia ez du bere burua emakume sentitzen, baina egoera horretan ezin du bere kabuz aurrera egin, eta neure besoetara botatzen da; ez maitale bezala, ez, erabateko neutraltasunez oraindik. Orduan emakumetasuna pizten zaio; hau bere malgutasunaren muturreraino bultzatu behar da, indar errealean bat edo besteren aurka jo dezan utziz. Hori gairiditu duenean bere emakumetasuna gailur ia naturaz gairidikoetara iristen da, eta nirea da grina mugagabe batez.

---

#### *Bosta*

Ez dut urrutira joan behar izan. Baxter merkatariairen etxera joaten da. Han aurkitu dut ez bera bakarrik, baita oso egokia iruditu zaidan beste pertsona bat ere. Edvard, etxeko semea, izugarri maiteminduta dago Cordeliar; segituan konturatzen zara horretaz begietara so eginez gero. Negozioan dihardu, aitaren bulegoan. Mutil lerdena, atsegina eta zertxobait lotsatia da, eta azken ezaugarri honek ez dio kalterik egiten neskaren begietan.

Edvard gizajoa! Ez du ideiarik ere bere maitasuna nola aitortu. Arratsaldean Cordelia etorriko dela dakienean, beregatik bakarrik janzen da, beregatik alkandora-eskumuturrekoak, eta horrek barregarri samar uzten du egongelako eguneroko bisitarien ondoran. Bere herabetasuna ia mugarik gabea da. Maskara gisakoa balitz. Edvard arerio arriskutsua izango litzaidake. Herabetasuna erabiltzeak arte handia eskatzen baitu, baina gauza asko lortzen lagun dezake. Zenbat aldiz baliatu naizen herabetasunaz neskaxaren bat engainatzeko. Neskek normalean gizon lotsatien aurka hitz egiten dute, baina ezkutuan gogokoak dituzte. Herabetasun pixka batek lausengatu egiten du neskaxa baten banitate, nagusia bera dela adierazten dio, berme gisako zerbait da. Lotarazten dituztenean, eta herabetasunez hiltzera zoazela uste duten unean bertan erakutsi behar diezu alderantzizkoa dela, ondo dakizula zeure kasa moldatzen. Herabetasunak garrantzi maskulinoa galarazten dizu, eta horregatik sexu harremanak neutralizatzeko bide nahiko ona da. Hau dela eta, konturatzen direnean maskara besterik ez zela, lotsatu eta barrurantz gorritzen dira, oso biziki sentitzen dute nolabait beren mugak gairiditu dituztela; mutil batekin umeantzean luzaroegi jardutea bezala izaten da.

---

#### *Zazpia*

Beraz, orain lagunak gara Edvard eta ni. Bion artean benetako adiskidetasuna dago, harreman ederra. Greziako garai distiratsuenaz geroztik izan ez dena bezalakoa. Segituan egin gara lagunminak; nik Cordeliari buruzko makina bat oharpenetan nahasi ondoren berak sekretua aitortzea lortu dut. Jakina, sekretu guztiak batera datozenean hau ere sar daiteke. Gizajoak luzaro darama hasperenka. Cordelia etortzen den bakoitzean apaindu egiten da, eta arratsean etxeraino laguntzen dio; bihotza taipaka hasten zaio neskaren besoa berearen gainean daramala pentsatuz. Oinez joaten dira etxera, izarrei begira. Edvardek txirrina jotzen du, Cordelia desagertzen da, etsiak hartzen du gizona....eta hurrengo aldia jartzen ditu itxaropenak. Oraindik ez du ataria zeharkatzeko kemenik izan, horren aukera bikainak izan arren. Neure baitarako Edvardi barre egitea saihestu ezin izan arren, bada bere umekeria halako edertasun bat. Erotismo gaitan nahiko jantzita nagoela irudikatu izan arren, ez dut egoera hori nigan inoiz sumatu, maiteminarens antsia eta dardar hori; hau da, ez behintzat zentzutasuna galtzeko heinean, zeren eta gauza ezaguna baitut bestela, baina niri gertatzen zait indartu egiten nauela. Agian norbaitek esan lezake ez naizela inoiz benetan maiteminduta egon. Baliteke. Errierta egin diot Edvardi;adore eman

---

<sup>36</sup> Erosleentzako prezioak igoarazteko.



diot nire adiskidetasunaz fida dadin. Bihar urrats erabakigarria emango du; etxera joango zaio gonbidapen pertsonala egitera. Moldatu egin naiz berarekin batera joateko eskaera etsia egin ziezadan; baietz agindu diot. Adiskidetasunezko froga berebizikotzat hartzen du. Parada nik nahi dudán bezalakoa da hain justu: ustegabeen bere gelaraino sartzean datza. Cordeliak nire agerpenaz dudarik xumeena izango balu ere, nire agerpenak bere aldetik dena nahasiko du.

Orain arte ez dut inoiz solasaldiak prestatzeko ohitura izan; orain, berriz, beharrezkoa izan zait izebarekin jarduteko. Izan ere, nire gain hartu baitut berarekin hitz egiteko zeregin ohoretsua, horrela Edvarden Cordelia inguruko mugimendu amoltsuak estaliz. Lehen izeba landetan bizi zen, eta bai landa ekonomiari buruz egin ditudan ikasketa sakonei bai izebaren esperietzian oinarritutako informazioei esker aurrerabide nabarmena egiten ari naiz jakintzan eta gaitasunean.

Arrakasta handia izaten ari naiz izebarekin: pertsona egonkor eta zuhurtzat jotzen nau: solasean atsegin handiagoa ematen diot egungo gaztetxoek baino. Ez dut uste, ordea, Cordeliak ongi hartzen nauenik. Bere emakumetasuna arrunt inozenteegia da gizon guztiei bereganako arreta eskatzeko, baina ondotoxumatzten du nire izaeraren manugaiztasuna.

Egongela goxoan honela eserita nagoenean, berak aingeru ona bailitzen xarma nonahi zabaltzen duenean, ondoan dituen guztiengana, on zein gaizto, batzuetan egonezina sentitzen dut barruan, nire ezkutalekutik irteteko tentazioa, zeren eta nahiz egongelako guztien begien aurrean egon, zelatan ari naiz betiere. Tentazioak ditut eskutik heltzeko, neska besoaz inguratzeko, neure baitan ezkutatzeko, norbaitek kenduko ote didan beldurrez. Edo Edvard eta biok arratsean agur esaten dugunean eta Cordeliak eskua luzatzen didanean gabon esateko, neurean hartzen dudanean, nekeza gertatzen zait sarri askotan txoritxoari eskutik joaten uztea. Egonarria: *quod antea fuit impetus, nunc ratio est*<sup>37</sup>. Oso bestelako moduan erori behar du nire amaraunean, eta orduan bapatean miasunaren indarrak askatuko dira. Ez dugu une hori hondatu maitekeria eta garaiz kanpoko aurrerapenez, eskerrak eman diezazkidekezu horregatik, ene Cordelia. Oposizioak garatzen ari naiz, maitasunaren uztaiak tenkatzen, are sakonago zauritzeko. Arkulariak, bezala soka lasatu eta osterak tenkatzen dut, bere doinua entzunez; neure gerla-musika da, baina ez dut oraindik destatzen, ez dut oraindik gezia sokan ipintzen.

Jende kopuru txiki bat gela berean maiz biltzen denean, tradizio gisako bat mamitzen joaten da bakoitzak bere lekua, bere postua, hartzeari dagokiona: izaten da nork bere nahien arabera deskribilka dezakeen marrazki gisako zerbait, eremuaren mapa. Halaxe gertatzen zaigu Walhdarren etxean, koadro bat osatzen dugula. Arratsetan tea hartzen dugu. Normalean izeba, ordurarte sofán eserita zegoena, josteko mahaitxora aldatzen da, bertan zegoen Cordelia sofa aurrean dagoen te-mahaiara doan bitartean; Edvardek honi jarraitzen dio, eta nik izebari. Edvardek misterioa nahi du, txutxumutxuka hitz egin nahi du, izebarekiko nire jardunak, ordea, ez du sekreturik; azoka prezioak, libra bat gurin lortzeko zenbat esne litro behar diren kalkulatu, bitarteko esnegaina eta gurinontziaren dialektikaren bidez. Gauza errealak dira, edozein neskak kalterik hartu gabe entzun ditzakeenak; baina gainera, eta hau ez da maiz gertatzen, sortzen den elkarriketa trinkoa izaten da, funtsezkoa eta eredugarria, gogoak zien bihotza goratzen dituen. Gehienetan bizkarra ematen diet te-mahaiari eta Cordelia eta Edvarden erromantzeari: izebarekin dut nik erromantzea. Eta zein bikain eta zuhurra den natura bere produktuetan, zein opari baliotsua den gurina, natura eta artearen emaitza zoragarria. Izebak ez du entzun behar Edvarden eta Cordeliaren artean esandakoa, baldin eta elkarri benetan ezer esaten badiote; hala agindu nion Edvardi, eta beti eusten diot esandakoari. Nik, aitzitik, trukutzen duten hitz oro aditzen dut, mugimendu oro sentitzen. Niretzat garrantzi handikoa da, pertsona batek etsaldi batean egin dezakeena ezin baita jakin. Pertsona zuhur eta lotsatienek ere aldian behin gauzarik aldrebesenak egin baititzakete. Bi pertsona bakartu horiekin zerikusirik ez izan arren, suma dezaket Cordeliarengan bere eta Edvarden artean beti dagoela nire presentzia ikustezina.

Koadro berezia osatzen dugu lauok. Irudi ezagunez pentsatuko banu, aurki nezake analogiarik, nik neure burua Menfistofeles gisa ikusten baitut; Edvard, ordea, ez da inongo Fausto, horra arazoa. Neure burua Faustotzat hartuz gero, berriz, antzeko arazoa dugu, Edvard ez baita inongo Menfistofeles. Ni neu ere ez naiz inongo Mefistofeles, ez bederen Edvarden begietan. Bere maitasunaren iratxo ontzat hartzen nau, eta zuzen dago horretan, ziur egon baitaiteke inork ez duela bere amodioa nik bezain ondo zaintzen. Izebarekin jardunean aritzea agindu nion, eta gogo beroz ekiten diot zeregin ohoretsu hori betetzeari. Izeba landa-ekonomiaz hasten denean kasik desagertu egiten zaigu begien aurretik: sukaldara joaten gara,

---

<sup>37</sup> “Lehen bulkada zena, orain zentzua da”. Ovidioren “Remedia Amoris”en 10. bertsoa. Ovidiok *quod nunc ratio est, impetus ante fuit* esaten du.

sotoetara, ganbarara, aztertzen ditugu oilasko eta ahateak, antzarak, etab.. Honek guztiak asaldatu egitne du Cordelia. Jakina, ezin du ulertu nire benetako asmoa. Ondotxo jabetzen da izeba ia barregarri geratzen dela, nahiz eta horren dama agurgarria izanik hori merezi ez izan. Beste aldetik, horren ondo egiten dudanez, Cordelia konturatzen da alferrikakoa litzatekeela nire jokabidea aldarazten saiatzea. Batzuetan urrutira eramaten dut jokoa, Cordeliak ezkutuan bere izebari irribarre egitea lortuz. Egin beharreko aprobak dira. Ez dut Cordeliaren konplizitateaz egiten; alderantziz, horrela ez nuke inoiz lortuko izebari irribarre egitea. Nik aldaezina jarraitzen dut, serio, zuhur; baina Cordeliak ezin izaten du irribarre egitea saihestu. Horra lehen jakintza faltsua; ironiaz irribarre egiten irakatsi behar diogu. Baina irribarre horrek ez du izeba bakarrik topatu behar, baita ni ere, ez baitaki oraindik nitaz zer pentsatu. Ni azkarregi zahartu den gaztea izan ninteke, bai; izan liteke bigarren aukera bat, hirugarren bat, etab. Izebari irribarre egindakoan bere buruarekin haserretzen da; ni jiratu egiten naiz eta, izebarekin hizketan segitzen dudana bitartean, serio-serio begiratzen diot. Orduan berak niri egiten dit irribarre, egoerari.

Gure harremanean ez dago ulertzearen besarkada samur eta leialik, ezta erakarpenik ere, gaizki ulertzearen urruntzea baizik. Cordeliarekin dudana harremana azken batean ez da ezer; harreman intelektual hutsa da, eta hori, jakina, neskato batentzat ez da harremana. Edonola ere, nire metodoak baditu erabateko abantailak. Galaiarena egiten duen pertsonak susmoak pizten ditu, bere aurkako jarrera sortzen du; nire kasuan ez da horrelakorik gertatzen. Ez zait inor zelatan ari; alderantziz, neskatoa zaintzeko aproposa den konfiantzazko gizontzat hartzen naute. Akats bakarra du metodoak, mantsoa dela, baina arrazoi horrengatik gizabanakoen aurka arrakastaz erabil daiteke, saria interesgarritasuna denean bakarrik.

Nolakoa den neskato batek duen bat gaztetzeko ahalmena; ez goizeko airearen hozkirriak, ez haizearen xuxurlatzeak, ez itsasoaren freskotasunak, ez ardoaren lurrinak zein bikaintasunak, mundu honetan ezerk ez du neskato batek duen bat gaztetzeko ahalmena.

Laster ni gorrotatzeko punturaino eramatea espero dut. Erabat neureganatu dut mutilzahar porrokatuaren itxura. Mintzagai bakarrak ditut eroso esertzea, ohean goxo etzatea, konfiantzazko mirabea edukitzea, lagun sendoa izatea, besotik helduta daramazula huts egingo ez dizuna. Orain izeba landaekonomiari buruzko oharretatik urrunduko banu bide honetara eramanez, ironiarako aukera gehiago izateko. Mutilzahar bati barre egin dakioke, baita harenganako erruki pixka bat sentitu ere; baina gazte batek – adimen nahikoa izanik ere- horrela jokatzeko duenean neskatoa irainduta sentitzen da; bere sexuaren esanahia, honen edertasuna eta poesia deuseztatu egiten dira.

Honela pasatzen dira egunak. Ikusten dut, baina ez dut berarekin hitz egiten; izebarekin mintzatzen naiz bere aurrean. Noizean behin, gauez, nire maitasuna aldarrikatzeko gogoa izaten dut. Horietan, kapan bilduta eta kapela begien gainera botata, bere leihoen aurrera joaten naiz. Bere logelak patiora ematen du, baina etxeak izkina egiten duenez, kaletik ikus daiteke. Batzuetan leiho ondoan egoten da une batez, edo ireki eta izarrei begira geratzen da, inork ikusten ez duelarik, nork eta gutxien esperoko lukeenak ikusten delarik. Gaueko ordu horietan arima bat bezala ibiltzen naiz, arima bezala habitatzen dut bere bizitokia den lekua. Orduan dena ahazten dut, ez dut ez planik ez kalkulaketarik, zentzua kareletik bota eta bularra zabaltzen dut hasperen sakonez, mugimendu hau beharrezkoa baitzait nire portaera sistematikoarengatik ez sufritzeko. Beste batzuk egunez zintzo eta gauez bekatarri izaten dira; nik plantak egiten ditut egunez, eta gauez desira hutsa naiz. Baldin eta hemen ikusiko banindu, baldin eta nire ariman begiratu ahal izango balu, baldin eta.....

Neska honek bere burua ulertuko badu, beretzako gizon egokia naizela aitortu beharko du. Sutsuegia da, oldarkorregia ezkontzan zoriona aurkitzeko. Lastima litzateke seduzitzaile arrunt baten eskuetan erotzea; nire eskuetan erotzean, berriz, interesgarritasuna salbatuko du hondorapen horretatik. Niri dagokidanez, filosofoek hitz-joko batez esaten dutena egin behar du: hondoratu<sup>38 39</sup>.

Egia esan, Edvardi entzutez aspertuta dago. Beti bezala, interesgarritasunari muga hertsia jartzen zaizkionean, are gehiago aurkitzen du batek. Batzuetan izebarekin dudana elkarrizketa entzuten du. Konturatzen naizenean, zeruertzean urruti, guztiz desberdina den mundu batetik, seinale distiratsu bat agertzen da, nola izebaren hala Cordeliaren harriidurarako. Izebak oinaztargia ikusten du, baina ez du ezer ikusten. Bat batean, haatik, dena bere lasaitasunera itzultzen da, izebaren eta nire arteko elkarrizketak

<sup>38</sup> Jatorrizkoan zu Grunde gehn. Hitz-jokoaren funtsean esaldiaren esannahi bikoitza dago: “erabat suntsitu” eta “muinera jo”.

<sup>39</sup> Hegelen aipamena egiten ari da (“Wissenschaft der Logik”, I)

aurrera egiten du modu uniformean, posta-zaldiek gauaren isilean bezala, samovar-en borbor malenkoniatsuak lagunduta. Horrelakoetan giro atsegaitz bat nagusi daiteke aretoan, atsegaitza batez ere Cordeliarentzat. Ez baitauka ez norekin hitz egin ez nori entzun. Edvardengana jiratzen bada, honek, bere herabetasunaren kariaz, ergelkeriaren bat egiteko arriskua du; beste aldera jiratzen bada, izeba eta niregana, gurean nagusi den segurtasunak, elkarrizketa konpasatuaren mailukada monotonoak, kontraste izugarri atsegaitza egiten du Edvarden segurtasun ezaren aldean. Ongi ulertzen dut Cordeliari izeba sorginduta dagoela iruditu behar zaiola, nire erritmoaren konpasaren arabera horren ondo mugitzen delako. Baina ezin du elkarrizketan parte hartu, bera haserreazteko erabili dudak bitarteko bat umea bezalaxe tratatzea izan baita. Horrek ez du esan nahi horregatik inolako libertaterik hartzen dudarik; alderantziz, ondotoxoa baitakit horrelako gauzek zein eragin asaldagarri izan ditzaketen, eta kontua da bere emakumetasunak berriro ere garbi eta eder altxatzeko gai izan behar duela. Izebarekin dudak harreman intimoa medio, erraza zait munduaren berri ez dakien umea bezala tratatzea. Horrela, bere emakumetasuna ez da iraindua gertatzen, baizik eta neutralizatua bakarrik, bere emakumetasuna ezin baita iraindua sentitu azokako prezioak ez jakiteagatik, baina horrek bizitzaren gailurra izan behar duela suposatzeak benetan suminaraz dezake. Izeba, gaiaren gainean ematen diodan laguntzari esker, bere burua gaintitzen ari da. Ia fanatiko bilakatu da, eta ni naiz eskertzekoa. Nigan jasan ezin duen gauza bakarra da ni inor ez izatea. Orain, bulegari posturen bat hutsik geratzen denean, “Horra niretzako postua” esateko ohitura hartu dut, ondoren gaia seriotasun handiz aztertuz. Cordeliak beti sumatzen du ironia, eta nik ez dut besterik nahi.

Edvard gizajoa! Lastima Fritz ez deitzea<sup>40</sup>. Berarekin dudak harremana hausnartzen dudak bakoitzean Emaztegaia obrako Fritz datorkit burura<sup>41</sup>. Gainera Edvard, bere eredu bezalaxe, milizia zibileko kaporal da. Zintzo mintzatzekotan, Edvard aspergarri samarra ere bada. Ez dio auziari behar bezala heltzen, beti etortzen da apain-apain eta formal. Bereganako adiskidetasunak bultzatuta, esan dezadan gure artean<sup>42</sup>, ahalik eta ziztrinen jantzita agertzen naiz. Edvard gizajoa! Ia gaizki sentiarazten nauen gauza bakarra da izugarri estimatzen didala laguntza, eta nola eskertu ia ez duela jakiten. Horregatik eskerrak hartzea gehitxo iruditzen zait.

Zergatik ezin zarete zintzo eta geldi egon? Goiz osoan aritu zarete atariko aterbea astintzen, kale-ispilutik eta honen sokatik tiraka, hirugarren bizitzako txirrin-katetxoarekin jolasten eta leiho-kristalak kolpatzen...labur esanda, zuen existentzia modu guztietan aldarrikatzen, zuengana irten nadin keinatuz. Bai, eguraldi ederra dago, baina ez dut gogorik; utzidazue etxean geratzen...Zefiro jostari bihurri horiek, mutiko alai horiek, zoazte zuek; josta zaitezte, ohi duzuen bezala, neskatilekin. Bai, badakit; inork ez daki neska bat zuek bezain modu limurtzailean besarkatzen. Alferrik bihurrituko da zuengandik askatu nahian; ezin da zuen loturetatik deskribatu.... ezta nahi ere, freskatu eta bizkortu egiten baituzue, asaldarazi gabe.... Jarrai iezazue zeuen bideari! Utzi niri kanpoan geratzen...Baina orduan ez duzuela gozatzen diozue, ez baituzue zeuengatik egiten....Konforme bada, zuekin joango naiz; baina bi baldintzekin. Lehenbizikoa: bizi da Kongens Nytorv-en neskato bat, oso polita dena, baina lotsagabe horrek ez nau maitatu nahi; are okerragoa dena, beste bat maite du, eta elkarri besotik helduta pasiera egiteraino iritsi dira. Badakit eguerdiko ordu batean gizona bila joango zaiola etxera. Orduan agindu egin behar didazue zuen arteko haizerik indartsuenak ezkutatuta geratuko zaretela inguru hartan, biak atarira irten diren unean arte. Store Kongensgaderantz okertzen duten mementoan bertan, destakamendu hau martxan jarriko da, eta gizonari erarik adeitsuenean kapela erantzi eta abiadura uniforme batez beregandik metro batera eramango duzue; ez bizkorrago, zeren eta orduan ziurrenez etxera itzuliko bailitzateke. Hurrengo segundoan harrapatuko duela uste du etengabe; neska eskutik helduta darama oraindik. Modu horretan eramango dituzue biak Store Kongensgadetik, harresietan barrena Nørreport eta Højbroplads-eraino....Zenbat denbora iraungo du horrek? Ordu erdi bat, esango nuke nik. Ordu bat t’erdietan puntuan azalduko naiz Østergade-tik. Zuen destakamenduak maiteminduak enparantzaren erdiraino eraman dituenean, beste eraso bortitz bati ekingo dio, oraingoan neskari kapela erantzi, kizkurak desegin eta are lepokoa urrutira eramanez ere, guzti honen bitartean galaiaren kapela modu ezin alaiagoan gero eta gorago eramanez. Hitz gutxitan, halako nahastea sortuko duzue, non ikuslego agurgarri osoa, ez ni bakarrik, hasiko baita algaraka; zakurrek zaunka egiteari ekingo diote, eta dorrezainak kanpaia jotzeari. Moldatuko zarete neskaren kapela niganaino hega dadin, gero neskari luzatuko dion zorionekoa ni izatearren. Bigarregoa: nirekin datorren taldeak nire iradokizun guztiak obedituko ditu, dezentziaren

<sup>40</sup> Hasieran, Kierkegaardek Fritz jarri zion izena, Regineren maitale eta ondoren senarra izango zenaren izena.

<sup>41</sup> Emaztegaia, Scriber-en opereta. Fritz kaporalak bere erruarengatik galtzen du emaztegaia, eta hau konde batekin ezkontzen da.

<sup>42</sup> Jatorrizkoan unter uns gesagt.

mugetatik irten gabe, neskato politik iraindu gabe; ez dute inongo libertaterik hartuko, txantxa osoan zehar neskaren ume-antzeko arimak bere alaitasuna, ezpainek beren irribarrea, begiek beren lasaitasuna eta bihotza antsiatik libre mantentzeko behar dena izan ezik. Zuetakoren bat bestela jarduten ausartzen bada, madarikatua izan bedi zuen izena. Zoazte orain, bizitza eta alaitasunera, gaztetasun eta edertasunera. Erakutsidazue hainbestetan ikusi izan dudana, ikusten inoiz nekatzen ez naizenean; erakutsidazue neska gazte polit bat bere edertasuna niri zabaltzen are ederrago bilakatuko den moduan; azter ezazue azterketaz poztuko den moduan! Ni Bredgade-tik noa, baina gogoan eduki denbora mugatua dudala, ordu bat t´erdia arte.

Hortik dator neska gazte bat, apain eta tente. Izan ere, igandea da gaur. .... Freska ezazue apur bat, haizemaiozue freskotasunez, labain zaitezte korronte arinetan bere ingurutik, besarka ezazue zuen ukitze errugabeaz! Nolako matraila gorritze zoragarria sumatzen dudan! Ezpainak kolore biziago batez janzen dira, altxatu egiten da bularra.... Ez al da egia, ene neskata, arras deskribaezina dela, benetako atsegin zerutarra dela aire fresko hau aranastea? Lepokotxoa hostoa bezala inarrosten da. Zein modu osasuntsu eta betez arnasten duen. Ibilera moteltzen du, haizetxo eztiak ia-ia eramaten duelarik, hodeia bezala, ametsa bezala... Ekiozue indar handixeagoz, bolada luzeagoz! ..... Neska bildu egiten da, besoak bularrera eramaten ditu, arreta handiagoz estaliz, haize-bolada kaskarinen bat, bizkor eta hotz, arropa arinaren azpitik sar ez dakion. ....Gorritasuna areagotu egiten zaio, matrailak beteago bilakatzen zazikio, begiak argiago, pausoa akonpasatuago. Borrokak edertu egiten ditu beti pertsonak. Neskato guztiek zefiroez maitemindu beharko lukete, hauek borrokaren bidez haien edertasuna areagotzen baitute inongo gizonek ezin duen moduan.... Gorputza aurrerantz makurtzen du apur bat, begirada oin-muturretara zuzenduz. .... Gelditu pixka batez! Indar gehiegiz ari zarete, gorputza zabaldu egiten zaio, argaltasun eder hori galduz. .... Freska ezazue pittin bat! ... Ene neskatoa, ez al da izugarri freskagarria bero zarenean honelako hozkirriak sentitzea? Besoak zabal zenitzake esker onez, bizitzeko pozak bultzaturik. .... Alde batera jiratzen da. Orain, bizkor, haize-bolada sendo bat, bere formen edertasuna goza dezadan! ... Sendoago, soinekoa gorputzari atxiki dakion. ... Ez hainbeste! Ibileraren ederra galtzen du, pausoa aldatzen du. ....Berririo jiratzen da. .... Eraso egiozue berriz, proba dezala! .... Nahikoa da, gehiegi da; kizkur bat erori zaio. ... Kontrol pixka bat, mesedez! ... Hortxe dator erregimendu oso bat desfilatzen;

Die eine ist verliebt gar sehr;

Die andre wäre es gerne.<sup>43</sup>

Bai, bizitza honetan zalantzarik gabe zeregin kaskarra da koinatugaia ezker besotik helduta eramatea. Neska batentzat izugarria da, ia-ia gizonezko batentzat ordezeko enplegatua izatea bezalakoa. ...Baina ordezeko enplegiatuak aurrera egin dezake: bere lekua du bulegoan, okasio berezietan bertan egoten da, baina hau ez da koinataren patua. Beste aldetik, ordea, azken honen aurrerapena ez da horren geldoa; aurrera doala, beste bulego batera eramaten dutenean... Tira, sendoago jo ezazue! Heltzeko puntu tinkoren bat duzunean, orduan bai, aurre egin dezakezu. ....Destakamenduaren erdialdeak sendo egiten du aurrera, baina hegalek ezin diote jarraitu. .... Gizonak tinko eusten dio, haizeak ez du mugiaraziko, astunegia baita horretarako, baina astunegia da halaber hegalek lurretik altxa ahal izan dezaten. Aurrera egiten du, nolako gorputz astuna duen erakusteko. Baina bera zenbat eta mugiezinago eutsi, orduan eta gehiago sufritzen dute neskatilek. ... Ene andere ederrak, utziko al didazue aholku on bat ematen? Alde bat utzi itzazue senar- eta koinatu-gaiak, saia zaitezte zeuen kabuz ibiltzen, ikusiko duzue, askoz gehiago gozatuko duzue---Emexeago jo orain! ... Nola kulunkatzen diren haize-uhinetan: orain dantza-pausoak egiten ari dira kalean, elkarren aurrean. Ba al dago horrelako alaitasuna ekar dezakeen dantza-musikarik? Haizeak, ordea, ez ditu abailtzen, indar ematen baizik. .... Orain, elkarren ondoan doaz, ziztu bizian kalean barrena; ba al dago neska bat modu limurtzaileago batez eraman dezakeen balsik? Baina haizeak ez ditu nekatzen, eramaten baizik. Orain jiratu eta senarraren eta koinatuaren aurrean geratzen dira. Ez al da egia erresistentzia pixka bat atsegingarria dela? Pozik lehiatzen zara maite duzuna zeurea egiteko, eta litekeena da ahaleginaren ahaleginaz xedea lortzea. Horra instantzia garaiago bat, maitasuna, laguntzera etorria; horregatik du gizonak haizea bere alde. ... Ez ote dut ondo antolatu? Haizeak atzetik jotzen zaituenean, erraz pasa zaitezke ustegabeen maitearen albotik, baina aurka duzunean, mugimendua atsegingarria gertatzen zaizu; orduan maitearen aldmenera hegatzen zara, eta haizearen bulkadak osasuntsuago bilakatzen zaitu, tentatzaileago, seduzitzaileago, eta haizearen bulkadak freskatu egiten du zure

<sup>43</sup> Neska bat maiteminduta dago;

Besteak egon nahi luke.

(J.F. v. Eichendorff, “Vor der Stadt”, Ausgewählte Werke I, 21. orr.)

Jatorrizko bertsiotan bi musikari aipatzen dira, baina Kierkegaardek bere nahietara egokitzen du testua.

ezpainetako fruitua, askoz hobeto gozatzen baita hotza dagoenean, berez hain beroa delako, champagne-ak erretzen duenean bezala, ia izoztuta dagoenean...

Berriketan eta barrezka dihardute, eta hitzak haizeak daramatza; ba al dago benetan zertaz hitz egin? Eta osteria egiten dute barre, haizearen aurka makurtuz, kapelei eutsiz eta oinak non jartzen dituzten kontu eginez. .... Gelditu orain, bestela neska gazteak egonarria galdu eta gurekin haserretuko dira, edo beldur izango digute!

Hori da, erabakiz eta adorez, eskuineko zangoa ezkerrekoaren aurretik. ... Zein ausart eta kementsu begiratzen dion neskak inguruko munduari. ... Ondo ikusten badut, norbait darama besotik helduta, beraz hitzemanda dago. Ea, txiki, ikus dezadan zer opari lortu duzun bizitzaren Eguberri-zuhaitzean.... A, bai! Senargai sendoa dirudi inondik ere. Hortaz, neska maitemintzearen lehen estadioan dago, gizona maite du; agian bai, baina maitasun hau, zabal eta oparoa, bere xedearen inguruan dabil hegaldatuz. Neskak oraindik dauka maitasun-kapa, barruan beste hainbat eraman ditzakeena. ... Sendoxeago ekin! ... Izan ere, horren azkar zoazenean ez da harritzekoa haizearen eraginez kapelaren xingolak luzatzea, eta ematen du hauek, hegalaq bailiren, badaramatela izaki arin hau, eta bere maitasuna atzetik, haizearen jostailua den belo garden gisa. Bai, maitasunari ere honetan begiratzen zaionean, izugarri zabala ematen du; baina jantzi behar duzunean, belotik etxeko-soinekoa egin behar duzunean, oihala gutxitxo izaten da. ... Ene bada! Bizitza osorako urrats erabakigarria ematen arriskutzen bazara, zergatik ez adorea bildu haizearen aurka joateko? Inor zalantzatan al dago? Ni ez; baina ez sumindu, ene andereñoa, ez sumindu. Denbora ez da zigorle makala, eta haizea ere ez da horren txarra. ....Jo iezaiozue adarra apur batez! ....Nora joan da musuzapia? .... A, bai, berreskuratu egin duzu. .... Horra, kapelaren xingola bat askatu da. ... Oso asaldagarria izan behar du aldamenean duzun senargaiarentzat. ....Lagun bat datorkizu, eta agurtu egiten duzu. Neskak hitzemanda bezala ikusten zaituen lehen aldia da: jakina, zure egoera berria aldarrikatzeko zaude hemen. Bredgaden, Langeliniera joateko asmoz. Nik dakidanez, ezkonberriak elizara joan ohi dira ezkontzaren hurrengo igandean; hitzeman berriak, aldiz, Langelinietik zehar ibiltzen dira. Bai, egia esan, hitzimateak gauza komun asko ditu Langelinierekin. .... Erne gero, haizeak kapela eramango dizu. Eutsi ondo, makurtu burua...Tamalagarria izan da da, ezin izan duzu zeure nekalaguna agurtu; hitzemandako batek hitzeman gabe dagoen bati agertu behar omen dion nagusitasunezko airez agurtzeko lasaitasuna falta izan zaizu. ... Emexeago ekin! ... Egun onak datoz orain.

Zein estuki heltzen dion bere maiteari; orain aurea hartu dio, eta burua atzera jiratzuz ikusi egiten du, eta poztu egiten da mutilagatik, bere ondasunagatik, bere zorionagatik, bere itxaropenagatik, bere etorkizunagatik... Oi, neska, gehiegi goraiatzuten duzu. Ez al gaitu, bada, ni eta haizea eskertzekoak, horren sendo agerrarazten dugulako? Eta zuk zeuk ere ez al diguzu niri eta minak ahaztuaraziz sendatu zaituen haizetxo eztiari eskertu behar, honen osasuntsu, desiratsu eta itxaropentsu agertzen zarelako?

Nik ez dut gauak etzanda ikasten

Ematen dituen estudianterik nahi

Ofiziala nahi dut nik, kapelan

Luma daramaten horietako bat.<sup>44</sup>

Segituan antzematen zaizu, neska, badago halako zerbait zure begiradan... Ez, estudiante batek ez zaitu inondik ere merezi. ... Baina zergatik ofizial bat hain zuzen? Ikasketak amaitu dituen unibertsitate-lizentziatu batek ez al luke berdin balioko? ... Une honetan, ordea, ezin dizut hornitu ez ofizialik ez unibertsitate-lizentziaturik. Hori bai, haizetxo freskagarria horni diezazuket. ... Ea, jo beste pixka bat! ... Oso ondo, atzeratu sedazko buruzapia sorbaldaren gainera, poliki-poliki ibili, matrailak apur bat zurbil daitezen, begien distira pittin bat apal dadin. ... Horrelaxe. Bai, hariketa pixka bat egin, batez ere gaurko giro zoragarrian, eta egonarri apur bat izan, eta ofiziala lortuko duzu.

Horra hor bikotea, bata bestearentzat eginak, Nolako kadentzia ibileran, nolako segurtasuna – elkarrenganako konfiantzan oinarritua- beren portaera osoan, nolako harmonia *praestabilita*<sup>45</sup> mugimendu

<sup>44</sup> Norvegiako nekazari-balada batetik hartua. (A. Caen-en “Folkevisebog”, 1847, 1 sekzioa, 144 orr. eta ondokoak.)

<sup>45</sup> Leibnitzek bere “Monadologia”n agertutako terminoa:

“Printzipio hauek arima eta gorputz organikoaren arteko batasuna edo, hobeto esanda, elkarrekiko adostasuna argitzeko bidea eman didate. Arimak bere lege propialei jarraitzen die, gorputzak bere lege propialei jarraitzen die, gorputzak bere lege propialei jarraitzen dien era berean; eta elkarrekin ados

guztietan, nolako doitasun zehatza. Beren jarrerak ez dira arin eta xarmangarriak, ez dira elkarrekin dantzatzen ari. Ez, iraunkortasun batek inguratzen ditu, ausardia batek, itxaropen hutsezinezko bat esnarazten duena, elkarrenganako errespetua sortarazten diena. Apustu egingo nuke bizitzaz duten kontzeptua haxe dela: bizitza bide bat da. Eta deliberatuta daude, antza, elkarri besotik helduta ibiltzera bizitzaren poz eta atsekabeetan barrena. Halako moldez egokitzen zaio bata besteari, non damak uko egin baitio harlauzen gainean ibiltzeko eskubideari berari ere. ...Baina zefiro maiteak, zergatik zaudete horren lanpetua bikote horrekin? Ez dirudi arreta gehiegi merezi dutenik. Ba ote dago erreparatu beharreko gauza bereziren bat? ... Baina ordu bat t'erdia dira. Højbroplads-era abiatu beharra daukat.

Inork ez luke sinetsiko arima baten bilakaeraren berri horren zehatza eman zitekeenik. Cordeliaren arima zein osasuntsu dagoen erakusten du horrek. Egia esan, neska berebizikoa da. Ezbairik gabe isila eta apala da, lañoa, baina badago bere baitan, inkontzienteki, eskakizun eskerga bat. Horrek harritu nau gaur, kaletik etxera sartzen ikusi dudanean. Haize bolada batek eragin dezakeen erresistentzia xumeak bere baitako indar guztiak aska ditzakeela dirudi, nahiz eta barruan inongo gatazkarik izan ez. Ez da edozein neskatala arrunta, atzamarren bitartean desagertzen dena, hain hauskorra non begiratze hutsak apurtuko ote duen beldur zaren; baina apainlore handinahia ere ez da. Horregatik, medikuen antzera, atsegin handiz begira diezaieket osasun-historia honen sintoma guztiei.

Erasoan ari naiz, apurka-apurka, beregana hurbiltzen, eraso zuzenago bati bide ematen. Aldaketa hau familiaren mapa militarrean adierazi beharko banu, esango nuke aulkia jiratu dudala, halako moldez non orain Cordelia ia aurrez-aurre dudan. Harreman gehiago dut berarekin: hitz egiten diot, erantzunak ateratzen dizkiot. Arima grinatsua du, oldarkorra, eta hausnarketa harro eta irrigarrien bidez bitxikeriara iritsi gabe, ohigabetasunaren halako premia badu. Jendearen zentzugabekeriak egiten ditudan ironiek, jendearen oldarkeria eta nagikeria epelaren gainean egiten ditudan burlek, liluratu egiten dute. Gogoko du eguzki-gurdia zero-gangan barrena eramatea<sup>46</sup>, jendea pittin bat erretzeko moduan lurrera hurbiltzea. Baina oraindik ez da nitaz fidatzen; orain arte saihestu egin dut edozein hurbilpen, baita zentzu intelektualean ere. Barne indarra sendotu behar du, nire laguntza aurkitzen uzten diodan arte. Tarteka irudi lezake konfidente bihurtu nahi dudala nire frankmasonerian, baina tarteka bakarrik. Bere baitan garatu beharra dauka; bere arimaren indar morala sentitu behar du, mundua altxatzeko nahikoa. Egiten ari den aurrerapena aise ikus dezaket bere hitzetan, eta begietan ere bai: behin bakarrik ez bada ere, ikusia dut haietan herra suntsitzaile bat. Ez dit niri ezer zor behar, askea izan behar du eta. Askatasunean bakarrik baitago maitasuna, askatasunean bakarrik baitaude jostaketa eta betiereko atsegina. Nahiz antolamenduak egiten ari Cordelia berezko premia batengatik bezala nire besoetan eror dadin, nahiz niganantz grabita dadin senperrenak egiten ari, kontua da ez duela erori behar gorputz astun baten moduan; ez, gogo batek beste gogo baten aurka bezala grabitatu behar du. Nahiz nirea izan behar duen, horrek ez du esan nahi nire gainean zama gisa bermatu behar duenik, era itsusian. Niretzat ez du izan behar ez eranskina, zentzu fisikoan, ez betebeharra, zentzu moralean. Bion artean askatasunaren jolas propialak bakarrik izan behar du nagusi. Izugarri arina izan behar du niretzat, besotik helduta eraman dezakedan moduan.

Gehitxo kezkatzen nau Cordeliak. Berriro ere oreka galtzen ari naiz; ez aurrez-aurre gaudenean, bera bertan dagoenean, zentzurik hertsienean berarekin bakarrik nagoenean baizik. Bere irrika izaten dut, ez berarekin hitz egiteagatik, bere irudia nire aurrean mugitzen ikusteagatik baizik. Irten dela jakiten dudanean epaixka jarraitzen diot, ez ikusia izateagatik, ikusteagatik baizik. Lehengo egunean elkarrekin kaleratu ginen Baxtertarrenetik, Edvardek lagun egiten ziolarik. Haiengandik bizkor banandu eta mirabea zain neukan kale batera abiatu nintzen ziztu bizian. Amen batean arropaz aldatu eta berriro ikusi nuen Cordelia, berak ezer susmatu ez bazuen ere. Edvard beti bezain mutu zegoen. Maiteminduta nago inolaz ere; ez zentzu arruntean ordea, eta horregatik kontu handiz ibili beharra dago; horren ondorioak arriskutsuak izaten dira beti, eta behin baizik gertatzen ez den gauza da. Baina maitasunaren jainkoa itsua da, eta nahiko argia izanez gero ziria sar dakioke. Inpresioak hartzeko orduan ahalik eta trebeena izatean datza antzea, neska bakoitzari zer inpresio egiten diogun eta hark guri zein egiten digun jakitearren. Modu horretan neska askorekin egon zaitezke maiteminduta aldi berean, bakoitzarekin era desberdinean maitemintzen baitzara. Bat maitatzea gutxiegi da; denak maitatzea azakeria hutsa. Zeure burua ezagutzea eta ahalik eta gehienak maitatzea, zeure arimari bere baitan amodio erotikorekin indar guztiak ezkutatzen

---

jartzen dira gai guztien arteko armonia aurrefinkatuaren indarrez, denak unibertso bat eta beraren adierazpideak baitira”.

<sup>46</sup> Faetonen modura. Honi bere aita eguzki-jainkoak gurdia hartzeko baimena eman, eta lurrera gehiegi hurbildu zen.

uztea, indar bakoitzak bere elikadura berezia har dezan, kontzientziak osotasuna hartzen duen bitartean, hori bai gozamina, hori bai bizitzea.

### Uztailak 3

Edvard ezin da nitaz kexatu. Hauxe nahi dut nik, Cordelia berataz maitemintzea, berarekin maitasun arruntarekiko gogaitasuna sentituz bere mugez gaindi joan dadin; horretarako, ordea, beharrezkoa da Edvard inongo karikatura ez izatea, horrek ez bailuke lagunduko. Baina Edvard ez da partidu ona zentzu burgesean bakarrik; horrek ez du Cordeliaren begietan garrantzirik –hamazazpi urteko neskatzak ez die horrelakoei erreparatzen-; zenbait kualitate pertsonal erakargarri ere baditu, eta horiek modu komenigarrienean erakuts ditzan laguntzen saiatzen naiz. Gela-neska baten modura, dekoratzaile baten modura, ahalik eta finen hornitzen dut senargaia, etxearen ahalmenen barruan, eta batzuetan mailegatutako gauza dotoren bat ere janzen diot. Hara elkarrekin joaten garenean, arraroa egiten zait zinez bere albona ibiltzea. Nire anaia edo semea balitz bezala sentitzen naiz, baina laguna besterik ez da, nire adin berekoa, nire lehiakidea. Ezingo da inoiz niretzat arrikugarria izan. Beraz, nik zenbat eta gorago altxatu, bere patua erortzea denez, gero eta hobeto, Cordelia gero eta argiago jabetzen da gaitzesten duenaz, gero eta argiago sumatzen du irrikatzen duena. Nik orientatzen laguntzen diot Edvardi, aholkuak ematen dizkiot..... labur esanda, pertsona batek lagun baten alde egin dezakeen guztia egiten dut. Neure hoztasuna agerian uztearren, ia haserretzeraino iristen naiz. Ameslaria izatea leporatzen diot. Edvardek bere buruari laguntzen ez dakienez, aurrera bultzatu behar izaten dut.

Cordeliak gorroto eta beldur dit. Zeri dio beldur neska batek? Adimenari. Zergatik? Adimena bere emakume-existentzia guztiaren ukapena delako. Gizonen lerdentasuna, izaera xarmagarria etabar, baliabide onak dira. Horien bidez konkistak ere egin daitezke, baina sekula ez garaipen erabatekoa lortu. Zergatik? Neska bati bere indar-eremuan egiten zaiolako gerla, eta bere indar-eremuan bera delako beti indartsuena. Baliabide hauetaz neska gorritzea lor daiteke, edo begiak jaiste, baina ezin da inoiz sortu bere edertasuna interesgarri bihurtzen duen antsia deskribaezin gatibagarri hori.

*Non formosus erat, sed erat facundus Ulixes,  
et tamen aequoreas torsit amore Deas.*<sup>47</sup>

Nork bere indarrak ezagutu beharko lituzke beti. Baina sarri txunditu izan nau talentudunek ere halako modu zabarrean jarduteak. Pertsona batek berehala igerri beharko lioke beste norbaiten maitasunaren biktima –edo, hobeto esanda, bere maitasunaren biktima- bihurtu den neska gazte bati zein eratan engainatu duten. Hiltzaile trebatua sastakada berezi batez baliatzen da, eta polizia trebatuak zauria ikusi orduko antzematen dio egileari. Baina non aurkitzen dira horrelako seduzitzaile sistematikoak, horrelako psikologoak? Gehienentzat, neska bat seduzitzeak esan nahi du neska gaztea bat seduzitzea, eta kitto. Baina hizkuntza oso bat ezkututzen da gogoeta horren atzean.

Emakume den aldetik, gorroto dit; emakume talentuduna den aldetik, beldur dit; emakume azkarra den aldetik, maite nau. Gatazka hau ezarri diot ariman, lehen urrats gisa. Nire harrotasunak, nire setak, nire destaina hotzak, nire ironia ankerrak tentatzen dute, ez maitatu nahiko banindu bezala, ez, bere baitan ez dago horrelako sentimenduen arrastorik ere, are gutxiago niri buruz. Nirekin lehiatu nahi du. Jendearekiko dudak independentzia harroak, basamortuko arabeena bezalako askatasunak, horrek tentatzen du. Nire barre eta bitxitasunak neutralizatu egiten dute edozein adierazpen erotiko. Nahikoa libre da nirekin, eta eragozpenen bat izatekotan, emakumetasunari dagokio adimenari baino areago. Nigan maitalea igerri ezinik, gure harremana bi pertsona adimentsuen artekoa baizik ez da. Eskutik heltzen dit, eskua estutzen dit, barre egiten du, nolabaiteko arreta zuzentzen dit, zentzu greziar hutsean. Orduan, ironiazaleak eta txantxazaleak nahiko luzaro ziria sartu ondoren, bertso zaharreko<sup>48</sup> aholkuari jarraitzen diot: zaldikoak bere kapa gorri-gorria zabaltzen du, dontzeila lirainari gainean esertzeko eskatuz. Alabaina, ez dut kapa zabaltzen Cordeliarekin belartzean esertzeko, harekin batera airean desagertzeko baizik, gogoeten hegalek eramanez. Edo nirekin eraman beharrean zangalatraba igotzen naiz gogoeta batera, eta igo ahala eskuz agurtzen dut, musu bat bidaltzen diot, ikustezin bihurtzen natzaio. hitz

<sup>47</sup> “Ulixes ez zen lerdena, bai ordea eleberra eta hala lortu zuen itsasoko jainkosak maitasunak tormentatuta sentitzea” Ovidioren “Ars Amandi”, II, 123.

<sup>48</sup> Gogoan duen bertso zaharra “Fraidea belardira doa” izenekoa izan liteke: “Fraideak bere kapa urdin-urdina zabaltzen du, Ama Birjina ederrari gainean belaunikatzeko eskatuz”.



hegadunen xuxurletan bakarrik entzungarri; Jehovahena<sup>49</sup> ez bezala, nire ahotsa ez da gero eta nabarmenagoa, gero eta apalagoa baizik, zenbat eta gehiago hitz egin gero eta gorago igotzen bainaiz. Orduan nirekin batera etorri nahi izaten du gogoeta-hegaldi ausart honetan. Une bakar bat irauten du orde; hurrengo mementoan hotz eta lehor agertzen naiz.

Gorritzeko era desberdinak dituzte emakumeek. Badago adreilu antzeko gorritze zarpaila. Nobelagileek franko baliatzen dira hauetaz beren heroisak behin eta berrir<sup>50</sup> gorriarazten dituztenean. Badago gorritze fina; izpirituaren egunsentigorria da. Neska gazte batengan ez du preziorik. Ideia zoriontsu baten osteko gorritze iheskorra ederra da gizonarengan, are ederragoa mutikoarengan, zoragarria emakumearengan. Oinaztarriaren distira da, izpirituaren dirdir isila. Izugarri ederra da mutikoarengan, zoragarria neskarengan, bere birjin garbitasunean agertzen delako, eta horregatik ezustearen lañotasuna ere badu. Hazi ahala, gorritze hau desagertuz doa.

Batzuetan zer edo zer irakurtzen diot ozenki Corleliari, gehienetan garrantzirik gabeko gauzak. Edvardek, ohi bezala, ustegabeko bitartekaria izan behar du; izan ere, ohartarazi egin diot neska gazte batekin harremanetan hasteko modu aparta dela hari liburuak uztea. Eta etekin handia lortu du, horren kariaz Cordeliak esker ona erakusten baitio. Nik ateratzen dut etekin handiena, liburuak nik aukeratzen baititut, irakurketaren atzean ni nago beti. Alor zabala dut hemen nire oharpenetarako. Nahi dudan edozein liburu eman diezaioket Edvardi, ez baitago literaturan oso jantzita; gogoak ematen didana proba dezaket, edozein muturretara jo dezaket. Arratsean Cordeliarekin nagoenean, ustegabeen bezala hartzen dut liburuak eskuetan, orrialde batzuk pasa, erdi-ozen irakurri eta Edvarden adeitasuna laudatzen dut. Bart arratsean bere arimaren malgutasuna zenbatekoa zen frogatu nahi izan nuen. Zalantzan nengoen, Edvardi Schillerren olerkiak<sup>51</sup> mailegatzen utzi beharko ote nion, gero nik ustegabeen “Theklaren”<sup>52</sup> kanta” topatu eta errezita nezan, edo Bürgerren olerkiak. Azken hau aukeratu nuen, batez ere bere “Lenore” delakoa sutsu samarra delako, bestela ere ederra izan arren. “Lenore” zegoen lekuan zabaldu eta olerkia ozen irakurri nuen, ahal izan nuen patetismo guztiaz. Cordelia hunkitu egin zen; puntada azkarrez josi zuen, Vilhelmekin<sup>53</sup> joan behar zuena bera balitz bezala. Ge lditu egin nintzen; izebak interes handirik gabe entzun zuen. Ez dio beldurrik inongo Vilhelmi, bizirik nahiz hilik egon, eta gainera ez du alemaniera ongi menperatzen, baina bere saltsan aurkitu zen apain azaleztaturiko alea erakutsi ostean azaleztatze lanaz jarduten hasi nitzenean. Cordeliarengan patetismo zirrara sortu orduko deuseztatzea zen nire helburua. Antsiati samar jarri zen, baina niretzat nabarmena zen antsia hura ez zitzaiola tentagarria suertatzen, atsegaitza<sup>54</sup> baizik.

Gaur nire begiak estraineiko aldiz pausatu dira Cordeliarengan. Esan ohi da logaleak betazalak puztaraz ditzakeela euren kabuz ixteraino; agian nire soak antzeko zerbait eragin liezaioke. Begiak itxi arren, indar ilunak mugitzen zaizkio barnean. Berari so nagoela ez du ikusten; sentitu egiten du, gorputz osoan barrena sentitu ere. Begiak itxi, eta gaua da; baina Cordeliaren baitan egun argia da.

Edvardek alde egin behar du. Azken urratsa ematear dago; edozein unetan espero dezaket maitasun-aitorpena egitea. Ez dago honen berri nik baino hobeto jakin dezakeenik, ni bainau konfidente, nik gordetzen diot, ardura handiz, garra bizirik, Cordeliarengan eragin handiagoa izan dezan. Baina bere maitasuna aitortzen uztea arriskutsuegia da. Ondotxo dakit ezezkua hartuko duela, baina hori ez da istoriaren amaiera. Ezbairik gabe nahigabetu egingo litzateke. Eta honek beharbada hunkitu egingo luke Cordelia. Kasu horretan baina, ez dut okerrenari zertan beldur izanik, alegia, Cordeliak iritziz aldatzeari, nahiz eta erruki soil horren bidez bere arimaren harrotasunak nolabaiteko kaltea hartu. Hori gertatuko balitz, Edvardekiko dudan asmoa erabat zapuztuko litzateke.

Cordeliarekin dudan harremana bide dramatiko bat hartzen hasi da. Zerbait gertatu behar du, edozer, baina ezin dut begiratze soilez jardun, galdu egingo baitut aukera. Harritu egin behar dut, beharrezkoa da, baina harritu nahi baldin badut, erne ibili beharra daukat. Izan ere, normalean harrigarria dena agian ez baitu harrigarritzat hartuko. Benetako ezustea hartu behar du, halako molde non harridura eragingo dion hori modu nahiko arruntean gertatuko baita hasieran. Pixkana-pixkana agerian geratu behar du bazegoela hartan inplizitu gauza harrigarrik. Hau da interesgarritasunerako bete beharreko legea, nire

<sup>49</sup> Ik. Samuelen Liburua, I, 3. 1-18.

<sup>50</sup> Jatorrizkoan *über und über*.

<sup>51</sup> Jatorrizkoan *Gedichte*.

<sup>52</sup> Schiller, “*Die Piccolomini*”, III, 7.

<sup>53</sup> Bürger-en “Lenore”ko maitale hildakoa.

<sup>54</sup> Jatorrizkoan *unheimlich*.



mugimendu guztien legea dena Cordeliari dagokionez. Norbait harritzen baldin badakizu, beti irabazten duzu jokoa. Pertsona horren energia zintzilik geratzen da, eta ezinezko egiten diozu jardutea, eta hau gertatzen da bitarteko arruntak nahiz berebizikoak erabilia. Halako atsegin batez gogoratzen dut oraindik familia fineko dama batekin izandako ausarkeriazko abentura. Denbora neraman isilean haren atzetik, harreman interesgarriren baten bila, baina alferrik, harik eta eguerdi batean kolpetik kalean topatu nuen arte. Ziur nintzen ez ninduela ezagutzen, edo hirian bertan bizi nintzenik ez zekiela. Bakarrik zihoan. Bere ondotik pasatzean aurrez aurre begiratzea lortu nuen. Bidea eman nion, harlauzetatik jarrai zezan. Memento hartan tristurazko begirada zuzendu nion, uste dut ia malkoak neuzkala begietan. Kapela erantzi nuen. Gelditu egin zen. Ahots hunkituaz, aurpegiera ameslari, esan nion: Ez zaitez haserretu, andereño xarmanta; arima osoz maite dudan eta tamalez nigandik oso urruti bizi den pertsona batekin antza ikaragarri handia duzunez, nire portaera bitxia barkatuko duzulakoan nago. Amesletzat hartu ninduen, eta neska gazte batek gogoko du ameskeria apur bat, batez ere bere nagusitasuna sumatzen duenean eta irribarre egiten ausartzen denean. Hain zuzen, irribarre egin zuen, zeina ezin hobeto zihoakion. Bihozberatasun aristokratiko batez agurtu ninduen, irribarre eginez. Bere bideari jarraitu zion, nik bere alboan pare bat urrats baizik eman ez nituelarik. Handik egun batzuetara topatu nuen, eta dionsal egitera ausartu nintzen. Barre egin zidan. ... Egonarria bertute bikaina da ordea, eta azken barrea izaten da atseginena.

Cordelia ezustean harrapatzeko bide desberdinak pentsa litezke. Saia ninteko ekaitz erotiko bat altxarazten, zuhaitzak errotik erauzteko gai litzatekeena. Horren laguntzaz proba nezake, ahal izanez gero, lurretik altxatzen, kontestu historikotik altxatzen: egoera nahasiaz baliatuz, topaketa ezkutuen bidez bere grina pizten. Hori egin ahal izatea ez zen horren pentsaezina. Bera bezalako neska grinatsu bat nahi zen lekura eraman zitekeen. Ikuspuntu estetikotik okerra litzateke ordea. Ez naiz zorabiozalea, eta egoera hori ez da gomendagarria, gogoan dugun neskak distira poetikoa hartzeko bide bakarra horixe duenean izan ezik. Gainera, erraz gal daiteke benetako gozamina, gehiegizko nahastea kaltegarria delako. Cordeliarengan ez luke inoiz arrakastarik izango. Dzanga pare batez irentsiko nuke luzarorako iraun beharrekoa, edo okerragoa dena, zuhurtziaz modu bete eta aberatsago batez goza izan nezakeena. Ezin da Cordeliaz gozatu gorapen-egoera batean. Horrela jardungo banu, agian hasiera batez txunditu egingo nuke, baina laster sentituko zen asebate, ezuste hau bere arima ausartetik hurbilegi egongo zelako hain zuzen.

Hitzemate argi eta soila da bide guztien artean onena, xedera iristeko egokiena. Beharbada maitasun-aitorpen prosaikoak egiten diodanean, bere eskua eskatzen dudanean, are gutxiago sinetsiko du bere belarriek entzundakoa; nire berba sutsua entzun, nire edabe pozoitsu hordigarria edan edo ihesaldi batez pentsatuz bere bihotzaren taupadak entzungo balitu baino are gutxiago sinetsiko du.

Hitzemateak duen alde txarra barruan darama etikotasuna da. Etikotasuna aspergarria da, nola zientzian hala bizitzan. Hori alde! Estetikaren zerupean dena da erraza, polita, iheskorra; etika nahasten denean, ordea, dena bihurtzen da latz, makur, aspergarri<sup>55</sup> mugarik gabe. Baina zentzurik hertsienean hitzemateak ez du errealtasun etikotik ezkontzearen antzera; *ex consensu gentium*<sup>56</sup> datorkio bere baliagarritasuna. Anbiguotasun honek etekin ugari eman liezadake. Bere baitan daraman etikotasuna nahikoa da tenore egokian Cordeliak arruntasunaren mugez gaindi doalako irudipena izan dezan; areago, bere baitan daraman etikotasuna ez da konmozio larriago baten beldur izan dezadan bezain serioa.

Etikotasunari betidanik izan diot errespetua. Ez diot neska bati noiz, ezta txantxetan ere, ezkon-promesarik egin; orain horretan ari naizela badirudi ere, itxurazko mugimendua besterik ez da. Arduratuko naiz neu gauzak egiten konprometzua neskak berak hautsi dezan moduan. Promesak egitea mezpregarria da ni bezalako gizon prestu baten ohorearentzat. Mezprezua sentitzen dut epaile batek, askatasun-promesaz baliatuz, gaizkilea komentzitzen duenean delitua aitortu dezan. Horrelako epaileak uko egiten dio bere agente eta talentuari. Nire kasuan zirkunstantzia bat gaineratu beharra dago, alegia, ez dudala irrikatzen askatasunaren oparia –zentzurik hertsienean- ez den ezer. Seduzitzaile arruntek erabil ditzatela horrelako bitartekoak. Azken batean, zer irabaziko dute? Neska batek hainbat gauza ez ikustea nahi izan, eta haiek bistatik gal ditzan moduan liluratzen ez dakien gizona; erabakiak bereak izan arren neska baten gogoia, poesiaren antzera, berezkotzat har ditzan moduan moldatzen ez dakien gizona, lardaskero hutsa da eta izango da. Ez dut nik haren gozamina bekaiztuko. Horrelako pertsona bat lardaskeroa da eta izango da, limurtzailea, niri inork deitu ezin didana. Ni esteta naiz, erotizista,

<sup>55</sup> Jatorrizkoan *langweilig*.

<sup>56</sup> Pertsona guztien adostasunez. (Jainkoaren existentziaren frogetako baten ezaugarria, dotrinaren arabera.)

maitasunaren izerari eta funtsari antzeman diena, maitasunean sinetsi eta errotik ezagutzen duena, eta nire baitarako gordetzen dut neure iritzi pribatua, hots, edozein maitasun-afarak, gehienera jota ere, urte erdia baino ez duela irauten, eta harreman guztiak amaitzen direla funtsezko gozaldiaren ondoren. Badakit hau guztia, eta badakit halaber pentsa daitekeen gozamenik gorena maitatua izatean datzala, munduan beste ezer baino gehiago maitatua izatean. Neska batengan halako eragina izatea artea bada, bere bizitzatik irteten jakitea maisulana da. Baina azken hau lehenaren menpe dago funtsean.

Beste bide bat ere egon liteke. Edvard senargai formaltzat har zezan ahalegin ninteke. Horrela etxeko laguna bihurtuko nintzateke. Edvardek mugagabeko konfiantza izango luke nigan, nolabait niri zor izango bailidake zoriona. Hartara kamuflatuago jardun ahal izango nuke. Baina ez du funtzionatuko. Ezin baitio Edvardi ezkontzeko hitzik eman bere burua nola edo hala apaldu gabe. Honi gaineratu behar zaio modu horretan nire harremana Cordeliarekin pikante bihurtuko litzatekeela interesgarri baino gehiago. Hitzemate baten atzean dagoen arrunkeria amaitezina bera baita interesgarritasunaren erresonantzia-kaxa.

Wahldarrenean zertzelada guztien esangura areagotzen ari da. Aise nabaritzen da eguneroko errutinen azpian bizitza ezkutu batek diharduela, eta hau laster iragarriko dela dagokion errebelazioen bidez. Wahldarren etxea hitzemate baterako prestatzen ari da. Kanpoko begirale batek ezkongaiak izeba eta ni ginela pentsa lezake agian. Horrelako senar-emazteak ederki pasako liokete landa-ekonomiari buruzko jakintza hurrengo belaunaldiari! Horrela Cordeliaren osaba izango nintzateke. Pentsamendu-askatasunaren aldekoa naiz, eta ez dago haintzat hartuko ez dudan gogoetarik, ezta absurdoena ere. Cordelia Edvarden maitasun-aitorpenaren beldur da: Edvardek, aldiz, halako aitorenak arazo guztiak askatzea espero du. Bai horixe, horretaz ziur egon daiteke. Alabaina, horrelako urrats baten ondorio atsegaitzak saihestearren, aurea hartu beharko diot. Laster beregandik libratzea espero dut, traba egiten baitit bidean. Gaur bertan nabaritu dut. Izan ere, hain ameslari eta amodioak hordituta dirudi, non gerta bailiteke bapatean altxatzea, sonanbuluen gisara, eta bere maitasuna lau haizetara aldarrikatzea, hori bai, modu guztiz objetibo batez, Cordeliarengana inola ere hurbiltzeke. Gaur begirada zorrotz-zorrotza bidali diot. Elefanteak tronpaz zerbait hartzen duen modu bertsuan hartu dut nire begiradapean, goitik behera, gero atzerantz bultzatuz. Nahiz eta eserita jarraitu, gorputz osoan antzeko zirra hartu duelakoan nago.

Cordeliak ez du garai bateko konfiantza nigan. Emakume-segurtasunez hurbiltzen zitzaidan beti: orain, berriz, dudamudatan ibiltzen da. Baina horrek ez du ezer esan nahi, eta ez zait sobera kostako gauzak lehengora eramatea. Ez dut egingo ordea. Beste azterketa bat, eta ondoren hitzematea. Horretan ezin da zailtasunik egon. Cordeliak “bai” esango du, ni txundituta utziz; izebak, bihotzez, “amen”. Pozaz gainezka egongo baita landa-ekonomian jantzitako suhia izateagatik. Suhia! Baina nola nahasten ditugun gauzak alor honetan sartzen garenean! Izan ere, ez bainintzateke haren suhia izango, haren iloba baizik, edo hobeto esanda, *volente deo*<sup>57</sup>, ez bata ez bestea.

### Hogeita hirua

Gaur neronek zabaldutako zurrumurru baten fruitua uztatu dut, zurrumurrua izanik neska batez maiteminduta nengoela. Edvarden laguntzaz Cordeliaren belarrietaraino ere iritsi da. Jakinmina du: jagoten nau, baina ezer galdetzen ausartu gabe. Hala ere, beretzat era badu garrantzirik, batetik sinestezina iruditzen zaiolako, eta bestetik horretan beretzako jarraibidea ikusi nahiko lukeelako: izan ere, ni bezalako txantxazale hotza maitemin baldin badaiteke, berak ere gai izan beharko luke, horregatik lotsatu behar izan gabe. Gaur aipatu egin dut gaia. Istorio bat mamia galdu gabe kontatzen nahiko trebea naiz; baita garai egokia arte itxaroten ere. Atsegin hartzen dut istorioa entzuten ari direnak *in suspensa* mantenduz, pasadizo xumeez baliaturik zer emaitza nahi duten jakiteko, eta gero narrazioan barrena bere usteak zapuzteko. Neure artetzat dut anfibologiak erabiltzea, entzuleak esandakoari esanahi bat eman ondoren, kolpetik hitzok beste modu batez interpreta litezkeela konturatzeke moduan. Ikerketak norabide jakin batean eramanez nahi dituzunean, beti bota behar duzu hitzaldia. Elkarizketa batean, dagokion pertsonak errazago ihes egin diezazuke, galdera-erantzunez hobeto ezkuta dezake zure hitzek beregan duten eragina.

Seriotasun zeremoniatsuz ekin nion izebarentzako hitzaldiari. “Ez dakit nire lagunak borondate onari edo nire etsaien gaiztotasunari egotzi behar ote diodan, eta nork ez du nola batetik hala bestetik gehitxo izan?”. Hemen izebak oharpen bat egin zuen, ni indar guztiz probetxatzen saiatu nintzena, entzuten zegoen Cordeliaren tentsioa mantentzearen, tentsioa ezin baitzuen berak lasatu; izebarekin ari

---

<sup>57</sup> Jainkoa lagun.

bainintzen hizketan, eta ahots zeremoniatsuz gainera. Aurrera egin nuen: “Edo zoriari egotzi behar ote diot zurrumurru baten *generatio aequivoca*”<sup>58</sup> (argi zegoen Cordeliak ez zuela hitz hori ulertzen; nahasi besterik ez zuen egiten, batez ere enfasi bereziz eta aire bihurritz esan nuelako, mamia bertan balego bezala), “alegia ni, mundutik urrunduta bizitzera ohituta nagoen hau, esamesen xede bihurtu izana, hitzemanda nagoela esaten delako?”. Argi zegoen Cordeliak azalpen gehiago nahi zituela, eta aurrera jarraitu nuen. “Nire lagunei zor ote zaie, maitemintzea beti zorionik handientzat hartzen denez” (Cordelia harritzen da), “nire etsaiei, guztiz irrigarritzat hartu behar delako zorion hori niri egokitzea” (kontrako mugimendua), “ala kasualitateari, horretarako funtsik ez dagoenez? Edo zurrumurruren *generatio aequivoca*-ri, hau guztia gogo huts batek bere buruarekiko harremanaren ondorioa baizik ez delako?”. Izebak, emakumezko jakinminak bultzaturik, segituan jakin nahi izan zuen nor zen zurrumurruren arabera nirekin hitzartzeko atsegina izan behar zuen dama. Norabide horretan egindako galdera guztiak desbideratu nituen. Istorioak hunkitu egin zuen Cordelia; Edvarden akzioek puntu batzuk gora egin zutela esango nuke ia-ia.

Une erabakigarria hurbilduz doa. Izebarekin harremanetan jar ninteke idatziz, Cordeliaren eskua eskatuz. Horixe izaten da prozedura bihotzari dagozkion aferetan, bihotzarentzat berezkoagoa balitz bezala idaztea hitz egitea baino. Horretara bultzatzen ninduen bitartekoaren arrunkeria zen hain justu. Hori eginez gero, ordea, ezustearen indarra galduko nuke, eta ez dut horrelakorik nahi. Lagunen bat izango banu, agian esango lidake: pentsa ezazu ondo urrats izugarri garrantzitsu hau eman aurretik, erabakigarria izango baita geratzen zaizun bizitzarako eta beste izakiaren zorionerako. Horrelako abantailak izaten dira lagun bat duzunean. Nik ez dut lagunik; hau neure onerako ote den erabakitzeke utziko dudan gauza da, baina haren aholkuetatik libre egotea erabateko abantailatzat jotzen dut. Gainerakoan, sakon hausnartu dut arazo guztia, hitzaren zentzurik hertsienean.

Nire aldetik orain ez dago hitzematea eragotz lezakeen ezer. Beraz, gortea egitera! Nork esango zukeen ni ikusiz? Ene irudi xehea laster ikusiko dute ikuspuntu gorago batetik. Pertsona izateari utzi eta bilakatuko naiz.... partidu: bai, partidu ona, esango du izebak. Izebak ematen dit pena gehiena, landa-ekonomiazko maitasun garbi eta zintzoz maite nauelako, ia-ia bere ideala bainintzen gurtzen nauelako.

Nire bizitzan maitasun-aitorpen ugari egin ditut, eta hala ere, esperientziak ez dit batere laguntzen kasu honetan, aitorpen hau modu guztiz berezi batez egin behar delako. Lehenik eta behin buruan sartu beharra daukat guztia itxurazko mugimendua baino ez dela. Hainbat urrats ematen entrenatu naiz, hurbilketarik aproposena zein ote den ikusteko. Unea erotikoa egitea arriskugarria iruditzen zait, honek aise aurrera bailezake gero etorri beharrekoa, mailaka destolestu beharrekoa. Unea serioegia egitea, berriz, galbidetsua da; honelako uneak hainbeste garrantzi du neskato batentzat non arima osoa horretan zentra bailiteke, hiltzeaz dagoen bat bere azken nahian bezala. Bihotzez egiteak, komeriante merke antzean, ez luke bat egingo orain arte jantzita eraman dudana maskararekin, ezta aurrerantzean jantzi eta eraman nahi dudana ere. Unea txispagarri eta ironikoa egitea ausartegia da. Nire kezka nagusia, antzeko egoeretan jende gehienarena izan ohi den bezala, “bai” xume hori lortzea balitz, erraza suertatuko litzaidake. Horrek badu garrantzirik niretzat, noski, baina ez erabatekoa; izan ere, nahiz eta neska hau niretzat begiz jo, nahiz eta beregan arretea dextente eta are interes guztia ere jarri, badaude baldintza batzuk bete beharrekoak bere “bai”a onartzeko. Neska ez dut nirea egin nahi, azaleko zentzuan, modu artistikoz gozatu baizik. Hortaz, hasierak ahalik eta artistikoena izan behar du. Ahalik eta zehazgabeena izan behar du, bide guztiak zabalik utziz. Nigan hasieratik iruzurlea zentzu arruntan. Nigan maitale fidela ikusten badu, orduan ere gaizki ulertuko nau. Kontua da bere arima ahal bezain dudatan egotea gertakariaren aurrean. Horrelako une batean neska baten arima hilzorian dagoen batena bezain profetikoa da<sup>59</sup>. Hau saihestu beharra dago. Ene Cordelia maitagarria! Gauza eder bat kentzeko ari natzaizu iruzurrean, baina ezin da bestela izan, eta ahal dudana moduan ordainduko dizut egindako kaltea. Gertakari osoa ahalik eta modu diskretoenean jazo behar du neska, baietza eman ondoren, harreman honetan zer ezkuta ote daitekeen argitzeko ezgauza izan dadin. Posibilitate mugaezin honek, hain zuzen, eratzen du interesgarritasuna. Bera ezer aurreratzeko gauza baldin bada, orduan bide okerretik jo dut, eta harreman osoak esangura galduko du. Zeharo pentsaezina da berak maite nauelako baiezkua ematea, ez bainau inola ere maite. Onena izango da hitzematea ekintza izatetik gertakari bihurtzea, berak egiten duen hori, berari gertatzen zaion zerbaite bilakatzea, hari buruz esan ahal izan dezan: Jainkoak daki nola gertatu zen!

*Hogeita hamaika*

<sup>58</sup> Berezko sorkuntza.

<sup>59</sup> Ikus Platonen “*Apologia*”, 39.

Gaur maitasun-gutuna idatzi dut hirugarren batentzat. Horrek atsegin handia ematen dit beti. Aurrenik, beti da interesgarria egoera batean horren modu bizian, eta hala ere erosotasun osoz, sartzeari. Pipa betetzen dut, harremanaz entzutzen dut, doakionaren gutunak erakusten dizkit. Neska batek nola idazten duen beti izaten da gai garrantzitsua niretzat. Hor dago gizona, itsu-itsuan maiteminduta; maitaeren gutuna irakurtzen du ozen, nire ohar lakonikoen artean: oso ondo idazten du, badu sentimendua, gustua, zuhurtzia, lehenago ere maitatu du inolaz ere, etab. Bigarrenez, ekintza ona ari naiz egiten. Bi gazte elkartzen laguntzen ari naiz. Ondoren errezihoa pasatzen dut. Bikote zoriontsu bakoitzeko biktima bat aukeratzen dut niretzat; bi pertsona egiten ditut zoriontsu, eta bakarra zorigaitz gehienara jota ere. Prestu eta fidagarria naiz, ez dut konfiantza nigan jarri duen inor engainatu. Beti izango da txantxaren bat, baina horiek legezko sariak besterik ez dira. Eta zergatik gozatzen dut konfiantza hori? Latina badakidalako, etxeko lanak egiten ditudalako eta istoriotxo hauek neure golkorako gordetzen ditudalako beti. Ez al dut, bada, konfiantza hori merezi? Azken finean ez dut inoiz abusatzen.

## Abuztuak 2

Unea iritsi zen. Izeba kalean begiztatu nuen; beraz, banekien ez zela etxean egongo. Edvard aduanan zegoen. Litekeena zen Cordelia etxean bakarrik egotea. Eta halaxe zen. Josteko mahaian ziharduen, eskulanean bat egiten. Familia eguerdian bisitatzeko ohitura ez nuenez, ni ikustean apur bat hunkitu zen. Egoera hunkigarriegia izateko gutxi falta izan zen. Horren errua ez zen neskarena izan, nahiko erraz itzuli baitzen bere onera, nirea baizik, zirrara indartsua eragin baitzidan nik armadura soinean eraman arren. Zein maitagarri zegoen marra urdineko etxe-soineko apal kotoizkoarekin, bularrean arrosa moztu berria. Arrosa moztu berria... ez, neska bera zen lore moztu berria bezalakoa, hain baitzen freskoa, zabaldu berria! Eta nork daki non igarotzen duen gaua neska gazte batek. Nik uste, ilusioen lurraldean; baina goizero itzultzen da, eta horretxetik datorkio gazte-freskotasun hori. Hain gaztea zirudien, eta hala ere hain erabat garatua, naturak ama samur eta aberats baten moduan ordurarte eskutik joaten utzi izan ez balio bezala. Agurraren eszena ikusten ari nintzela iruditu zitzaidan; ikusi nuen ama hura berriro amoltsuki besarkatzen agur esateko, eta aditu nion esaten, “irten zaitez mundura, ene haurra; ahal bezainbat egin dut zure alde. Har ezazu ora in musu bat, ezpainetan ezarritako zigilu gisa. Santutegia zaintzen duen zigilua da, ezin hautsiko du inork zuk hautsi nahi ez duzun bitartean, baina gizon egokia datorrenean antzeman egingo diozu”. Eta musu bat ematen zion, ez giza musuen antzera zer bait hartzen duen horietakoa, musu jainkotiarra baizik, dena ematen duena, neskari musuaren indarra ematen diona. Natura miwesgarria, zein sakon eta misteriozkoa zaren! Gizonari hitz-etorria ematen diozu, eta neskari musu-etorria! Ezpainetan zeraman musu hura, eta agurra bekokian, eta diosal alaia begietan; horregatik zirudien batetik hain etxekoa, etxeko umea baitzen, eta bestetik hain arrotza, ez baitzuen mundua ezagutzen, modu ikustezinez berataz arduratzen zen ama maitagarria baizik. Benetako pospolina zen, haurra bezain gaztea, eta hala ere begirunea iradokitzen duen birjin-duintasun noble horrek apaindua.

Laster, alabaina, berriz grinagabetuta nengoen, eta neure burua erabateko mozolotzat hartuta, gauza esanguratsu bat esanahirik gabe geratzeko moduan egiten duen norbaiti dagokion bezala. Ohar arrunt batzuen ondoren beregana hurbildu eta nire eskaria luzatu nion. Liburu batek bezala hitz egiten duen pertsona entzutea aspergarria izan daiteke, baina batzuetan nahiko komenigarria izaten da modu horretan mintzatzea. Izan ere, liburuak badu ezaugarri berezi bat, hots, nork bere kasa interpreta dezakeela. Eta ezaugarri bera izaten du norbaiten mintzoak liburu bat bezala mintzatzen denean. Ohizko formulei eutsi nien zorrozki. Neska harrিতa geratu zen, nik espero bezala; ukaezina da. Zaila egiten zait nolako itxura hartu zuen deskribatzea. Aurpegiera zehazgabe jarri zitzaion; nire liburuaren gaineko iruzkin oraindik argitaratu gabe baina iragarri baten antzera, edozein interpretaziorako aukera ematen duen iruzkina. Hitz bat, eta barre egingo zidakeen; hitz bat, eta hunkitu egingo zatekeen; hitz bat, ihes egingo zidakeen. Baina nire ezpainetatik ez zen hitzik irten. Erabateko mozolo moduan segitu nuen, erritualari eutsiz. “Hain denbora gutxiz ezagutzen ninduen... “Ene bada, horrelako oztopoak hitzemateko estrata meharrean bakarrik aurkitzen dira, ez amodio erotikoaren bide loretsuan.

Nahiko arraroa. Aurreko egunetan auzia hausnartzen ibili nintzenean, ia seguru egon nintzen harridurazko une hartan “bai” esango zidala. Horra hor zertarako balio duten aurre-prestakuntza guztiek. Gauzak ez ziren horrela atera, ez baitzidan ez “bai” ez “ez” esan, izebarengana bidali baizik. Aurrikusi beharko nukeen. Baina hala ere zortea nuen, emaitz hura are hobea baitzen.

Izebak baimena emango du, horretaz ez dut zalantzarik txikiena ere. Cordeliak haren aholkua segituko du. Nire konpromezuari dagokionez, ez dut aldarrikatuko poetikoa denik, guztiz pedante eta burgesa baita. Neskak ez daki “bai” ala “ez” esan behar duen; izebak “bai” esaten du, neskak ere “bai” esaten du, neska hartzen dut, honek ni hartzen nau. Eta orain hasten da istorioa.

Beraz, orain hitzemanda nago; Cordelia ere bai, eta horixe da auziari buruz dakien gauza bakarra. Neskalagunen bat izan balu, zintzo hitz egingo liokeena, ziur aski esango ziokeen, “Honek guztiak zer esan nahi duen ez dut inola ere ulertzen. Badu zerbait beregana erakartzen nauena, baina zer ote den ezin dut asmatu. Botere harrigarri bat du nire gainean, baina maite, ez dut maite, eta agian ez dut inoiz maitatuko; hala ere, berarekin bizitzea jasateko gai izango naiz eta, hortaz, nahiko zoriontsua izango naiz berarekin, ziur aski ez baitit hainbeste eskatuko berarekin biziz konformatzen naizela ikusiz”. Cordelia maitea! Agian gehiago eskatuko dizu, eta trukean ez hainbeste egonarri.

Gauza irigarrien artean irigarriena da konpromezua. Ezkontzan behintzat badago zentzurik, zentzu horrek erabat ihes egiten badit ere. Konpromezua giza aurkikuntza hutsa da, eta ez dio aurkitzaileari ohore handirik egiten. Ez du ez bururik ez hankarik, eta amodioarekin duen antza bedelaren mantalak katedratikoaren tunikarekin duena bera da. Orain elkarte agurgarri horren bazkidea naiz. Ez da txantxetako gauza, zeren eta Tropek<sup>60</sup> dioen bezala, zeu artista bilakatu arte ezin baituzu beste artistak epaitzeko eskubidea irabazi. Eta gizon hitzemandak ez al da ba Dyrehaugeko<sup>61</sup> artisten antzekoa?

Edvard sutan dago, bere onetik irtenda. Bizarra hazten utzi eta jantzi beltza zintzilikatu du; horrek asko esan nahi du. Cordeliarekin hitz egin nahi du, nire maltzurkeria deskribatu nahi dio. Ikuskari asaldagarria izango da: Edvard bizarra moztu gabe, zarpail jantzita, Cordeliarekin ozenki hizketan. Bere bizar luzez kanpora bidaltzen ez nauen bitartean! Alferrik saiatzen naiz zentzura dadin: konpromezua izebaren gauza izan dela azaltzen diot, agian Cordeliak oraindik sentimendu samurrak dituela berarekiko, eta pozik egingo dudala atzera bera neska irabazteko gai bada. Une batez zalantzan geratzen da, bizarra beste modu batera apaindu beharko ote duen, jantzi beltz berria erosi beharko ote duen, baina hurrengo unean irainka hasten zait. Ahal dudan guztia egiten dut itxurak gordetzeko. Nirekin haserre egon arren, ziur naiz ez duela urratsik emango niri aholkua eskatu gabe; ezin baititu ahaztu nire kontseilaritzaz lortutakoak. Eta zergatik erauzi beharko nuke bere azken itxaropena, zergatik hautsi berarekin? Gizon ona da, auskalo zer gerta daitekeen denboraren joanaz.

Orain egin behar dudana da, alde batetik, gauzak antolatu beren konpromezua hauts dadin, horren bidez Cordeliarekin dudan harremana ederrago eta esanguratsuago bilaka dadin: bestetik, denbora ahal bezainbat probetxatu naturak halako eskuzabaltasun handiz hornitu dion xarma guztia, maitagarritasun hori guztia gozatzeko, baina hala ere modu mugatu eta zuhurrez gozatu, aurretiaz ezer susmatu ez dezan. Maitatzea zertan den, eta ni maitatzea zertan den ikasi duen puntura eramanez, orduan konpromezua hautsi egingo da molde akastuna bailitzen, eta Cordelia nirea izango da. Beste batzuk hitzartu egiten dira puntu horretara iristean, aurrean eternitate guztirako eskonbizitza aspergarri bat dutelarik. Hor konpon, hala nahi badute.

Oraindik den *in statu quo* dago, baina ezin da ni baino zoriontsuagoa den hitzemanik egon; urrezko txanpona aurkitu duen zikoitzak ezin senti lezake nire poza. Nire agintepean dagoela pentsatzeak horditu egiten nau. Emakumetasun garbi errugabea, itsasoa bezain gardena eta hura bezain sakona, maitasuna [*Kjaerlighed*]<sup>62</sup> zertan den ez dakiena! Orain ikasiko du nolako indarra duen amodio erotikoa [*Elskov*]. Hautsetik aitaren tronura igotzen den printzesa baten modu berean instalatu beharko du berea den erresuma horretan. Eta nire bidez gertatuko da; eta maitatzen ikasten duenean, ni maitatzen ikasiko du; araua garatu ahala, pixkanaka paradigma destolestean joango da, eta neu izango naiz eredu. Amodioan bere esanahi guztia sentitzen duenean, ni maitatzeko erabiliko du; eta niregandik ikasi duela konturatzen denean, modu bikoitzaz maiteko nau. Nire pozaz pentsatzeak ia zuhurtzia galtzeraino gaintitzen nau.

Bere arima ez dago amodio erotikoa emozio zehazgabeek ezabatuta edo gutxituta; neska gazte askori gertatzen zaie hori, inoiz iristen ez direlarik behar bezala maitatzera, hots, erabakiaz, energiak, erabat. Badute beren kontzientzietan halako irudi lausotu zehazgabe bat, idealtzat hartzen dutena benetako objektua egiaztatzeko. Halako osagabetasunetik zerbait azaltzen da, munduan zehar modu dezente batez ibiltzen laguntzen duena. Amodio erotikoa ariman esnatzen zaionean argi ikusten dut, entzun egiten dut beregandik irteten amodioaren ahots ugariak. Beregan hartu duen formaz segurtatu

<sup>60</sup> Heiberg-en “Recensenten og Dyret”, 4. eszena.

<sup>61</sup> Dyrehaug/Dyrehaven: Kopenhageko jolas-parkea, “varietè” gisako ikuskizunak ere eskaintzen dituen. Komendianta gisako artistak ari zaigu Kierkegaard.

<sup>62</sup> Kaerlighed/Elskov hitz bikotea islatzeko “Maitasun/Amodio (erotiko) euskal hitzez baliatu naiz.

ondoren, neure burua hartara moldatzen dut; eta amodio erotikoa bihotzean sortzen dion istorioan neure kabuz sartuta nagoen modu berean, ahal dudan bezain era dezepzionagarriaz hurbiltzen natzaio kanpotik. Izan ere, neska batek behin baino ez du maitatzen.

Beraz, orain Cordeliaren legezko jabea naiz, izebaren baiezkotik eta bedeinkapena ditut, baita lagun eta senitartekoen zorionak ere; iraungo du, bai. Beraz, amaitu dira dagoeneko gerla garaiko arazoak, bakearen zoriona hasten da orain. Horiek txorakeriak! Izebaren bedeinkapenak eta lagunaren zorionez Cordeliaren jabetza zentzu sakonagoan emango balidate bezala; amodio erotikoa halako oposizio bat balego bezala gerlaren eta bake garaian artean, bere burua –irauten duen bitartean- gatazkan adieraziko ez balitz bezala, armak desberdinak izan arren. Desberdintasuna *cominus* eta *eminus* moduko gatazkan artean dago<sup>63</sup>. Maitasun-harreman batean borroka zenbat eta *eminus*-agoa izan gero eta tristeagoa da, buruz-buruzko borrokari dagokio bostekoa ematea, edo oin batez ukitze xume bat egitea –jakina den bezala. Ovidiok<sup>64</sup> aldi berean aholkatu eta, jeloskortasun sakonez, gaitzesten duen gauza, musuaz edo besarkadaz ez hitz egiteagatik-. *Eminus* moduan borrokatzen denak gehienetan begia du laguntza soilak; eta hala ere, artista baldin bada, halako birtusismoz erabiliko du arma hori, non ia-ia emaitza bera lortuko baitu. Gizonak tarteka samurra den begirada bidal diezaiotke neska bati, ezustean ukituko balu bezalako ondorioa lortuz; gai izango da neska begiez harrapatzeko, bere besoetan hertsirik balego bezain sendo. Hala ere, beti da errakuntza edo zorigaitz gisakoa luzaro *eminus* moduan borrokatzea, halako borroka sinbolo hutsa baita beti, ez gozamenak. *Cominus* moduan borrokatzen denean bakarrik eskuratzen du guztiak bere benetako esanahia. Maitasunean gatazkari ez dagoenean, existitzeaz uztentzen dio. Ni ez naiz ia inoiz *eminus* moduan borrokatu, beraz ez nago amaieran, hasieran baizik; armak ateratzen ari naiz. Egia da, bai, Cordeliaren jabea naizela, hau da, zentzu legal eta burgesean; baina horrek ez du niretzat garrantzirik, ideia askoz garbiagoak ditut nik. Nirekin hitzemandako dago, egia da; baina horretatik ondoreztatu nahiko banu maite egiten nauela, ilusio hutsa litzateke. Cordeliak ez baitu inolaz ere maitatzen. Bere legezko jabea naiz, baina ez da nire jabetza, neska baten legezko jabea izan gabe bere jabetza izan dezakedan bezala.

*Auf heimlich erröthender Wange  
Leuchet des Herzens Glühen*<sup>65</sup>

Te-mahaiaren ondoko sofán dago eserita, eta ni aldameneko aulkian. Posizio horrek konfiantza adierazten du, baina baita urrutiz duen duintasuna ere. Gauza asko eta asko daude posizioaren menpe, hau da, horretarako begia duenarentzat. Amodio erotikoa posizio asko ditu, eta hau da lehena. Baina zein dotoreki hornitu duen naturak neska hau: beren gorputz eme garbiak, bere emakumezko errugabetasun sakonak, bere begi argiek... denak horditzen nau.

Diosal egin diot, Pozik hurbildu zait, beti bezala, baina lotsa apur batez, zalantza bezala. Izan ere, gure hitzemeak aldatu egin behar du gure harremana, berak nolatan ez jakin arren; eskutik heldu dit, baina ez irribarrez, ohi zuen bezala. Agur horri erantzun diot bere eskua arinki, ia modu sumaezinez, presionatuz. Adeitsu eta atsegin jardun dut, baina erotikoa izan gabe. Te-mahaiaren ondoko sofán dago eserita, eta ni aldameneko aulkian. Solemnitate distiratsu bat jabetzen da egoeraz, goiz-argitasun eme bat, Cordelia isilik dago, ezerk ez du isiltasuna hausten. Begiak gainetik labaintzen dizkiot ezti, ez ordea desiraz, hori lotsagabekeria izango zen. Gorritze fin iheskor bat, galsoro baten gainetik doan hodeia bailitzen, nagusitzen zaio, noiz areagotuz noiz motelduz. Zer adierazten du gorritze horrek? Amodio erotikoa ote da, desira, itxaropena, beldurra, gorria bihotzaren kolorea den aldetik? Inola ere ez. Harrituta dago, txundituta. Ez nitaz, hor oparituko banio gutxi litzateke. Txunditzen da, ez bere buruaz, bere baitan baizik. Bere burua itxuraldatzen ari da. Une honek isiltasuna eskatzen du; beraz, ez du ezein oharrek eragotzi behar, ezein grina-hotsek hautsi behar. Bertan ez banengo bezala da, eta hala ere, nire presentzia bera da Cordeliaren harridura kontenplatiborako baldintza. Nire izatea harmonian dago berearekin. Honelako egoeran neska bat zenbait jaingo bezala gurtu behar da, isiltasunez.

Zorionekoa da nire osabaren etxea eskura izatea. Pertsona gazte bati tabakoarekiko gorrotoa piztu nahi banio, Regenteseneko<sup>66</sup> erretze-gelara sartuko nuke; neska bati hitzemandako egotearekiko gorrotoa piztu nahi diodanean, nahikoa zait hona ekartzea. Jostunen elkartearen lokalera jostunak bakarrik sartzen diren modu bertsuan, hona hitzemandakoak bakarrik sartzen dira. Izugarria da horrelako laguntza

<sup>63</sup> *Cominus*: buruz-buruko gatazka *Eminus*: gatazka urruna.

<sup>64</sup> “Amores” I 4, 16 eta 44.

<sup>65</sup> Gordean gorritzen den masailean distiratsun du bihotz goriak.

<sup>66</sup> Kopenhageko Unibertsitateko ikasle-egoitza zaharrena.



izatea, eta ez da Cordeliaren errua egonarria galtzen badu. Denak *en masse* elkartuta gaudenean, hamar bikote izango gara, jaiegun handietan hiriburura etortzen diren gudarosteez gain. Orduan hitzemandakook benetan gozatzen ditugu hitzemandak egotearen deliziak. Beraz, Cordelia ekartzen dut elkargunera, zirri amoltsu hauek, langile maiteminduen pailazokeria hauek gorrota ditzan. Etengabe, arrats osoan zehar, halako hots bat entzuten da, norbait euliak hiltzeko batekin zi-pli-zapla arituko balitz bezala; maitaleen musu-hotsak dira. Etxe honetan ez dago inongo eragozpenik: hemen jendeak ez ditu izkinak bilatzen, ez horixe; mahai biribil handi baten inguruan esertzen dira. Nik ere mugimendu bat egiten dut Cordelia modu berez tratatzeko. Xede horretarako, gogor bortxatu behar dut neure burua. Izan ere, asaldagarria litzateke nire aldetik bere emakumetasun sakona horrela iraintzea. Errieta gehiago egingo nioke neure buruari horregatik, engainatzen dudanean baino. Dudarik gabe segurta diezaioket nigan konfiantza jartzen duen edozein neskari estetikoki tratatua izango dela; hori bai, engainatuta bukatuko du, baina hori nire estetikaren alderdi bat da, ze bitatik bat, edo neskak gizona engainatzen du, edo gizonak neska engainatzen du. Interesgarria izango litzateke, inondik ere, literaturzaleen batek ipuin, kondaira, herri-kanta eta mitologiak ikertu ondoren esango baligu ea zein den infidelagoa, emakumea ala gizona.

Ez naiz damutzen Cordeliarekin ematen ari naizen denboraz, franko ematen ari banaiz ere. Bilerak bakoitzerako prestakuntza luzeak egin behar izaten ditut. Berarekin bakoitzerako prestakuntza luzeak egin behar izaten ditut. Berarekin batera ari naiz bizitzen bere amodioaren sorrera. Bere alboan modu ikusgarrian eserita nagoenean ere, ia modu ikustezin batez egoten naiz bertan. Bi lagun eskatzen dituen dantza bakarka dantzatzen denean bezala, horrelakoxea da berarekin dudak harremana. Alegia, ni naiz beste dantzaria, ikustezina baina. Ametsetan bezala mugitzen da Cordelia, eta hala ere beste norbaitekin ari da dantzari; eta neu naiz beste norbait hori, modu ikusgarrian bertan nagoen neurrian ikustezina naizena, eta ikustezina naizen neurrian ikusgarria naizena. Mugimenduok beste norbait esakatzen dute. Honen aurrean makurtzen du burua, eskua luzatzen dio, ihes egin ondoren berriz hurbiltzen zaio. Eskutik heltzen diot, bere pentsamendua osatzen dut, berez osatuta dagoen arren. Cordelia bere arimaren melodia propialaren arabera mugitzen da; ni bera mugitzeko arrazoia besterik ez naiz. Ez dut modu erotikoz jarduten, horrek piztu egingo bailuke; malgua naiz, moldakorra, inperzonal, ia-ia giro bat bezala.

Normalean zertaz hitz egiten dute hitzemandak daudenean? Nik dakidanez, lanpetuta egoten dira bata besteari elkarren sendien harreman aspergarrien xehetasunak ematen. Horrela, ez da harritzekoa erotikotasuna galtzea. Pertsona batez ez badaki amodio erotikoa absolutu bihurtzen, horren aldean beste edozein kontu desagertzen delarik, orduan ez luke maitatzen saiatu behar, ezta hamar aldiz ezkondu ere. Marianne izeneko izeba ote dudak, Christopher izeneko osaba ote dudak, aita alkate ote den, etab., etab., horrelako informazio publiko orok ez du maitasunaren misterioekin zerikusirik. Bai, geure bizitza iragana ere ez da ezer. Normalean, neskato batek ez du esateko askorik gai honi buruz; baina esatekorik izango balu, orduan merezi lezake entzuteak, ez ordea maitatzeak. Nik bederen ez ditut istorioak bilatzen, horietaz nahiko eta gehiegi daukat; berezkotasuna bilatzen dut nik. Amodio erotikoa beti gertatzen da amodioaren unean bertan hasten direla bi gizabanako elkarrentzat existitzen.

Beregan konfiantza pixka bat piztu behar da, edo hobeto esanda, zalantza bat baztertu behar da. Ez naiz ni errespetua medio maitemindu, errespetua medio ezkondu eta errespetua medio elkarrekin umeak izaten dituzten maitale ugari horietako bat; ondotxo dakit, ordea, amodio erotikoa, batez ere pasio abiarazten ez denean, bere objektuari eskatzen diola moralitasuna estetikoki ez urratzea. Honi dagokionez, amodioak bere dialektika du. Adibidez, Edvardekin izan dudak jokabidea askoz gaitzesgarriagoa da ikuspuntu moraletik izebarekin izan dudana baino, eta horregatik errazagoa zait Cordeliaren aurrean harekiko portaera zuzitzea, honekiko baino. Berak ez du ezertxo ere aipatu, baina hala ere onena iruditu zait azaltzea zein beharrezkoa izan zitzaidan modu hartaz jardutea. Nik erabilitako ardurak harrotasuna lausengatzen dio; guztia eraman dudanez isiltasunak arreka deitzen dio. Irudi lezake horrenbestez jakintza erotikoa gehiegi erakusten dudala, geroago inoiz maitemindu ez naizela iradoki beharko diodanean neure buruarekin kontraesanean eroriko naizela, baina berdina dio. Neure buruarekin kontraesanean egoteak ez dit beldur ematen, bera konturatzen ez den neurrian eta nik nahi dudana lortzen dudak neurrian. Doktore tesi-egile jakintsuei uzten diet kontraesan oro galarazteko ardura; neska gazte baten bizitza aberatsegia da bertan kontraesanik ez izateko, eta guztiz beharrezkoak egiten ditu kontraesanak.

Neska harroa da, eta ez du erotismoaz ideiarik ere. Orain maila intelektual hutsean nire aurrean nolabait makurtzen bada ere, litekeena da erotikotasuna pizten hasten zaionean harrotasun hori nire aurka botatzea. Ikusten dudanez, nahasita dago emakumearen benetako esanahia zein ote den. Horregatik izan da erraza bere harrotasuna Edvarden aurka piztea. Baina harrotasun hura guztiz bitxia zen, amodio erotikoa zertan zen ez baitzuen inongo ideiarik. Honen berri jakin bezain laster lortuko du benetako

harrotasuna, baina harrotasun bitxi horren hondarra aise azalera liteke noizean behin. Orduan litekeena da nire aurka jardutea. Ezkontzeko hitza eman izanaz damutuko ez bada ere, aise konturatuko da nahiko prezio onean lortu dudala; konturatuko da bere aldetik hasiera ez zuela modu egokian egin. Honetaz jabetzen bada, niri aurre egiten ausartuko da. Eta hala izan behar du. Orduan sinetsiko dut zein sakon hunkituta dagoen.

Hain zuzen ere. Kaletik noala, urrutitik ere ikusten dut burutxo lirain kizkur hori, leihotik ahal adina kanporatzen. Ikusten dudun hirugarren eguna da. ... Neska bat ez da besterik gabe leihora irteten, dudarik gabe baditu arrazoi onak. .... Baina Jainkoarren, erregutzen dizut, ez horrenbeste kanporatu: apustu egingo nuke aulki baten gainean zaudela, zure jarrerak esaten dit. Pentsa zein izugarri litzatekeen eroriko bazina, ez nire gainean, oraingoz ez baitut auzi honetan sartzeko asmorik, gizon horren gainera baizik, ze gizonen bat izan behar du honetan. ... Baina zer da hori? Hara non datorren kalearen erditik nire adiskide ona, Hansen lizentziatua. Bere jokabidea arraro samarra da, garraibide ohigabe batez dator: oker ez banago, irrikaren hegaletan dator. Bera ote da etxe horretako bisitaria, eta ni ezer jakin gabe? .... Dama liraina, leihotik desagertu zara: bisitaria hartzeko atea zabaltzera jaitxi zarela suposatzen dut. ...Baina itzul zaitezke, nire lagunak ez du inola ere etxean sartu behar. ...Ea nola dakidan? Hara, ez dut inolako zalantzarik, berak esan dit eta. Ondotik pasa zaigun zalgurdiak hala ko zarata egin ez balu, zuk zeuk ere entzungo zenukeen. Esan diot *en passant*: barrura al hoa? Eta hark hitz argi batez erantzun: ez. Beraz esaiozu agur, lizentziatua eta biok pasiera egitera joango baikara. Nahasita dago, eta jende nahasiak hitz egiteko gogoia izaten du. Beraz, lortu nahi duen erretore postuaz jardungo dugu. ... Agur, andereño panpoxa, aduana aldera goaz. Hara iritsitakoan esango diot: madarikatu horrek desbiderarazi egin nauk. Vertergade aldera joatekoa ninduan.

Eta hemen gaude berriro. ... Hori seta! Oraindik leihotik begira dago. Horrelako neska batek zoriontsua egin behar du gizona. ... Eta zergatik egiten dudun hau galdetuko didazu. Pertsona zitala naizelako, besteei ziria sartzeak atsegin ematen didalako? Inola ere ez. Zure onerakoa izango zelakoan egin dut, andereño maitagarri hori. Hasteko, lizentziatu honen zain egon zara, bere ondoan egoteko irrikatzen, eta horregatik askoz lerdengoa da azaltzen denean. Bigarrenez, lizentziatua etortzen denean, esan dizut: “Arraioa, ia-ia desestali dute gure sekretua, bisita egitera nentorrela ez dut bada tipo madarikatu hori atean topatu? Baina argi jokatu dut, ederki moldatu naiz solas luze batean korapilatzen, bilatzen ari naizen erretore postuaz, eta hau eta besteaz, aduanara iritsi arte. Baina tipoa ez da ezertaz jabetu”. Eta orduan zer? Ba lehen baino gehiago maite duzula zeure lizentziatua, bai baitzenekien mentalitate aparta zuela, baina argia zenik... Horratx, ikusten? Eta niri eman behar dizkidazu eskerrak.

Baina zerbait bururatzen zait. Ezin izan dute beren konpromezua publiko egin, horren berri jakingo nukeen eta. Neska maitagarria da, eta xarmaz bete: baina gaztea da. Agian ez zaio zuhurtasuna oraindik heldu. Eta horren urrats erabakigarria arduragabe hartuko balu? Hori galarazi beharra dago: berarekin hitz egin behar dut. Neskari zor diot, oso xarmagarria da eta. Lizentziatuari ere zor diot, nire laguna denez; horregatik zor diot neskari ere, nire lagunaren emaztegaia delako. Sendiari ere zor diot, oso sendi agurgarria da eta. Gizadi osoari zor diot, egintza ona da eta. Gizadi osoari! Bai gogoeta bikaina, bai kirol sublimea, gizadi osoaren izenean jardutea, halako botere osoen jabetza izatea. Baina itzul gaitzean Cordeliarengana. Giroa beti etorriko zait ondo, eta neska honen desira zoragarriak zinez hunkitu nau.

Beraz, orain hasten da lehen gerla Cordeliarekin, ihes egingo diot horrela, nire atzetik doala, garaile izaten ikas dezan. Atzera eta atzera egiten dut etengabe, eta atzerako mugimendu horretaz irakasten diot neure bitartez amodio erotikoa indarra, bere gogoeta ekaiztsuak, bere grina, ezagutzen: irrika, itxaropena eta espero pairugabea zertan diren ikasten. Bere aurrean hala mugitzen naizenean, dagokion mugimendua piztarazten dut beregan. Garaile-prozesio batean gidatzen dut, zeinean nik neuk bere garaipenak ditiranboz laudatu ez ezik, bide erakutsi ere egiten baitiot. Adore bilduko du indar eternala den amodio erotikoa sinesteko, nigan duen aginpidea ikusiz, nire mugimenduak ikusiz. Sinetsi egingo nau, alde batetik neure artean konfiantza dudalako, bestetik egiten dudun horren funtsean egiairik badagoelako. Horrela izango ez balitz, ez ninduke sinetsiko. Nire mugimendu bakoitzaz gero eta sendoago bihurtzen da: amodio erotikoa pizten zaio ariman, tronuratuta dago emakume beza la.

Orain arte ez diot proposamenik egin [*frier*]<sup>67</sup>, zentzu burgesean esaten den bezala: orain egingo dut, orain egingo dut aske [*fri*], eta horrela bakarrik maiteko dut. Niri zor didala ez du inoiz jakin behar, bere buruaz duen konfiantza galduko bailuke. Bera aske sentitzen denean, ia-ia nirekin hausteko tentazioa izateko bezain aske, orduan hasiko da bigarren borroka. Orduan indarra eta grina izango ditu, eta

<sup>67</sup> Danieraz “askatzea” eta “amodioa aitortzea” aditz beraz esaten da: *at fri*.



borrokak zentzua niretzat, uneko ondorioak direnak direla. Demagun harrotasunaren kariaz zorabiatzen dela, demagun nirekin hausten duela; oso ondo! Bere askatasuna du; baina oraindik ere nirea izango da. Konpromezuak lotuko duela pentsatzea txorakeria da, nik askatasunean bakarrik nahi dut nirea izatea. Utz nazala; bigarren borroka hasten ari da, eta bigarren honetan garaile gertatuko naiz, lehenean bera garaile gertatu dela ilusioa izan den bezain seguru. Beregan zenbat eta indar gehiago egon, orduan eta interesgarriago niretzat. Lehen gerla askapen-gerla da, jolas hutsa. Bigarrena konkista-gerla da; hil ala biziko borroka.

Maite al dut Cordelia? Bai! Benetan? Bai! Fideltasunez? Bai, zentzu estetikoan, eta horrek zerbait adierazi beharko luke. Zer onik ekarriko ziokeen neska honi senar fidel melontzio batekin ezkondu izan balitz? Zer gertatuko ote zitzaiokeen? Deus ez. Esaten da zintzotasuna baino gehixeago behar izaten dela mundu honetan aurrera egiteko. Nik diot zintzotasuna baino gehixeago behar dela horrelako neska bat maitatzeko. Eta nik badaukat gehixeago hori; faltsukeria da. Eta hala ere fideltasunez maite dut. Lizunkeria orotik kanpo, zorrotz zelatatzen dut neure burua. Cordeliaren baitan dagoen guztia, bere barruko izaera jainkotiar aberats guzti hori bere osotasunean garatu ahal izan dadin. Ni naiz hori egin dezakeen gutxienetako bat. Bera, berriz, xede horretarako gai den gutxienetako bat; beraz, ez al gara bata bestearentzat eginak?

Bekatua ote da apaizari begiratu beharrean eskuan daukazu musuzapi eder bordatu horretan tinkatzen badiot begiak? Bekatua ote da zure aldetik musuzapiari horrela heltzea? ... Izen bat darama muturrean. ... Charlotte Hahn al duzu izena? ... Zein seduzitzailea den dama baten izena horrelako modu ustegabeen jakitera iristea. Arima adeitsu batek isilgordean zure aurkezpena egingo balit bezala da. ... Ez al da ba ustegabekoa zuk musuzapia halako eraz tolestea non zure izena irakur dezakedan? ... Hunkituta zaude, malko bat lehortzen duzu. ... Musuzapia otera zintziliko dago. ... Harrigarria iruditzen zaizu nik zuri, eta ez apaizari, begiratzea. Musuzapiari begiratzen diozu, konturatzen zara zure izena desestali didala. Gauza guztiz kaltegabea da ordea; neska baten izena erraz jakin daiteke. Zergatik sufritu behar ditu musuzapiak ondorioak? Zergatik zimurtu behar duzu? Zergatik haserretzen zara berarekin? Zergatik haserretzen zara nirekin? Entzun apaizak dioena: “Ez dezala inork beste norbait tentatu. Ustegabeen egiten duenak ere erantzukizuna du; berak ere badu bestearenganako zor bat, bestearenganako onginahia areagotuz bakarrik kita dezakeena”. Apaizak amen esan du. Flizatik irtendakoan ziur aski haizean zabalduko duzu musuzapia berriro. ... Ala nire beldur al zara? Zer egin dut nik? ... Barka dezakezuna baino gehiago egin al dut, barkatu ahal izateko gogoratzen ausartzen zarena baino gehiago?

Cordelia dagokionez, mugimendu bikoitz baten premia dago. Bere indarraren aurrean behin eta berriz atzera jotzeari ekiten badiot, aise gerta liteke bere baitako erotikotasuna disolbatu eta lasaiegi bihurtzea emakumetasun sakonago bat hipostasiatu ahal izateko. Orduan, bigarren borroka hasten denean, ez luke aurre egiteko indarrik izango. Lo iristen da garaipenera inondik ere, eta hala izan behar du; baina beste aldetik etengabe esnarazi beharra dago. Eta une batez iruditzen bazaio garaipena erauziko diotela, tinko eusten ikasi beharko du. Bere emakumetasunak heldutasuna lortuko du gatazka honetan. Hitzak erabil nitzake bere grina pizteko, eta gutunak hozteko, edo alderantziz. Azken hau da onena alde guztietatik. Orduan gozatzen ditut bere goraldi-uneak. Eskutitz bat hartu duenean, honen pozoiz gozoa odolera pasa zaionean, orduan hitz bat nahikoa da bere amodio erotikoa zabaltzeko. Hurrengo unean, nire ironia eta hotzak dudatan murgiltzen dute, baina nolanahi ere etengabe sentitzen du bere garaipena, baita areagotu eta hurrengo eskutitza hartzean. Ironia gutunetan sartzea ere ez da erraza, hartzaileak ez ulertzeko arriskua baitago. Gogo beroa ezin da tarteka baino erabili elkarrizketa batean. Neure presentziak galaraziko du estasia. Gutunaz bakarrik banauka alboan, orduan ongi konpontzen da nirekin, nola edo hala nahasi egiten nau bere amodioan bizi den izaki unibertsal batekin. Gainera, gutun batean errazago moldatzen zara beti, gutun batean ere bikainez bota naiteke bere oinetara etab.; hau aurrez aurre egingo banu ulergaitza gertatuko litzaioke, eta ilusioa galduko litzateke. Mugimendu hauen kontraesanak bere amodio erotikoa piztu eta areagotu, indartu eta sendotu egingo du; hitz batez, tentatu egingo du.

Eskutitzok, alabaina, ez dute goizegi hartu behar kutsu erotikoa indartsua. Hasieran onena da izaera unibertsalago batekoak izatea, aipamen bakar bat izatea, duda bakar bat argitzea. Noizean behin aipa liteke hitzartua egoteak duen abantaila ere, alegia, gezur ttikien bidez jendearengatik urrunduta egon zaitezkeela. Hitzartua egoteak dituen desabantaila jabetzeko parada, berriz, ez zaio faltako. Osabaren etxean badagoelako etengabe erakuts dezakedan karrikatura ugari. Nire laguntzarik gabe ezin du barne-erotikotasuna Laguntza ukatzen badiot, irudi burlesko horrek eragotz dezan uzten badut, aspertuko da, bai, hitzartuta egoteaz, baina benetan konturatu gabe ni izan naizela asperrarazi duena.

Gaurko gutuntxoak, nire arimaren egoera deskribatzen zuenak, bere barne-egoerari buruzko aztarna bat emango dio. Metodo egokia da, eta nik badut metodorik. Horren eskerrak eman behar dizkizuet, iraganean maite izan zaituztedan neska gazteoi. Zuei zor dizuet arima halako eraz moldatuta egotea non nahi dudana izan bainaiteke Cordeliarentzat. Eskerronez zaituztet gogoan, zuena da ohorea. Beti aitortuko dut neskato bat maistra dela jaiotzez, beti ikasten dela zerbait beregandik, besterik ez bada ere bera engainatzen, neskengandik ikasten baita hori modurik onenean. Edozein adinetara iritsita ere, ez dut inoiz ahaztuko gizon batentzat ez dela dena galdu harik eta neskato batengandik ezer ez ikasteko bezain zahar bihurtzen den arte.

---

Ene Cordelia,

Honelakoa nintzenik inoiz irudikatu ez zenuela diozu, baina nik neuk ere ezin nuen irudikatu inoiz honelakoa bihurtu ahal izango nintzenik. Ez ote da zugan aldaketarik gertatu? Zeren eta gerta bailiteke ni aldatu izan ez arren, begiratzen didaten zure begiak aldatu izana. Edo nigan gertatu ote da aldaketa? Nigan gertatu da, maite baitzaitut, zugan gertatu da, zu baitzara maite dudana. Adimenaren argi hotz lasaiaz begiratzen nion guztiari. Harro eta hunkiezin, ezerk ez ninduen izutzen. Ez ninduen ezerk harritzen; izpiritu batek nire atea jo izan balu, argimutilla hartu eta zabaldu egingo niokeen<sup>68</sup>. Baina horratx, atea ez diet izpirituei zabaldu, ezta irudi zurbil ahulei ere, zuri baizik, ene Cordelia; bizitza eta gaztetasuna, osasuna eta edertasuna hurbildu zaizkit. Besoa dardarka hasten zait, ezin dut kandela tente eduki. Atzera jotzen dut, eta hala ere ezin diot zuri begiratzeari utzi, ezin kandela tente eduki nahi izateari utzi. Aldatuta nago, bai; baina zergatik, nola? Zein da aldaketa honen izaera? Ez dakit: ez dakit definizio argiagorik erabili ote dezakedan, predikatu aberatsagoaz balia ote naitekeen, neure buruaz amaigabe eta modu enigmatikoz diodana baina: aldatu egin naiz.

---

Zure Johannes

---

Ene Cordelia,

Amodio erotikoa misterioa du gogoko: konpromezua errebelazioa da. Isiltasuna du gogoko: konpromezua iragarpen publikoa da. Xuxurlatzea du gogoko: konpromezua aldarrikapen ozena da. Eta hala ere, nire Cordeliaren laguntzaz, konpromezua etsaiak engainatzeko bide bikaina izango da. Gau iluna denean, ez dago beste ontzientzat gauza arriskitsuagorik linterna bat piztea baino, ilunbeak baino gehiago engainatzen baitu.

---

Zure Johannes,

Te-mahaiaren ondoko sofán dago eserita, eta ni aldamenean. Besotik helduta nauka; bere burua, gogoeta anitzek abaildua, nire sorbaldan pausatu da. Hain hurbil dut, eta hala ere hain urrun; bere burua entregatzen dit, eta hala ere ez da nirea. Oraindik badago erresistentziarik, baina ez berea subjektiboa; emakumetasunaren erresistentzia arrunta da, emakumearen funtsa debozioa baita, erresistentzia itxura hartzen duena. Te-mahaiaren ondoko sofán dago eserita, eta ni aldamenean. Bihotza taupaka ari zaio, baina ez grinagatik; bularraldea gora eta behera ari zaio, baina ez larritasunagatik; tarteka, kolorea mudatzen zaio, baina pixkana-pixkana. Maitasuna al da? Inola ere ez. Aditzen ari da, ulertzen. Hitz topikoak aditzen ditu, eta ulertu egiten ditu. Beste norbait aditzen du hizketan, eta bere hitzak balira bezala ulertzen ditu. Beste norbaiten ahotsa aditzen du, beregan oihartzuntzen; oihartzun hori ulertzen du bere ahotsa balitz bezala, bere buruari eta beste bati errebelatzen.

Zer egin behar dut? Nire xarmez liluratu? Inola ere ez, hori ez zait komeni. Bihotza lapurtuko al diot? Inola ere ez, nahiago dut maiteko dudán neskak bere bihotza gordetzea. Zer egin behar dut, orduan? Berearen antzeko bihotza sortuko dut nigan. Artista batek bere laztana margotzen du, horretan hartzen du atsegin; eskultoreak eratu egiten du. Gauza bera egiten dut nik, baina zentzu intelektualean. Beraz, ez daki ni irudi horren jabea naizenik, eta horretantxe datza benetan nire faltsuztapena. Isilgordean lortu dut, eta zentzu horretan lapurtu diot bihotza. Rebekak<sup>69</sup> maltzurkeriaz baliatuz Labani etxeko jainkoak kentzean bihotza lapurtu ziola esaten den modu berean.

---

<sup>68</sup> Don Juan Tenoriok bezala, komendadorearen estatuak bere atea jotzen duenean.

<sup>69</sup> Errealitatean Rakelek lapurtu zizkion etxeko jainkoak Labani (Genesi, 31,34)

Inguruneak eta markoak eragin handia dute pertsona batengan; zirrara azkarren eta sakonena eragiten du oroimenean [Hukommelse]<sup>70</sup>, edo hobeto esanda arima osoan, eta arrazoi horrexegatik ezin aherentzi izaten da. Ez du axola zein adinetara iristen naizen, guztiz ezinezkoa izango zait beti gela txiki hau ez beste ezein inguruetan Cordeliar pentsatzea. Bisita egitera etortzen naizenean, arruntean neska areto handira eramaten nau, Cordelia bere gelatik irteten da, eta aretoko atea irekitzen dudanean egongela txiki sartzeko, berak beste atea irekitzen du, gure begiek atean bertan elkar topatzen dutelarik. Egongela txikia da, atsegingarria, ia-ia apaingela baten tamainakoa. Han esertzen zait alboan; aurrean te-mahai biribila dugu, izur zabaleko mahai-oihal batez estalita. Mahai gainean lanpa bat dago, lore itxurakoa, sendo eta oparo altxatzen dena; goiko aldetik, arretaz ebakitako paperezko errezele dago zintzilik, hain arima denez geldirik ezin egon daitekeena. Lanparen formak Ekialdeko natura dakar gogora, errezelearen mugimenduek hango haizetxo ezia. Zume txirikordatuzko tapiz batek estaltzen du zoru, txirikordatzeko lanak bere jatorri arrotza salatzen duelarik.

Batzuetan lanparrak ikuspegi osoa hartzen uzten diot. Halakoetan, lanparen lorearen azpian lurrean etzanda gaudela egiten dut. Beste batzuetan, zuma tapizak ontzi bat irudikarazten dit, ofizial-ganbara. Orduan ozeano zabalean barrena nabigatzen goazela egiten dut. Leihotik urrutik gaudenez, aurre-aurrean izaten dugu zeruaren ostertz eskerga. Honek areagotu egiten du ilusioa. Bere ondoan eserita nagoenean, horrelakoei irudi forma hartzen uzten diet, errealtatearen gainetik pasatzen dena, herioa hilobi baten gainetik bezain azkar.

Inguruneak garrantzi handia du beti, batik bat gogoramen [Erindring] mailan. Barruan guztiaren edertasuna daraman irudi bat erraz sortzeko moduan bizi behar da edozein amodio-harreman. Hau lortu ahal izateko, inguruneak erreparatzea funtsezkoa da. Gustukoa ez bada, orduan beste bat sortu beharra dago. Cordeliari eta bere maitasunari dagokienek, ingurune guztiz egokia da. Zein irudi desberdin agertzen zaidan nire Emiliar pentsatzen dudanean. Baina hartan ez al zen ingurune egokia? Ezin dut Emiliar pentsatu, edo hobeto esanda, lorategira ematen zuen gelan bakarrik gogora dezaket. Ateak zabalik zeuden; etxe aurreko lorategitxoak ikuspegia mugatzen zuen, begiak bertan gelditzera behartuz, bertan geraraziz uruti desagertzen zen errepideari ausardiaz jarraitu aurretik. Emili polita zen, baina ez Cordelia bezain esanguratsua. Ingurune ere horretarako aproposa zen. Lurrean tinko zituen begiak, ez ausart eta jauzkor aurrera so, aurrealde urrian pausatuta baizik. Errepideak berak, urrunean erromantikoki gaitzen bazen ere, eragin bitxia zuen, begiek aurrean zuten zatitxoari begiratu ostean etxeratu egiten baitziren, berriro ere ikusmenean zegoen errepide zatitxoari begiratzeko. Gela beheko oinean zegoen, Cordeliaren inguruneak ez du aurrealderik izan behar, ostertzaren ausardia amaigabea baizik. Cordeliak ez du lurtarra izan behar, flotatu baizik; ez du ibili behar, hegatu baizik, ez atzera eta aurrera, beti aurrera baizik.

Pertsona bat hitzemandako dagoenean, eraginkortasun handiz trebatzen da hitzemandakoen txorakerietan. Duela egun batzuk Hansen lizentziatua azaldu zen ezkon-hitza emana dion neska xarmagarriarekin. Maitagarria zela esan zidan, lehendik ere banekiena; oso gaztea zela, hura ere gauza jakina niretzat. Eta azkenik fidatu zidan horrexegatik aukeratu zuela, betidanik gogoan izandako idealaren arabera moldatu ahal izateko. Ene bada, hori bikotea, lizentziatu txepel batek eta neska polit, loratu eta alai batek osaturikoa. Ni trebatu samarra naiz jolas horretan, baina ez naiz neska batengana inoiz hurbiltzen Naturaren Venerabile<sup>71</sup> batengana bezala baino, beregandik ikasteko. Aurrerantzean beregan izan dezakedan eragin hezitzailea honetan datza, beregandik ikasitakoa behin eta berriro berari irakatsiz.

Bere arimak hunkitu egin behar du, norabide guztietan inarrosi, ez zatika eta boladaka, osoki baizik. Infinitua aurkitu behar du, ikasi horixe dela pertsona batengandik hurbilen dagoen gauza. Honetaz jabetu behar du, ez arrazoibidez, beretzat bide okerra baita, fantasiaz baizik, hori baita bere eta nire arteko komunikabide benetakoa; izan ere, gizonarengan zati bat baino ez dena osotasuna baita emakumearengan. Amaigabetasunera iristeko ez du arrazoiaren bide neketsua hartu behar, emakumea ez baita lanerako jaioa; aitzitik, irudimenaren eta bihotzaren bide errazetik iritsi beharko du. Neska gazte batentzat, infinituaren ideia maitasun orok zoriontsua izan behar duela bezain ideia berezkoa da. Noranahi doala ere, neska gazte bat infinituaz inguratuta dabil, eta jauzi batez pasa daiteke hartara, baina kontuz, emakume-

<sup>70</sup> Aristoteles edo Hegel bezalako zenbati filosofoen antzera, Kierkegaardek bereizi egiten du *Hukommelse* eta *Erindring* hitzen artean. Bereizketa nolabait islatzearen, oroimen/gogorapen euskal hitzak aukeratu ditut. Gogoramena (*Erindring*) arbuia egin daiteke, beti berreskuratu ahal izango da. Oroimena (*Hukommelse*) berezkoa da, gauzak berez oroitzen dira; gogoramenak, berriz, hausnarketa eskatzen du. Horregatik hartzen du artetzat gogoratzea.

<sup>71</sup> Venerabile: Beneragarria den zerbait.

jauzia da, ez gizonetzkoa. Nolako melontzioak diren gizonak gehienetan! Jauzi egiterakoan abiadura hartu behar dute, prestakuntza luzeak egin, distantzia begiz neurtu, zenbati saio hasi; beldurtu eta atzera egin. Azkenean jauzi egin eta ez dira iristen. Neska batek beste modu batez egiten du jauzi. Lurralde menditsuetan sarri aurkitzen dira tontor zorrotz bikoitzak. Bien arteko amildegi sakona begiratzeko izugarria izaten da. Ezein gizon ez da jauzi hau egitera ausartzen. Baina neska gazte bat, bertakoez diotenez, ausartu egin zen, eta Dontzeilaren Jauzia esaten diote. Guztiz sinesgarria zait, neskato batez entzun dezakedan edozein gauza berezi sinesgarria zaidan bezala, eta benetan hordigarria da niretzat bertako jende apalari horretaz mintzatzen aditzea. Dena sinesten dut, miragarria den oro sinesten dut: txunditu egiten nau, sinestearren bakarrik; munduan txunditu nauen gauza bakarra, lehena eta azkena, neska bat izan den era berean. Eta hala ere neska batentzat horrelako jauzia saltotxo bat besterik ez da: gizonaren jauzia, berriz, barregarri geratzen da. Izan ere, hankak izugarri zabaldua ere, gizonaren ahalegina xume-xumea gertatzen baita bi tontorren arteko distantziaren aldean, nahiz eta nolabaiteko neurria eman. Baina nor izan liteke neska bat abiadura hartzen irudikatzeko bezain ergela? Irudika liteke, bai, lasterka, baina lastertze hori jolasa baino ez da, gozarena, bere liraintasunaren hedatzea: abiadura hartzeak, aldiz, bereizi egingo luke emakumetasunari dagokion guztitik. Abiadura hartzeak dialektika darama bere baitan, eta hau emakume izaeraren aurka doa. Eta jauziari dagokionez, nor ausar liteke berez elkartuta dagoena bereizten? Neskaren jauzia hegaldia da. Eta beste aldera iristean zutik dago, ez eginahalak abailduta, inoiz baino politago baizik, adoretzuago: musua bidaltzen digu alde honetan gaudenoi. Gaztea, jaioberria, mendiaren sustraietatik lilituriko lorea bailitzen, kulunkatzen ari da amildegiairean gainean, guk ia konortea galtzen dugun bitartean.

Orain ikasi behar du infinituaren mugimendu guztiak egiten, giroetan kulunkatzen: poesia eta errealtatea, egia eta fikzioa nahasten, mugagabetasun horretan jolasten. Nahas-mahas horri konfiantza hartu dionean, orduan gaineratzen dut nik erotikotasuna; orduan izango da nik nahi eta desira dudana. Orduan amaituko da nire egitekoa, nire lana; orduan bilduko ditut nire oihal guztiak; orduan izango naiz Cordeliaren ondoan, bere oihalez joko dugu aurrera. Egia esan, behin neska hau erotikotasunaz hordituta dagoenean, nahiko lan izango dut lemaz arduratzen, abiadura moteltzearen, ezer gerta ez dadin garaiz aurretik edo modu desegokian. Lantzean behin zulotxo bat egiten dut oihalean, eta hurrengo unean hortxe goaz berriro abaila ederrean.

Osabaren etxeak gero eta gehiago sumintzen du Cordelia. Zenbait aldiz eskatu dit hara gehiago ez joatea, baina alferrik, beti asmatzen baitut aitzakiaren bat joateko. Bart arratsean handik joan ginenean, grina ohigabe batez estutu zidan eskua. Sufritu egiten du han nonbait, eta ez da harritzekoa. Ni ere afektazio artifizial horiei so egiten hainbeste libertituko ez banintz, ezin jasango nuke inondik ere. Gaur goizean bere gutun bat iritsi zait: bertan, egotziko niokeena baino zorrotzasun gehiagoz, barregarri uzten ditu hitzemandakoak. Musukatu egin dut gutuna; beregandik hartu dudana atsegingarriena da. Oso ongi, Cordelia! Horrelaxe nahi dut nik.

Østergaden badaude bi gozotegi aurrez aurre, gauza harrigarri samarra. Bigarren bizitzako ezker aldean neska edo andereño gazte bat bizi da. Normalean pertsiana veneziar baten atzean ezkutatzen da, eserita dagoen leiho aurreko pertsianaren atzean. Pertsiana material oso mehez egina da, eta neska ezagutzen duen edo maiz ikusi duen gizonak, begi zorrotzekoa bada, neskaren ezaugarri guztiei antzemango die; ezagutu ez edo begi zorrotzik ez duenarentzat, ordea, itzal ilun bat besterik ez da. Niri neurri batean azken hau gertatzen zait, baina egunero eguerdian puntuan agertu eta begirada pertsianara zuzentzen duen ofizial gaztea lehen kasuan dago. Egia esan, komunikazio telegrafiko hartara arreta erakarri zidana pertsiana izan zen. Gainerako leihoetan ez dago pertsianarik, eta halako pertsiana bakartia, leiho bat baizik estaltzen ez duena, atzean erregulariki norbait egoten den seinalea izaten da normalean.

Goiz batez beste aldeko gozotegiko leiho parean nengoan. Hamabiak puntuan ziren. Albotik pasatzen zitzaidan jendea jaramonik egin gabe, begiak pertsiana hartan tinkatuta neuzkan, atzean zegoen figura iluna bat batean mugitzen hasi zenean. Emakume buru baten soslaia agertu zen alboko leihoan, pertsiana alboratuaren norabide berean modu bitxi batez okertua. Ondoren, buruaren jabeak oso adeitsu agurtu eta osteria eskutatu zen pertsiana atzean. Lehenik eta behin, agurtutako pertsona gizonetzkoa bat zela ondoreztatu nuen, bere keinua grinatsuegia baitzen neskalaun baten ikusteak eragindakoa izateko. Atera nuen bigarren ondorioa izan zen agurra zuzendutako pertsona eskuarki beste espaloitik joaten zela. Neska oso ondo kokatuta zegoen galaia urrutitik ere ikusteko, baita pertsiana atzetik agurtzeko ere.

Hain zuzen ere! Hamabietan puntuan agertzen da maitasun-eszenatxo honetako heroia, gure teniente preziatua. Andereñoa bizi den bizitzaren azpiko gozotegian nago eserita. Dagoeneko teneinteak ikusi du neska. Erne gero, adiskidea, ez da horren gauza erraza lehen solairuko bati diosal liraina bidaltzea.

Tenientea ez dago gaizki; argala, jaso, gorpuzkera lerdena, sudur kakoa, ile beltza.... Hiru adarreko kapela ere ongi doakio. Orain dator une erabakigarria. Zangoak pixkana dardarka hasten zaizkio, luzeegiak bihurtzen. Ikusleari eragiten dion zirrararen hagineko mina duzunean hortzak ahoan luzeegiak sentitzearen antzekoa da. Indar guztia begietara bidaltzen duzunean begirada lehen bizitzara zuzentzeko, aise gerta daiteke zangoak indarrak gabe geratzea. Barkatu, teniente jauna, begirada eteten badut gorantzako bide horretan. Lotsagabe samarra da, badakit. Begiradaz ezin esan daiteke asko esaten duenik; ez, ez du ezer esaten, bai agintzen ordea. Baina promesa hauek guztiak indartsuegi igotzen zaizkio burura, gauza nabarmena da; oreka galtzen du, eta poetak Agneteri buruz dioen bezala<sup>72</sup>, balantza egin eta erori egin da.

Tamalgarría da, eta nire esku egon balitz, ez zen inoiz gertatuko. Gizon onegia da horretarako. Zorigaitzekoa da, da, damengan halako galai baten inpresioa eragin nahi duzunean ez baituzu inola ere erori behar. Galaia izan nahi baduzu, arretaz zaindu behar dira horrelakoak. Pertsona azkarra bezala agertzen bazara ordea, gauza horiek ez dute garrantzirik; zeure baitara hondoratzen zara, amilduta zabiltza, beraz benetan erortzea ez da harritzekoa.

Zer nolako inpresioa eragin ote dio gertakizun xume horrek nire andereñoitxoari? Lastima Dardanelo karrika honen bi aldeetan ezin egon naizela. Ezagunen bat jar nezake beste aldean zelatan, baina alde batetik neronek egin nahi izaten dut behaketa, eta bestetik nork daki afera honetatik zer atera dezakedan. Izan ere, halakoetan ez da inoiz gomendagarria konplizerik izatea; denbora franko eman behar izaten da beregandik dakiena ateratzen, eta nahasita uzten.

Aspertzen hasia ditzosozko teniente honekin. Egunak joan egunak etorri, galako uniformeaz pasatzen da. Iraupen izugarria erakusten du inondik ere. Egokia ote da soldadu batengan? Jauna, ez al daramazu bada gerri-armarik? Ez al zenuke etxea gogorrean hartu behar, eta neska indarkeriaz? Jakina, estudiante bazina, lizentziatua, edo itxaropenak bizirik gordetako kapilua<sup>73</sup>, kontua bestelakoa litzateke. Baina barkatzen dizut, neska zenbat eta gehiago ikusi gero eta atseginago dut eta. Polita da, eta bere begi marroiak bihurrikeriaz beteta daude. Zu iritsi zain dagoenean, edertasun handiago batez itxuraldatzen zaio aurpegiera, eta zein ongi doakion adierazteko hitzik ez dago. Horretatik ondoreztatzen dut irudimen handia izan behar duela, eta irudimena da sexu ederraren berezko kosmetikoa.

Ene Cordelia,

Zer da orimina? Hizkuntzak eta poetek errimarazi egiten dute “espetxe” hitzarekin<sup>74</sup>. Hori bidegabekeria! Espetxean dagoen pertsonak bakarrik oroimina izan balezake bezala. Libre dagoenak oroimina izan ez balezake bezala. Libre dagoenak oroimina izan ez balezake bezala. Demagun ni libre nagoela; nolako oroimina izango nuke! Baina beste aldetik librea naiz, txoria bezain librea, eta hala ere nolako oroimina dudan! Zure oroimina dut zuregana noanean; zure oroimina dut uzten zaitudanean; zure ondoan eserita nagoenean ere badut zure oroimina. Orduan, daukazun zerbaiten oroimina izan al daiteke? Bai horixe, agian hurrengo unean edukiko ez duzula pentsatzen baduzu. Nire oroimina egonezin eternala da. Eternitate osoa bizi eta une oro nirea izan zinela segurtatu izan banu, orduan bakarrik itzuliko nintzateke zuregana eternitate osoan zurekin bizitzera; orduan ez nuke egonarririk izango zuregandik une bakar batez bananduta egoteko oroiminik sentitu gabe, zure ondoan lasai esertzeko segurtasun nahikoa baizik.

Zure Johannes,

Ene Cordelia,

Ate aurrean *cabriolet* txiki bat dago zain, niretzat mundu osoa baino handiagoa, bi lagunentzat nahikoa denez; bizaldi ditu aurrean, naturaren indarrak bezain izu eta menderagaitzak, nire grinak bezain egonezinak, zure gogoetak bezain ausartak. Hala nahi baduzu, eraman egingo zaitut, ene Cordelia! Hori al da zure agindua? Zure agindua bridak eta hegaldiaren plazerra askatzen dituen kontraizeinua da. Urrutira eramango zaitut, ez pertsona batzuegandik beste batzuegana, mundutik kanpora baizik. Zaldiak zutitu,

<sup>72</sup> Jens Baggesen daniar poetaren “Agnete fra Holmegaard”. “Agnete, koloka, balantza egin eta erori egin zen”.

<sup>73</sup> Ik. J.L. Heiberg-en “Prosaiske Skrifer”, X. 25 or.:

Kapilua zahar bihur daiteke

Itxaropenak bizirik gordetzen baitu.

<sup>74</sup> Danieraz “oroimin” (Laegsel) eta “espetxe” (Faengsel) errimatu egiten dute.

eta gurdia altxatu egiten da; zaldiak ia bertikalean daude, gure buruen gainean. Zeruan barrena goaz, hodeiak zeharkatuz; haizearen burrunbak inguratzen gaitu; gu geldirik eta mundu osoa mugitzen ari da, ala gure hegaldi ausarta al da? Zorabiatzen bazara, hel ieza dazu tinko; ni ez naiz zorabiatzen. Zentzu intelektualean gauza bakar batez pentsatzen duzunean ez zara zorabiatzen, eta nik zu bakarrik zaitut gogoan. Zentzu fisikoan ez zara zorabiatzen objektu bakar bati begiratzen diotzunean, eta nik zuri bakarrik begiratzen dizut. Hel ieza dazu tinko; mundua hilko balitz, zalgurdi arina gure azpian desagertuko balitz, artean elkarri lotuta geundeke, esfera zerutarren harmonian flotatzen.

---

*Zure Johannes.*

Hau gehiegizkoa da. Nire mirabeak sei ordu eman ditu zain, eta neronek bi, haize eta euripean, Charlotte Hahn neskatala maitagarriaren zelatan. Asteazkenero, ordu biak eta bostak artean, bere izeba zahar bat ikustera joateko ohitura du. Eta gaur bertan utzi behar zion etortzeari, gaur bertan, bera ikusteko halako irrika nuenean. Irrika, zergatik? Ba arima-egoera oso berezi batean jartzen naudelako. Agurtzen dudanean, bera makurtu egiten zait modu lurtar deskribaezin eta aldi berean izugarri zerutar batez. Kasik gelditu egiten da; lurrak irentsiko duela ematen du, baina zeruetara igotzera doan baten begirada du. Ikusten dudanean, gogoan aldi berean serio eta irrikatsu bihurtzen zait. Bestela, ez dut neskarengan inolako interesik; diosal hori baizik ez dut eskatzen, ez dut beste ezer nahi, ezta berak eman nahiko balit ere. Bere agurrak aldarrean jartzen nau, gero Cordeliarekin xahutu dezakedan aldarrean.

Apustu egingo nuke nola edo hala oharkabea pasa zaigula. Neska gazte bat zelatatzea zaila da, ez komedietan bakarrik, baita errealitatean ere; begiak beti zabalik izan behar dituzu. Bazen ninfa bat, Cardea<sup>75</sup>, gizonetzkoen ziria sartzen denbora ematen zuena. Basarte batean bizi zen, eta bere maitaleak engainuz sasirik trinkoenetara ino eraman ondoren, desagertu egiten zen. Janus ere engainatu nahi izan zuen, baina azkenik honek hura engainatu zuen, buruaren atzeko aldean begiak zituelako.

Nire gutunak beren helburua lortzen ari dira. Cordelia mentalki garatzen ari dira, baina ez erotikoki. Horretarako ezin baitira gutunak erabili, txartelak baizik. Erotikotasuna zenbat eta gehiago ageri, gero eta laburragoak izango dira, baina gero eta hobeto helduko diote alderdi erotikoa. Cordelia ez baitu sentimentalkeria edo samurkerian erori behar, eta xede horretarako ironiak zurrundu egiten ditu sentimenduak, baina aldi berean gehien gustatzen zaion elikaduraren irrika piztuz Cordeliarengan. Urrun eta zehazgabe, txartelak goren-gorena barrundatzera eramaten dute. Sentipen hau ariman pizten hasten zaion unean, harremana hautsita geratuko da. Nire erresistentziaren bidez sentipen hori bere ariman itxura hartuz joango da, bere gogoeta propiala, bere bihotzaren bulkada, bailitzen. Ez dut besterik nahi.

*Ene Cordelia,*

Bizi da hiri honetan nonbait familia bat, alargun batek eta bere hiru alabek osatua. Haietako bi Errege-sukaldeetara joaten dira sukaldaritza ikastera. Uda hasierako arratsalde batez, bostak aldean, egongelako atea astiro zabalitzen da, eta begirada arakatzailerik batek zeharkatzen du gela. Ez dago inor, pianoa jotzen ari den neska izan ezik. Atea erdi zabalik dagoenez, sumatua izan gabe entzun daiteke. Pianojolea ez da artista handia, kasu horretan atea guztiz itxita egongo baitzen. Doinu suediar bat jotzen ari da, gaztetasun eta edertasunaren iraupen laburrari buruzkoa. Hitzek irri egiten diete neskaren gaztetasun eta edertasunari. Neskaren gaztetasun eta edertasunak irri egiten diete hitzei. Zeinek du arrazoiak, neskak ala hitzek? Musikaren soinua hain da apala, hain melenkoniatsua, eztabaida erabakiko duen arbitroa tristura bera dela ematen baitu. Ez dago, ordea, halako tristurarako arrazoirik! Zer erlazio dago, bada, gaztetasunaren eta gogoeta hauen artean? Zer kidetasun egunaren eta gauaren artean? Piano-teklak dardarka hasten dira; erresonantzia-kaxako arimak nahasita altxatzen dira, elkar ulertu ezinik. Zergatik horren oldarkor, Cordelia? Zertarako grina hori?

Gertakari batek denboran zein urrutik egon behar du gugandik gogora dezagun? Zein urrutik gogomenaren oroimena ezin berreskuratu dezan? Honi dagokionez, jende gehienak muga bat izaten du; denboran hurbil samar dituen gauzak gogoratzeke ez da gai izaten, ezta urrutiegi dauden gauzak gogoratzeke ere. Nik ez dut mugarik ezagutzen. Atzo gertatutakoa mila bat urte atzera bultzatzen dut, eta atzo gertatu balitz bezala gogoratzen dut.

---

*Zure Johannes*

---

<sup>75</sup> Erromar mitologian, Cardea ate-orpoak (latinez, cardo) zaintzen zituen jainkosa zen.

Ene Cordelia.

Sekretu bat fidatu behar dizut ene konfidentea zaren horri. Nori fidatu beharko nioke bestela? Oihartzunari? Desestali egingo luke. Izarrei? Hotzak dira. Pertsoneri? Ez dute ulertzen. Zuri bakarrik ausartzen naiz fidatzen, ongi gordetzen dakizulako. Bada neska bat, nire bihotzaren ametsa baino ederragoa, eguzki-argia baino garbiagoa, itsasoaren iturriak baino sakonagoa, arranoaren hegada baino harroagoa. Bada neska bat... Otx! Makurtu burua nire belarri eta ahotseraino, nire sekretua isilgordean sar dadin. Neure bizitza baino gehiago maite dut neska hori, nire bizitza baita; neure desira guztiak baino gehiago, desira bakarra baitut; neure gogoeta guztiak baino gehiago, gogoeta bakarra baitut; eguzkiak lorea baino sutuago maite dut, atsekabeak arima nahaigabetuaren bakardadea baino barrukotasun handiagoz, basamortuko hondar kiskalgarriak euria maite duen baino irrika handiagoz. Berari atxikita sentitzen naiz, amaren begia haurrari baino samurrago, arima otoitz-egilea Jainkoari baino konfiantza handiagoz, landarea bere sustraiari baino bananezinago.

Burua astun eta gogoetatsu duzu, papar aldera erortzen zaizu; bularra altxatzen da, buruari lagundu nahian.... Ene Cordelia! Ulertu egin didazu, zuzen ulertu didazu, hitzez hitz, kakotxa bat bera ere galdu gabe! Beharrezkoa al zait belarria zolitzea zure ahotsak komentzi nazan? Zalantzarik izan al nezake bada? Gordeko al didazu sekretua? Zutaz fidatzera ausartzen al naiz? Krimen izugarrien bidez elkarri isiltasuna irakatsi dioten pertsoneri buruzko istoriak entzuten dira. Zuri fidatu dizudan sekretua nire bizitza da, nire bizitzaren edukia. Ez ote duzu zeuk ere niri fidatze ko ezer, hain esanguratsua, hain ederra, hain garbia non desestaltzeak naturaz gaindiko indarrak abiaraziko bailituzke?

-Zure Johannes

Ene Cordelia.

Zerua estalita dago. Euri hodei ilunek zimurtzen dute, bere aurpegi grinatsuaren grinatsuaren gaineko bekain ilunen modura; basoko zuhaitzak mugitzen ari dira, amets artegek astinduta bezala. Basora sartu zara, nigandik desagertuz. Zuhaitz bakoitzaren atzean zure antzeko emakumezko izaki bat ikusten dut; hurbiltzen naizenean, hurrengo zuhaitzaren atzean ezkutatzen da. Ez al didazu zeure burua erakutsi behar, izaki bakar bilakatuz? Dena nahasten zait; basoko atal desberdinek beren ertz zehatzak galtzen dituzte; dena laino-itsaso baten modura ikusten dut, zeinean zure antzeko emakumezko izakiak nonahi agertu eta desagertzen diren. Zu ez zaitut ikusten; etengabe mugitzen zara sumaketen uhinean, eta hala ere, zurekiko antzik xumeenak ere poztu egiten nau. Zein ote da arrazoiak? Zure izakiaren batasun aberatsa, ala nire izakiaren aniztasun pobrea? Zu maitatzea ez al da mundua maitatzea?

Zure Johannes.

Asko interesatuko litzaidake, ahal izango banu, Cordeliarekin ditudan elkarriketak zehaztasun osoz transkribatzea. Konturatzen naiz, haatik, guztiz ezinezkoa dela, gure artean esandako hitz bakoitza gogoratzeko gauza banitz ere ezingo bainuke inola ere transkribatu aldi berean gertatzen den guztia, elkarriketari mamia ematen diona, solasaren bizi-printzipioa den harridurazko deiadarra, su-garra. Normalean ez naiz aurretiaz prestatuta egoten noski, hori ere solasaren benetako izaeraren aurka baitoa, batez ere solas erotikoa denean. Nire gutunen edukia bakarrik izaten dut *in mente*, arreta handia jarritz Cordeliarengan eragin ahal izan duten aldartean. Jakina, ez litzaidake inoiz otuko ea nire gutuna irakurri duen galdetzea. Aise suma baitaiteke irakurri egin duela. Berarekin ez dut inoiz horretaz zuzenean hitz egiten, baina nire elkarriketetan komunikazio ezkutua mantentzen dut gutunekin, alde batetik bere ariman zirraren bat edo beste sendoago finkatzeko, bestetik huraxe erazteko eta Cordelia nahasteko. Orduan berriro irakur dezake gutuna, hartatik zirrara berri bat lortu, etabar, etabar.

Aldaketa bat gertatu da eta gertatzen ari da beregan. Bere arimaren egungo egoera definitu beharko banu, ausardia panteistikoa aipatuko nuke. Bere begiradak segituan salatzen du. Ausarta da, ia ausarkeriazkoa bere itxaropenetan, une oro neurritz gaineko zerbait eskatu, eta hura ikusteko prest balego bezala. Kanpora begiratzen duen begiak bezala, begirada honek berez aurrean agertzen zaiona alde bat utzi eta miresgarritasuna ikusten du. Ausarta da, ia ausarkeriazkoa bere itxaropenetan, ez ordea beregan duen konfiantzan; horregatik ameskari eta erregutzailea da, ez harroa eta agintzailea. Bere burutik kanpo bilatzen du miresgarritasuna; otoitz egingo du ager dakion, agertaraztea bere esku ez balego bezala. Hau saihestu beharra dago; osterantzean goizegi nagusituko bainintzaioke. Atzo esan zidan nire izaeran bazegoela halako erregetasun bat. Beharbada nire menpe jarri nahi du, baina ez dut horrelakorik nahi. Jakina, Cordelia, badago nire izaeran halako erregetasun bat, baina ez duzu ideiarik ere zer nolako



erresumaren ganean dudan agintea. Gogo-egoeren ekaitzen ganean. Eolok bezala<sup>76</sup>, nire nortasunaren mendian gordetzen ditut, orain bat eta gero beste bat irteten utziz. Lausenguek bere burua preziatzen lagunduko diote; zurea eta nirearen arteko bereizketa inposatuko da; dena bere aldera pasako da. Lausengatzeko kontu handiz ibili behar da. Batzuetan oso goian ipini behar duzu zeure burua, baina leku garaia bat garatzeko moduan; beste batzuetan oso behean ipini behar duzu zeure burua. Lehena da egokiena maila intelektualean mugitzen ari zarenean; maila erotikoa diharduzunean, bigarrena da egokiena.

Ezer zor al dit? Inola ere ez. Zerbait zor izatea desira al nezake? Inola ere ez. Jakitunegia naiz horretan, sobera dakit erotikotasunaz halako txapelkerietarako. Zinez hala izango balitz, indar guztiez saiaturiko nintzateke ahantz zezan, baita horri buruzko neure gogoetak ere uxatzen. Bere bihotzaren labirintoari dagokionez, neska bakoitza Ariadna<sup>77</sup> bat da; berea da bide egokia aurkitzeko haria, baina halako moduan da hariaren jabe non ez baitaki erabiltzen.

Ene Cordelia,

Hitz egin, obedituko dizut. Zure nahia agindua da niretzat, zure eskaria konjuro guztiahalduna; zure nahirik iheskorrena ere niretzako bedeinkapena, ez baitizut obeditzen izpiritu zerbitzari moduan, zugandik kanpo bainengoen. Agintzen duzunean zure borondatea jaiotzen da, eta ni harekin batera; arima nahasia bainaiz, zure hitz bakar baten zain dagoena.

Zure Johannes,

Ene Cordelia,

Badakizu izugarri gogoko dudala neure buruarekin hitz egitea. Nire ezagunen arteko pertsonarik interesgarriena aurkitu dut neure baitan. Batzuetan beldur izan naiz solas horietan ez ote nintzen material faltan aurkituko; orain ez naiz beldur, zu baitzaitut. Orain eta eternitate guztirako zutaz hitz egingo diot neure buruari, gai interesgarrienaz pertsona interesgarrienari. Ai, pertsona interesgarria baino ez bainaiz; zu, berriaz, gai interesgarria.

Zure Johannes,

Ene Cordelia,

Oso laburra iruditzen zaizu maite izan zaitudan denbora; badirudi beldurra diozula nik lehenago ere maite ahal izanari. Zenbait eskuizkributan zorioneko begiek segituan sumatzen dute idazketa zaharrago bat, denboraren joanaz xumekeria ergelek ordezkaturia izan dena. Gai erregarriez ezabatu egiten da idazketa berria, orduan testu zaharra argi eta garbi agertzen delarik. Modu berdinez lagundu didate zure begiek neure burua ene baitan bilatzen. Ahantzurari uzten diot zurekin zerikusirik ez duen oro kontsumitzen, eta orduan aurkitzen dut jatorrizko testu zahar eta izugarri gaztea; orduan konturatzen naiz zureganako nire maitasuna ni neu bezain zaharra dela.

Zure Johannes,

Nola iraun dezake bere buruarekin borrokan dagoen erresumak<sup>78</sup>? Eta nola iraun ahal izango dut neronek neure buruarekin borrokan ari naizenean? Ea zeri buruz? Zuri buruz; zutaz maiteminduta nagoelako gogoetan atsedean aurkitu nahian, ahal badut. Baina nola aurkitu behar dut atsedean hori? Indar borrokarietako bata etengabe sinestaraziko dio besteari bera dela sakonen eta sutsuen maite zaituena; hurrengo unean besteak gauza bera egingo dio batari. Ez nintzateke hainbeste kezkatuko borroka nigandik kanpo gertatuko balitz, beste norbait ausartuko balitz zutaz maiteminduta egotera, edo ez egotera – krimenaren larria berdina baita-, baina neure baitako borroka horrek, pasio bakar bikoiztu horrek, kontsumitu egiten nau.

Zure Johannes

<sup>76</sup> Greziar eta erromar mitologietan, Eolo haizeen jainkoa zen, eta Eolia irlako leize batean gordetzen zituen bere semeak ziren haizeak.

<sup>77</sup> Ariadna Minosen alabak Teseori labirintotik irteten lagundu zion hari baten bidez.

<sup>78</sup> Ik. Markos, 3,24.



Desager zaitetz, ene neska arrantzalea; ezkuta zaitetz zuhaitzen atzean; altxa ezazu zeure zama, makurtzea ongi doakizu eta. Bai, une honetantxe liraintasun naturalez makurtzen ari zara bildutako adaxken zamapean. Horrelako izakiak horren zama astunak eraman behar izatea ere! Dantzari baten moduan, zure formen edertasuna salatzen duzu: gerri estua, bular zabala, soin ongi garatua, edozein ofizial erreklutatzailek aitortu beharko du. Beharbada, huskeriak direla uste duzu, dama dotoreak askoz politagoak direlakoan zaude agian. Ene haurtxoa, ez dakizu ondo zenbat faltsukeria dagoen munduan! Ekiozu ibiltzeari, zama soinean daramazula; zeharkatu baso eskerga, milia asko eta askotan barrena lurraldean zabaltzen dena mendi urdinen mugaraino. Beharbada, ez zara benetan arrantzale baten alaba, printzesa xarmatua baizik; tartalo baten neskamea zara, eta izaki anker horrek basora bidaltzen zaitu egur bila. Hala izaten da beti ipuinetan. Bestela, zergatik barneratzen zara basoan? Benetan arrantzale baten alaba bazara, orduan nire ondotik pasa beharko duzu, bidearen beste aldean dagoen herriskarako bidean.

Har ezazu zuhaitzen artetik jostari bihurritzen den bidea; nire begiek aurkituko zaituzte. Jira zaitetz, eta niri begiratu: nire begiek jarraituko dizute. Ez nauzu mugiaraziko; oroiminak ez nau hainbestearaino aztoratuko; lasai nago pretilean eserita, puroa erretzen. Besteren batean, agian. Bai, aurpegiera bihurria duzu burua erdi atzera eramaten duzunean; zure ibilera arina tentagarria da. Bai, badakit, ulertzen dut bide honek nora daraman: basoaren bakardadera, zuhaitzen xuxurlara, isiltasun oparora. Hara, zeruak berak zure alde jokutzen du. Hodeien atzean ostentzen da; ilundu egiten du basoaren atzeko aldea, guretzat errezelak alboratuko balitu bezala. Agur, neska arrantzale polita, ondo izan. Mila ezker zure mesedearengatik. Une ederra izan da, egoera animiko bat; ez zait nahikoa izan pretilean nengoen lekutik mugitzeko, baina aberatsa izan da, ba, barne-mugimendu mailan.

Jakobek Labanekin bere zerbitzuen ordaina negoziatu ondoren<sup>79</sup>, Jakobek ardi zuriak zainduko zituela, eta bere lanaren ordaina artaldean jaiotako ardi marradunak izango zirela hitzartu zutenean, Jakobek makilak ezarri zituen edateko erabiltzen zuten uhaskan, eta ardiak haiei begira utzi. Ni modu berean jartzen naiz nonahi Cordeliaren aurrean; honen begiek etengabe ikusten naute. Berak uste du adeitasuna dela nire aldetik; nik badakit, ordea, horren bidez bere arimak interesa galtzen duela gainerako guztian, pizten ari zaiola barruan halako irrits mental bat, ni nonahi ikusten nauena.

### Ene Cordelia,

Ahaztu ahal izango bazintut bezala! Nire maitasuna oroimen [Hukommelse]<sup>80</sup> kontua al da? Denborak bere arbelean dagoen guztia ezabatuko balu, oroimena bera ere barne, zurekin dudan harremanak bizirik iraungo luke, zu ahortzi gabe jarraituko nuke. Ahaztu ahal izango bazintut bezala! Zer gogoratu [erindrel] beharko nuke, orduan? Neure buruaz ahaztu naiz dagoeneko, zu gogoratzeko; beraz, ahaztu egingo bazintut neure burua gogoratu beharko nuke, baina neure buruaz oroitzeko unean gogoratu beharko zintuzket berriro. Ahaztu ahal izango bazintut bezala! Zer gertatuko litzateke, orduan? Badago antzinako marrazki bat, Ariadna irudikatzen duena. Ariadna ohetik jauzi egin eta larriduraz ari zaio begira oihalak zabalik urrunduz doan ontziari. Cupido bat du alboan, sokarik gabeko uztaiak eskuan, malkoak lehortzen<sup>81</sup>. Ariadnaren atzean emakume hegaldun baten irudia dago, burua kasko batez estalita. Normalean irudi hori Nemesis<sup>82</sup> dela uste izaten da. Irudika ezazu marrazkia: irudikatu apur bat aldatuta. Cupido ez da negarrez ari, eta uztaiak badu sokarik. Edo zu ez zinela horren ederra, horren garailea, ni erotu nintzelako. Cupidok uztaiak tenkatzen du, irribarrez. Alboan duzun Nemesis ere ez dago egonean, berak ere uztaiak tenkatzen du. Marrazki zahar horretan gizonezko bat ikusten da ontzian, bere zereginetan lanpetuta. Teseo dela suposatzen da. Ez ordea nire marrazkian. Honetan lema ondoan dago, oroimineza atzera begiratzuz. Besoak zabaltzen ari da; damutu egin da edo, hobeto esanda, utzi egin du eromenak, baina dagoeneko ontziak urrutira darama. Bai Cupidok bai Nemesisek destatu egiten dute: gezi bana irteten da beren uztaietatik, zuzen xedera doazenak. Ikusten dugu, ulertzen dugu, bere bihotzeko leku berean zulatzen direla, adierazi nahian Nemesis mendekatzailea zela bere maitasuna.

Zure Johannes

### Ene Cordelia,

<sup>79</sup> Ik. Genesi, 30; 31-40.

<sup>80</sup> Ik. (70) oharra.

<sup>81</sup> Herkulanoko horma-marrazkiaz ari da, egun Napoleseko Museoa dagoenaz. Teseok Ariadna bahitu zuen, baina Naxosen utzi zuen.

<sup>82</sup> Greziar mitologian, Nemesis justizia ordaintzailearen (mendekuaren) jainkosa da.

Neure buruaz maiteminduta nagoela dio jendeak. Ez naiz harritzen; izan ere, nola suma lezakete maitatzeko gai naizela zu bakarrik maite zaitudanean? Nola susma lezake beste inork, zu bakarrik maite zaitudanean? Neure buruaz maiteminduta nago. Eta zergatik? Zutaz maiteminduta nagoelako; zu maite baitzaitut, zu bakarrik, eta benetan zurea den guztia, eta hartara maite dut neure burua, nire gogoia zurea delako, halako moldez non zu maitatzeari utziko banio, neure burua maitatzeari ere utzi beharko bainioke. Beraz, munduaren begi profanoentzat egoismorik handienaren adierazpena dena, zure begirada trebatuarentzat begikotasun garbienaren adierazpena da; munduaren begi profanoentzat bizirik irauteko sen arruntena adierazten duenak, zure iritzi sakratuarentzat auto-deuseztapen sutsuena adierazten du.

---

*Zure Johannes*

Prozesu osorako denbora gehiegi behar izateak ematen zidan beldurrik handiena. Hala ere, ikusten dut Cordelia aurrerapen handia egiten ari dela, eta dena abiarazi beharko dudala bere interesa mantentzearren. Izan ere, ez du bere garra galdu behar garaiz aurretik, hau da, denbora amaitu zaion garaia baino lehen; inondik inora ere ez.

Maitatzen duzunean, ez zara bide nagusietan ibiltzen. Ezkontza bakarrik dago errege-bidearen erdian. Maiteminduta zaudenean, Nøddebo-tik abiatzen bazara, ez zara Esrom lakutik pasatzen, bertako bidea ehiztari-bidea baizik ez izan arren; bide urratua da ordea, eta maitasunak nahiago izaten du berezko bideak urratu. Gehiago sartzen zara Gribs basoan<sup>83</sup>. Eta bi maitemindu honela dabiltzanean, besotik helduta, elkar ulertzen dute: lehen era ilun batez atsegin eta mintzen zituena argitu egiten zaie. Ez da inoren presentzia sumatzen. Eta pago eder hori zuen maitasunaren lekuko bilakatu da. Bere azpian egin zenuten lehen maitasun-aitorpena. Zein argiro gogoratzen zenuten elkar ikusi zenuten lehen aldia, dantzan ari zinetela elkarri eskutik heldu zenioten lehen aldia, goizaldian banandu zinetenean, zeuen buruari ezer aitortu nahi ez zeniotenean, eta elkarri ari gutxiago.

Baina ederra da benetan honelako maitasun-saioak entzutea. ...Zuhaizpean belaunikatu ziren; maitasun hautsi ezina agindu zioten elkarri; lehenengo musuaz zigilatu zuten hitzarmena. Aldarte emankorrek dira hauek, Cordeliarekin xahutzeak.

Beraz, pagoa lekuko bihurtu zen. A, izan ere, zuhaitz bat lekuko nahiko egokia da, baina hala ere gutxitxo. Seguru asko usteko duzue zerua ere lekuko izan zela, baina zerua horrela, besterik gabe, ideia oso abstraktoa da. Hala ere, horratx, beste lekuko bat ere bazegoen. Altxatu behar al dut, hemen nagoela kontura daitezen? Ez, ezagutu nintzakete, eta amaitu egingo litzateke jolasa. Urruti samar daudenean altxatu beharko al nuke, beste norbait bazegoela jakin dezaten? Ez, horrek ez du zentzurik. Isiltasunak estali behar du beren sekretua, nik nahi dudana arte. Nire menpe daude, nahi dudanean bana ditzaket. Beren sekretuaren berri dakit; neskagandik edo gizonagandik bakarrik jakin ahal izan dut: neskak esan izana ezinezkoa da, eta gizonak esan izana arbuigarria, bapo! Baina izan, ia-ia gaiztakeria da. Beno, ikusiko dut. Neskagandik lortzen badut era normalez, nik nahi nukeen bezala, ezin lor dezakedan irudipen zehatza, orduan ez dago beste biderik.

Ene Cordelia,

Behartsua naiz, zu zara ene aberastasuna. Iluna; zu nire argia. Ez naiz ezeren jabe, ez dut ezer nahi. Izan ere, nola izan ninteke ezeren jabe? Kontraesana da bere buruaren jabea ez dena beste zerbaiten jabe izatea. Ezeren jabe ez den eta ezin izan den haurra bezain zoriontsua naiz. Ez naiz ezeren jabe, zurea bakarrik bainaiz. Ez naiz ezer, ezer izateari uko egin diot, zurea izateko.

---

*Zure Johannes*

Ene Cordelia,

“Ene”: zer adierazten ote du hitz honek? Ez nirea dena, nire jabea dena baizik, nire izate osoa daukana, harena naizen heinean baita nirea. Izan ere, ene Jainkoa ez da “nirea” den Jainkoa, nire jabea den Jainkoa baizik, eta gauza bera gertatzen da nire jaioterria, nire etxea, nire egitekoa, nire oroimina edo

---

<sup>83</sup> Deskribatzen ari da Kopenhagetik iparraldera dagoen Gribs basoa (Gribskov), Danimarkako basorik handiena, eta honen inguruneak.

nire itxaropenaz hitz egiten dudanean. Lehenago hilezkortasunik izan ez balitz, orduan zurea naizela pentsatzea hutsak naturaren ohiko bidea aldaraziko zukeen.

Zure Johannes.

Ene Cordelia

Ea zer naizen? Zure garaipenei jarraitzen dien narratzaile apala; zure azpian makurtzen den dantzaria, arintasun lirainez altxatzen zarenean; une batez gainean pausatzen zaren adarra, hegan egiten nekatzen zarenean; soprano gogotsuaren azpitik sartzen den ahots baxua, sopranoa are gehiago nabarmen dadin. Ea zer naizen? Lurraren gatibu mantentzen zaituen grabitate-indarra naiz. Zer naiz, beraz? Gorputz, masa, lur, hauts eta errauts. Zu berriz, ene Cordelia, arima eta izpiritu.

Ene Cordelia.

Maitasuna dena da; horregatik, maite duenarentzat denak galdu du esanahia berez eta kontrastez<sup>84</sup>, eta maitasunak ematen dion interpretazioaren argitan bakarrik esan nahi du zerbait. Beraz, beste gizon maiteminduren bat sinetsita balego beste neska bat interesatzen zaiola, kriminal moduan geratuko litzateke, eta emaztegaia suminduta. Zuk ordea, ziur naiz honetaz, zure omenezkotzat hartuko zenuke halako aitortpena, ongi baitakizu niretzat beste bat maitatzea guztiz ezinezkoa dela; zutaz sentitzen dudana maitasunak ematen dio ene bizitza osoari halako distira. Beraz, beste neska bat interesatzen bazait, ez da neure buruari sinestarazteko ez dudala bera maite, zu baizik; hori harropuzkeria litzateke. Baina arima zutaz beterik dudanez, bizitzak beste esanahi bat hartzen du niretzat; zuri buruzko mito bihurtzen da.

Zure Johannes

Ene Cordelia.

Nire maitasunak kontsumitu egiten nau; ahotsa bakarrik geratzen zait<sup>85</sup>, zutaz maitemindu den ahotsa, nonahi maite zaitudala xuxurlatzen dizun ahotsa. Oi! Nekatzen al zaitu beti ahots hau entzuteak? Leku guztietan inguratzen ziatu; nire arima erabat hausnartzaileak, besarkada konplexu eta mugikorra bailitzen, zure izate garbi sakona inguratzen du.

Zure Johannes

Ene Cordelia.

Istorio zaharretan ibai bat neska batez maitemindu zela irakurtzen da. Nire arima ere maite zaituen ibaia bezalakoa da. Tarteka bare dago, eta sakon eta geldia islatzen du zure irudia. Beste batzuetan zure irudia gatibu hartu duela iruditzen zaio, eta halakoetan olatuak eratzen ditu berriro ihes egin ez dezazun; gero bere azelera kizkurtzen du, zure irudiarekin jolastuz. Noizean behin galdu egiten zaitu, eta halakoetan bere olatuak ilun eta etsi bihurtzen dira. Halakoxea da nire arima: zutaz maitemindu den ibaia bezalakoa.

Zure Johannes

Egia esan, irudimen izugarri bizi bat izan gabe ere erraz irudika liteke hau baino garraiobide egokiago, erosoago eta, batez ere, gure mailarako aproposagoa. Izan ere, zohikazkin baten gurdian bidaiatzeak arreata deitzen du, baina ez zentzu desiragarrian. Estualdi batean ordea eskerronez onartzen da. Bide nagusian barrena ibiltzen hasten zara. Gurdia pasatu, bertara igo eta milia bat ibiltzen zara ezer topatu gabe; bi milia, eta dena ongi doa. Seguru eta lasai sentitzen hasten zara; hobeto preziatzen da ikuspegia altuera honetatik. Ia hiru milia egin ditugunean.... nork espero zezakeen honen urruti kopenhagetar bat ikustea? Eta kopenhagetarra da, jabetuko zinen. Ez da inongo baserritarra, begiratzeko oso modu berezia du; erabakia, behatzailea, kalkulatzailea, txantxetara gutxi emana. Neska maitea, zure jarrera ez da batere eroso, erretilu batean eserita bezala zoaz; gurdia lau-laua izanik, ez du oinak jartzeko

<sup>84</sup> *I og for sig (An und für sich)*. Hegelen filosofiaren terminologian “anundfürsichseiend” hitza erabiltzen da adierazateko gauza batek aldi berean badaukala bere baitan berezkoa dena (*an sich*) eta gainerako gauzetatik bereizten duena (*für sich*), eta bi ikuspuntu horietatik azter daitekeela.

<sup>85</sup> Greziar kondairan, hauxe izan zen Narziso z maitemindu zen Eko ninfaren patua.

lekurik. Baina hori zeure errua da. Nire gurdia zure zerbitzura dago erabat; askoz jarleku erosoago bat eskaintzeko libertatea hartuko dut, non eta nire alboan esertzeak eragozten ez zaituen. Hala balitz, gurdia osoa utziko dizut, neu eseriko naiz aurreko aulkian, eta pozik eramango zaitut zure xedera.

Lasto-kapelak ez zaitu zehar-begiradetatik erabat babesten. Alferrik makurtuko duzu burua, zure soslai ederra miresten dut. ... Ez al da asalagarria nekazariak niri diosal egitea? Baina jakina, nekazari batentzat egokia da gizon prestu bati diosal egitea. ... Ez duzu horren erraz ihes egingo. Beno, hona hemen taberna bat, bide-ostatua, eta zohikazkinak elizkoiegiak dira, beren modura, otoitz egin gabe gelditzeko<sup>86</sup>. Arduratuko naiz ni gizonaz. Talentu berebizikoa dut zohikazkinak liluratzeko. Oi, zu ere xarmatzea egokituko balitzait! Baserritarrak ezin dio nire gonbiteari uko egin, eta behin onartuz gero ezingo dio bere ondorioari uko egin. Nik ezin badut, nire mirabeak lortuko du. ... Orain tabernara sartu da: bakarrik geratu zara gurdia aulkian. Jainkoak daki zer neska mota den! Burgesiako neskak ote da, beharbada sakristau baten alaba? Hala bada, izugarri polita da eta oso ongi jantzita dabil sakristau baten alaba izateko. Sakristau horren soldata ezin da makala izan. Zerbait bururatzen zait: ez ote da andereño odol-urдинen bat, zalgurdi dotoreetan ibiltzeaz aspertua, agian landetxera oinez txango bat egiten, eta orain abenturaxo bat ere probatu nahi duena? Baliteke, entzuten dira horrelakoak. Nekazariak ez daki ezer; melontzio horrek edaten besterik ez daki. Tira, bai, segi edaten, adiskidea, ongi merezia duzu. ... Baina zer ikusten dute nire begiek? Jespersen andereñoa da eta, Hansine Jespersen, merkatariaren alaba! Ene bada, elkar ezagutzen dugu eta! Bredgaden ikusi nuen behin. Atzera begira zegoen eserita zalgurdian, eta lehioa altxatu ezinik zebilen. Betaurrekoak jantzi eta begiradaz jarraitzeko atsegina hartu nuen. Oso jarrera deserosoan zihuan: zalgurdia jendez beteta zegoenez, ezin zen mugitu ere egin, eta ez zen inondik ere oihu egitera ausartzen. Oraingo egoera are deserosoagoa da. Bata besteari destinatuta gaude, begi bistakoa da. Andereño erromantikoa bide da: bere kasa ari da inondik ere. ... Hor dator nire mirabea nekazariarekin. Mozkor-mozkor eginda dago. A zer nolako alprojak diren zohikazkinak hauek. Ai, ene! Hala ere, badago zohikazkinak baino jende okerragorik. Ba saltsa ederrean sartu zara. Orain zuk gidatu beharko dituzu zaldiak, bai erromantikoa! ... Uko egiten diozu nire eskaintzari; oso gidari ona zarela setatzen zara. Baina ez nauzu engainatzen; ondo ikusten dut zein maltzurra zaren. Bide pixka bat egin ondoren salto egingo duzu gurditik; basoan erraz aurki daiteke ezkutalekuren bat. .... Zaldia zelatuko didate eta bere gainean jarraituko dizut. Ikusten? Orain prest nago, orain seguru egon zaitezke, edozein erasoren aurrean. ... Baina ez horrenbeste ikaratu: bestela segituan itzuliko naiz. Apur bat kezkatu nahi zintudan, zure berezko edertasunari areagotzeko aukera ematearren. Ez baitakizu nire gauza izan dela nekazariaren mozkorra: gainera, ez dizut hitz iraingarri bakar bat ere zuzendu. Dena konpon daiteke oraindik: arduratuko naiz ni guztia itxuraldatzen, pasadizo osoaz barre egin dezazun moduan. Zurekin kontua kitatu nahi dut bakarrik; ez pentsa gero neskak ezustean harrapatzea atsegin dudarik. Askatasunaren aldekoa naiz, eta askatasunez ematen ez zidana ez zait interesatzen. ... “Konturatuko zara ezin duzula bidaia honela jarraitu. Ni ehizan ari naiz, horregatik nabil zaldi gainean. Baina zalgurdia prest daukat ostatuan. Zuk nahi izanez gero, amen batean etorriko zaizu bila, nahi duzun lekura eramateko. Zoritzarrez ezin dizut lagundu, nahiz atsegina emango lidakeen; ehiza-konpromezu bat dut, eta horiek sakratuak dira”. .... Baina onartu egin duzu. ... Dena konponduko da segituan. ... Hara, inoiz berriro ikusten banauzu ez duzu lotsatu behar, edo ez duzu behintzat lotsatu behar edertasuna areagotzen dizun neurritik haratago. Pasadizo osoaz barre egin ahal izango duzu, eta nitaz pixka bat pentsatu. Ez dut gehiagorik eskatzen. Gutxi irudi lezake, baina aski zait. Hasiera bat da, eta hasierako oinarriak ezartzen bereziki trebea naiz.

Bart arratsean bilera sozial bat izan zen izebaren etxean. Banekien Cordeliak puntorraz-lana aterako zuela, eta mezutxo bat ezkutatu nion bertan. Erori egin zitzaion: gero zorutik bildu, eta hunkituta eta irrikitan geratu zen. Horrelako egoerak probetxatu beharrekoak dira. Sinestezina da nolako abantailak eman ditzaket. Ohartxo bere xume bat, halako egoera batean irakurrita, izugarri esanguratsua bilaka daiteke beretzat. Ez zuen nirekin mintzatzeko aukerarik izan, antolaketak egin bainituen dama bati etxera lagun egiteko. Beraz, gaur arte itxaron behar izan du. Hau modu egokia da zirrara are sakonago sardakion ariman. Badirudi ni naizela beti beregan arreata jartzen duena: horrek abantaila bat ematen dit, alegia, nonahi nagoela bere gogoetetan, nonahi harrapatzen dudala ezustean.

Amodio erotikoak bere dialektika propiala du. Behin batean neskato batez maitemindu nintzen. Joan den udan, Dresdeneko antzokian, harekin antz izugarria zuen aktorea bat ikusi nuen. Hori zela eta, bere ezagutza egin nahi izan nuen, baita lortu ere, baina konturatu nintzen bien arteko antza ez zela hainbestekoa. Gaur dama bat topatzen dut kalean, aktorea hura gogora ekartzen didana. Istorio honek nahi duzun bezain luzaro jarri dezake.

<sup>86</sup> Gurean ere erabiltzen den taberna/eliza metafora.

Nire gogoetek Cordelia inguratzen dute nonahi. Inguruan dabilzkion aingeruen modura bidaltzen dizkiot. Venusen gurdia usoek garraiatzen duten antzera dabil Cordelia bere garaile-gurdian, nik gogoetak aurrean uztartzen ditudalarik izaki hegaldunak bailiren. Pozik doa bera gurdian, haur bat bezain adoretzu, jainkosa bat bezain guztiahaldun; ni bere alboan noa, oinez. Egia esan, neska gazte bat naturaren eta existentzia osoaren venerabile-a da eta izango da beti. Ez dago hori nik bezain ongi dakienik. Lastima da, baina, mirari horrek hain gutxi irautea. Irribarre egiten dit, diosal egiten dit, eskuaz agurtzen nau, neure arreba balitz bezala. Begirada batek gogorarazten dio nire maitea dela.

Amodio erotikoak maila asko ditu. Cordelia aurrerapen galantak egiten ari da. Nire altzoan dago eserita; bere beso leun epelak lepoa inguratzen dit. Arin, gorputz-pisurik gabe, Cordelia nire bularrean bermatuta dago; bere bihurgune leunek ia ez naute igurtzitzen. Lore baten modura kiribiltzen zait inguruan izaki miresgarri hau, xingola bezain libre. Begiak ezkutatuta dauzka betileen atzean; bere bularraren zuria elurrarena bezain itsugarria da, hain leuna non nire begirada ezin pausa baitaiteke bertan; irristatu egingo litzateke bularra mugituko ez balitz. Zer esan nahi du mugimendu horrek? Maitasuna ote da? Beharbada. Maitasunaren igermana, ametsa. Energia falta zaio oraindik. Modu lasaian besarkatzen nau, hodeiak itxuraldatua besarkatzen duen bezala; haizetxoak bezain arin, lore bati heltzen zaion bezain leunki. Modu zehazgabea musukatzen nau, zeruak itsasoa musukatzen duen bezala; ezti eta isilik, ihintzak lorea musukatzen duen bezala; zeremoniatsu, itsasoak ilargiaren irudia musukatzen duen bezala.

Une honetan, inozente esango nioke bere grinari. Bat bateko aldaketa gertatzen denean, zinez atzera jotzen hasten naizenean, orduan denetarik egingo du ni atzemateko. Horretarako duen bitarteko bakarra erotikotasuna da, baina hau eskala guztiz desberdinean agertuko da oraingoan. Eskuetan duen arma izango da orain nire aurka erabiliko duena. Orduan nik grinaren isla izango dut. Bere kasa borrokatuko da orduan, ongi baitaki erotikotasunaren jabe naizela; bere kasa borrokatuko da ni irabazi nahian. Erotikotasun forma garaiago bat behar du. Bere sua piztuz igertzen irakatsi nion hori, nire oraingo hoiztasunak argiro ulertaraziko dio, baina halako moldez non bere kabuz konturatzen dela usteko baitu. Horrenbestez, ezustean harrapatu nahiko nau; pentsatuko du gainditu egin nauela ausardian, eta hartara gatibu hartu nauela. Orduan bere grina zehatza izango da, energikoa, erabakia, dialektikoa; bere musuak erabatekoak izango dira, bere besarkada arrailik gabea. Bere askatasuna bilatuko du nigan, eta nik zenbat eta irmoago estutu, orduan eta errazago aurkituko du. Konpromezua hautsiko da. Hau gertatutakoan, atsedean apur bat beharko du, nahasdura basati horretan ezer atsegaitzik gerta ez dadin. Grina berpiztuko zaio oster, eta nirea izango da.

Edvard gizajoaren garaian ere zeharka ahalegin nintzen irakur zezan; orain, berri, zuzenean egiten dut. Elikadurarik onena eskaintzen diot, nire ustez: mitologia eta ipuinak. Baina honetan, gainerakoan bezalaxe, bere askatasuna du; berari adituz ikasten dut berari buruzko guztia. Lehendik beregan ez bazegoen, iradoki egiten diot.

Neskameak udan Dyrehaugera joaten direnean, ez da normalean oso atsegina izaten. Urtean behin bakarrik joaten dira hara, eta ahal adina lortu nahi izaten dute. Beraz, kapela eta txala jantzi, eta era guztiez desitxuratzen dute aurpegia. Alaitasuna basatia da, itsusia, lizuna. Ez, nahiago dut Frederiksberg Parkea. Igande arratsaldeetan joaten dira hara, eta ni ere bai. Han dena da itxurako eta dezente: alaitasuna bera lasaia eta noblea da. Orohar, neskameak preziatzen ez dakien gizonak gehiago galtzen du neskek berek baino. Neskameek osaturiko tropel handia Danimarkan dugun miliziarik ederrena da benetan. Erregea banintz, jakingo nuke zer egin; ez nituzke tropa erregularrak ikuskatuko. Hiriko 32 gizonetako bat banintz<sup>87</sup>, segurtasun publikorako batzordea antolatzea eskatuko nuke segituan; honen egitekoa litzateke bide desberdinez lortzea –ezagutzaz, aholkuz, gaztiguz edo ordainketa egokiez– neskameak arretaz eta tajuz janztea. Zergatik pasa behar du oharkabea bizitzan barrena? Utz diezaiotela behintzat asteen behin agertzen bere mailarik gorenean! Baina batez ere gustu ona behar da, moduzkotasuna. Neskame batek ez du dama baten tankera izan behar, horretan arrazoiak darama *Politivennen*-ek<sup>88</sup>, baina egunkari agurgarri honek ematen dituen arrazoiak zeharo faltsuak dira. Neskame-klasearen halako loratze desiragarria auresaten ausartzen bagara, horrek ez al luke eragin onuragarria izango gure etxeetako alabengan? Edo ausarkerietan ari ote naiz honelako etorkizuna ikusten diodanean Danimarkari, etorkizun benetan paregabea dei daitekeena? Horrelako urre aroan bizitzea

<sup>87</sup> Garai hartako Kopenhageko udal-batzarkideak.

<sup>88</sup> *Politivennen*, 86, 1837, 219-21 eta 235-38 orr. Bertan egiten da neskame moderno baten janzkeraren deskribapen satirikoak: “kapa, lumazko lepokoa, kapela apaindua, artilezko bota gris lokaridunak eta antxume-larruzko eskularru grisak”.

egokituko balitzait, orduan kontzientzia onez eman ahal izango nuke egun osoa kalez kale ibiltzen, begien plazerretan atsegin hartuz. Zein ausart eta zabalak diren pilatzen zaizkidan gogoetak, zein abertzaleak! Baina jakina, Frederiksberg Parkean nago, neskameak, eta haiekin batera ni, igande arratsaldeetan joaten diren lekuan.

Neska baserritarrak datoz lehenik, beren mutilei eskutik helduta, edo beste eredu batean neska guztiak eskutik helduta aurretik, eta atzean mutilak, edo beste eredu batean bi neska eta mutil bat. Jendetza honek hornitzen du markoa; gehienetan pabilioi aurreko plaza zabalean dauden zuhaitzen artean eseri edo ibiltzen dira. Osasun eta bizitzaz beteta daude; koloreen arteko kontrasteak bizi samarrak dira, nola jantzietan hala aurpegietan. Marko honen barruan Jutlandia eta Fioniako neskak daude. Garaiak, tenteak, gorpuzkera sendoxekoak, janzkera apur bat nahasia daramate. Hemen batzordeak izango luke zereginik. Bornholmeko dibisioaren ordezkapena ere ez da falta: sukal-neskame trebe hauengana hurbiltzea ez da komenigarria, ez sukaldean ez Frederiksberg Parkean; badago beren izaeran halako harrotasun nardagarri bat. Horregatik, eta kontrastez, beren presentziak zerbait eransten dio koadro osoari, eta ez nuke inola ere nahi bertan ez egotea, haiekin harreman gutxi izan arren.

Orain datoz tropa aukeratuak, Nyboder-eko neskak. Ez hain garaiak, bete samarrak, biribilagoak, larruazal finekoak, alaiak, zoriontsuak, mugimendu bizikoak, berritsuak, koketa samarrak eta, batez ere, buru-hutsik dabilta. Beren janzkera dama batenera hurbiltzen da sarri askotan, bi gauzetan izan ezik: ez daramatela txa lik, lepokoa baizik, eta ez dutela kapelarik jantzen; gehienara jota ere kapa arin bat eramango dute, baina normalean buru-hutsik joaten dira.

Kaixo, Marie: non eta hemen topatu behar, aspaldiko! Zer, notariarenean segitzen al duzu? “Bai”. Etxe ona izango da noski! “Bai”. Lastima da bakarrik egotea hemen, laguntzarik gabe, senargairik gabe ... edo agian gaur ez du astirik, edo bere zain zaude. ... Nola, ez zaudela hitzemanda? Baina hori ezinezkoa da! Kopenhageko neska politena, notariarenean zerbitzatzen duena, benetako bitxia eta gainerako neskameentzat halako eredu den neska, janzteko orduan horren fin eta ... dotorea den neska. Musuzapi zoragarria daramazu eskuan, batista finenezkoa. Eta zer da hori, bordatuaz azpildua? 10 marko kosta zaizula egingo nuke. Badabil hortik horren parekorik ez duen dama franko. Eskularru frantziarrak, sedazko aterkia.... Horrelako neska hitzemanda ez egotea ere ... Bidegabekeria da. Oso oker ez banago. Jens nahiko xoratuta zebilen zurekin. Badakizu nortaz ari naizen: Jens, merkatiariarenean dabilen Jens, bigarren solairukoa... Ikusten? Bete-beteen asmatu dut. ... Zergatik ez zineten elkarrekin hitzartu? Izan ere, Jens mutil lerdena zen, eta lanpostu ona zuen: agian denboraren joanaz, eta merkatiariaren eraginez, polizia edo suhiltzaile bilaka zitekeen, ez zen batere partidu txarra. .... Zeure errua izango zen, ziur aski. Gogorregia izango zinen harekin. .... “Ez! Baina jakin ahal izan nuen Jens hitzemanda egon zela behin neska batekin, eta ez zuela batere ondo tratatu”. ... Baina zer diozu? Nork pentsatuko zuen Jens halako gizatarra zenik? Ai, soldaduak.... ezin zara soldaduez fidatu. ... Oso ondo egin zenuen; zu bezalako neska onegia da edonork eramateko. ... Baina aurkituko duzu hura baino hobirik, horren segurantz ematen dizut. ... Nola doakio Juliane andereñoari? Aspaldi honetan ikusi gabe nago. Ene Marie politak emango al dit informazio pittin bat? ... Maitasun-nahigabeak izateagatik ez duzu besteekiko atsegaitza izan behar. ...Hainbeste jende dago hemen... ez naiz ausartzen zurekin horretaz hitz egiten, norbait zelatan egon liteke. ... Egon pixka bat, ene Marie polita. ... Begira, badago leku bat bide itzaltsu honetan: bertako zuhaitzak elkarrekin kiribiltzen dira eta besteengandik ezkutatuko gaituzte. Hemen ez dugu beste jenderik ikusiko, ezta jendearen ahotsik adituko ere, musikaren oihartzun eztia soilik. ...Hemen nire sekretuaz hitz egiten ausartzen naiz. ... Ez al da egia Jens mutil zintzoa izan balitz berarekin etorriko zinela hona, besotik helduta, musikaren ederra entzutera, agian zerbait garaiagoa gozatzeraz....? ...Zergatik zaude horren aztoratuta? Ahaztu Jens. ....Injustiziaz tratatu behar al nauzu? Zu ikustera joan nintzen notariarenera. Konturatu behar izan zenuen; aukera nuen bakoitzean hurbiltzen nintzen sukalde-atera, Nirea izan behar duzu. Pulpitutik egin behar dute ezkondea. ... Bihar arratsean argituko dizut dena, sukaldeko eskaileran gora, ezkerreko atean, sukalde-atearen aurrez aurre. ... Agur, ene Marie polita; ez inori esan hemen ikusi nauzunik edo nire kin hitz egin duzunik. Orain badakizu nire sekretua. ...Polita da benetan; zerbait egin liteke berarekin. Oinak bere gelan jarritakoan, neuk egingo dut ezkondea pulpitutik. Beti saiatu naiz  $\alpha \wedge \tau(\rho \phi \epsilon \iota \alpha)^{89}$  greziar bikaina garatzen, eta batez ere apaiz premiarik ez izaten.

Cordeliak nire gutun bat hartzen duenean bere atzean egotea egingarria balitz, izugarri interesatuko litzaidake. Orduan erraz jakin ahal izango nuke zein neurritan jabetzen den haietaz, zentzu erotikoan. Orohar, gutunak bitarteko bikainak dira eta izango dira beti neska batengan zirrara eragiteko; letra hilak eragin handiagoa izan dezake bizirik dagoen hitzak baino. Gutun bat ezkutuko komunikazioa

---

<sup>89</sup> Soiltasuna, buru-askitasuna, filosofia estoikoaren ideala.

da; idazleak egoera kontrolatzen du, ez du inoren presentziak eragindako presiorik sentitzen, eta neska batek bere idealarekin bakarka egotea nahiago duelakoan nago, une jakin batzuetan bederen, gutunak bere gogoan eraginik handiena sortzen duen uneetan hain zuzen. Nahiz bere idealak objektu maitatu jakin batean adierazpide ezin hobeak aurkitu, hala ere, zenbait mementotan neska konturatzen da ideal horretan dagoen neurrigabetasuna ez dela errealitatean aurkitzen. Baimendu egin behar zaizkio adiskidetzeko festa handi horiek; hori ba, modu egokian erabiltzeko kontua eduki behar da, errealitatean itzul dadin ez nekatuta, indartuta baizik. Horretarako lagungarriak dira gutunak, eta hauei esker, modu ikusgabe eta mentalean bertan egon zaitezke debozio sakratuzko une hauetan; gutuna pertsona erreal batek idatzi duela irudikatzeak, berriz, errealitateko iraganbidea berezkoa eta erraza izatea dakar.

Cordeliaz jelskor egon al ninteke? Bai arraiola! Baina beste zentzu batean ez. Hau da, ikusiko banu bere izaera nahasiko litzatekeela, nik nahi dudana izatera iritsi gabe, orduan, bestearekiko borrokan garaile gertatuko banintz ere, bertan behera utziko nuke.

Filosofo zahar batek esan du bizi duzun guztia zehaztasun handiz idazten duzunean, zertan zabiltzan jakin aurretik ere filosofoa zarela. Honezkerok luze samar bizi izan naiz hitzartuen elkartarekin harremanetan. Eta horrelako harremanak nolabaiteko fruitua eman beharko luke. Beraz, liburu baterako materiala biltzea pentsatu dut. “Musuaren teoria baterako ekarpena” izenekoa, eta maitale samur guztiei dedikatua. Bide batez, nahiko harrigarria da gai horri buruz inongo libururik ez izatea. Liburua amaitzea lortzen badut, luzaro sentitutako premia beteko dut. Literaturan dagoen gabezia hau zeri zor zaio, filosofoek horrelakoez ez pentsatzeari, ala horrelakoak ez ulertzei? Dagoeneko gakoren bat edo beste eman dezaket. Musu perfektu baten aktoreak gizona eta neska dira. Gizonen arteko musua gustu txarrekoa da, edo are okerrago, gustu txarra du. Hurrenik, nire ustez, musu bat gehiago hurbiltzen da ideia gizon batek neska musukatzen duenean neskak gizona musukatzen duenean baino. Urteak joan urteak etorri erlazio honetan hoztasuna nagusitzen denean, musuak bere esanahia galtzen du. Hau da ezkonduen arteko etxe-musuarekin gertatzen dena: aho-zapirik ezean, senar-emazteak bata bestearen ahoa xukatzen dute “on degizula” esanez.

Adinen artean alde oso handia dagoenean, musua bere ideiatik urruntzen da. Gogoan dut hiri kanpoko neska-eskola bateko zaharrenek bazutela esaera bat, “abokatu jaunari musu eman”, gauza atsegaitzak adierazteko erabiltzen zutena. Terminoaren jatorria honako hau zen: maistrak bazuen koinatu bat, berarekin etxean bizi zena: gizon zaharra zen, abokatu izandakoa, eta bere adinaz probetxatuz neskatoak musukatzeko libertatea hartu ohi zuen.

Musuak grina jakin baten adierazpidea izan behar du. Bikiak diren anaia eta arreba elkarri musu ematen diotenean, hori ez da benetako musua. Gauza bera gertatzen da Eguberri jolasetan emandako musuarekin, eta musu lapurtuarekin. Musua ekintza sinbolikoa da, esanahia galtzen du adierazi behar duen sentimendurik ez dagoenean, eta sentimendu hori baldintza jakin batzuk betetzen direnean bakarrik gerta daiteke.

Musuak sailkatu nahi badira, sailkapen-printzipio desberdinak pentsa daitezke. Hotsaren arabera sailka daitezke. Tamalez, hizkuntza motz geratzen da nire behaketen ondorioak islatzeko. Munduko hizkuntza guztiek batera ez dute nire osabaren etxean bakarrik ikusi ditudan desberdintasun guztiak adierazteko beharko litzatekeen onomatopeia hornidura. Batzuetan klask egiten du, beste batzuetan txistu-hotsa izaten da, inoiz zartada, edo danbada; aldizka burrunba, beste batzuetan betea izaten da, edo motela, edo perkal finezkoa, etab., etab.

Ukipen-mailaren arabera ere sailka daiteke musua: musu tangentiala, *en passant* musua, eta musu itsaskorra.

Denboraren arabera, musuak laburrak edo luzeak izan daitezke. Denboraren dagokionez, badago orobat beste sailkapen bat, eta haxe da gogoko dudana bakarra. Bereizketa egiten da lehen musuaren eta gainerako guztien artean. Hemen aztertzen ari garenak ez du zerikusirik aurreko sailkapenekin: hots, ez du zerikusirik ukipen edo iraupenarekin. Lehen musua kualitatiboki desberdina da beste guztietatik. Oso jende gutxi pentsatzen du honetaz, eta lastima litzateke bakar batek ere hori ez hausnartzea.

Ene Cordelia.



Erantzun zuzena musu gozoa bezalakoa dela dio Salomonek<sup>90</sup>. Ongi dakizunez, galderak egiteko ahuldadea dut, eta ederrak entzun behar izaten ditut horregatik. Hau gertatzen da jendeak ez duelako jakiten zer ari naizen galdetzen; zuk eta zuk bakarrik baitakizu zer galdetzen duan, zuk eta zuk bakarrik baitakizu nola erantzun, eta zuk eta zuk bakarrik baitakizu zuzen erantzuten, eta Salomonek dioen bezala, erantzun zuzena musu gozoa bezalakoa da.

Zure Johannes.

Erotikotasun mentalaren eta erotikotasun lurtarraren artean badago alderik. Orain arte erotikotasun mentala piztu nahi izan dut Cordeliarengan. Nire presentziak bestelakoa izan behar du orain: ez du giro lagungarria sortu behar, giro tentagarria baizik. Azken egunak neure burua etengabe prestatzen eman ditut, Fedro-ko amodio erotikoa buruzko pasarte ezaguna irakurtzen<sup>91</sup>. Izate osoa elektrizatzen dit, eta preludio ezin hobea da. Platonek bai zekiela erotikotasunaz.

Ene Cordelia.

Latinistak esaten du azkarra den ikasleaz bere maisuaren ezpainetatik zintzilik egoten dela<sup>92</sup>. Maitasunarentzat, dena da irudi; eta irudia, berriz, errealitate. Ez al naiz ikasle azkarra, arretatsua? Baina ez duzu hitzik esaten.

Zure Johannes.

Ni ez den beste norbaitek bide hau hartuko balu, argiegia izango litzateke inoren gidaritza onartzeko. Hitzemanda dauden horien arteko ikasiren bati aholkua eskatuko banio, ausarkeria erotikozko bulkada batean ondokoa esango lidake dudarik gabe: amodio-jarrera horietan alferrik bilatzen dut maitaleak beren amodioaz mintzatzean eratzen duten soinu-irudia<sup>93</sup>. Nik erantzungo nioke: poztan nau zure bilaketa alferrikakoa izateak, zeren eta irudi hori ez baitago funtsean erotikotasunaren alorrean, ezta interesgarritasuna gaineratzen zaionean ere. Amodio erotikoa funtsezkoegia da berriketen bidez asetzeko; egoera erotikoei garrantzi gehiegi dute berriketa hutsez betetzeko. Isilik daude, geldi, ertz zehatzak dituzte, eta hala ere, Mnemon irudien musika<sup>94</sup> bezain etorri handikoak dira. Eros keinuz mintzatzen da, ez hitzez: edo hitz egiten badu, iradokizun enigmatikoak egiten ditu, musika alegorikoa. Egoera erotikoko plastikoak edo pikturikoak dira beti: bi pertsona beren amodioaz hitz egitea, ordea, ez da ez plastikoa ez pikturikoa. Baina hitzemandako bikote sendoa beti hasten da horrelako elkarriketetan, eta berriketa horixe izango da beren ezkonbizitza berritsuari eutsiko dion haria. Solas hau ezkonbizitzaren oinarria da, eta bermatu egiten du ezkontzari ez zaiola faltako Ovidiok aipatzen duen ezkonsaria: dos est uxoria lites.<sup>95</sup> ... Hitz egin behar baldin bada, nahikoa da batek egitea. Gizonak hitz egin behar du, eta horretarako Venusek gerrikoan zeramatzan<sup>96</sup> eta liluratzeko erabiltzen zituen ahalmen batzuk izan behar ditu: solasa eta lausengu ezia, hau da, limurtzeko ahalmena. Honek ez du esan nahi Eros mutua denik, inola ere ez, edo ikuspuntu erotikotik hitz egitea oker dagoenik; hori bai, solasak berak izan behar du erotikoa egindako atsedentzat hartu behar da, denborapasatzat, ez funtsezkotzat. Halako solasa, halako *confabulatio* bat<sup>97</sup>, guztiz jainkotiarra da berez, eta ez naiz sekula aspertzen neska gazte batekin solasean ari naizenean. Hau da, agian neska zehatz horretaz aspertuko naiz, baina inoiz ez neskarekin hitz egiteaz.

<sup>90</sup> “Esaera Zaharrak” 24,26. Testua Lutero alemanierazko itzulpena hurbiltzen da gehien: “Eine richtige Antwort ist wie ein lieblicher Kuss” “Die Bibel”, Karlsruhe, Leipzig, 1838.

<sup>91</sup> Platonen “Phaidros”. Arimaren analogiaz ari da. Arima auriga batek (arrazoiak) gidatuko gurdia da. Tiraka egiten dueten bi zaldiak (bulkadak) desberdinak dira: bata –adorea-, zintzo eta ausarta, aurigari jarraitzen zaio, eta besteak –irritsak- munduko gauzak gozatu nahi ditu neurririk gabe, gurdia amiltzeko arriskuan jarritik.

<sup>92</sup> “Pendet ab ore magistri”.

<sup>93</sup> Jatorrizkoan *klangfigur*, soinu-irudia, edo Chladni-irudia. Chladni-irudiak dira hondar mehe-mehea xafla baten gainean jarri ondoren, xafla dardaraziz lortzen diren irudiak; beraz, solidoen dardarrera desberdinak islatzen dira. (Ernst Chladni, fisikari alemaniarra).

<sup>94</sup> Grekoek uste zuten Tebas-eko Amenofis IIIren estatua eskergetako bat Eos egunsenti-jainkosaren Memnon semea zela, eta musika-soinua egiten omen zuen eguzkiaren lehen errainuek jotzen zutenean.

<sup>95</sup> “Liskarra da emaztearen ezkontsaria”. Ovidio, *Ars amandi* II, 155.

<sup>96</sup> Erromar mitologian, Venusek bazeukan edertasun-gerriko bat, bertan ehunduta zeudelarik “maitasuna, desira, solas engainagarria eta erreku lausengaria, gizon zuhurrena ere lilura dezaketena”.

<sup>97</sup> Elkarriketa.



Niretzat arnasa hartzeaz aspertzea bezain ezinezkoa da. Halako elkarriketaren benetako ezaugarria da solasaren loratze begetatiboa. Solasak lurrari eusten dio, objektu zehatzik izan gabe; bere mugimenduetan agintzen duen legea kasualitatea da, baina bitxilorea<sup>98</sup> da bere izena, baita bere fruituarena ere.

Ene Cordelia,

“Ene-Zure”, hitz hauek mugatzen dute, parentesi batek bezala, nire gutunen eduki eskasa. Jabetu al zara bere besoen arteko distantzia gero eta laburragoa dela? Oi, ene Cordelia! Baina ederra de hala ere, parentesiaren edukia zenbat eta urriagoa izan orduan eta esanguratsuago bihurtzen baita.

Zure Johannes

Ene Cordelia,

Besarkada bat borroka al da?

Zure Johannes,

Normalean Cordelia isilik egoten da. Beti preziatu izan dut hori. Emakume-izaera sakonegia du ni hiatuen bidez<sup>99</sup> eragozteko; izan ere, irudi gramatikal hau tipikoa da emakumeengan, eta saihestezina da gizonezkoa, aurreko edo ondoko kontsonantezko muga hornitu beharko lukeena, bere kidea bezain femeninoa denean. Baina batzuetan bere adierazpen bakar bat nahikoa izaten da bere baitan zenbat gordetzen duen jakiteko. Orduan lagundu egiten diot. Esku kolokaz marrazki batean zenbait zirriborro egiten ari den pertsonaren atzean beste bat bertatik gauza bizi eta biribildua ateratzen egongo balitz bezala da. Cordelia bera ere harritu egiten da, baina bere baitako zerbait dela dirudi. Horregatik jagoten dut, bere ustegabeko ohar eta noiz behinkako hitz solte guztien zain, gero berari itzultzeko; orduan beti bilakatzen dira esanguratsuago, beretzat ezagunak eta aldi berean ezezagunak.

Gaur festa batean egon gara. Elkarri hitzik esan gabe jardun dugu. Mahaitik altxatu garenean zerbitzari bat hurbildu zaigu. Corleliari mezulari batek berarekin hitz egin nahi zuela esateko. Mezularia nik bidalia zen, eta zekarren gutunean nik mahaian esandako zerbait aipatzen zen. Mahai-elkarriketan sartzen moldatu naiz halako moldez non, nahiz Cordelia urrun samar egon, derrigorrez entzun behar baitzuen, baita gaizki ulertu ere. Hori kontuan hartuz idatzi dut gutuna. Mahai-elkarriketan gaia sartzea lortu ez banu, bertan egongo nintzatekeen gutuna garaiz konfiskatzeko. Cordelia berriz sartu da, eta gezur txiki bat esan behar izan du. Horrelakoek sendotu egiten dute agindu zaion bidetik joateko beharrezkoa den misterio erotikoa.

Ene Cordelia,

Uste duzu burua elfo-muinoan etzaten duenak silfideen irudia ikusten duela ametsetan?<sup>100</sup> Ez dakit, baina gauza bat badakit, alegia burua zure bularrean etzaten dudanean eta begiak itxi beharrean zuganantz altxatzen ditudanean aingeru baten aurpegia ikusten dudala. Uste duzu burua elfo-muinoan bermatzen duena ezin dela lasai egon? Ez dut uste, baina gauza bat badakit, alegia, burua zure bularrean gainean makurtzen dudanean, nitaz nagusitzen den artegatasunak ez diola logaleari nire begietara iristen uzten.

Zure Johannes,

Alea iacta est. Une erabakigarria iritsi da. Gaur bere etxean izan naiz, baina guztiz okupatzen ninduen ideia batez pentsatzen egon naizenez, ez dut Cordeliarentzat ez begirik ez belarrik izan. Ideia bera interesgarria zen, eta gatibatu egin du. Operazio berria hastean Cordeliarekin hotz jardun izan banu oker jokatu nukeen. Ni joan ondoren gogoetak hainbeste kezkutzen ez duenean, orduan konturatuko da gaurkoan desberdina izan naizela beste egunen aldean. Aldaketa honetaz bakardadean jabetuko denez, aurkikuntza askoz mingarriagoa egingo zaio, eta bere eragina, geldoa izanda ere, are sarkorragoa izango da. Ezingo da bat batean sutan jarri, eta aukera aurkeztzen zaionean hain pentsatuta edukiko du dena ezingo baitu dena kolpetik esan, beti geratuko zaio zalantza arrasto bat. Urduritasuna areagotuz doa, ez da

<sup>98</sup> Bitxilorea *Tusindfryd* esaten da danieraz, hitzez hitz “mila atsegin”.

<sup>99</sup> Bi silaba desberdinetan banatzen diren bi bokalek osatzen duten multzoari esaten zaio hiatu.

<sup>100</sup> Kanta eskandinaviar zahar baten hitzak dira.

gutun gehiagorik iristen, elikadura erotikoa murriztuz doa, amodio erotikoz txantxak egiten dira gauza irigarritzat joz. Agian puska batez jolasten jarraituko du, baina epe luzean ezingo du jasan. Orduan gatibu hartu nahiko nau nik berarekin erabilitako bitartekoaz, erotikotasunaz.

Hitzarmena hausteko orduan, edozein andereño kasuista iaioa suertatzen da, eta nahiz eskoletan gai horri buruzko ikasgairik ez izan, ongi jakiten du edozein neskatok hitzarmen bat zein kasutan hausti behar den. Hauxe izan beharko luke gai gakoa azken urteko azterketetan. Ongi dakit, bai, neska-eskoletan idazten diren lanak oso antzekoak izaten direla orohar, baina ziur naiz honetan ez litzatekeela aniztasun faltarik sumatuko, gaiak berak eremu handia zabaltzen baitio neska baten zorrotzasunari. Eta neska bati zergatik ez zaio aukera eman behar bere zorrotzasuna modurik distiratsuenean erakutsi dezan? Edo ez al du horrexegatik izan behar norbaitekin hitzartzeko nahiko heldua dela erakusteko aukera? Bizi nuen behin izugarri interesatu zitzaidan egoera. Egun batean, maiz bisitatzen nuen familia bateko gurasoak kanpoan zeuden, etxeko bi alabek neskalagun multzo bat gonbidatu zuten eguerdiko kafea hartzera. Zortzi ziren guztira, denak hamasei eta hogeitaz bitartekoak. Litekeena da bisitarik espero ez izatea, eta are neskameak etxean inor ez zegoela esateko aginduak izatea ere. Gauza da sartu egin nintzela, eta argiro jabetu nintzen nesken harriiduraz. Jainkoak daki horrelako zortzi neskek zertaz hitz egin dezaketen halako sinodo-bilera solemnean. Emakume ezkonduak ere egiten dituzte aldiari behin halako bilerak. Teologia pastoralak izaten dute mintzagai, batez ere ondoko gai garrantzitsuei buruz jarduteko; zein egoeratan den komenigarri neskameari azokara bakarrik joaten uztea; harakindegian noiz ote den hobe ordaintzea, aldi bakoitzean ala hile amaieran; ba ote litekeen sukaleak neskameak senargaia izatea; nola geldiarazi sukale-lana atzeratzen duen senargai-trafiko hori guztia...

Nire lekua hartu nuen multzo eder haren artean. Udaberriaren hasiera zen. Eguzkiak errainu apal batzuk bidaltzen zituen, bere iritseraren urgentziatzeko mezulari moduan. Gela barnean dena zen negutarra, eta horrexegatik ziren errainu apal haiek hain prometagarriak. Kafearen lurrina mahaitik hedatzen zen, eta neskak pozik zeuden, osasuntsu, loratzen; alai zeuden, behin hasierako antsia ahaztu ondoren, eta orain ia beldurgarriak ziren, nola edo hala gizonezkoen indarra baitzuten. Moldatu egin nintzen beren arreta, eta elkarriketa ere, gai honetara eramaten, alegia, zer baldintzapean hautsi behar zen konpromezu bat. Nire begiak neska zirkulu hartan lore batetik bestera hegatzat atsegin hartzen zuten bitartean, noiz eder batengan, noiz beste batengan pausatuz gozatzen zuten bitartean, nire kanpo belarriek haien ahotsen musika gozatuz hartzen zuten atsegin; barne belarriek, berriz, esaten zena arreta handiz jarraituz gozatzen zuten. Sarri askotan hitz bakar bat aski zitzaidan neska haietako baten bihotzean eta honen historian zer ezkutatzen zen jakiteko. Zein seduzitzaileak diren maitasunaren bideak, eta zein interesgarria pertsona bakoitza bide horretan noraino iritsi den jakitea. Etengabe hauspotzen nituen garrak: zorrotzasunak, txantxek, objektibotasun estetikoak egoera lasaitzen laguntzen zuten, baina guztia betiere dezentzia zorrotzenaren baitan geratzen zelarik. Horrela ari ginela jolasean solasaren eskualde arinetan, neska on haiek hitz bakar batez egoera izugarri asaldagarrian erortzeko ahalbidea sumatu nuen. Ahalbide hura nire esku zegoen. Neskek ez zuten igertzen, nekez suma zezaketen. Beti ezkutuak geratzen zer solasaren jolas arinaz. Scherezadek ipuinak kontatuz heriotz-zigorra saihesten zuen antzera.

Batzuetan tristuraren mugetara eramaten nuen elkarriketa; beste batzuetan bihurrikeriari uzten nion nagusitzen; inoiz tentatu egiten nituen jolas dialektiko batean aritzera. Izan ere, sakon aztertzen ditzunean, bere baitan aniztasun handiagorik eskaintzen duen gairik ez dago. Etengabe aurkezten nizkien kasu berriak. Gurasoen ankerkeriak bultzatuta konpromezua hautsi behar izan zuen neska batena aipatu nien. Zorigaitzeko kolisio<sup>101</sup> honek begiak ia-ia malkotan utzi zizkien. Gizon baten kausa aipatu nien; honek bi arrazoi eman zituen konpromezua hausteko: bata neska handiegia zela, eta bestea maitasuna aitortu zionean, ez zela neskaren aurrean belaunikatu. Protesta egin nionean, arrazoi haiek batere egokiak ez zirela esanez, hauxe erantzun zidan, “beno, nahiko egokiak dira nahi dudak helbururako, inork ezin baitie arrazoizko erantzunik eman”. Ondoren, kasu oso zail bat aurkeztu nien batzarrak hausnar zezan. Neska batek hitzarmena hautsi zuen bere baitan ziur zegoelako senargaia eta bera ez zirela bateragarriak. Senargaia neska zentzura zedin saiatu zenean, izugarri maite zuela ziurtatuz, honela erantzun zion honek, “bitatik bat; edo bateragarriak gara eta elkar ulertzen dugu, eta orduan argi sumatuko duzu ez garela bateragarriak, edo ez gara bateragarriak, eta orduan argi sumatuko duzu ez garela bateragarriak”. Neskek hizkera enigmatiko hura ulertzearen nolako senperrenak egiten zituzten ikustea benetan gozagarria zen; edonola ere, konturatu nintzen haietako batzuek primeran ulertzen zuela. Izan ere, hitzarmena hausteko

---

<sup>101</sup> Gatazka mota honi, bereziki eskubideen edo eginbeharren arteko kontrajarrera agerian uzten duen gatazkei, “kolisio” deitzen die Kierkegaardek. Bere idazkietan asko erabiltzen du “kolisio” terminoa, eduki deskribatzaile-psikologiko sendoa emanez; nortasuna banatu egiten da sarri barne “kolisio”-ak direla eta. Adibide literario eta estetikoek baliatzen da maiz arazo berezi hauek argitzea.

orduan, edozein neska gazte kasuista iaioa suertatzen baita. Bai horixe, uste dut errazago eztabaidatu ahal izango nukeela deabruarekin berarekin neska gazte batekin baino mintzagai honi buruz, alegia, ea hitzarmena zein kasutan hautsi behar den.

Gaur bere etxean izan naiz. Arrapaladan, gogoetaren abiaduraz, segituan eraman dut elkarriketa atzo jorratu genuen gai berara, berriz ere estasi zirrara bera eragin nahian. “Bazen atzo egin behar nuen ohar bat, joana nintzen arte gogoratu ez zitzaidana”. Funtzionatu du. Berarekin nagoen bitartean, atsegin hartzen du niri entzuten; ni joan ondoren, argi sumatzen du engainatu dudala, aldatu egin naizela. Honela saltzen dira akzioak nahi ez direnean. Bide hau faltsu samarra da, baina oso baliagarria, zeharkako bide guztiak bezala. Ongi uler dezake ni buru-belarri murgilduta egotea aipatzen dudana bezalako zerbaitean: areago, interesgarria aurkitzen du une honetan, nahiz eta nik iruzur egin benetako erotikotasunari dagokionez.

*Oderint, dum metuant*<sup>102</sup>. Beldurra eta gorrotoa elkarrekin doazen bakarrak balira bezala, beldurrak eta maitasunak elkarrekin zerikusirik ez balute bezala; beldurrak eta maitasunak interesgarri egiten duena izango ez balitz bezala! Zer nolako maitasunez besarkatzen dugu, bada natura? Ez al darama barruan larritasun eta izu ezkutu bat, bere harmonia ederra legegabezia eta kaos izugarri batean oinarritzen delako, bere segurtasuna gaiztakerian oinarritzen delako? Baina larritasun horretxek erakartzen du gehien. Berdin gertatzen da maitasunarekin, interesgarria izango bada. Atzean gau sakon larria izan behar du, horretatik ja ioko baita maitasunaren lorea. Honelaxe egoten da *nymphaea alba*<sup>103</sup>, bere kaliza ur-azalaren gainean; sustraia, berriz, iluntasun sakonean dago, pentsatze hutsak zorabiatzen duen lekuan. ... Konturatu naiz gutunetan beti esaten didala “ene”, baina ez du niri esateko adorea izaten. Gaur, ahal bezain modu bero eta erotikoa, hala deitzeko eskatu diot. Eta halaxe hasi da: begirada ironiko bat, esateko behar dena baion labur eta azkarragoa, nahikoa izan da bere ezintasuna agerian uzteko, nahiz nire ezpainak adore ematen ahalegindu. Jarrera normala da.

Nirea da. Baina hori ez diet izarrei fidatzen, ohi den bezala; egia esan, ez dakit zer axola diezaiekeen globu urrun horiei. Beste inori ere ez diot esaten, ezta Cordeliari ere. Niretzat bakarrik gordetzen dut sekretu hau, xuxurlatu-edo egiten diot neure buruari, neure buruarekin izaten ditudan elkarriketa ezkutukoenetan. Nire aurka saiaturako erresistentzia ez zen egundokoa izan; aitzitik, hedatzen duen indar erotikoa miresgarria da. Zein interesgarria den Cordelia bere suhartasun sakon horretan, zein handia den, ia naturaz gaidikoa! Zein azkarra den ihes egiteko orduan! Nolako malgutasunaz tentatzen nauen puntu ahulen bat aurkitzen duenean! Dena mugitzen hasten da, baina etxean bezala sentitzen naiz ni elementuen zalaparta horretan. Baina bera ez da inola ere itsusia irabio horren erdian dagoenean, ez da arima-egoera desberdinetan apurtzen, ez da zatitan puskatzen. Anadiomene<sup>104</sup> bat da betiere, baina ez da politasun inozentez edo lasaitasun axolagabe<sup>105</sup> batez altxatzen, amodio erotikoa pulsu indartsuaren bulkadaz baizik; berak, bitartean, batasuna eta oreka izaten jarraitzen du. Alde erotikotik ondo hornituta dago gudurako; bere begien geziez borrokatzen da, betileen aginduaz, kopetaren misterioaz, bularraren etorriaz, besarkaden grazia arriskutsuaz, ezpainen errenguaz, matrailen irribarrez, bere izaera osoaren irrika goxoaz. Badarama bere baitan indar bat, energia bat, walkiria bat bailitzen, nahiz indar-betetasun erotikoa hori, bere aldetik, halako makaldura adoregabe batez estalita eta motelduta dagoen. Baina gailur horretan, bere amiltzea eragozteko larridura eta ardura euskarri bakarra duela, ez du luzaroegi egon behar. Hauek bezalako emozioek laster sentiaraziko diote konpromezua estuegia dela, eragozgarriegia. Bera bilakatuko da tentatzaile, normaltasunaren mugak iragan ditzadan limurtuko nauena; hartara, bera ere jabetuko da horretaz, eta horretxek du lehentasuna niretzat.

Dagoeneko, aipamen dexente egin ditu, konpromezuaz nekatuta dagoela adierazten dutenak. Nire belarriek ez diete entzungor egiten; bere arian sarrarazi ditudan ikusketariak bidaltzen dizkidaten informaziozko keinuak dira; nire planean sar dadin bere inguruan ehuntzen ari naizen amaraunaren izpimuturrak dira.

*Ene Cordelia,*

<sup>102</sup> “Gorroto nazatela, beldurra didaten bitartean”. Suetoniok Kaligula ankerraren ahoan jartzen ditu hitzok. (Suetonio, “*Caligula*”, 30).

<sup>103</sup> Nenufar zuria.

<sup>104</sup> Afrodita, jaio ondoren itsasotik altxatzen denean.

<sup>105</sup> Jatorrizkoan *unbefangen*.

Gure konpromezuaz kexatzen zara; gure maitasunak eragotzi baizik egiten ez duen kanpo-loturarik behar ez duelakoan zaude. Horretan segituan antzematen diot nire Cordelia bikainari! Zinez miresten zaitut. Gure kanpo-elkarte, ordea, banakuntza baizik ez da. Badago oraindik beste horma bat gure artean, Pyramus eta Thisbe<sup>106</sup> bezala bereizten gaituena. Badago oraindik beste eragozpen bat, alegia, besteek gure sekretuaren berri izatea. Oposizioan bakarrik dago askatasuna. Gure maitasunari beste inork igertzen ez dionean bakarrik izango du funtsik; beste guztiek maitaleek elkar gorrotatzen dutela uste dutenean bakarrik da maitasuna zorionekoa.

Zure Johannes.

Aurki hautsiko da konpromezuaren lokarria. Eta Cordeliak berak askatuko du, askatze horren bidez, ahal balitz, ni are indar gehiagoz gatibatu nahian, adats aske eta solteek arretaz bildutakoek baino gehiago gatibatzen duten bezala. Konpromezua nik hautsiko banu, bere arimaren ausardiaren seinale hain ziurra den eta begiratzeko hain seduzitzailea den *salto mortale* erotiko hori galduko nuke. Niretzat hori da garrantzikoena. Areago, gertaera osoak ondorio atsegaitzak sortuko lizkidake besteen aurrean. Haien begikotasuna galduko nuke, horren ordez beren gorroto eta erdeinua erakarriz; arrazoirik gabe ordea, zeren eta ez al luke jende askok horretatik abantailarik hartuko? Andereño asko baitira, hitz ematera inoiz iritsi izan gabe ere, nahiko pozik egongo liratekeenak hartara aski hurbildu izan hutsagatik. Jakina, bada zerbait, nahiz eta egia esateko gutxitxo izan; zeren eta itxa ron-zerrendan sartu ahal izateko gogor ahalegindu ondoren, itxaropena eskas samarra izaten baita. Zenbat eta gorago joan, zenbat eta urrunago iritsi, orduan eta urriagoa da itxaropena. Maitasunaren munduan, antzinatasun-printzipioak ez du balio aurreratzeko eta nork bere burua promozionatzeko. Honi gaineratu behar zaio horrelako andereño bat aspertuta egoten dela jabetza zatiezin horretaz; gertakariaren batek bere bizitza astintzea nahi du. Baina zer pareka daiteke maitasun-istorio zorigabe batekin, batez ere horrez gain neskak auzi osoa hain arinki hartzen duenean? Beraz, bere buruari eta ingurukoei sinestarazten die engainatuen artean dagoela, eta emakume erorien etxera sartzeko kualifikazioa falta zaionez, alboko etxean hartzen du ostatu erostari gisa. Nahi eta nahi ez gorrotatu behar nau, bai.

Horieie gaineratu behar zaie beste norbaitek guztiz, erdiz edo hiru-laurdenez engainatu dituenen multzoa. Hemen maila desberdinak aurkitzen dira, froga moduan eraztuna dutenengandik hasi eta dantzatzen ari zirela esku bat estutu izana euskarritzat dutenenganaino. Min berriak atzera zabaltzen die zauria. Beren gorrotoa hobari moduan onartzen dut. Baina gorrotatzaile hauek guztiak kriptomaitaleak bezalakoak dira ene bihot gaixoarentzat. Lurrik gabeko erregea pertsonaia barregarria da, baina emaztegai pilo baten artean ondorengo-gerla piztea lurrik gabeko erresuma bat lortzeko ezin irriagarriagoa da. Beraz, sexu ederrak maitatu eta zaindu beharko ninduke bahitetxea banintz bezala. Benetako senargai bat neska bakar batez ardura daiteke, baina honen aukera zabala nahi adina neskaz ardura liteke, neurri bateraino behintzat. Ni azken txorakeria honetatik libratzen naiz, eta gainera besteen aurrean paper guztiz bestelako batean agertzeko parada ematen dit. Neskatoak nitaz errukituko dira, gupida sentituko dute, nitaz intziri egingo dute. Nik tonu berberean jotzen dut, eta modu horretan ere zerbait arrantza daiteke.

Arraroa badirudi ere, une honetanxe atsekabez sumatzen dut Horaziok<sup>107</sup> fidelak ez ziren neskei desiratzen zien ezaugarri salatzailea daramadala, hortz beltz bat; eta gainera non eta ahoko aurrealdean. Zein sinesbera izan daitekeen bat! Hortz horrek asko kezkatzen nau, ez dut berari buruzko aipamenik atsegin, nire puntu ahula da. Gainerako guztian ongi armatuta egon arren, honetan melontzio handienak berak uste baino sakonago jotzen nauen kolpea eman diezadake hortzaren gaia ukituz. Ahal dudan guztia egiten dut zuri bihurtzeko, baina alferrik. Palnatokerekin batera diot<sup>108</sup>.

Gaez eta egunez igurtzitzen dut,

Baina ezin itzal beltza ezabatu,

Bizitzak gauza enigmatiko asko gordetzen ditu, bai horixe. Hau bezalako xumekeria batek erasorik arriskutsuenak edo egoerarik mingarrienak baino gehiago asalda nazake. Erauzarazi egingo nuke,

<sup>106</sup> Kondaira klasikoaren arabera, Pyramus eta Thisberen gurasoek ez zuten beren ezkontza nahi, eta gazteek gurasoen etxeak bereizten zituen hormako zirrikitu batetik hitz egiten zuten elkarrekin. Ik. Ovidiorn *Metamorfosiak*, IV, 64tik aurrera.

<sup>107</sup> Odak, II 8.

<sup>108</sup> *Jeg gnider den ved Dag, ved Nat, Men ei jeg sletter ud den sorte Skygge.* Oehlenschlaeger-en Palnatoke, 5. ekit., 2 eszena.

baina ahoa eta ahotsaren indarra desitxuratuko lizkidake. Baina dentistak erauzten badit, faltsu bat jartzeko esango diot; hau da, faltsua izango da munduarentzat, niretzat beltza faltsua zen modua.

Bikaina da benetan Cordeliak konpromezu bat hautsi nahi izatea. Ezkontza instituzio agurgarria da eta izango da beti, nahiz alderdi aspergarriak izan, alegia, jadanik gaztaroan gozatzen duela adinak hornitzen duen agurgarritasunaren zati bat. Konpromezua ordea giza asmakaria hutsa da, eta horregatik da hain esanguratsu eta irigarria, non alde batetik erabat ulergarria baita neska gazte batek, pasioaren zurrunbiloan, horri jaramonik ez egitea; baina bestetik horren esanahia sentitzen du, bere arimaren energia sumatzen du bere baitan beti presente dagoen odol-sistema garaia baten modura. Orain kontua da Cordelia bere hegaldi ausartean gidatzea, halako moduz non ezkontza eta errealtatearen edukia bistatik ostentzen baitzaizkio; halako moduz non bere arima, nola harrotasunean hala ni galtzeko larriduran, suntsitu egingo baitu giza forma akastuna, gizatasun arrunta baino maila garaia bateko zerbaiten bila lastertzeko. Alde honetatik, ordea, ez dut zertan beldur izanik, bere mugimendua bizitzan zehar hain arin eta leuna denez, errealtatea neurri handi batez bistatik galdua duelako. Gainera, berarekin nago ontzian, eta beti zabal ditzaket oihalak.

Hausnarketarako gai agortezina da eta izango da beti niretzat emakumea, behaketarako joritasun eternala. Azterketa honetarako premiari ikusten ez duen gizona, niri dagokidanez, nahi duena izango da munduan, baina ezingo da gauza bat izan, esteta, alegia. Estetikaren alde lorios eta jainkotiarra baita ederra denarekin bakarrik elkartzea: funtsean literatura bikainarekin eta sexu ederrarekin bakarrik du zerikusia. Alaitasuna ematen dit, bihotza alaitzen dit, emakumetasunaren eguzkia irudikatzea bere errainuak ugaritasun infinitu batez igortzen, hizkuntza-nahaspilo moduan erradiatzen, emakume bakoitza emakumetasun-erresuma osoaren zatitxo bat izanik, baina halako moldez non bere baitan daraman gainerakoa harmonia z eratzen den puntu horren inguruan. Zentzu honetan, emakume-edertasuna mugarik gabe bana daiteke. Baina edertasunaren zati zehatz bakoitzak harmoniaz egon behar du kontrolatuta, bestela eragin nahasgarria izan bailezake, eta pentsa liteke naturak bazuela asmoren bat neska horrekiko, baina ez dela ezertan gauzatu.

Nire begiak ez dira inoiz nekutzen ugaritasun periferiko honi begiratzeaz, emakume-edertasunaren erradiazio zabalgarri hauei so egiteaz. Neska berezi bakoitzak badu bere zatitxoa, eta hala ere osoa da bere baitan, zoriontsua, alai, ederra. Bakoitzak darama: irribarre bozkariotsua, begirada bihurria, begi irrikaz beteak, buru alboratua, izpiritu jostagarria, malenkonio ezia, intuizio sakona, zoritxarreko tristura, lurrarekiko herrimina, emozio aitortu gabeak, betarte keinukaria, ezpain galdatzaileak, kopeta misterioak, kizkur liluratzailak, betile ezkutatzailak, harrotasun zerutarra, moduztasun lurtarra, aingeru-garbitasuna, ezkutuko gorritzea, ibilera leuna, flotatzea maitagarria, ahuleriazko jarrera, irrikaz betetako ametsa, hasperen azalezinak, gorpuzkera liraina, bihurtune leunak, bular oparoa, aldaka zabalak, oin niniñoak, esku politak.

Bakoitzak berea dauka, eta bata ez dauka besteak daukana. Mundu honen ugaritasuna behin eta berriz ikusitakoan, behin eta berriz behatutakoan, irribarre egin, hasperen egin, lausengatu, mehatxatu, desiratu, tentatu, barre egin, negar egin, espero izan, beldur izan, irabazi eta galdutakoan, orduan haizemailea ixten dut, eta sakabanatuta zegoen guztia batasun bihurtzen da, zatiak osotasun. Orduan poztu egiten zait arima, bihotza taupaka hasten zait, grina pizten da. Neska zehatz honen, mundu osoan den bakarraren jabe izan behar dut, nirea izan behar du. Jainkoa zeruaren jabe izan dadila<sup>109</sup>, baina nik neskaren jabe izan behar dut. Ondo dakit zer aukeratzen dudana, hain da bikaina non zeruak berak ere ez baitu banaketa horretaz ezer irabazten: izan ere, zer geratuko litzateke, bada, zeruan nik neska hartuko banu? Mahometar sinesleen itxaropenak zapuztu egingo lirateke beren paradisuaren itzal zurbil ahulak besarkatuko litzuketenean, ezingo bailukete bihotz berorik aurkitu, bihotz-berotasun guztia Cordeliaren bularrean egonik; etsi mingots batek hartuko litzuke ezpain zurbilak, begi itzalak, bular geldia, esku-estutze ahula topatzean. Izan ere, ezpain-gorritasun, begi-su eta bular-artegatasun guztia; esku-estutzearen promesa, irrikaz betetako hasperen, musuaren zigilatze, ukitzearen dardar eta besarkadaren grina guztia, guzti-guztia, beregan batzen baitzen, eta hura guztia, mundu honetarako eta besterako nahiko eta gehiegi litzatekeena, nigan xahutzen zuelako.

Termino horietan pentsatu izan dut maiz auzi honetaz, baina horrela pentsatzen dudana bakoitzean berotu egiten naiz. Cordelia ere bero irudikatzen dudalako. Nahiz berotasuna eskuarki seinale ontzat eman, horrek ez du esan nahi nire pentsabideari “sendo” predikatu ohoretsua aitortu dakiokenik. Beraz, eta

---

<sup>109</sup> Jainkoa zeruaren jabe izan dadila, Valdemar IV erregeak Gurre bere gazteluari buruz esan omen zituen hitzak dira.

pixka bat aldatzeagatik, nik, hotz, halaxe irudikatuko dut bera, hotz. Emakumea termino kategorikotan irudikatzen saiatuko naiz<sup>110</sup>. Zein kategoriatan sartu behar dut? Besterentzako izakien kategorian. Hau ez da, ordea, zentzu txarrean ulertu behar, niretzakoa den norbait beste norbaitentzakoa ere izan baliteke bezala. Honetan, pentsaera abstraktoan beti egin behar den bezala, alde batera utzi behar da esperientziari dagokion guztia, zeren eta bestela kasu honetan, modu bitxi samar batez, esperientzia aldekoa izango bainuke, baita aurkakoa ere. Honetan, guztian bezalaxe, pertsonaia bitxia da esperientzia, bere betiko izaera baita aldekoa eta aurkakoa izatea. Beraz, emakumea besterentzako izakia da. Baina hemen ere, beste ikuspegi batetik ikusita, ez diogu esperientziari utzi behar gu nahasten, hark erakusten baitigu oso gutxitan aurkitzen dela besterentzako izakia den emakumea, sarri askotan gehienak ez baitira ezer, ez beren buruentzat ez beste inorentzat. Ezaugarri hau natura osoarekin banatzen du, femeninoa den guztiarekin. Hartara, natura osoa besterentzat da –ez zentzu teleologikoan-, halako moldez non naturaren elementu partikular bat beste elementuren batentzat baita, baina natura osoa beste zerbaitentzat da: izpirituarentzat. Berdin gertatzen da partikularra denarekin. Landare-bizitzak, esaterako, inozentzia osoz zabaltzen ditu bere xarma ezkutuak, eta hala ere besterentzat da. Modu berean enigma, txarada sekretua, bokala, etab. besterentzako izakiak dira. Horregatik uler daiteke Jainkoak Eba sortzeko orduan Adanengan lo sakona eragitea, emakumea gizonaren ametsa baita. Pasadizoak, beste modu batez, irakasten digu emakumea besterentzako izakia dela. Izan ere, esaten da Jehovah gizonaren saihetsezur bat hartu zuela. Hartu izan balu, esaterako, gizonaren burmuin zati bat, emakumeak besterentzako izakia izaten jarraituko zuen noski, baina xedea ez zen burmuinaren produktua izatea, oso bestelako zerbait baizik. Haragi eta odol bihurtu zen, eta horrexegatik sartzen da naturaren kategorian, hots, funtsean besterentzako izakien artean. Amodio erotikoarekin ukituaz esnatzen da, ordurarte amets hutsa da. Baina ametssezko existentzia horretan bi estadio berriz daitezke: lehena da amodioak emakumeaz amesten duenekoa, eta bestea emakumeak amodioaz amesten duenekoa.

Besterentzako izakia den aldetik, emakumeak birjintasun purua du ezaugarri nagusi. Hau da, birjintasuna halako izakia da non, bere buruarentzat den neurrian, abstrakzio hutsa den eta besterentzat bakarrik ematen den aditzera. Gauza bera gertatzen zaio inozentzia femeninoari. Esan daiteke, beraz, egoera horretan dagoen emakumea ikustezina dela. Gauza jakina da ez dagoela benetako birjintasuna adierazten zuen Vesta jainkosaren irudirik<sup>111</sup>. Alegia, existentzia mota hau estetikoki jeloskor dago bere buruaz. Jehova bera ere etikoki jeloskor dagoen modu berean<sup>112</sup>, eta ez du bere irudirik nahi, ez du inongo irudikapenik nahi. Hauxe, beraz, kontraesana: besterentzakoa dena ez da existitzen, eta besteren bidez, edo bihurtzen da ikusgarri. Logikaren aldetik kontraesan hau guztiz onargarria da, eta modu logikoz pentsatu nahi duena ez da horregatik kezkatuko, poztuko baizik. Alderantziz, ilogikoki pentsatzen duenak irudikatuko du besterentzako izakia dena existitu egiten dela zentzu finitu batean, gauza zehatzei buruz “hau niretzat da” esan daitekeen modu berean.

Emakumearen izate hau (existentzia<sup>113</sup> hitzak gehiegi adierazten du, emakumeak ez baitu irauten bere baitatik kanpo) ederki adierazten du xarma hitzak, hitzak bizitza begetatiboa gogorarazten baitu: emakumea lorea bezalakoa da, poetei esatea gustatzen zaien bezala, eta adimen alorrekoa dena ere modu begetatibo batean aurkitzen da bere baitan. Naturaren kategoriarekin dago erabat, eta horregatik estetikoki bakarrik da libre. Zentzu sakonagoan, gizonaren bidez askatzen da, horregatik esaten dugu “amodioa aitortzea”<sup>114</sup>, eta horregatik egiten du gizonak aitortzea. Aitortzen hau behar bezala egiten badu, orduan ez dago aukeraketa hori hausnarketa luzeen ondorioa baldin bada, orduan aukeratze mota hori ez da benetan femeninoa. Horregatik da umilagarria arbuaitua izatea, dagokion gizonak bere burua goretsi egin duelako, beste norbait askatu nahi izan duelako horretarako gaitasunik izan gabe.

Harreman horretan ironia sakon bat dago. Besterentzat dena, nagusi agertzen zaigu: gizonak aitortzen du, emakumeak aukeratzen du. Emakumea, bere kontzeptuaren arabera, garaitua da, eta gizona, bere kontzeptuaren arabera, garailea: eta hala ere garailea garaituaren menpe jartzen da. Baina hau guztiz naturala da, eta zakarkeria, ergelkeria eta sentiberatasun erotikorekin gabezia hutsa da berez gertatzen denari jaramonik ez egitea. Arrazoi sakonago bat ere badago, alegia, emakumea sustantzia dela, eta

<sup>110</sup> Ondoren datorrena zenbait kontzeptu hegeliarrez egindako jolas parodikoa da: besterentzako izakia...

<sup>111</sup> Ik. Ovidioren Fasti VI, 292.

<sup>112</sup> Ik. Exodoa, 20,5.

<sup>113</sup> “Existentzia/existitu” hitzaren funtsezko esannahia agerian geratzen da etimologian: ex (kanpo) + *sistere* (izan, egon), hemen bere baitan erabateko iraupena duena bezala ulertua. Kierkegaarden beste lanetan “esistitzea”k esannahi kualitatiboa du, bilakaeraren maila etiko eta erlijiosoarekin lotuta dagoena: “nabarmentzea”, hurbil dagoenez gaindi, iraupenaren presentziaz gaindi.

<sup>114</sup> Ik. (67) oharra.

gizona hausnarmena. Horregatik emakumeak ez du aukeratzen beste gabe; gizonak proposamena egiten dio, eta emakumeak aukeratzen du. Baina gizonaren proposamena galdera bat da, eta emakumearen aukeraketa, azken batean, galdera bati emandako erantzuna. Zentzu batean, gizona emakumea baino gehiago da; beste zentzu batean, askozaz gutxiago.

Besterentzako izaki hau birjintasun purua da. Honek saio bat egiten badu beretzakoa den beste izaki batekin harremanetan jartzeko, orduan oposizioa erabateko mindulinkeriaz adierazten da, baina oposizio honek erakusten digu halaber emakumearen benetako izaera besterentzako izatean datzala. Erabateko debozioaren diametralki aurkakoa erabateko mindulinkeria da; azken hau kontrako zentzuan ikustezina da, denak kolpatzen duen abstrakzioa denez, nahiz eta horregatik abstrakzioak bizitzarik hartu ez. Emakumetasunak ankerkeria abstraktoaren kualitatea bereganatzen du orduan, alegia, benetako birjin-mindulinkeria<sup>115</sup> mutur karikaturazkoa. Gizona ezin da inoiz izan emakumea baino ankerragoa. Mitologia, herri-ipuak eta kondairetara jo besterik ez dago hau frogatzeko. Bere krudelkerian mugarik ezagutzen ez duen natur-printzipioaren baten irudia ematekotan, birjin izakiarena da. Edo izutu egiten zara herri-kondairetan irakurtzen duzunean inongo zirrararik sentitu gabe bere miresle guztiak bizia galtzen ikusi zituen neskaz. *Bizar Urdin* batek maite izan dituen neska guztiak hiltzen ditu eztei-gauean, baina ez du haiek hiltzen atsegin hartzen; aitzitik, atsegina aurretiazkoa izan da, eta horretantxe datza muina, ez krudelkeria krudelkeriagatik bakarrik. *Don Juan* batek seduzitu egiten ditu, gero bertan behera uzteko, baina ez du inongo atseginik hartzen haiek bertan behera uztean, seduzitzean baizik. Beraz ez du zerikusirik krudelkeria abstraktu horrekin.

Auzia zenbat eta gehiago hausnartu, orduan eta argiago ikusten dut nire praxia erabateko harmonian dagoela nire teoriarekin. Izan ere, nire praxian beti egon naiz sinetsita emakumea funtsean besterentzako izakia dela. Horregatik da horren esanguratsua unea, besterentzat izatea unearekin duelako beti zerikusia. Denbora luze edo laburra igaro daiteke une hori iritsi arte, baina unea iritsi orduko, hasieran besterentzako izakia zena izaki erlatibo bihurtzen da, eta hartara dena amaitzen da. Ondotxo dakit senarrek ere batzuetan esaten dutela emakumea besterentzako izakia dela, baina beste zentzu batean, hots, berena dela bizitza osorako. Baina ez zaie senarrei kontuan hartu behar. Nik uste elkarri sinestarazten dioten gauza besterik ez dela. Normalean klase bakoitzak ohitura konbentzional jakin batzuk. Eta ametsetako lukainka hau horien artean sartu beharra dago. Unea ulertzea ez da horren kontu erraza, eta gaizki ulertzen duena bizitza osoan zehar aspertzera kondenatuta dago. Unea guztia da, eta une barruan emakumea guztia da; ondorioak ez ditut ulertzen. Ondorio horietako bat haurrak izatea da. Nik funtsezko pentsalaritzat hartzen dut neure burua, baina burutik jota egonda ere pentsaezina iruditzen zait ondorio hori. Ez dut inolaz ere ulertzen; horretarako ezkondata egon behar da.

Atzo Cordeliak eta biok bisita egin genion familia bati beren opor-etxera. Bertan zeudenek lorategian eman zuten denbora gehiena, eta hantxe jardun genuen denborapasa, mota guztietako ariketa fisikoak egiten. Aro-jaurtiketan ere aritu ginen. Cordeliarekin jolasean zebilen gizonezko bat joan zenean, aukeraz baliatu nintzen bere lekua hartzeko. Hura xarma-aberastasuna Cordeliak zabaltzen zuena, jolasaren ahalegin edergarriek ere seduzitzaileago bihurtua! Hura harmonia xarmagarria bere mugimenduen kontraesanean! Zein arina zen, zelaian barrena dantzatzen bezala! Zein sendoa, erresistentzia premiarik gabe baina; zein engainagarria, bere oreka-zentzumena guztiaz arduratzen zen arte! Zein ditiranbikoa zuen jardunbidea, zein probokatzaila begirada! Jolasak berak ere interes berezi bat zuen niretzat, noski. Ez zirudien Cordelia horretaz jabetzen zenik. Bertan zeudenetako bati aroak elkartrukatzeko ohitura ederraz egin nion aipamenak tximistak bezala jo zuen Cordelia. Une hartatik, argi goren bat zabaldu zen egoera osoaren gainetik, esangura sakonago batek kutsatu zuen, energia areagotu bat piztu zen Cordeliarengan. Bi aroak makilan neuzkan; une batez gelditu eta hitz pare bat elkartrukatu nuen inguruan zeudenekin. Cordeliak ulertu egin zuen etenaldia. Berririo jaurti nizekion aroak. Berak banaban harrapatu zituen makilaz. Gero, oharkabea bezala, biak aldi berean jaurti zituen gorantz, nik harrapatzea ezinezko bihurtuz. Mugaz gaindiko ausarkeriaz betetako begirada batek lagundu zion jaurtiketari. Kontatzen da Errusiako kanpainan egondako soldadu frantziar bati, pasmoa zela eta, hanka moztu behar izan ziotela. Ebakuntza mingarria amaitu bezain laster, hanka oinazolatik heldu eta airean jaurti zuen *Vive l'empereur!* oihukatuz. Halako begiradarekin, inoiz baino politagoa, jaurti zituen bi aroak airean, bere baitan esanez: gora amodio erotikoa. Baina ez zitzaidan komenigarria iruditu halako modu zoroan jarduten segitzea; ez nuen bakarrik utzi nahi, halako portaeren ondoren sarri askotan etortzen den abailduraren beldur. Horregatik patxada osoz jardun nuen, gertaturikoaz jabetu ez banintz bezala, eta bertan zeuden laguntzaz jolasten jarraitzea behartu nuen. Horrelako portaerak bere malgutasuna areagotu besterik ez du egiten.

---

<sup>115</sup> Jatorrizkoan *sprödigkeit*.



Gaur egun horrelako azterketei buruz begikotasun gehiago espero ahal izango balitz, ondoko galdera egingo nuke: nor da, estetika aldetik pentsatuz, lotsatiagoa, neska ezkongabea ala emazte ezkonberria, eskarmentu gabea ala esperientzia duena? Zeini eman behar zaio askatasun handiagoa? Baina honelako gauzek ez dute inor kezkatzen garai serio hauetan. Horrelako ikerketak denen interesa piztuko zukeen Grezian; estatu osoa mobilizatuko zatekeen, batez ere neska ezkongabeak eta emazte ezkonberriak. Gure garaian inork ez du horrelakorik sinesten, sinetsiko ez luketeen bezala kontatuko balitzaie bi neska greziarren artean izandako iskanbila ezaguna<sup>116</sup>, eta honek eragindako ikerketa izugarri arduratsua. Izan ere, Grezian halako arazoak ez ziren azaletik eta arinkeriaz aztertzen. Baina gauza jakina da Venusek beste goitizen bat duela, iskanbila haren kariaz sortua, eta denek miresten dutela hilezko bihurtu duen Venusen estatua hura.

Emakume ezkonduak baditu bere bizitzan interesgarria izaten den bi aldi: lehen gaztaroa, eta berriro ere azkenean, oso adindua denean. Baina badu orobat, ezin uka dakioke hori, neskato garaian baino xarmangarriagoa dagoen une bat, errespetu gehiago pizten duenekoa. Une hau gutxitan gertatzen da bizitzan ordea; fantasiazko irudi bat da, bizitzan derrigorrez ikusi behar ez dena, eta agian inoiz ikusten ez dena. Osasuntsu, loratu, erabat garatuta irudikatzen dut; besoetan daraman haurrak amaren arreta guztia bereganatzen du, ama buru-belarri du begira. Irudi honi giza bizitzak eskain dezakeen politena dei dakioke; natur mito bat da, eta horregatik artearen begiez bakarrik ikus daiteke, ez errealtatean. Gainera, irudian ez du beste inork agertu behar, ezta atzealdean ere, enbarazu besterik ez baitu egiten. Gure elizetara sartzen bazara, aukera handiak izan ditzakezu besoetan haurra daraman amaren bat ikusteko. Alde batera utzita haurraren negar asaldagarria, alde batera utzita gurasoek txikiaren etorkizunaz izan ditzaketen itxaropenei buruzko pentsamendu kezkatiak, negar horretantxe oinarrituak, inguruneek berek halako moduan egiten dute traba non gainerako guztia perfektua izanda ere, efektua galtzen baita. Ikus dezakezu aita, akats handi hori, mitoa eta xarmangarritasuna hausten baititu. Ikus dezakezu –horrenda refero<sup>117</sup>– aita-amabixien koru serioa, eta ikusten duzu ... ezertxo ere ez. Fantasiazko irudi gisa aurkeztua, guztien artean politena da. Niri ez zaitadore, azkartasun, ezta ausarkeriarik ere falta eraso egiten ausartzeko; baina errealtatean halako irudia ikusiko banu, desarmatuta geratuko nintzateke.

Nola kezkatzen nauen Cordeliak! Hala ere, laster amaituko da dena: nire arimak gaztetzea eskatzen du beti. Aditzen dut jadanik, urrutitik bezala, oilarraren kukurrukua. Agian berak ere aditzen du, baina goiza iragartzen ari dela uste du. Zergatik du neskato batek halako edertasuna, eta zergatik irauten dio horren gutxi? Gogoeta horrek izugarri malenkoniatsu jar nintzake, baina ez da axola zaidan gaia. Gozatu, berriketarik gabe. Horrelako hausnarketak lanbide bihurtzen duen jendeak, arruntean ez du gozatzen. Edonola ere, horrelako gogoetak gertatzeak ez dio inori kalterik egiten, tristezia hori –ez bere buruarenganako, besteenganakoa baizik– normalean apur bat lerdengo egiten baitu gizona. Tristezia hori, lainoak bezala gizonaren indarra modu engainagarri ostentzen duena, honen erotismoaren zati bat da. Emakumearengan nolabaiteko depresioa da horren baliokidea.

Neska batek bere burua zeharo entregatu duenean, dendena bukatzen da. Oraindik ere nolabaiteko larri duraz hurbiltzen naiz neska batengana; bihotz taupadak areagotu egiten zaizkit, haren izaeran dagoen botere eternala sumatzen dudalako. Emakume ezkondu baten aurrean, aldiz, ez zait inoiz gertatu. Emaztea arte handiz egiten saiatzen den erresistentzia xumea ez da ezer. Ezkonduaren buruko ezkongabearen buru hutsa baino hunkigarriagoa dela esatea bezala da. Horregatik izan da beti Diana nire ideala<sup>118</sup>. Birjintasun erabateko horrek, mindulinkeria absolutu horrek, asko kezkatu izan nau beti. Baina nahiz nire arreta beti bereganatu izan, nik ere beti begiratu izan diot nolabaiteko susmoz. Hau da, ez dut uste benetan merezi izan dituenik bere birjintasunari buruz hartu dituen laudorio guztiak. Alegia, bazekien bizitzan arrakasta izatea bere birjintasunari lotuta zegoela, horregatik gorde zuen. Gainera, munduko bazter filologiko batean entzun ditudan esamesen arabera, ba omen zekien bere amak erditzean pairatutako oinazeen berri. Horrek izutu egin zuen, eta ezin zaio Dianari horren errua bota. Euripidesekin batera esango dut nahiago dudala hiru aldiz gerlara joan, behin bakarrik haurraz erditu baino<sup>119</sup>. Ni ezingo

<sup>116</sup> Iskanbila ezagun honen funtsa zen ea bi nesken artean zeinek zuen atzekalderik ederrena.

Pasadizoaren oroigarri gisa tenplu bat eraiki zuten Afroditenaren omenez, honi Kallipygos (atzealde ederra duena) izengoitia gaineratu ziotelarik.

<sup>117</sup> “izugarrikerien berri eman behar dut”. Parekatu Virgilioren “Eneida”ko (II 204) *horresco referens*-ekin.

<sup>118</sup> Erromar mitologian, Diana (Graziako Artemisa), Apoloren arreba bikia, birjina ehiztaria zen, basoen zaindaria eta emakumeen babesle, batez ere erditzeko orduan.

<sup>119</sup> “Medea”, 250-51. bertsoa.



nintzateke Dianaz maitemindu, baina ezin uka dezaket asko emango nukeela harekin mintzatzeagatik, solas zintzo bat deituko niokeena izateagatik. Ziur naiz maina guztiak dakizkiela. Argi dago nire Diana onak bere baitan nola edo hala daraman jakintasun horri esker ez dela Venus bera baino inozenteagoa. Ez nuke bainuan zelatatu nahi, inondik ere ez, baita gustura harrapatuko nuke ezustean nire galderez. Amodio-zita batera joango banintz, eta garaile suertatzeko dudaren bat egingo banu, prestatu egingo nintzateke, armatu egingo nintzateke, erotikotasunaren izpiritu guztiak piztuko nituzke harekin mintzatuz.

Hausnarketagai izan dut maiz arazo hau: zien egoera, zein une har liteke seduzitzeko egokientzat? Erantzuna zer eta nola desiratzen duzun, eta zein garatuta zauden araberakoa da, noski. Nik ezteieguna dela diot, eta batez ere une zehatz bat. Emaztegaia bezala apainduta dagoenean, eta bere apaindura guztia zurbildu egiten denean bere edertasunaren aurrean, eta bera ere zurbiltzen denean, odola gelditzen denean, bularrak mugimendua galtzen duenean, begirada non pausatu ez dakienean, oinak kilikolo dituenen, birjina dar-dar dagoenean, fruitua heltzen denean; zeruak altxatzen duenean, unearen handitasunak indartzen duenean, promesak daramanean, otoitzak bedeinkatzen duenean, mirtoak koroatzen duenean; bihotzak zirgiti egiten duenean, begiak lurrera apaltzen dituenen, bere baitan ostentzen denean, mundu honetakoa ez denean, mundu honetakoa izatearren hain zuzen; bularra uhintzen denean, izakiak hasperen egiten duenean, ahotsak huts egiten duenean, malkoak dardar egiten duenean enigma argitu aurretik, zuzia pizten denean, senargaia zain dagoenean, horra hor une egokiena. Aurki beranduegi izango da. Urrats bakarra geratzen da, baina nahikoa da estropezu egiteko. Une honetan neska apalena ere handi bilakatzen da: Zerlina<sup>120</sup> txikia bera ere zerbait bihurtzen da. Dena elkartu beharra dago, une horretan kontrakoenak ere batu egin behar dira: zerbait falta bada, batez ere aurkari nagusiak, egoerak kolpetik galtzen ditu osagai seduzitzaile gehienak. Bada grabatu ezagun bat, neska bat aitortzen ageri duena. Hain gazte eta errugabea dirudienez, zeharo nahasita geratzen zara bai neska bai aitorelearengatik: zer eduki baitezake halako neskatoak aitortzeko? Beloa pittin bat altxatzen du munduari begiratzeko, hurrengo batean aitortzeko utz zezakeen zerbaiten bila bezala, eta argi dago apaizarenganako ardurak eragindako betebeharra baino ez dela. Egoera oso seduzitzailea da, eta irudian agertzen den pertsonaia bakarra neska denez, ezin utz diezaiokegu pentsatzeari hau guztia gertatzen den eliza oso handia dela, eta predikatzaila ugari eta oso desberdinek predika dezaketela aldi berean. Egoera oso seduzitzailea da, eta ez dut ezer neure burua atzealdean kokatzearen aurka, batez ere neskak ere ezer ez badu aurka. Nolanahi ere, egoera oso bigarren mailakoa da, neskak haur bat dirudielako bi zentzuetan, eta denbora beharko da une egokia iritsi arte.

Cordeliarekin izan dudana harremanean zintzo jarraitu al diot beti hitzartutakoari? Estetikarekin hitzartutakoaz ari naiz, noski, horretxek indartzen bainau: ideia beti nire alde edukitzeak. Sekretu bat da, Sansonen ilearena bezalakoa, baina ezein Dalilak erauziko ez didana. Neska bat argi eta garbi engainatzeko, adorea faltako litzaidake: baina ideia nirekin batera mugitzeak, nik bere zerbitzurako jarduteak, bere zerbitzurako buru-belarri egoteak, zorrozatasuna ematen dit neure buruarekiko, horri eskre uko egin diezaieket atsegin debekatu guztiei. Beti gorde al dut interesgarritasuna? Bai, hori argi eta garbi esatera ausartzen naiz solasaldi ezkutu honetan. Konpromezuaren interesgarritasuna horretantxe baitzetzan, alegia, ez zuela normalean interesgarritasuna esaten zaion horrelakorik ekarri. Horrexegatik gorde zuen interesgarritasuna, kanpoko itxura kontraesanean zegoelako barne-bizitzarekin. Cordeliarekin ezkutuan elkartuta egon banintz, lehen potentzian bakarrik izango zen interesgarria. Hau, berriz, bigarren potentzian da interesgarria, eta horregatik da interesgarria beretzat. Konpromezua apurtu egiten da, baina Cordeliak berak apurtzen du, esfera garaia batera altxatzearren. Horrela izan behar du: interesgarritasun mota honetxek mantenduko baitu lanpetuen.

#### *Irailak 16*

Lotura hautsi da: irrikatsu, indartsu, ausart, jainkotiar, hor doa Cordelia hegan, hegalk leheneziko aldiz zabaltzen dituen txoria bailitzen. Zoaz hegan, txoritxo, zoaz hegan!<sup>121</sup> Egia esan, errege-hegaldi hau nigandik atzera egiteko izango balitz min izugarri handia emango lidake. Niretzat Pigmaliionen maitea<sup>122</sup> ostera harri bihurtu balitz bezala izango litzateke. Arin bihurtu baitut, gogoeta bezain arin, eta orain nirea den gogoetarik gabe geratu behar al dut? Etsitzeko modukoa izango litzateke. Une bat lehenxeago ez ninduke arduratuko, eta une bat geroxeago ez dit batere axolako. Baina orain – orain- hau eternitatea da niretzat. Bere hegaldiak ez du ordea nigandik urruntzen. Zoaz bada hegan,

<sup>120</sup> Mozart “Don Giovanni”ko pertsonaia baten izena.

<sup>121</sup> “Flyv, Fugl, flyv!” Christian Frederik Winther-en poema baten izenburua. Digte, 40-41 orr.

<sup>122</sup> Pigmalion eskultore grekoaz esaten da berak egindako emakume-irudi batez maitemindu zela, eta jainkoengandik lortu zuela estatua mami eta hezur bihurtzeko mesedea.

txoritxo, zoaz hegan, altxa zaitez harro zure hegalez, labain zaitez aire-erresuma leunean barrena; laster izango naiz zurekin, laster ezkutatuko naiz zurekin bakardade sakonean!

Izeba nahiko harrituta geratu da berriaren aurrean. Baina gogo zabalegia du Cordelia behartu nahi izateko, nahiz eta saioaren bat egin dudan nigan interesa har dezan, alde batetik lo sakonago batean sarrarazteko, eta bestetik Cordelia apur bat zirikatzearen. Hala ere, izebaren sinpatia dudala dirudi; ez daki ondo zenbat arrazoi dudan nitaz sinpatiarik izan ez dezan erregutzeko.

Izebak baimena eman dio landetan denboraldi bat pasatzeko; familia batekin egongo da. Zorionez, ezingo du segituan amore eman gainez egiten dioten emozio ugarien aurrean. Bolada batean tentsioan mantenduko dute kanpotik datozkion erresistentzia mota askok. Komunikazio apur bat mantenduko dut berarekin gutunen bidez; horrela gure harremana berpiztu egingo da. Orain indartzeko premia du ahal den modu guztiez; batez ere komenigarria litzateke gaitzespen sutsuzko saio pare bat egingo balu jendearen eta guztiaren aurka. Abiatzeko eguna iristen zaionean, morroi zintzo bat agertuko zaio gurdizain gisa. Hiri-ateak zeharkatutakoan, nire mirabe konfiantza handikoa elkartu zaie. Mirabea Cordeliarekin joango da xederaino, eta berarekin geratuko da zerbitzatzeko eta, premia agertuko balitz, laguntzeko. Neure buruaz gain, ez dut ezagutzen horretarako Johan baino egokiagoa den inor. Neronek prestatu dut guztia ahalik eta modu tajuzkoenean. Ez zaio faltako nola edo hala arima liluratu eta ongizate oparo batean lasaitzeko behar dezakeen ezer.

Ene Cordelia,

Familia banakakoen su-deiak ez dira oraindik batu hiri osotik zabaltzen den abarrots kapitolino<sup>123</sup> erabatekoa osatuz. Ziur aski dagoeneko soloren bat jasan beharko zenuen. Irudika itzazu te-orduko gaztetxo marmartien eta kafe-mahai inguruko emazte kalakarien taldea; irudika ezazu dama bat dutela lehendakari, Claudius Lars lehendakari<sup>124</sup> hilezkorren baliokide moduan, eta jende onaren iritzian galdu duzunaren irudia, nozioa eta neurria izango dituzu.

Honekin batera bidaltzen dizut Lars lehendakaria agertzen den grabatua. Ezin izan dut solte erosi, beraz Claudiusen obra osoak erosi, grabatua erauzi eta bota egin dut gainerakoa. Izan ere, nola ausartuko nintzen une honetan zuretzat inongo esanahirik ez duen opari bat egiten? Zergatik ez nuen dena bildu behar une bateko atsegina emango dizun zerbait hornitzeko? Zergatik utzi behar nien egoerari ez dagozkion gauzei egoeran nahasten? Naturak halako konplexutasuna du, bizitzaren harremana mugatuena esklabu den pertsonak bezalaxe, baina zuk, ene Cordelia, gorrotatu egingo duzu zuere askatasunetik ikusita.

Zure Johannes,

Udaberria da inondik ere maitemintzeko sasoirik ederrena, eta udazkena zeure desiraren xedera iristeko ederrena. Udazkenak duen tristezia bete-betean dagokio desira bat betetzeko gogoetak zeharkatzen zaitueneko mugimenduari. Egun batzuk barru Cordeliak bere arimarekin harmonian dagoen giroa topatuko duen landetxean egon naiz gaur. Ez dut sortuko dizkion harridura eta zorionean parte hartu nahi, horrelako pasadizo erotikoei arima ahuldu besterik ez bailiokete egingo. Bakarrik baldin badago, ordea, ametsek eramango dute; nonahi ikusiko ditu zeinuak, aztarnak, lilurazko mundu bat. Baina horrek guztiak esanahia galduko luke ni alboan banindu; ahantzarazi egingo lioke hau bezalako zerbait elkarren ondoan gozatzeak esanahirik izan zezakeen unea pasea dela. Giro horrek ez dio narkotiko moduan arima zorabiarazi behar; aitzitik, etengabe jasotzen lagundu behar dio, konturatuko baita hau guztia jolas hutsa dela, inongo garrantzirik ez duena etorriko denaren ondoan. Geratzen diren egunetan etxe horretara bisita gehiago egiteko asmoa dut, arima-egoera ez galtze-arren.

Ene Cordelia,

<sup>123</sup> Kapitolioko antzaren sortutako abarrotsaz ari da. Galiarrak Erroman sartzera zihoazenean, antzaren karakek hiria defendatzeko zeuden goardiak esnarazi zituzten.

<sup>124</sup> Mathias Claudius-en “*Asmus omnia sua secum* oder Sämmtliche Werke de Wandsbecker Bothen”, I-II, 131 orrian aurkitzen da “*Der President Lars*”-en irudi komiko bat testu parodiko baten aurrean: “*Eine Disputation zwischen den Herren W. und X. und einem Fremden über Hrn. Pastor Alberti “Anleitung zum Gespräch über die Religion” und über Hrn. Pastor Goeze “Text am 5ten Sonntage nach Epiphanyas” unter Vorsitz des Hrn. Lars Hochedeln*”.

Orain zinez deitzen dizut nirea; ezein kanpo-zeinurik ez dit neure jabegoa gogorarazten. Laster deituko dizut zinez nirea. Eta besoen artean estutzen zaitudanean, zure besarkadaz inguratzen nauzunean, ez dugu inongo eraztunen beharrik izango elkarrenak garela gogoratzeko, besarkada hau eraztuna baita, sinbolo hutsa baino gehiago. Eta eraztun honek gu zenbat eta estuago elkartu, zenbat eta modu bananezinean lotu, gero eta handiagoa izango da askatasuna, zure askatasuna nirea izatean baitatza, neure askatasuna zurea izatean datzan modu berean.

---

*Zure Johannes*

*Ene Cordelia,*

Alfeo ehizan zebilela<sup>125</sup>, maitemindu egin zen Aretusa ninfaz. Honek ez zien ehiztariaren erreguei jaramonik egin nahi izan, baina bere aurrean joan zen beti, harik eta Ortygia irlan iturri bihurtu zen arte. Alfeo hainbeste atsekabetu zen haren aurrean non ibai bilakatu baitzen Elisen, Peloponeson. Ez zuen, haatik, bere maitasuna ahaztu, eta itsaso azpian elkartu zen iturri harekin. Pasa ote da transformazioen garaia? Erantzuna: Pasa ote da amodio erotikoaren garaia? Zerekin parekatu beharko nuke zure arima garbi sakona, munduarekin inongo harremanik ez duena, iturri batekin izan ezik? Ez al dizut, bada, esan maitemindu den ibaia bezalakoa naizela? Eta ez al naiz orain, bananduta gaudenean, itsaso azpian murgiltzen zurekin elkartuta egotearren? Itsaso azpian elkartuko gara atzera berri, sakontasun horietan bakarrik baikara bata bestearena.

---

*Zure Johannes,*

*Ene Cordelia,*

Laster izango zara nirea, laster. Eguzkiak begi jagolea ixten duenean, historia amaitu eta mitoak hasten direnean, ez dut bakarrik kapa jantziko; gaua jantziko dut kapa bailitzen, eta zuregana abiatuko naiz ziztu bizian, non zauden entzutera, baina ez zure oinetsei jarraituz, zure bihotz-taupadei baizik.

---

*Zure Johannes,*

Egunotan, nik nahi izan arren berarekin aurrez aurre ezin egon naitekeenean, gogoeta batek kezkatu nau, hots, uneren batean ez ote zaion bururatuko etorkizunaz pentsatzea. Orain arte ez zaio inoiz bururatu, ondotxo jakin izan dudalako modu estetiko batez lotarazten. Ezin irudika daiteke gauza anti-erotikoagorik etorkizunari buruzko berriketa horiek baino, oraina betetzeko ezer ez dagoela esan nahi baitute funtsean. Berarekin nagoenean ez dut horrelakoren beldurrik izaten; arduratuko naiz ni nola denbora hala eternitate ahaztu ditzan. Gizon batek ez badaki neska baten arimarekin neurri horretako erlazioa finkatzen, ez lioke inoiz seduzitzeari ekin behar, ezingo bailituzke bi oztopo gainditu, etorkizunaren auzia eta sinesmenari buruz dotrinatzea. Guztiz egokia da, hortaz, Gretchenek Faustori azterketatxo bat egin izana, honek bere baitako zalduna desestaltzeko zuhurgabekeria egin baitzuen, eta halako eraso baten aurrean neska bat beti dago armatuta.

Uste dut dagoeneko dena prest dagoela Cordeliari harrera egiteko. Ez du nire oroimena miresteko aukera faltarik izango, edo hobeto esanda, ez du betarik izango. Ez dut beretzat esangura izan dezakeen ezer ahaztu; beste aldetik, ez da agertzen nire gogorapen zuzena erakar liezaiokeen ezer, ni modu ikustezinez nonahi egon arren. Baina neurri handi batean guztiaren eragina lehenbiziko egunean nola ikusten duenaren menpe egongo da. Xede horretarako, nire mirabeak argibide zehatzak hartu ditu, eta bere moduan artista peto da. Hala agintzen zaionean badaki axolagabeki, ustegabeen bezala, oharren bat egiten, baita ezjakinarena egiten ere; hitz bitan, izugarri baliotsua zait.

Lekua berak desira lezakeena bezalakoa da. Gelaren erdian zaudenean, bi aldeetara begira dezakezu, aurreko gauzetatik haratago: ostertz azkengabea dago bi aldeetara, eta bakarrik aurkitzen zara atmosferaren itsaso zabalean. Leiho-ilara batera hurbiltzen bazara, ostertzaren ganga urrunean baso bat ikusten duzu, lore-korua bailitzen muga eta hesi gisa. Halaxe behar du izan. Zer maite du amodio erotikoak<sup>126</sup>? Esparru hesitua. Izan ere, ez al zen paradisua esparru hesitu bat, ekialdera ematen zuen lorategia? ... Baina uztai honek estuegi hersten zaitu. Leihora gehiago hurbiltzen zara, eta zingira bare bat

---

<sup>125</sup> Greziar mitologiaren arabera Alfeo, Ozeano titanaren semea, Alfeo (orain Ruphia) ibaiaren pertsonifikazioa zen. Ortygia irlan, Siziliako kostaldetik hegoekira, zegoen behinola Sirakusa.

<sup>126</sup> Nolabaiteko kidetasuna dago danieraz baso (*skov*) eta amodio erotikoa (*elskov*) hitzen artean.

ikusten duzu, apalki ezkutatuta ingurune garaiagoan. Txalupa bat dago ertzean. Hasperen bat bihotzaren betetasunetik, arnasa bat gogoaren ezinegonetik. ... Bere amarretatik askatu eta laku gainetik labaintzen da, oroimin esanezinezko haizetxoak bultzatuta. Basoaren bakardade ezkutuan desagertzen zara, basoaren iluntasun sakonaz amesten duen laku-azalerak kulunkatuta. Beste aldera jiratzen bazara, itsasoa zabaltzen da begien aurrean; hauek ez ditu ezerk geldiarazten, eta atzetik datozen gogoetak ere ez. ... Zer maite du amodio erotikoa? Mugarik eza. Zerk ikaratzen du amodio erotikoa? Mugek.

Egongela zabalaren barruan gela txikiago bat dago, edo hobeto esanda gela pribatu bat, horretxan antza baitzuen Wahldarren etxeko egongelak. Antzekotasuna harrigarria da. Zumezko tapiz batek estaltzen du zorua; sofaren aurrean temahai txiki bat dago, eta honen gainean lanpa bat, bere etxekoa bezalakoa. Dena da berdina, baina dotoreagoa, bikainagoa. Gelan honelako aldaketa egin nezakeela iruditzen zait. Gela handian piano bat dago, oso apala, baina Jansendarreneko pianoa burura dakarrena. Irekita dago. Atril gainean suediar doinutxoaren partitura dago zabalik. Sarrerara ematen duen atea erdi irekita dago. Cordelia atzeko atetik sartzen da, Johani argibideak eman dizkiot horri buruz. Orduan batera ikusten ditu egongelatxo eta pianoa; gogorapena pizten zaio ariman, eta une berean Johanek atea zabaltzen da.

Ilusioa erabatekoa da. Egongelatxoan sartzen da. Gogoko du, ez dut dudarik egiten. Begiak mahaian pausatzen dituenean liburu bat ikusten du; une horretantxe Johanek hartzen du, nonbait gordetzeko bezala, aldi berean aipatuz: nagusiari ahaztuko zitzaion goizean egon denean. Horren bidez jakiten du Cordeliak lehenik eta behin goizean han egon naizela, eta ondoren liburua ikusten du. Apuleioren *Amor eta Psyche* ezagunaren itzulpen alemaniarra da. Ez da benetako lan poetikoa, baina ez luke izan behar ere, iraina da-eta neska bati benetako lan poetikoa oparitzea, horrelako une batean neska bera nahiko poetikoa ez balitz bezala inguruko gertaeretan ezkututzen den poesia bereganatzeko beste norbaiten gogotik pasa behar izan gabe. Arruntean batek ez du halakoez pentsatzen, baina halaxe da. Liburua irakurri du, eta horrenbestez xedea lortu da. Azkeneko aldiz irakurritako lekuan zabaltzen duenean, mirto adaska bat topatuko du, eta konturatuko da orrialdea markatzeko baino gehiagorako dagoela hor.

### Ene Cordelia.

Nola beldurrez? Elkarrekin gaudenean indartsuak gara, mundua baino indartsuagoak, jainkoak berak baino indartsuagoak ere. Badakizu behiala bizi izan zela lurrean arraza bat, gizakiak inondik ere, baina beren kabuz moldatzen zirenak amodio erotikoen elkartze intimoaren berri jakin gabe. Hala ere, indar handia zuten; hain indar handia, non zeruari eraso nahi izan zioten. Jupiterrek beldurra zienez, halako moldez banatu zituen non bakoitza bi bihurtu baitzituen, gizon bat eta emakume bat<sup>127</sup>. Batzuetan gertatzen bada maitasunak berrelkartu egiten duela garai batean elkartutakoa, horrela sortutako elkarketa Jupiter baino indartsuagoa da; orduan ez baitira banako bakoitza zen bezain indartsuak, indartsuagoak baizik, maitasunezko elkarketa are maila garaiagokoa delako.

Zure Johannes.

Irailak 24

Gau ezti da. Hamabiak laurden gutxi dira. Hiri-ateko zainaren tronpetak bedeinkapena zabaltzen du landetan barrena, eta Blegdam aldetik dator oihartzuna. Zaina hiri barrura sartu, eta Blegdam aldetik dator oihartzuna. Zaina hiri barrura sartu, berriro jotzen du tronpeta, eta oihartzuna are urrunagotik etortzen da oraingoan. Dena dago lo baketsuan, amodio erotikoen indar misteriotsuak, bil zaitezte bular honetara! Gau isila da; txori bakarti batek isiltasuna hausten du bere txioez eta hegalean astinduaz, soro lanbrotuen gainetik harresietarantz labaindu ahala. Bera ere elkaraldi goxoren batera doa inolaz ere: *accipio omen*!<sup>128</sup> Zein zorigaiztokoa den natura oro! Zerbaiten iragarpenak iruditzen zaizkit beti txorien hegaldiak, beren txioak, arrainen pulunpa alaiak uraren azaleran, beren desagerpena ur sakonetan, zakur baten zaunka urruna, orga baten kirrinka edo oin-hots batzuen oihartzuna han urruti. Gaueko ordu hauetan ez dut mamurik ikusten: lakuaren altzoan, ihintzaren musuan, lurraren gainetik bere besarkada emankorra ezkutatuz zabaltzen den lainoan, honetan guztian ez dut gertatu dena ikusten, gertatuko dena baizik. Dena da irudia, ni ere neure buruari buruzko mitoa naiz, ez al da ba mito gisakoa zita honetara honelako ziztuan abiatzea? Ni nor naizen garrantzirik gabea da; finitu eta iragankorra den oro ahazten da; eternala geratzen

<sup>127</sup> Platonen *Oturuntza*-n Aristofanesez egiten duen hitzaldiaz ari da. (14-15 atalak)

<sup>128</sup> "Iragarpena onartzen dut" (Zizeron, *De divinatione*, I, 103)

da bakarrik, amodio erotikoaren indarra, bere desira, bere gloria. Zein gozatua dudan arima, uztai tenkatu bat bezala, zein prest ditudan gogoetak, geziak gezi-ontzian bezala, pozoirik gabeak baina, hala ere, odolarekin nahasteko gai. Zein idartsu, osasuntsu eta alaia den nire arima, jainko bat bezain presentea.

Naturari esker zen polita. Eskertzen dizut, natura zoragarria! Ama batek bezala zaindu duzu. Mila esker zure arduragatik. Alferrik galdu gabea zen. Gizakioi eskertzen dizuet, hori zuei zor baitzizuen. Bere bilakaera nire lana izan da, eta laster gozatuko dut neure saria. Zenbat gauza bildu ditudan hurbiltzen ari den une honetan. Ez dut orain huts egin behar, ze mila deabru!

Oraindik ez dut zalgurdia ikusten. Zigorraren zartada aditzen dut; nire gurdizaina da. Zoaz bada ziztu bizian, zaldiak lehertuko badira ere; ez, ordea, gure xedera iritsi baino lehen.

---

### *Irailak 25*

Zergatik ezin du honelako gau batek gehiago iraun? Alektrionek<sup>129</sup> bere burua ahanzi ahal izan bazuen, zergatik ezin du eguzkiak horrenbesteko errukia izan? Baina orain dena amaitu da, eta ez dut inoiz gehiago Cordelia ikusi nahi. Neska batek dena eman duenean ahul bihurtzen da, dena galtzen du, zeren gizonarentzat errugabetasuna faktore negatiboa baita; emakumearengan, berriz, bere izaeraren funtsa osatzen du. Ezinezkoa da orain erresistentzia oro, eta maitatzea gauza zoragarria da erresistentziarik dagoen heinean bakarrik; hau amaitzean, ahuldura eta ohitura bilakatzen da. Ez dut berarekin izan dudan harremana gogoratu nahi: galdu egin du bere lurrina, eta pasa dira dagoeneko neska bat, maitalearen desleialtasuna medio, heliotropo<sup>130</sup> bihurtzen zen garaiak. Ez diot agurrik esango. Ez dago emakumeen negar eta erreguak baino gauza higuigarriagorik; dena aldatzen dute eta funtsean ez dute zentzurik. Maite izan dut, bai, baina aurrerantzean nire arimak ez du berarekin zerikusirik. Ni jainko bat banintz, Neptunok ninfa bati egin ziona egingo nioke: gizon bihurtu<sup>131</sup>.

Benetan mereziko luke jakiteak ea batek ihes egin ote lezakeen neska batengandik halako modu poetikoz non neskak, bere harrotasunean, irudikatuko bailukeen bera zegoela harremanaz aspertuta. Epilogo arras interesgarria izan liteke; berez eta kontrastez interes psikologikoa izan lezake, eta horretaz gain oharpen erotiko aberasgarriak horni liezazkioke bati.

Westport Connecticut, 1980

---

<sup>129</sup> Greziar mitologian Alektrion, Aresen laguna, lokartu egin zen Ares eta Afroditarren (erromarren Marte eta Venus) elkarketa jagon beharrean, eta Apolo eguzki-jainkoak eta Hefestok (erromarren Vulkano) huts egiten harrapatu zuten.

<sup>130</sup> Greziar mitologian Klytia ninfa Apoloz maitemindu zen, eta hau desleial izan ondoren, ekilore bihurtu zen ninfa.

<sup>131</sup> Greziar mitologian, Poseidonek (erromarren Neptunok) Kainis bere maitalea gizon (Kaineus) bihurtu zuen.